Psikologia Politikorako sarrera

Jose Valencia Garate



Udako Euskal Unibertsitatea

Psikologia politikorako sarrera

Jose Valencia Garate

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2005

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Jose Valencia Garate

ISBN: 84-8438-064-5
Lege-gordailua: BI-1405-05

Inprimategia: RGM, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Aranburu
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Aurkibidea

HITZAURREA. 9

1. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN KONTZEPTUA 13
   1.1. Sarrera 13
      1.1.1. Psikologia Politikoa diziplina gisa 14
      1.1.2. Psikologia Politikoaren jatorriak 14
   1.2. Psikologia Politikoaren instituzionalizatzea 16
   1.3. Psikologia Politikoaren definizio-arazoak 18
      1.3.1. Definizio garrantzitsuak 19
      1.3.2. Fenomeno psikologikoen eta fenomeno politikoen arteko loturak 21
      1.3.3. Ondorioak 22
   1.4. Psikologia Politikoaren dimentsio teorikoak 22
      1.4.1. Dimentsio metodologikoa 22
      1.4.2. Sentsibilitate sozialeko dimentsioa 23
      1.4.3. Gaitegi-dimentsioa 23

2. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN IKUSPEGI HISTORIKOA 25
   2.1. Sarrera 25
   2.2. Psikologia Politikoaren jatorriak: XIX. mendeko 2. erdialdea 26
   2.3. Lehen Mundu Gerrara arte. 28
      2.3.1. 1900-1910: irrazionaltasuna eta arrazionaltasuna: Lenin, Pareto, McDougall & Wallas 28
      2.3.2. 1910-1920: psikoanalisiaren agerpena 29
   2.4 Bigarren Mundu Gerrara arte. 30
      2.4.1. 1920-1930: psikoanalisiaren jarraipena eta konduktismoaren agerpena. 30
      2.4.2. 1930-1940: psikoanalisi kulturala, psikologia eta ideologia, eta arazo sozialen fokatzea 32
   2.5. 60ko hamarraldira arte 37
      2.5.1. 1940-50: Lasswel, boto-portaeraren azterketak; Gramsci, nortasun modala eta nazio-izaera; psikologiaren luzapena politikarekiko 37

2.5.2. 1950-1960: zientzia politikoa eta soziologia, sozializazioa politikoa, jarrerak, konformismoaren eta independentziaren arteko azterketa. 39
2.6. Psikologia Politikoaren instituzionalizaziora arte 44
2.6.1. 1960-1970: nortasuna eta sistema soziala, sozializazioa politikoa, *kontrol locus*a, anomia, eta ideologia, politikari profesionalak, nazionarteko harremanak, eta norabide berriak 44
2.6.2. 1970-1980: Psikologia Politikoaren loraldia diziplina gisa . 53

3. LIDERGO POLITIKOA 55
3.1. Sarrera: Lidergo politikoaren hiru ikuspegiak 55
3.2. Lidergo politikoa: psikologizazioaren eta mugapen kulturalaren artean. 57
3.2.1. Eremu politikoaren psikologizazioa. 57
3.2.2. Psikologizazioa *versus* mugapen kulturala: eredu elkarreragilea 58
3.3. Lidergo politikoa: politika alorreko liderra. 59
3.3.1. Lidergo politikoa eta antolakuntza-hierarkia 61
3.3.2. Lider politikoa subjektu gisa 63
3.4. Testuinguruko elementuak 69
3.4.1. Pertsona arteko ingurune hurbila: jarraitzaileak eta liderrarekiko harremanak 71
3.5. Liderra aldaketa sozial eta politikoaren eragile gisa. 72
3.6. Iruzkinak 74

4. SOZIALIZAZIO POLITIKOA 77
4.1. Sarrera 77
4.1.1. Gizakia animalia politikoa da izatez 77
4.1.2. Sozializazio politikoaren izaera 79
4.1.3. Sozializazio politikoaren interesa: teorikoa edo politikoa? . 81
4.1.4. Gizarteari buruzko kontzepzioak eta sozializazio politikoaren ereduak. 82
4.2. Sozializazio politikoaren prozesua 86
4.2.1. Ikerkuntzaren garapen historikoa. 86
4.2.2. Sozializazioaren edukien egonkortasun eta iraunkortasuneko gaiak 90
4.2.3. Sozializaziorako agenteak 94
4.3. Eredu teorikoak. 97

4.3.1. Konformitate-legitimazioaren ereduak. 97
4.3.2. Desberdintze eta eraberritzearen ereduak. 99
4.4. Etorkizunaren ikuspegiak 106

5. PARTAIDETZA POLITIKOA 109
5.1. Sarrera 109
5.2. Partaidetza politikoaren kontzeptua 110
5.2.1. Partaidetza politikoaren motak. 110
5.2.2. Partaidetza politikoaren modu desberdinen arteko erlazioa. 113
5.3. Partaidetzari buruzko ikuspegi teorikoak 116
5.3.1. Azterketa soziodemografikoa. 117
5.4. Aldagai psikosozialak 123
5.4.1. Herritar beharra, alderdiarekiko eta taldearekiko identifikazioa 123
5.4.2. Alienazio politikoa eta erlazionaturiko hainbat kontzeptu. . 127
5.5. Testuinguru soziopolitikoa 133
5.6. Ondorioak 135

6. GABEZIA ERLATIBOA: INJUSTIZIA ETA EKINTZA KOLEKTIBOARI BURUZKO TEORIA 139
6.1. Sarrera 139
6.2. Gabezia erlatiboaren teoria 140
6.3. Gabezia erlatibo motak 141
6.3.1. Pertsona barneko gabezia erlatiboa: iraultzen psikologia. . . 142
6.3.2. Pertsona arteko gabezia erlatiboa: psikologia indibidualista 147
6.3.3. Talde arteko gabezia erlatiboa: psikologia kolektiboa 151
6.4. Ondorioak 161

7. IRITZI PUBLIKOAREN DINAMIKAK 165
7.1. Sarrera 165
7.2. Iritzi publikoaren arazoak 165
7.2.1 Ideiaren jatorriak 166
7.2.2 Iritzi publikoaren jaiotza 167
7.2.2.1. Esfera publikoaren sorrera. 168
7.2.2.2. Iritzi publikoaren esanahian ari diren zalantzak . . . 168
7.2.2.3. Iritzi publikoa eta gehiengoaren gobernua 169
7.2.3. Iritzi publikoa ikasketa-objektu gisa 170
7.2.4. Iritzi publikoan dirauten arazoak 171

7.3. Publikoaren kontzeptua 173
7.3.1. Jendetza, publikoa eta masa 173
7.3.1.1. Jendetza 173
7.3.1.2. Publikoa 174
7.3.1.3. Masa 175
7.3.2. Gai arazotsuak eta publikoak 176
7.3.2.1. Publikoaren garapenaren faseak 176
7.3.2.2. Aktoreak eta behatzaileak 176
7.3.3. Publikoen inguruan 177
7.4. Iritzi kontzeptua 179
7.4.1. Iritziak eta jarrerak 179
7.4.2. Iritzien oinarri psikologikoak 181
7.4.3. Arazo metodologikoak 183
7.5. Iritzi publikoa ala irudikapen sozialak? 185

IKERKETA PSIKOLOGIA POLITIKOAN 187

8. NAZIO-IDENTITATE GATAZKATSUAK ETA HIZKUNTZ ESTRATEGIAK KOKAPEN-ERREMINTA GISA HAUR ETA NERABEENGAN 189
8.1. Sarrera: Nazio-identitatea eta hizkuntza 189
8.2. Lehenengo ikerketa: estatuen eta gutxiengo-egoeran dauden taldeen identitateak 198
8.3. Bigarren ikerketa: nazio-identitate gatazkatsuak eta hizkuntza kokapen-estrategia gisa 200
8.4. Ondorioak 208

9. POLEMIKA PUBLIKOA ETA GERTAERA POLITIKOEN OROIMEN KOLEKTIBOA 211
9.1. Sarrera 211
9.2. Lehenengo ikerketa: belaunaldi-kohortea eta gertaera politikoei buruzko oroimen askea: Gerra Zibila eta Trantsizioa 218
9.3. Bigarren ikerketa: belaunaldi-kohortea, eztabaida publikoa eta Gerra Zibilari buruzko oroitze-prozesuak 220
9.4. Ondorioak 224

10. PROZEDURAZKO JUSTIZIA ETA HIZKUNTZAREN ERABILERA: AKUSATUAREN ETA DEFENTSAREN ROLA EPAI-TESTUINGURUAN 227
10.1. Sarrera 227
10.2. Metodoa 229
10.3. Emaitzak 230
10.4. Ondorioak 231

11.EZAGUTZA POLITIKOAREN TRANSMISIOA: OINARRI SOZIAL ETA LINGUISTIKOEN AZTERKETA 233
11.1. Sarrera 233
11.2. Lehenengo ikerketa: komunikabideek erabilitako estrategia linguistikoak talde arteko testuinguru gatazkatsuan 239
11.3. Bigarren ikerketa: komunikabideek erabilitako estrategia linguistikoak talde arteko testuinguru “baketsuan” 242
11.4. Ondorioak 246

BIBLIOGRAFIA 251

Hitzaurrea

Hemen aurkezten den idazlana ideia garbi batekin sortu zen, alegia, Psikologiaren eta Politikaren arteko loturan ari diren teoria, kontzeptu, metodologia, fenomeno, ekite-eremu eta eztabaidei sarrera ematea.

Orain dela 14 urte, Psikologia Politikoa zedarritzerakoan, Margaret Hermannek galdetu zuen, ea moda iragankorra, ilusioa ala jakintza-alorra zen. Batzuetan badirudi moda iragankorra dela Psikologia Politikoaren jarduera, zeren, askotan, mementoko arazoei ekiten baitiete Psikologia Politikoan ari direnek. Ilusioa ere badirudi zeren, askotan, Psikologia Politikoan ari direnek, diziplinartekotasuna dela eta, pentsatzen baitute politikaren dinamikak ulertuko dituztela. Azkenik, jakintza-alorra ere badirudi diziplinaren instituzionalizazioak frogatu zuen bezala. Autoreak, hala ere, alorrean dagoen adostasunik eza dela eta, aurreko fokapenak baino gehiago *ikuspegia*rena hobesten zuen, hau da, definizio hertsiak eman beharrean, Psikologiaren eta Politikaren arteko harremana lantzeko fokapen desberdinak onartzen baitzituen.

Beraz, Psikologia Politikoari ekitea, zenbaitetan, Proteo jainko greziarra harrapatzea bezain zaila da. Batzuen ustez, politikaren alorra ulertzeko prozesu psikologikoak erabiltzea da Psikologia Politikoa. Beste batzuen ustez, aldiz, politikari profesionalen nortasun-ezaugarrien edo banakoen erabaki-hartzeen azterketa. Badira ere, Psikologia Politikoaren jarduera egitura politikoek gizabanakoen prozesu psikologikoetan duten eraginaren azterketan kokatzen dutenak. Bada ere, dinamika kolektiboetan bere lana kokatzen duen autorerik, eta dinamika indibidualetan ere bai. Hermann-ena bezalakoa izango da gure erantzuna, fokapen bakarrean oinarritu beharrean ikuspegiarena hobetsiko dugu eta Psikologia Politikoaz hauxe ulertuko dugu: prozesu psikologikoen eta dinamika politikoen arteko harremanetan ari den jarduera.

Gainera, idazlan hau, zuzen-zuzenean, Psikologia lizentziako ikasleei zuzenduta dago eta, Psikologia Politikoarenak diren berezko zenbait gai ez ditugu ukituko, hain zuzen ere, horretarako ikasgaiak badirelako: Gatazkak Gainditzeko Estrategiak, Mugimendu Sozialak, Partaidetza Komunitarioa, Psikologia Judiziala, eta abar.

Idazlan hau, beraz, 8 ataletan dago banatuta. Lehenengo bietan, Psikologia Politikoa zedarritu nahi dugu, bai kontzeptualki lehenengo gaian, bai eta historikoki

ere bigarrenean. Hirugarren eta laugarren gaietan, Psikologia Politikoaren bi prozesu funtsezko lantzen dira, alegia, *lidergo politikoa* eta *sozializazio-prozesua*. Bosgarren, seigarren eta zazpigarren gaiak ekintza politikoaren inguruan ari dira; *partaidetza politikoa*, *iraultzen teoria* izan den *gabezia erlatiboaren teorizazioa* eta *iritzi publikoa*ren dinamikak. Azken gaietan saiatzen gara ilustratzen Psikologia Politikoaren inguruan eginiko lau alor hauetako ikerketak, alegia, *identitate nazionala eta hizkuntza-kokapenak* lehenean, *oroimen kolektiboa* eta *eztabaida publikoa* bigarrenean, *hizkuntzaren erabilera testuinguru judizialean* hirugarrenean eta *ezagutza politikoaren transmisioa* komunikabide eta hizkuntza-erabileraren bitartez laugarrenean.

Azkenik, esan beharra dago, idazlan honen garapenak zenbait tokitatik jaso izan duela eskertu beharreko laguntza. Batetik, EHUko Euskara Errektoreordetzatik, 2002ko Euskarazko Testugintza Sustatzeko Diru-Laguntzatik, hain zuzen ere. Aurreko hori laguntza nagusia izan bada ere, idazlan honek ezin ditu ahaztu, batetik, EHU-109 231/HA-8094/2000 eta Gizarte-Arazoaren Ministerioko Emakumearen Institutuko I+D+I 120/03 ikerketa-proiektuen babesa, azken hiru ikerketak idazten lagundu dutelako, eta, bestetik, Europar Batasuneko INTAS: OPEN-97-1363, lehen ikerketaren berridazketan lagundu izan duelako. Gainera, idazlanak ezin ditu ahaztu, batik bat ikerketa-alorrean parte hartu izan duten lankideak: I. Andonegi, E. Esparza, eta L. Otazu, ikasle ohiak; M. Larrañaga doktoretza-ikaslea; eta unibertsitate desberdinetako irakaslekideak diren F. Elejabarrieta, L. Gil de Montes, G. Ortiz, Santi Perera, Luixa Reizabal, M. Villarreal eta W. Wagner, horien laguntzarik gabe idazlan hau egitea ez baitzen posible izango.

1. Psikologia Politikoaren kontzeptua

1.1. SARRERA

Esan daiteke orain dela hogeita hamar bat urtetik hona hitz egiten dela *psikologia politikoa*z, eta ordutik etiketa horren izenpeko literatura zientifikoa ere agertuz joan da. Beste diziplinekin gertatzen den moduan, etiketa berria bada ere, edukiari eta ekarpen gehienei dagokienez, jatorri zaharragokoa da. Dena den, Psikologiaren esparruaren barneko etiketa berria erabiltzeak esanahi eta xede jakinak izan behar ditu eta diziplina hau osatzen duten edukiak —orain arte, beste jakintza-alor eta beste diziplinetan barreiaturik izan direnak— harantzago doaz etiketa berriaren pean.

Ez da gauza berria esatea diziplina baten kontzeptuaz jabetzeko eta berori zedarritzeko bide bat hark *ukitzen dituen gaiak berrikustea* dela, baita *adituek egiten dutenari behatzea* ere. Halere, bide horrek baditu hainbat arazo. Esate baterako, psikologia politikoari buruzko eskuliburuen atalak irakurtzea litzateke bide bat. Hala, konturatuko gara hasiera batean pentsa genezakeena baino historia konplexuagoa duela. Izan ere, psikologia politikoaren ardurek politikarien portaera indibidualaren azterketatik identitate kultural eta etnikoen ondorio sozialetaraino jorratzen dute. *Nortasuna*ren azterketaz arduratzen da psikologia politikoa, portaera politikoari lotuta dagoen heinean; hala ere, sozializazio-prozesuetan gertatzen den *kultura politikoa*ren jabetzeaz ere arduratzen da. Diziplina honen ikerketa-lerro nagusienetariko bat boto-portaera izan da, egun, edozein partaidetza politiko motaraino hedatuta dagoena. Partaidetza politikoaren portaeraren barnean, instituzionalizazio-maila apalagoa duten jokabideak ere badaude, mugimendu sozialak esaterako, zenbaitetan biolentziaren erabilera darabilten partaidetza-moduak hartzen dituztenak. Horren ondorioz, gatazkak erabakitzeko negoziazio politikorako estrategiak aztertzea ere beharrezkoa da. Ideologia politikoaren dimentsio psikologikoaz ere arduratzen da psikologia politikoa, mentalitate kolektiboen garapen historikoa barne. Gainera, egungo zenbait erakunderi atxikirik dauden prozesu psikologikoez ere arduratzen da, adibidez sistema judizialetan (herri-epaimahaiak) edo sistema politikoetan (boterea oinarrizko motibazio gisa).

Hala ere, gaiak edo psikologo politikoen jarduerak berrikusteak ez digu batere bermatzen psikologia politikoaren esanahi osoa eta norabide egokia hartzea. Nolabait esateko, horrek psikologia politikoak *zer izan nahi duen* esaten digu,

baina ez du agerrarazten *zer izan nahiko lukeen*, zein den albokoekiko erlazioa edo zergatik diren ikertzaileen arteko desadostasun teorikoak.

1.1.1. Psikologia Politikoa diziplina gisa

"Diziplina berezia den ala ez" eztabaidatzea izaten da ikerketa-bide berri baten lehen arazoetako bat. Eztabaida-mota hau jakintza-alor berrien gaztetasunaren ezaugarria da eta, oro har, denbora pasa ahala desagertzen da. Esate baterako, Psikologiaren eta Filosofiaren arteko eztabaidak gogora ditzagun, psikologia zientifikoaren sorreran. Hala ere, arazo horrek, zenbait ondorio praktiko izan arren, ez du garrantzi handirik, psikologia politikoa diziplina den ala ez garrantzi teorikorik gabeko kontua baita egun.

Zientzia modernoen aldetik, edo bestela esan, zientzia positiboen aldetik, jakintza-alorrek hierarkizatuta eta elkarri lotuta egon behar dute (adib. Fisika Kimikaren aurrekoa da, Kimika Biologiarena, eta abar). Horrela, jakintza zientifikoaren corpus antolatua eratzen da, diziplina batetik besterako jakintzaren norabidea ordenatua izan dadin. Diziplina berri bat agertzeak doikuntza orokorreko lana eskatzen du, zientziaren egoitzan desoreka eta jarduera-gatazkak ekiditeko.

Gaur egun, hala ere, jakintza zientifikoaren birplanteamenduak ez dira horren estuak eta jakintzaren hierarkia, adarkatzea eta metatzea gutxiago baloratzen dira zientziaren egoitza bateratuan. Berez, 70eko hamarkadatik aurrera, *premia sozialeko arazo*ei buruzko ardura areagotu egin da eta zientziaren eraikuntza teorikoari buruzkoa, aldiz, urritu egin da. Horrela, diziplina berrien sorkuntzan, gizartearen arazoak konpontzeko ardurak justifikazio handiagoa ematen du eta irizpide teoriko "zaharrak" urriagoa. Psikologian, adibidez, inolako arazorik gabe lantzen dira osasun-psikologia, ingurune-psikologia, psikologia onkologikoa, eta, zergatik ez, psikologia politikoa bera ere bai.

Ez da erraza erabakitzea, psikologia berri horiek diziplina berriak diren —ahalmen teoriko, prozedurazko eta edukizkoa izanik— ala gizartean agerikoak diren gai psikologiko soilak. Positibismoaren irizpideak edo eraikuntza sozialarenak aukeratu beharko ditugu *diziplina* zer den ulertzeko.

Hala ere, eta zenbaiten lasaitasunerako, psikologia politikoa, funtsean, psikologia sozialetik sortzen dela esan daiteke, nahiz eta beste alor batzuekin erlazionaturik egon, hala nola, nortasunarekin eta zientzia politikoekin. Beraz, psikologia politikoa psikologia sozialaren alor orokorraren barnean kokatzen da eta bertan ditu bere ikasketak, bibliografia eta *eskuliburuak*.

1.1.2. Psikologia Politikoaren jatorriak

Nahiz eta diziplina honen oinarri historikoak hurrengo kapituluan landuko ditugun, kontzeptua zedarritzeko, zenbait orientabide teoriko eta gertakizun sozial

aipatzea beharrezkoa zaigu. Izan ere, gertaera horiek psikologia politikoaren oinarrian daude, ez iturri intelektual edo teoriko gisa, baizik eta diziplina honen agerpena errazten duen plataforma sozial gisa.

Alde batetik, psikologia politikoa izenez berria bada ere, Psikologiaren garai klasikoetan aurrekari nominalak badituela gogoratu behar dugu. Esate baterako, jadanik 1924an, *Psikologia Sozial eta Politikoa* zen F. Allport-ek Syracuse-ko Unibertsitatean izan zuen katedraren izena; edo 1934an *Psikologia Politikoa eta Sexu Ekonomiaren Aldizkaria* zen W. Reich-ek sorraraziriko aldizkaria; edo *The psychology of politics* zen Eysenck-ek 1954an argitaraturiko liburuaren izena. Adibide gehiago ere badago, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

Beste aldetik, Psikologia, bere osotasunean, gai politikoez egoki arduratu ez delako iritzi ezaguna argitu beharra dago. Baieztapen hori Greenstein-en (1973) "Political psychology. A pluralistic universe" izeneko artikuluan agertzen da. Autore honen ustez, psikologoak jokabidea azaltzeaz arduratzen dira, testuinguru soziopolitiko jakinetatik kanpo. Littman (1961) aipatuz, Psikologia sozialki indiferentea dela ondorioztatzen du Greenstein-ek. Aurrekoa egia bada ere, onartu beharra dago psikologo asko garaiko arazo politikoez arduratu izan direla, eta arazo horietan euren teoria eta ikerketak aplikatu dituztela. Horren adibide lirateke, Tolman-en (1924) gudari buruzko irakurketa psikologikoaren liburua —*Drives toward war*—, Skinner-en zenbait publikazio —*Walden Dos*— eta ikerketa, edo Osgood-en (1962) arma-lehiaketa geldotzeko estrategia politikoei buruzko lana —*An alternative to war or surrender*—. Oro har, garrantzi handiko psikologo gehienek izaera politikoko ekarpenak egin dituztela esan daiteke; nahiz eta historialari gehienak psikologiaren eta politikaren arteko loturak ezkutatzen oso arretatsuak izan. Horren zergatia ondoko tesiaren alde egitean datza: zientzia-lana gauza bat da eta bestea, oso bestelakoa, zientzialarien garaiko politikarekiko inplikazioak. Billig-ek (1982) ildo horretatik idatzi zuen ideologiaren jatorri liberalen liburua.

Diziplinaren aurrekari nominalak eta Psikologiaren inplikazio sozialaren arazoa alde batera utzirik, 70eko hamarkadako psikologia politikoa jarraian azaltzen diren lau ikasketa-gairen inguruan sortzen da. Lehenengoa, Lasswell-en ildotik (1934) doan *Motibazio Pertsonal*en ikasketa da, zeinak dinamika politikoetan prozesu psikologikoen eragina aztertu baitzuen. Bigarrena, *jarrera sozial*en inguruko ikerketa da, zenbait hamarkadaren tradizioa izateaz gain, arazo politikoen ikuspegi psikologikotik eginiko azterketa dena. Hemen aipa daitezke Thurstone-ren (1934) kontserbadorismo- eta nazioartekotasun-lanak, edo Newcomb-en (1943) jarrera politikoen azterketa. Hirugarrena *nazismo eta genozidio* fenomenoa aztertzeko II. Mundu Gerra inguruan egin ziren ikerketak dira. Hemen, Adorno eta kolaboratzaileen (1950) *Nortasun Autoritarioa*ren ekarpena kokatzen da adierazpide. Laugarrena, *boto-portaera*ren dimentsio psikologikoei buruzko ikerketa da, Mendebaldeko sistema demokratikoen oinarrietariko bat dena (Campbell *et al.,* 1960).

Dena den, lau ikerlerro hauek ez dira, berez, psikologia politikoaren edukirik funtsezkoena eta berezkoena; aldiz, nahiko indar soziala dute diziplina berri honen sorrera justifikatzeko, nahiz eta haren esparrua zabalagoa den.

Azkenik, psikologia politikoak duen beste arazo bat, sorreran agertzen ez zena, *'politikoa'* hitzaren adierazpena eta esanahia da. Esanahi hertsia emanez gero, psikologia politikoa politikari profesional, hauteskunde, ekonomi edo administrazio-portaerez baino ez litzateke arduratuko, beste fenomeno politiko asko alde batera utzirik.

1.2. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN INSTITUZIONALIZATZEA

Ikasketa ofizialak estatu politiko jakin baten agiri bihurtzea da diziplinen ezaugarri soziologikoetariko bat. Horrekin batera, ikasketa-plangintzei buruzko eztabaidak, *eskuliburuak*, liburuak, elkarte profesionalak, aldizkari zientifikoak eta abar ari dira diziplinen inguruan. Horren guztiaren bitartez, diziplinaren instituzionalizazioa gertatzen da, hain zuzen ere.

Zer esan daiteke, bada, psikologia politikoaz? Lehenik, esan, instituzionalizazio-prozesuak ezin direla orokortu; alegia, herrialde guztietan ez dira berdin gauzatzen. Diziplina honi dagokionez, instituzionalizazioa psikologia angloamerikarrari oso lotuta dago.

Bigarrenik, kontuan izan behar ditugu diziplina honen eta besteen arteko loturak, zientzia-mugatzearen arazoarengatik ez ezik, arazo sozialei heltzeko ikuspegiarengatik ere. Horrela, psikologia politikoak psikologia sozialarekin, batik bat, ditu erlazioak (Ibañez, 1983), baina Psikologia, Soziologia, Zientzia Politiko, Ekonomia eta Antropologiarekin (Ward, 2002) ere bai. Gainera, erlazio hauek ulertzeko erak esanahi desberdina emango dio diziplinari.

Atal honetan arazo hauei helduko diegu. Lehenengo psikologia politikoaren instituzionalizazioarekiko harremanez arduratuko gara eta, ondoren, funtsezko irakurgai eta *eskuliburu*ei helduko diegu.

Hasteko, pentsa daiteke psikologia politikoak oso erlazio estuak dituela Zientzia Politikoekin. Halere, esan beharra dago praktikan ez dela egia. Fenomeno hau, hein batean behintzat, alboko diziplinek —psikologia, psikologia soziala edo soziologia— bitartekotza-rola betetzen dutelako gertatzen da. Ikus dezagun, bada, Greenstein-ek (1973) nola adierazten duen arazo hau.

Greenstein-ek dioen bezala, Zientzia Politikoen departamentuak Zuzenbide eta Historia fakultateetan sortu ziren eta Filosofian eta antzeko jakintza-alorretan ere bultzatuak izan ziren. Psikologia, aldiz, Natur Zientzietan sortzen da, bizitzaren zientzietan alegia. Hain zuzen ere, Filosofia Psikologiaren oinarrian bazegoen ere, Biologiak eragin handiagoa izan zuen. Psikologia sozialaren rolari dagokionez,

antzekoa esan daiteke, zeren psikologia sozial psikologikoak gizabanako biologikoen dimentsio sozialak aztertzen baititu eta psikologia sozial soziologikoak psikologia alboratu egiten baitu.

Ikuspegi honek ondorioak ditu psikologia politikoan. Psikologia sozial soziologikoan kokatzen bada diziplina hau, Zientzia Politikoen inguruan ari izango da, eta iritzi publikoaren fenomeno politikoei dagokienez, mekanismo psikologikoak aztertuko ditu. Psikologia sozial psikologikoan kokatzen bada, ordea, Zientzia Politikoekin harreman urria izango du eta gizabanakoaren jarduera politikoaren inguruan ari izango da, jarduera hori behar biologikoak xede publikoetara zuzenduz.

Dena den, arestian esandakoa egia bada ere, azken urteetan aldatzen ari da joera hau, nolabait, ahazturik zeuden europar soziologia marxistaren ekarpenez ohartzen ari delarik (Giddens, 1984, 1991; Bourdieu, 1980). Edonola ere, psikologia politikoaren instituzionalizazioaren garaitzat 70eko hamarraldia hartzen da.

Psikologia politikoaren lehen *eskuliburua* 1973an argitaratu zen, J. N. Knutson-ek zuzendua. Bertan, 15 ikertzailek hartu zuten parte eta psikologia politikoaren alor nagusiak laburtzen eta adierazten saiatu ziren. *Eskuliburu* hau 5 kapitulutan egituratuta zegoen. Lehenengoan, *Oinarrizko kontzeptu psikologikoak* lantzen ziren, nortasuna, jarrera politikoak eta uste politikoak hain zuzen. Bigarrenean, *Orientabide iraunkorren heziketa eta eustea* lantzen zen, sozializazio politikoa, nortasun autoritarioa eta anomia nahiz alienazioa barne. Hirugarrenean, *Gizabanakoaren eta politikaren arteko loturak* lantzen ziren: lidergoa, agresioa, biolentzia, iraultza, guda eta nazioarteko politika. Laugarrenean, *Ikerkuntza-metodoak* aztertzen ziren, psikobiografiak, inkesta politikoak, ikerkuntza esperimentala, simulazioa eta teknika proiektiboak, hain zuzen ere. Azkenik, *Egungo ikuspegiak* lantzen ziren, zeinetan psikologia politikoaren etorkizunerako iradokizunak ere ematen ziren. Idazlan hau funtsezkoa izan zen psikologia politikoaren alorrerako.

Urtebete beranduago, W. Stone-k (1974) lehen testuliburua argitaratu zuen, osoa berak egina. Aurreko liburutik bereiziz, idazlan honen helburua ez zen diziplina honen alorrak eguneratzea. Autore honek, aldiz, psikologia politikoaren ikuspegi bakarra eman zuen, Psikologian hezi nahi zutenek portaera politikoa uler zezaten.

1979an *International Society of Political Psychology* izeneko lehen elkarte zientifikoa eratu zen, Knutson-en lanari lotuta. Elkarte honek *Political Psychology* aldizkaria ere argitaratu zuen. Gerora areagotu ziren gainerako testu, aldizkari eta *eskuliburu*en argitaldiak.

Halere, badaude beste bi idazlan aipagarri. Lehenengoa S. L. Long-ena (1981) da, jadanik 1979an *Micropolitics* aldizkaria eratu zuena. Long-en idazlanak 5 liburu ditu eta hurbilago dago soziologia politikotik Psikologiatik baino.

Bigarren lan aipagarria M. Hermann-en (1986) *eskuliburua* da, hogei adituk idatzia eta lau atalekoa. Lehenengo atala *Gizakiak animalia politiko gisa* gaiaren ingurukoa zen; bertan, portaera politikoaren oinarri biologikoak, ideologia politikoa, iritzi publikoa, usteak eta psikohistoria lantzen ziren. Bigarrena *Erabaki Politikoa*ri buruzkoa zen, lidergoa, presidenteen ikasketak, gatazka eta nazioarteko harremanak landuz. Hirugarrenean *Ingurune Politikoa* lantzen zen, sozializazio politikoa, uste-sistemak, protesta-mugimenduak eta terrorismo-gaiak agertuz. Azkenik, *Alorraren inguruko mundu-ikuspegia* lantzen zen, Latinoamerikan, Europan eta Asian psikologia politikoaren egoera aztertzen zela. Gainera, Hermann-ek bost printzipioren arabera definitu zuen alorra: 1) fenomeno psikologikoen eta prozesu politikoen arteko elkarrekintza; 2) arazo sozialei erantzunez eginiko ikerkuntza; 3) testuinguruaren garrantzia; 4) bai prozesuen bai ondorioen garrantzia; eta 5) askotariko metodologiarekiko tolerantzia.

Berriki, Deutsch eta Kinnvall-ek (2002) 8 alorretan banatu dute psikologia politikoaren eremua zeina gizabanakoa aktore politiko gisako ikerkuntzatik giza garapena eta ekonomia politikoaren azterketaraino hedatzen baita.

Bi ondorio atera daitezke hemendik. Lehenengoa, psikologia politikoa diziplina gisa 70eko hamarkadan sortu zela. Hala ere, psikologia politikoaren ekarpenak aldi hartan egin zirela pentsatzea akatsa da, zeren aldez aurretik alor hauek landuak izan baitziren (Grezia zaharrean, Ilustrazioko pentsalariek, filosofia sozialean, eta abar.). Bigarren ondorioa da, oinarrizko bibliografia badagoela, nahiz eta hazten ari den jarduera izan.

1.3. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN DEFINIZIO-ARAZOAK

Hemen psikologia politikoaren alorra definitzeko hainbat etiketa landuko dugu. Dena den, ez zaigu interesatzen definizio hobea ala okerragoa egitea, baizik eta eztabaida honen azpian dauden elementuak agerraraztea. Garbi dago 1970. urteaz geroztik diziplinaren kontzeptua garatu zela, baina aldaketa hau garaiko funtsezko arazoetan eta garaiko dimentsio kontzeptualetan gauzatu zen.

Diziplina baten definizioarekin jokoan jartzen dena ez da bere jakintza-alorra zedarritzea, edo nahiago bada, bere ikasketa-objektua zehaztea, baizik eta ikasketa-alorreko etorkizuneko garapena eta iraganeko ekarpenen berrirakurtzea. Jakintza-alorraren inguruan dauden ageriko hitz biak *Psikologia* eta *Politika* dira eta, berez, nahiko konplexuak dira anbiguotasunik gabe erabiltzeko. Lehenengoa bigarrena baino ardura gutxiagokoa da, psikologoen artean ari baikara. Halere, psikologia politikoak esanahi zeharo desberdina du Psikologia gogamenaren azterketatzat ala portaeraren azterketatzat harturik, edo ikusmira psikoanalitikotik ala ikuspegi eraikitzailetik harturik, Psikologiaren ikuspegi kognitibistatik ala konduktistatik azterturik.

Hala ere, garbi dago Psikologia gizabanakoen inguruan ari dela, bere motibazio, oroimen, ezagutza edo interakzioekin; hau da, Psikologiak indibidualismoaren alde egiten du. Psikologoek askotan banakoaren ikuspuntua hartu izan dute inolako hausnartzerik gabe, batetik, ikuspegi biologizista eta, bestetik, metodologia introspektiboa Psikologiaren jatorrian baitaude.

Erabaki hori hartzean beste tradizio psikologikoak alboratzen dira. Esate baterako, Wundt-i jarraituz, gizabanakoaren egitura psikologikoa jendearen elkarren arteko ekintzaz sorturiko aldaketa ebolutibo eta historikoen emaitza da, alegia, esperientzia kolektiboaren emaitza da; gizabanakoaren azterketatik, ordea, ezin diogu heldu analisi-mota honi (Danziger, 1983). Beraz, psikologia indibidualak edo kolektiboak orientabide desberdinak dituzte psikologia politikoan, ikuspegi desberdinak ematen dituztelako. Hala ere, ikusiko dugunez, *politika* hitzak zalantzagarritasun konplexuagoak adieraz ditzake psikologia politikoaren alorrean. Hasierako laborategiko psikologiari egotzi zitzaion, ezen gizaki heldu eta normalen fenomeno kontziente gisa soilik aztertzen zuela. Era berean, psikologia politikoari leporatu izan zaio, egungo Mendebaldeko demokrazien jardueraz baino ez aritzea, alegia, nolabaiteko normaltasuneko garaietan Mendebaldeko erakunde, legegile eta administratzaileez arduratzea (Davies, 1973).

Nolabait esateko, psikologia politikoa prozesu psikologikoen eta dinamika politikoen arteko loturaz arduratzen den diziplina da. *Psikologia* ekintza sozialaren azterketa litzateke (hau da, motibazioa, egozpena, oroimena, esanahia ematea, elkarrekintza, eta abar), baina, jakintza honen barnean zenbait sentsibilitate dago, besteak beste, indibidualtasuna vs kolektibotasuna, historizismoa vs aktualismoa eta barne-tentsioak vs kanpo-tentsioak. *Politika*, bestalde, gizarte, estatu edo demokraziaren barnean egiten diren jardueren azterketa litzateke: politikariena, herritarrena, instituzioena, eta abar. Hemen ere, hainbat sentsibilitate daude eta, nolabait esateko, 3 ikuspegi aurkitu izan dira: 1) politikarien jarduerak (Lasswell, 1930); 2) egunerokotasuneko botere-desorekak (Tilly, 1996; Philips, 1991); 3) edo Estatuaren barnean egiten diren jarduerak vs egunerokotasuneko botere-desberdintasunak vs ondorio soziala duten jarduerak aztertzea (Martin Baro, 1991).

1.3.1. Definizio garrantzitsuak

Arestian aipaturiko arazo batzuk psikologia politikoaren definizioetan zehar islatzen direla ikusiko dugu. Bestalde, definizio nagusiak berrikusteak diziplinaren egungo egoerara hobeto eta errealtasun-maila handiagoaz hurbiltzen ahalbidetuko gaitu.

Autore batzuek ez dute nahi izan, definizioa ematerakoan, psikologia politikoaren jakintza-alorra mugatu, nahiz eta euren kontzepzioa zeharka agertu duten. Knutson-ek (1973) dioenez, psikologia politikoa diziplinarteko ahalegina da, eta portaera-zientziek emaniko jakintza giza behar kritikoetara zuzentzean datza.

Horrela hobeto ulertzen da ondoko esaera zaharra, "politika, bizitza hobea lortzeko bidea da". Definizio honek diziplinaren jakintza-alorra oso argi mugatzen ez badu ere, bi alderdi nabarmentzen ditu. Batetik *diziplinartekotasuna*ren ezaugarria dugu, diziplina berezia baino, zenbait diziplinaren xede komun gisa agertzen baita. Bestetik, psikologia politikoaren ezaugarri *terapeutikoa* dago, giza bizitzaren hobekuntza nahi baitu.

Greenstein-en (1973) arabera, bestalde, psikologia politikoak bi erreferentziagune ditu: batetik, giza portaera politikoaren oinarri psikologikoak eta, bestetik, politikaren azalpenari ekiteko jakintza psikologikoaren jarduera akademikoa. Beraz, Greenstein-en ustez, jarduera politikoak alderdi psikologikoak ditu, psikologiari dagozkionak. Hau da, psikologia politikoa izango litzateke aztergai bati (politikari) jadanik ezarria dagoen jakintza-corpusa (Psikologia) aplikatzea.

Aurrekoak baino landuagoa da Stone-ren definizioa. 1974ko idazlanean indibidualistatzat hartzen zuen bere kontzepzioa eta maizago erabiltzen zuen *politikarien* edo *politikaren psikologia* adierazpena, zuzenagoa den *psikologia politikoa* adierazpena baino. 1981eko idazlanean joera hori aldatu eta ondokoa adierazi zuen: «Politikaren psikologia gizabanakoaren interesei dagokie, bere kontzepzio, erreakzio eta esperientzia eta jokabide politikoaren aurrean ematen diren erantzunei» (15. or.).

Jadanik Lasswell-ek (1930) gizabanakoaren ezarpen psikologikoak azpimarratuak zituen bere definizioan: «Gizaki politikoa motibo pribatuen ekoizpena da, motibo horiek, interes publikoaren aitzakiaz, objektu publiko batera zuzendu eta arrazionalizatzen direlarik» (75-76. or.).

1980an zertxobait aldatu zuen bere definizioa. Bere indibidualismoak bertan badirau, baina ahulago. Bertan, aktore politikoa ikasteaz gain, sistema politiko eta gertakizun politikoen ondorioak ere —nahiz eta gizabanakoarenganako efektutzat hartu— ikas daitezkeela aldarrikatu zuen. Hona hemen bada, psikologia politikoak, era sakon batean ulertua izateko, kontuan izan beharko lukeena: 1) jokabide politikoan prozesu psikologikoek egiten duten ekarpena eta 2) sistema eta jazoera politikoen ondorio psikologikoak.

Beraz, hemen jadanik agertzen da Psikologiaren eta Politikaren arteko noranzko biko erlazioa. Noranzko bietan gizabanakoaren izate indibiduala azpimarratzen da, gizabanakoa baita analisi-unitatea.

Hermann-ek (1986c) ere kontzeptu bien arteko noranzko biko erlazioa azpimarratzen zuen, elkarren arteko ezkontzaren metafora erabilirik. Hain zuzen ere, psikologia politikoa fenomeno psikologikoen eta politikoen elkarrekintzaren azterketa dela zioen. Interakzio horren arabera, batzuetan interes-alorra prozesu psikologikoetan dago, fenomeno politikoak azterketaren ingurua izanik. Besteetan,

aldiz, interes-alorra fenomeno politikoetan kokatzen da, maila psikologikoan azterturik. Gainerakoan, interakzioan dago gakoa.

Billig-ek 1986an nolabaiteko bereizketa egin zuen *Psikologia Politikoa*ren eta *Politikaren Psikologia*ren artean. Lehenengoaren arabera, Psikologiari datxekion zerbait da Politika, Adorno, Lewin, Mead edo Moscovici-ren azalpenetan bezala. Bigarrenaren arabera, aldiz, Politikatik zerbait banandua eta berezitua da Psikologia, prozesu psikologikoak testuinguru politikoetan lantzen dituztenen antzera.

1.3.2. Fenomeno psikologikoen eta fenomeno politikoen arteko loturak

Arestian esan dugunez, psikologia politikoan dagoen kontzepzio psikologikoa anizkoitza da eta egile bakoitzaren heziketan oinarritzen da. Halere, egia da zenbait orientabidek diziplinaren sorrerarekin zerikusi handiagoa izan dutela. Stone-k (1974) oinarri psikologikoa ondoko bi funtsezko guneren inguruan garatu zuen: *Teoria Psikoanalitikoa*n batetik eta *jarreren kontzepzio funtzional*ean bestetik. Autore honen arabera, psikoanalisia portaera politikoaren efektu psikologikoen ekarpenen *gune azalgarria*n kokatzen zen. Bestalde, jarreren ikuspegi funtzionala sistema eta jazoera politikoen *ondorio psikologikoen azterketa*n kokatzen zen. Beraz, autorearen ustetan, psikoanalisia aktore politiko indibidualarentzat zen baliagarria eta jarrerak gizabanako-multzoarentzat, masarentzat, alegia. Hemendik, ondorio arriskutsua erator daiteke, alegia, lider politikoak xede politikoen bila bultzatzen duten mekanismo psikodinamikoak ditu, eta populazioak, jarrera eta iritsi hutsak.

Hermann-ek (1986), beste ikuspuntu bat erabilirik, psikologo politikoari interesatzen zaizkion fenomeno psikologikoen edukiei buruzko kontzepzio deskriptiboagoa zuen. Autorearen arabera, fenomeno horiek gizabanakoak inguruneari erantzuten, sentitzen, interpretatzen eta hautematen duen moduarekin lotzen dira. Horiexek lirateke portaera politikoaren prozesu psikologikoak. Era berean, prozesuoi faktore biologiko eta fisiologikoek, motiboek, usteek, estilo kognitiboak, balioek, emozioek eta oinarrizko esperientzia psikologikoek eragiten diete.

Stone-k Hermann-ek baino jarrera konprometituagoa hartzen du politikaren esanahiaz. Autore honen ustez, honelakoa da politikaren adierazpena: «Jokabide politikoak barne hartzen du egunerokotasunaren arazoen soluzio kooperatiboaren bila ari den pertsonaren jarduera guztia» (1974:16). Beraz, Stone-ren arabera, gizabanakoen beharretan oinarritzen da antolakuntza politikoa. Horregatik, jokabide politikoa ezin da mugatu instituzioen azterketara.

Harantzago doa Deutsch eta Kinnvall-en adierazpena (2002). Autoreek diotenez, psikologia politikoak Psikologiaren eta Politikaren arteko loturak aztertzea ez ezik, haren ikuspuntuaren azterketa ere kontuan izan behar du.

1.3.3. Ondorioak

Aurrekotik, oro har, psikologia politikoaren lau definizio-multzo erator daitezke.

Lehenengoan, diziplinaren izaera aplikatua azpimarratzen duten definizioak daude, aplikazioa *egungo arazo politikoei aplikaturiko jakintza psikologiko* gisa ulerturik. Horrela, psikologia politikoa premia sozialeko diziplina litzateke, berezko ezaugarri teorikoen jakintza-alorra baino.

Bigarren multzoaren arabera, diziplinaren izaera kolektiboa azpimarratuz, *jazoera eta sistema politikoek eguneroko prozesu psikologikoetan duten eragina* aztertzen du psikologia politikoak.

Hirugarren multzoa terapia soziala baino harago ari diren definizioek osatzen dute. Psikologia politikoa *fenomeno psikologikoen eta fenomeno politikoen arteko interakzioaren azterketa da*.

Laugarren multzoan, psikologia politikoaren ikasketa-objektu propioa adierazten dutenak kokatzen dira. Hauen arabera psikologia politikoa hau da: «Fenomeno historikoen eta kolektiboen azterketa, gizabanako ala komunitateetan itsatsita egonik, identitate propioaz jabetzeko eta sozialki antolatzeko herriaren motibazioa direnak».

1.4. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN DIMENTSIO TEORIKOAK

Kapitulu honen hasieran esan dugunez, nahikoa zaila da diziplinaren kontzeptuari heltzea ukitzen dituen gaien arabera. Dena den, beti da interesgarria diziplinak egiten dituen jarduerak zenbait dimentsiotara mugatzea, bere ikerketa-alorreko ardura nagusietara, hain zuzen. Ondoren, hiru koordenatu iradokitzen ditugu, psikologia politikoaren alorraren barnean egun aurkezten diren arazoak integratzeko baliagarriak direnak. Lehenengoa diziplinaren arazo metodologikoei dagokie, hau da, dimentsio metodologikoaz ari izango da; bigarrena diziplinaren ondorio sozialeko ardurei dagokie, hau da, sentsibilitate sozialeko dimentsioaz ari izango da; hirugarrena, diziplinaren gai nagusiei dagokie, hau da, gaitegi-dimentsioaz ari izango da.

1.4.1. Dimentsio metodologikoa

Nahiz eta eztabaida metodologikoek zientzia sozial guztiak zeharkatu, psikologia politikoa Psikologiatik berezi izan da. Beraz, psikologia politikoaren ezaugarria *teknika-erabileran aniztasuna da, bai datuak jasotzeko bai hipotesiak frogatzeko.* Hau da, psikologia politikoak teknika psikoanalitikoak, proiektiboak, teknika psikobiografikoak eta psikohistorikoak, jarreren neurketa handiak eta esperimentua erabili izan ditu. Esate baterako, Adorno eta bere kideen lorpenetariko

bat, hipotesi eta teoria psikoanalitikoaren inguruan, teknika psikometrikoen bitartez jarrera-eskalak eratzea izan zen. Beraz, metodologia desberdinekiko errespetua da psikologia politikoaren ezaugarria.

Analisi-unitateari dagokionez, kolektibitatea baino gehiagotan gizabanakoa izan da. Hala ere, akats hau psikologia politikoaren barnean onartu egin da. Adibide gisa Herman-en (1986b) adierazpenak har genitzake: «Nahiz eta ekintza politiko jakina giza aktore indibidualek gauzatzen duten, unitate adierazgarrienak taldeak dira, elkarteak, erakundeak, komunitateak, estatuak, eta abar» (209. or.). Beraz, analisi-unitateari dagokionez, psikologia politikoaren ezaugarria, *gizabanakoa eta komunitatea,* biak erabiltzea da.

Oro har, psikologia politikoaren ezaugarri metodologikoa teknika eta metodoen aniztasuna dela esan daiteke.

1.4.2. Sentsibilitate sozialeko dimentsioa

Akats larria litzateke pentsatzea psikologia politikoa praktikan jartzen duten psikologoen ardura sozial hutsa dela eta urgentzia politiko hutsetan oinarritzen dela. Alderantzizkoa pentsatzea ere akatsa litzateke. Hau da, sentsibilitate sozialeko faktoreek diziplinaren garapen eta eratzean inolako eraginik ez dutela pentsatzea. Arestian esan dugun bezala, psikologo klasiko askok (Reich, Fromm, Adorno, eta abar) psikologia politikoarekin harreman gehiago izan dute historialariek aipatzea gustuko dutena baino.

1.4.3. Gaitegi-dimentsioa

Psikologo politikoek lantzen dituzten gai zehatzak laburbiltzea ez da gauza erraza. Hala ere, Hermann-ek (1986c) ondoko 4 gaitegi-dimentsiotan laburtzen du egungo egoera:

1. Pertsonengan nola garatu eta eutsi egiten diren politikari buruzko hautemate, interpretazio eta sentimenduak.
2. Pertsonen hautemate, interpretazio eta sentimenduen efektuak euren jokabide politikoetan.
3. Erabaki politikoak nola hartzen diren.
4. Erabaki politikoak hartzeko non dagoen autoritatea.

Berriki, Deutsch et Kinvall-ek (2002) 8 ardatzetan zehar identifikatu dute psikologiaren eta politikaren arteko lotura:

1. Gizabanakoa aktore politiko gisa: sozializazioa, partaidetza politikoa, hauteskunde-portaera, mass-media, eta abar.

2. Mugimendu politikoak: sistema soziala edo kulturala aldatzeko edo eusteko elkarteak: ekologia, bakea, feminismoa, etnizismoa.
3. Politikaria edo liderra: liderra eta lidergo politikoa, nortasun politikoa, psikobiografia eta historia.
4. Koalizioak eta egitura politikoa: taldeen eraketa, liderra eta jarraitzaileak, alderdiak eta herritarrak.
5. Talde politikoen arteko harremanak: gatazka eta gatazka gainditzea, Osgood, Deutsch, Kelman.
6. Prozesu politikoak: hautematea, kognizioa, erabakiak hartzea, pertsuasioa, ikaskuntza.
7. Kasu-ikasketak: zenbait komunitateren boto-portaera, gatazka politiko bereziak, gertaera historiko garrantzitsuak, eta abar.
8. Giza garapena eta ekonomia politikoa: nolako ondorioak dituen gizabanakoengan (autoestima, garapen pertsonal edo kognitiboan, eta abar) zenbait ezaugarri ekonomiko dituen gizartean bizitzeak.

Bestalde, Seoane-ren arabera (1988), edozein sailkapenek ekoizpen politiko kolektiboen eta gizabanako zehatzaren arteko dinamikak izan beharko lituzkete kontuan. Beraz:

1. Batetik, talde, kolektibo edo komunitate batetik ondorioztatzen diren ekoizpen politikoak kontzientzia eta portaera indibidualetan nola sartzen diren.
2. Bestetik, jarduera politiko indibidualak nola egiten dituen ekarpenak eta eraldatzeak ekoizpen politiko kolektiboetan.
3. Azkenik, eremu politiko zehatzak aztertu beharko lirateke. Bertan, gizartean jasotzen diren gertaerak ulertu ahal izateko, gizabanako indibidualen portaeraren eta "askoren ekintzaz" sorturiko fenomeno politikoen arteko interakziotik agertzen direla aztertuko litzateke.

2. Psikologia Politikoaren ikuspegi historikoa

2.1. SARRERA

Aurreko kapituluan esan dugunez, psikologia politikoa, zentzu hertsian, sortze berrikoa da. Haren heltzea, «bere buruarekiko kontzientzia duen diziplina gisa, 70eko hamarkadako lehen urteetan izan zen» (Stone, 1981:39). Garai horretan, era berean, lehen *eskuliburua* (Knutson, 1973), lehen sarrera-liburua (Stone, 1974), lehen bi aldizkariak (*Political Psychology* eta *Micropolitics*) eta lehen elkarte zientifikoa (1978an, *International Society of Political Psychology*) sortu ziren.

Atal honetan, ikuspegi historikoari emango diogu hasiera Zientzia Sozialen (ZS) sorrerako lanetatik. Honek ez du esan nahi, Psikologiaren eta Politikaren arteko loturaz, aldez aurretik pentsatu ez dela. Izan ere, harreman horren jatorri urrunak Sofistengan edo Aristotelesengan edo Platonen *Metalen Mitoa*n ager daitezke; edo Errenazimentuko Makiavelo printzearengan; edo ZSen aurretikoetan, hala nola Hobbes, Locke, Hume, Rousseau edo Montesquieu edo Moscaren ideietan; edo jadanik ZSen barnean, europar soziologia marxistan, Giddens, Habermas edo Bourdieu-ren ekarpenetan. Finean, ekoizpen amerikarra den esparruari lotuko gatzaizkio.

*Zientzia politikoa*ren barnean, aurrekari agerikoak baziren. Gogora datorkigun lehena Lasswell izan daiteke, baita lehenago ere, Merriam. Autore honek, jadanik 1925ean, bere "Politikaren arazo berriak" izeneko artikuluan zioenez, zientzia politikoak beste diziplinetan bermatu beharra zuen eta horien artean psikologia aipatzen zuen. 1961ean, Dahl-ek "konduktualismoa" aipatzen zuen, orduan AEBn sendotutako ikuspegian oinarritzen zelarik. Konduktualismoa politologoek zuten baliabidea zen, portaera-zientzien fokatzeei eta metodoei buruzkoa, hain zuzen ere. Hala ere, Greenstein-ek azpimarratzen zuenez, honelako aspirazio eta asmoek ez zuten zientzia politikoaren nahia ordezkatzen: AEBko zientzia politikoaren elkarteko kideek askoz interes handiagoa zuten historian (471), ekonomian (279) eta soziologian (188), psikologian (69) baino (Greenstein, 1973).

Antzekoa gertatzen zen *psikologia*ren barnean. F. Allport-ek 1924an bere katedrarako *Psikologia Soziala eta Politikoa* izena eskatu zuen eta, Katz-ek 1979an zioenez, Allport-ek eman zituen psikologia politikoaren lehen ikastaroak. Psikologo entzutetsuek —B. Smith APAko presidenteak, esaterako— psikologia

politikorako ekarpen garrantzitsuak egin zituzten. Dena den, 1973an APAk industria-psikologia, armada-psikologia eta psikologia filosofikoari eskainitako sailak bazituen ere, ez zuen ezer psikologia politikorako.

Psikologia politikoaren historia zentzu zabalean ulertu beharra dago. Hau da, politika ulertzera egokituriko jakintza psikologikoaren inguruko diziplina akademiko esplizitua izateaz gain, giza portaera politikoaren osagarri eta jatorri psikologikoaren azterketa ere izan behar da. Bereizkuntza hau, autore askok agertu eta aztertu dute; bereziki Davies (1973), Greenstein (1973) eta Stone (1981) autoreek. Ideia hau Greenstein-en ondoko lau proposizioetan laburbil daiteke: a) prozesu psikologikoen eta politikoen arteko loturak konplexuak dira eta eskuarki zeharkakoak; b) lotura horiei heltzeko oinarrizko baldintza da psikologia politikoaren sorkuntza; c) sorkuntza horri esker posible izango da azaltzea, zuzenki, Politika eta Psikologia alorretako fenomenoen artean diren interakzioak; d) horrela baino ezingo da gainditu zientzia politikoaren (zeina psikologikoki tolesgabea baita) eta psikologiaren (errealitate politikoaren ñabardurak hartzeko oso ezgai dena) artean egun dagoen etena (Greenstein, 1973).

Lau premisa hauek kapitulu honen oinarri gisa hartzen dira eta, edozein alorretan bezala, ekimen historikoak ere kontutan izan beharko dira. Hala ere, psikologia politikoaren edozein historia-lanek bi zailtasun garrantzitsu ditu. Lehenengoa, alorraren beraren konplexutasuna da, Greenstein-ek *askotariko unibertsoa* izendaturikoa. Hainbat diziplinatan barreiatuta egotetik datorren konplexutasun honek antolakuntza-eskema batean ezartzeko zailtasunak sorrarazten ditu (Stone, 1981). Bigarrena, ikerkuntza historiko nabarmenaren gabezia da. Lehenago aipaturiko hiru idazkiei 1986ko beste bi erasten badizkiegu, Bryder eta Monterorenak, ia besterik ez baita egon azken urtera arte (ikus Ward, 2002).

Horregatik, psikologia politikoaren historiaren ordez, historia eraikitzeko materiala eta elementu barreiatuak besterik ez dago, nahiz eta historia funtsezkoa den edozein diziplina zientifikotarako. Beraz, kapitulu honen egituraketa irizpide kronologikoaz eratuta dago. Lehenengo, XIX. mendearen bigarren erdiko autore nabarmenengan jarriko dugu arreta, 1850 baino lehen zientzia sozialaz hitz egiterik ez dagoela suposatuz. 1900etik 1979rainoko materiala hamarraldika antolatuta badago ere, lau atal nagusitan banatuko dugu (I. Mundu Gerra arte; II. Mundu Gerra arte; 60ko hamarraldira arte eta insituzionalizaziora arte), psikologia politikoaren ekarpenak sortu ziren garai historikoetan kokatzeko.

2.2. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN JATORRIAK: XIX. MENDEKO 2. ERDIALDEA

XIX. mendean izandako lau iraultzek (kapitalismoa, industrializazioa, urbanizazioa eta demokrazia) hainbat ekarpen egin zuten Psikologiaren eta Politikaren arteko loturak ulertzeko.

Weber-ek *Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua* idazlanean zioenez, hainbat uste-sistema (protestantismoa) praxi sozial berriei (kapitalismoaren metatzea) lotuta zegoen.

Durkheim-ek —M. Weber-ekin batera, soziologia modernoaren sortzailea—, industrializazioak gizabanakoengan zituen ondorioen analisia egin zuen, egun indarrean baitago. Batetik, hiri industrializatuan bizitzeak anomia eta deserrotzea eragiten zuen (1983), eta industria-langileak alienatzen ziren, bai euren garaiko eta lehenagoko elkarteetatik baita beren buruarengandik ere. Bestetik, industrializazioa solidaritate sozialeko iturri nagusi bihurtzen zen, gizabanakoak bizirik irauteko borrokaren mugapenetatik askatuz.

Lebon-en, Durkheim-en eta Lenin-en lanetan —besteak beste— islatzen denez, psikologia politiko gisa hartzen ari garen eremu zabala sortu eta garatu izan zen, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran gertatu ziren sakoneko aldaketa sozialei, ekonomikoei eta politikoei erantzunez (Bryder, 1981). Lebon-en pentsaeran, batetik, giza afektua, emozioa eta irrazionaltasuna aldarrikatu nahi zituen ikuspegiaren isla ikus daiteke. Bestetik, Lebon-en pentsaerak XIX. mendeko sistema sozial eta politikoaren arrazoiaren porrota islatzen du gizartearen ordenamenduan. Autoreari dagokionez, pentsaera horrek —guztiz ideologikoa— bere ikerlan guztia ukitu zuen eta "masa sozialisten" igoerari Lebon-ek zion beldurrean agertzen zen.

Masen Psikologia (1895) bere ikerlan ezagun eta adierazkorrenean —gainerakoak honen errepikatzeak izan baitziren—, autorea jendetzen psikologia sortzen saiatu zen. Jendetzaren kontzepzio zabal batean oinarriturik —alderdi politikoak, epaimahaiak, eta antzekoak barne hartuz— aurrez aurre jarri zituen gizabanako isolatua eta jendetzaren partaide den gizabanakoa. Aurkakotasun hori adierazi ostean, autorearen sistemaren barnean oinarrizkoa, *jendetzaren gogamen-batasunaren legea* postulatu zuen. Lege horren arabera, jendetzako banakoen kontzientziak hutsean gelditzen dira, jendetzarekin bat egiten dutelako, eta kontzientzia komun batean lotu egiten dira. "Arima komun" horren ezaugarriak honako hauek dira: bat-bateko primitibismoa, emozio-adierazpena, heroitasunera heltzeko gaitasuna eta portaera zibilizatuaren nahiz arrazoiaren ukapenaren irudikatzea. Gainera, autore honen eredu psikiatrikoak hiru prozesu aurreikusten zituen masaportaeran: anonimatua (sentimendu gaindiezina), kutsapena (sentimendu hauek besteekiko luzatzen dira, gaixotasun gisa) eta sugestioa (liderraren esanak kritika barik onartu).

Lidergo edo jendetzaren buruzagitzaren garrantzia ere funtsezkoa zen. Jendetza guztiak beti buruzagi bati darraizkio. Jendetzaren buruzagi batekiko mendetasunaren zioa sugestioan oinarritzen da, eta sugestioaren arabera banakoaren borondatea galdu egiten da. Jendetzak, inpultsiboak, suminkorrak eta arrazoitzeko ezgauza direnez, konbentzitu eta maneiatu nahi dituztenek "baieztapen gordina,

froga eta arrazonamendu gabea" erabili behar dute, eta zenbat eta gehiago errepikatu, orduan eta eraginkorragoa. Baieztapen sasizientifikoez beteriko liburuarekin batera, Lebon-ek atal garrantzitsu bati ekin zion, portaera kolektiboari hain zuzen (zurrumurru, propaganda, izu kolektibo edo iraultza sozialari, besteak beste). Bere ikerlanak eragin handirik ez zuen izan Psikologian eta Soziologian, baina bai Zientzia Politikoaren arloko zenbait autoreren artean (Michels eta Pareto, besteak beste).

2.3. LEHEN MUNDU GERRARA ARTE

2.3.1. 1900-1910: irrazionaltasuna eta arrazionaltasuna: Lenin, Pareto, McDougall eta Wallas

Lebon-ek irrazionaltasunari eta instintuei ikuspegi kontserbatzaile eta ezkor batetik heldu zien, emozio eta herentziari emaniko garrantzia zela eta. V. I. Lenin-ek, berriz, bere "teoria kognitiboari" lotutako ikuspegi baikorretik (Bryder, 1986), kontzientzia politikoaren arazoei ekin zien, kontzientzia hori esperientzia eta ikaskuntzaren bitartez nola estimula zitekeen aztertuz. 1902ko panfletoan, *"Zer egin?"* izenburupean, Lenin-ek langileen kontzientzia politikoaren aldaketa azaldu zuen. Autorearen ustetan, langileek euren benetako kontzientzia politikoa areagotuko zuten —kontzientzia faltsua baitzegoen—, eta areagotze hori lortuko zuten esperientzia zehatzetatik gizarte-bizitzaren baldintzetara hedatzean, eta orden politikoaren bestelako ikuspegia hartzean. Kontzientzia-hartze prozesuan, lidergoak rol dinamikoa betetzen zuen kolektibitate baten —kontzientzia iraultzaileko alderdi politikoa— eta antolakuntza-multzo baten —antolakuntza sindikalak, eta abar— artean, azken horren funtzioa langileen eskubideak produkzio-bideen jabeen aurrean defendatzea baitzen.

Pareto (1902, 1909) entzutetsuaren idazlanak Soziologia eta Ekonomiaren alorrekoak dira. Bertan, giza portaerari buruzko arazo orokorrak plazaratu eta portaera politikora egokitu zituen. Analisirik ezagunenean *hondakin* eta *eratorkin* kontzeptuen arteko bereizkuntza egin zuen. Bereizkuntza horretan oinarrituta, giza portaerak —nahiz, oro har, irrazionala izan— irudi logikoa eta arrazoia bilatzen ditu beti. Hondakina, usteen, kontzeptuen eta teorien lehen elementua da, denboran zehar irauteko joera duena. Esate baterako, historian zehar, herri guztietan abertzaletasun-adierazpenak (hondakina, beraz) egon izan dira, baina horietako adierazpen zehatz bakoitza besteetatik oso bestelakoa izan da (eratorkina, beraz). Ekintzaren eremuan, hondakina benetan egiten dena da. Eratorkina ekintza bakoitzari ematen zaion zergatia da, *arrazionaltasun-itxurari eusteko beharraren azpiekoizpena* (Mulkay, 1971:17).

Pareto-ren arabera, pertsonen hautespen politikoak, funtsean, besteen usteak interpretatzeko erak ziren. Horrela, liberalaren ustez, norberak bere usteak hautatzen ditu, kontserbatzailearen arabera genetikoki aurremugatuta daude eta so-

zialista konbentzituta dago gizarteak sortzen dituela (Bryder, 1986). Era berean, hautespen politikoek mendetasunezko zerikusia zuten estratifikazio sozialarekin, zeren gizarte industrializatuetan gehienek ez zieten jaramonik egiten arrazoizko irizpideei, eratorkinen eraginei baizik.

Gizartean bizilagunen arteko desberdintasun nabariak daude eta Pareto-k *elitea* eta *ez-elitea* bereizi zituen. Elitea pertsona-multzoa da, jarduera baten barnean maila altuenetan dagoena. Elite gobernatzailea eta ez-gobernatzailea bereizi zituen. Gizarte baten izaera mugatzen duten faktore garrantzitsuenetariko bat, baina ez bakarra, elite gobernatzailean dagoen hondakin-mota da.

W. McDougall-ek (1908) —psikologia sozial berezituaren fundatzailetzat hartua dena— garaiko psikologia amerikar goiztiarraz eta eboluzioaren teoria darwinianoaz eraginik, jokabide sozialaren teoria eraiki zuen Ross-ekin batera, kontzeptu azaltzaile gisa instintuak hartuz (egun, motiboak izendatuko genituzke). Gizartea zazpi funtsezko instinturen bidez azaltzen zuen, bakoitzak bere emozio jakina zeramala. Autorearen pentsamenduari buruzko azaleko interpretazio ugari agertu baziren ere, oro har, McDougall-en eragina izugarri positiboa izan zela onartu beharra dago, zeren azalpen propositiboak eta teleologikoak eta antimekanizismoa nahiz antierredukzionismoa ere azpimarratu baitzituen.

Stone-ek (1981) zioenez, psikologia politiko modernoaren fundatzaileetariko bat Graham Wallas izan zen, eta London School of Economics izanekoan psikologia politikoko irakaslea izateaz gain (esate baterako, Lasswell-ek 1923-24 urte bitartean bertan ikasi zuen), aktibista politiko fabianotzat hartua izan zen. McDougall-ek eragin zuen *Politikan giza izaera* Wallas-en lana bat dator, autoreak jakin gabe, Freud-en pentsamenduarekin. Bertan, bizitza politikoaren irrazionaltasunaren garrantzia landu zuen. Hala ere, bere pentsamendua ez da politikan dauden sen eta bulkadetara mugatzen, hauteskunde eta arrazoizko beste erabaki batzuez ere ari baita.

2.3.2. 1910-1920: psikoanalisiaren agerpena

Psikologia politikoaren garapenarekiko psikoanalisi freudiarraren eragina zeharkakoa eta orokorra da. Freud-en psikologia indibiduala izan arren, Freud-ek berak onartu zuen psikoanalisi guztia berez psikologia soziala dela, eta psikologia indibidualaren eta sozialaren arteko bereizkuntza garbirik ez dagoela (Billig, 1976). Freud-ek bere praxi psikoterapeutikoan topatzen zituen aurkikuntzen ondorio politiko eta sozialen gaineko interes argia agertu zuen. 1913an *Totem eta Tabu* argitaratu zuen, kulturaren fenomenoak ikuspegi psikoanalitikotik aztertzen eman zuen lehen idazlana. Bertan, ikuspegi psikologizistatik, Freud-ek edozein fenomeno sozial hitz psikoanalitikoetan azaldu behar dela adierazten zuen. Horrela, gizartearen jatorria lehenengo tribu edo taldeetan hasitako eboluzio gisa azaltzen zuen eta tribuak antolatzen ziren eme guztiak eskuratzen zituen ar menderatzailearen

inguruan. Beste tribuetako emeak lortzeko pizten ziren tribuen arteko gatazkek tribu barneko antolakuntza indartsua sortzen zuten. Tribu barneko antolakuntza aitaren hilketan bukatzen zen eta, ondoren, anaien arteko borrokak gertatzen ziren. Itun soziala ezarriz —intzestua debekatuz *instintuen asetzea* mugatzen zuena— lor zitekeen borrokarekin bukatzea, eta ez beste inolaz.

Bestalde, 1914an Jellinek-ek *Estatuaren teoria orokorra* argitaratu zuen. Lan honen arabera, «Estatuaren fenomenoak giza egitateak dira, baita giza egitateen ondorioak ere. Beraz, Psikologia —ekintza eta baldintza psikologikoen teoria— Estatuaren teoriarekiko aurrebaldintza da, eta humanitate guztien teoriarekikoa ere bai» (Bryder-en aipua, 1986).

2.4. BIGARREN MUNDU GERRARA ARTE

2.4.1. 1920-1930: psikoanalisiaren jarraipena eta konduktismoaren agerpena

Freud, *Masa psikologia eta niaren analisia* (1921) idazlanean, giza taldeak bermatzen dituzten oinarriak azaltzen saiatu zen. Lan horretan, Freud garai haietako psikologia sozial konbentzionaletik oso hurbil dago, Lebon, McDougall eta Trotter-en kontzepzioei eginiko kritiketan frogatzen denez. Freud-en ustez, talde primarioan funtsezkoena liderrarenganako lotura zen, lotura horretatik taldekideen artekoa sortzen baitzen. Lotura biak aldez aurretiko identifikazioan sortzen ziren eta izaera libidinalekoak ziren. Izaera horrek azaltzen zuen zergatik zuen lehentasuna *zerak nia*ren gainetik taldean, ondorioz, sentimenduaren areagotzea eta arrazonamendu-gaitasunaren urritzea agertzen baitziren. Hau da, Le Bon-i aurrea hartuz, sugestioa eta kutsapena ortogonalak ziren eta bigarrena lehenengoaren ondokoa.

Kulturan ezinegona (1930) idazlanean, Freud-ek zioen kulturak bi funtzio zituela: ingurune fisikoa babestea eta gizakien arteko harremanak antolatzea. Hala ere, harreman horiek beti ziren frustragarriak, instintuak asetzeari jartzen zitzaizkion mugapenetan oinarritzen baitziren. Horrela, libidoa gizabanakoen arteko sexu-loturen oinarria izateaz gain, lotura politikoen oinarria ere bazen, sexu-xedea kontrolatua edo inhibitua zenean. Zibilizazioak aurrera egiteko, sexu- eta agresio-instintuen errepresioa beharrezkoa zen. Hala ere, kanpoko kontrol-iturri hori gizabanakoek barneratua zuten guraso eta beste "aita-autoritateen" eraginez, eta ondorioz, *supernia* agertuko da, *zera*ri oso lotuta.

Adler izan zen maisuari aurre egin zion lehena Freud-en kolaboratzaileen artean. Freud-en mekanizismo eta determinismoaren kontra egin zuen, giza psikismoaren alderdi sozialen ahanztura sustatzen baitzuen. Adler-en sistemaren gunea, *Giza naturaren ulermena* (1927) idazlanean adierazirik, berak deituriko "protesta maskulinoa" zen: pertsonak dituen gutxiagotasun-sentimenduei emaniko erantzuna. Sentimendu hauek haurtzaroan oso-osorik agertzen ziren eta ingurunea menderatzeko

saioetara zeramaten gizabanakoa; horrela, gizakiaren funtsezko motibazioa sorrarazten zen. Sexualitatea, beraz, motibazio horren adierazpen askotariko bat besterik ez zen. Autorearen arabera, "gutxiagotasunaren konpentsazio-saioak" egonkorrak ziren eta bi funtsezko ondorio zituzten: neurotikoengan "gutxiagotasun-konplexu" bihurtzen ziren —emaniko esfortzuen porrotaren adierazle— eta pertsona osasuntsuengan "interes sozial" bihurtzen ziren —besteekiko identifikazio enpatikoa—. Enpatiari esker, pertsonek besteen eragina jaso zezaketen. Eragina gehiegizkoa izanez gero —haurtzaroan, gurasoen aldetik, askotan gertatzen dena—, obedientzia irrazionaleko aztura susta zezakeen, zeinak etnozentrismoa edo guda sor zezakeen, besteak beste. Adler-en eta Freud-en arteko funtsezko desberdintasuna ondoko honetan datza: Adler-en ustetan, gizabanakoaren inguruneak "interes soziala" elikatzen porrot egiten zuenean gertatzen zen barne-gatazka.

Adler-en ideia psikoanalitikoetan oinarritutzat jo daiteke Hendrik de Man-en *Sozialismoaren psikologia* (1928) idazlana. Bertan azpimarratzen zen konpentsazio psikologikoaren mekanismoa, totalitarismoen iturritzat hartzen zena.

Spranger-en *Gizaki Motak* (1928) idazlana ondorengo garapenen aitzindaritzat har daiteke, nortasunaren psikologia alorrean batik bat. Definitzen ziren 6 nortasun-tipoen artean, bazegoen "tipo politikoa". Tipo politikoan egokitzen ziren pertsonek ondoko nortasuna zuten: inguruko *besteak* boterearekiko borrokaren jokoan lanabes gisa hartzen zituzten, eta ez "besteak" gisa.

Pavlov-en ikerlana (1927), Psikologian eragin sakonekoa, paradigmatikotzat har daiteke, organismoa ahaztu gabe ingurunearen garrantzia azpimarratzen zuenez gero. Ikertzaile honen iritzia bat zetorren bai Locke-rekin bai Marx-ekin. Horregatik sobietar sisteman ontzat hartua izan zen, non aldaketa sozial eta ekonomikoek nahikoa ziruditen psikismo indibidualean aldaketak sorrarazteko. Watson-ek Pavlov-en Estimulu/Erantzun (E/E) psikologia garatu egin zuen, nolabait erradikalizatuz, behagarria ez zen guztia desagerrarazten. Pentsamolde hau ideologia eta sistema politiko oposatuetan ere gauzatzerik zegoela frogatu zuen. «Dozena bat haur osasuntsu emadazue eta ziurtatu egiten dizuet horietariko bat hartu eta entrenatuz edozein aditu-mota bihurtuko dudala...» (1924) esaldi entzutetsuak ondo irudikatzen du bere kontzepzio determinista.

F. H. Allport-ek bi funtsezko ekarpen egin zituen psikologia sozialean (1924): batetik, metodo esperimentalaren sarrera lanabes sistematiko gisa eta, bestetik, ikuspegi konduktistaren onarpena, azken hori nolabait heterodoxoa izan bazen ere. Ekarpen biak *erraztasun soziala* kontzeptuan islatzen dira. Erraztasun soziala, beste pertsonen egote hutsaren aurrean, portaeraren intentsitate-areagotzean zetzan eta talde-fenomenoetariko asko azaltzeko mekanismo soila zen. Teorialari honi dagokionez, portaera konformistari buruzko lehenengo lanak eta jendetza-jokabidearekiko behaketak interesgarriak dira.

W. I. Thomas izan zen psikologia sozialari lagundu zion lehenengoetariko bat, batik bat originala eta zabala zen *Baserritar Poloniarra Europa eta Ameriketan* izeneko ikerlanarekin, F. Znaniecki psikosoziologo poloniarrarekin batera eginikoa. Izan ere, bere pentsamendutik *egoeraren definizioa* hartzen dugu (1923), Watson-en konduktismotik eta instintibismotik urrunduz. Egoeraren definizioa *bizitza-antolaketa* kontzeptuari lotuta dago. Azken kontzeptu horren bitartez pertsonari rol aktiboa ematen zitzaion: munduan bidea bilatzea. Egoeraren definizioak bere portaera zuzentzea baimentzen zion. Baina horretara heltzeko, "azterketa- eta hausnarketa-aldia" ematen zen, edozein portaera automugaturen aurretik beti agertzen zena. Deliberazio edo azterketa-aldi hori egiteko, pertsonaren baliabideak dira gizartea, kode morala, iritzi publikoa, familiaren portaera-ereduak, komunitatekoak edo bestelakoak, eta horrek guztiak ematen dizkion esanahiak ere, pertsonak kritikarik gabe hartzen ez zituenak.

Hamarraldi honetan Lynd (1929, 1937) senar-emazteek landu zuten ikerketalerroa azpimarratzekoa da. Ikertzaile hauek frogatu zuten, kultur antropologiatik hurbileko teknikak erabiliz, baita galde-sortei emaniko erantzun kuantitatiboen analisiak erabiliz ere, gizarte modernoan bizitza sozialari buruzko jakintza zehatza lortzerik zegoela, alderdi politikoak barne. Ondorengo autoreen garapenek hemen izan zuten oinarria.

2.4.2. 1930-1940: psikoanalisi kulturala, psikologia eta ideologia, eta arazo sozialen fokatzea

Frankfurteko Zirkuluak, 1923tik 1959ra, judutar jatorriko intelektual europarren multzo bat elkartu zuen, zeinak garaiko gizarteko alderdi askoren analisi kritiko garrantzitsuak egin zituen. Lehenengo ikerlanetariko bat, agian garrantzitsuena, *Autoritate eta Familiaren inguruko azterketak* izan zen, 1936an Parisen argitaratua. Zirkuluko kideen 5 urtetako ikerlanaren ondorioa zen eta hiru zatitan banatua izan zen.

Horkheimer izan zen sail horien lehen alearen editorea eta hiru ikerlanez osaturik zegoen, Horkheimer, Fromm eta Marcuse-k idatziak. Lehen autorea sozializazio-prozesuan familiak betetzen zuen funtzioari buruz ari izan zen. Bere abiapuntua tesi marxista eraldatua zen, alegia, gizartean mugatzailerik funtsezkoena azpiegitura materiala izanik ere, beti azpiegituraren eta gainegituraren arteko elkarrekintza gertatzen zen.

Interakzio hori onartuz soilik azal zitezkeen autoritate-harremanak eta, hain zuzen ere, interakzio horren bitartez azal liteke «ideologia burgesaren anti-autoritarismoaren eta autoritatearekiko egungo gizabanakoak duen mendetasunaren artean dagoen etena, gizabanakoaren mendetasuna maila sozioekonomiko irrazionalean erreifikatua dagoelarik» (Jay, 1973:125). Familiaren rola urritzen joan zenez, eta sozializazioaren agente sozial erantzuleak beste batzuk zirenez,

"nortasun autoritario" berria agertu zen, gizarte tradizionaletan zegoena baino aldaezinagoa.

Fromm-ek autoritatea ikertu zuen, *nia* eta *superniar*en sorkuntzaren azalpen psikoanalitikoaren ikuspegitik. Freud-i alderdi sozioekonomikoen eta sozialen eraginen ahanztura osoa leporatzen zion. Fromm-en iritziz, gizateriaren potentzia produktiboen areagotzeak gizakiak naturari buruz duen barne- eta kanpo-kontrola sustatu zuen. Horregatik gertagarriagoa zen «niaz, eta ez superniaz, gobernaturiko gizartea» (Jay, 1973:127-128). *Nia*ren galerak, halere, berez ez zuen suposatuko autoritatearen onarpen irrazionala, zeren nortasun autoritarioaren gunea izaera sadomasokistan baitzegoen. Hau da, beraz, izaera honen lehen formulazioa, Fromm-ek ondorengo ikerlanetan sarri erabili zuena.

Marcuse-k autoritate-teoriaren historia intelektualari ekin zion, askatasunaren eta autoritatearen arteko barne-loturaren teoria eraikitzeko. *Askatasun negatiboa* kontzeptua sartu zuen. Kontzeptu hori "kanpoko heteronomiaren galeran, barne-autonomiaren kontserbazioan" datza, eta Erreformatik Kant-enganaino eta horrengandik Sorel eta Pareto-renganainoko haren eboluzio historikoa ikertu egin zuen. Azken autore horiek elite-teorietako askatasun negatiboaren osagarria desagerrarazi zuten, autoritate heteronomoan besterik oinarritu ez baitziren.

Zirkuluaren ikasketen bigarren sailean, Fromm-ek editatua, ikerkuntza enpirikoen saila aurkeztu zen: lehenengo, eskulangileei eta idazkariei eginiko galde-sorten emaitzak, subjektuak autoritario, iraultzaile eta anbibalente gisa sailkatuak izan ziren; bigarren, sexu-moralari buruz sendagile alemaniarrei egindako inkesta; eta hirugarren, Suitzan, Frantzian eta Ingalaterran, gazteen autoritate-joerari buruzko inkesta.

Hirugarren sailean, Lowenthal-ek editatua, 16 ikasketa laburtu agertu ziren, aurreko ildoari jarraikiz (ikus Jay, 1973).

Faxismo germaniarraren sortze eta garapenak zientzia sozialetan izan zuen eraginak W. Reich-en (1933) *Faxismoaren masen psikologia* ikerlanean du adibiderik gorena. Idazlan horretan, Fromm edo nortasun autoritarioan eragin handikoa, orientabide psikoanalitikoa eta marxista elkartzen ziren, izaera autoritarioa sexu-errepresioaren ondoriotzat harturik.

A. Kardiner psikoanalista entzutetsuak —Linton antropologoaren lankide estua— *nortasunaren oinarrizko egitura* kontzeptuaren bidez (1939) aztertu zuen psikologia politikoan zabal erabilia izan zen analisi-saila, aldaketaz aldaketa, gaur eguneraino heldu dena. Kardiner-en ustez, nortasuna "disposizio, kontzepzio, besteekin harremanak izateko eite eta antzeko" elementuez eraikita zegoen, pertsona guztien barne zeudenak eta egoera askotan portaera azaltzen zuten elementuak baitziren. Nortasunaren *oinarrizko* elementua *matrize soziokultural*ean errotuta egotetik eratortzen zen (Inkeles eta Levinson, 1969). Beraz, bai gizarte jakin bateko instituzioek, baita gizarte horretan nagusia zen kulturak ere, gizarte horretako

gizabanakoei nortasun-mota jakin bat, "zegokiena", inposatzen zieten. Horren gabeziaz ez kulturak ez instituzioek ezingo zuten jardun.

Frustrazioa eta Agresioa (Dollard eta beste, 1939) monografia entzutetsua estu lotuta dago psikologia politikoari. Aipagarria da «ikerlerro honen lorpen heuristikoa eta biziraupen azpimarragarria, oraindik, ia 50 urte ondoren indarrean dagoena» (Lubek, 1986:31). Hala ere, egun ere, horrenbeste ikertzailek teoria honetan inspiratzeak zergati gehiago izan behar du, bere meritu zientifikoez gain.

Izan ere, arrazoi zientifiko soilek ez zituzten bultzatu Dollard eta kolaboratzaileak agresioa ikerketa-objektutzat hartzera. Autore horien lekukoak bat datoz, agresioak garaiko espirituaren gunea fideltasunez islatzen zuela adieraztean. Baieztapen horren alde hainbat gertaera aipatzen zen: faxismoaren, komunismoaren eta demokraziaren arteko 30eko hamarraldiko borroka, Espainiako gerra zibila, AEBko hegoaldeko lintxamenduak, depresio handiaren ondorioak eta Alemanian antisemitismoaren areagotzea (Lubek, 1986). Agresioa aztertzeari ekiterakoan, autoreek, oso balio-sistema zehatza adierazten zuten zeharka. Analisiaren erdigunea gizabanako motibatua zen, gizarte askearen barnean kokatua. Maila soziopolitikoak jokabide soziala azal zezakeelako ideia alboratzen zuten, gizabanakoa bere patuaren jabea zela onartuz. Talde-maila ere alboratzen zuten: talde frustratua gizabanako-multzoa baino ez zen, une berean frustrazio-baldintza beretan zeudenak. Gizarte ez-agresiboaren eredu normatiboari eusten zioten. Baliteke autoreen utopia izatea endotalde armoniatsu gisa hartzen den gizartea, bizitza kooperatiboari eusteko agresioa desagerrarazten ikasten duena. Ekintza agresibo batzuk onargarriak dira, hala nola epaimahaien sententziak, kartzela-zigorrak eta poliziaren nahiz haginlariaren jarduerak. Gainera, analisi horretatik, ez zen agresio-mota anitzen arteko desberdintasunik egiten. Horregatik, 1939an Grey-k adierazten zuenez, existentziaren baldintzak hobetzeko borrokak historian duen tokia ez zen aintzat hartzen eta ez zen bereizkuntzarik egiten greba antolatuaren biolentziaren eta lintxamenduaren edo gerraren artean (Grey, 1939).

Piaget-ek (1924) haurraren pentsamenduaren eboluzioari buruz egindako ikerlanak oraindik ere oso onartuak dira baliotasun eta aplikazio unibertsaleko azterketa gisa. Haurrak objektuaren eta subjektuaren artean bereizteko duen gaitasuna lehen jauzi kognitibo handia da. Objektu enpirikoa "parentesi artean" jartzea behin lortuta, kontzeptua sortzen da, hau da, haurraren gogamen-irudia.

Buck-Morris-en (1979) arabera, Piaget-ek haurraren garapenari buruz zuen formalismo abstraktu hori alienazio-prozesuaren oinarria da eta *kognizio erreifikatu*aren iturria ere bai. Piaget-ek, objektua, pentsamenduaren ekoizpen huts gisa aurkezten zuen eta ez benetan den ekoizpen sozial gisa. Egitura kognitibo horrek, Mendebaldeko kapitalismoan nagusi, posible egin zuen nekazaritzatik industriarako jauzia eta, Piaget-ek pentsatzen zuen izaera unibertsalekoa baino, historikoki baldintzatua da.

Davies-ek (1973) dioenez, Freud eta McDougall-en pentsamenduaren inguruko beste autore bat —organismoa portaeraren mugatzaile den aldetik— H. A. Murray da. Autorearen ekarpenen artean, alde batetik, giza organismoaren "beharren" zerrendaren luzapena egin zuen eta, bestetik, oinarri organiko garbikoak diren behar "Biszerogenikoak" (primarioak) eta kokapen organiko garbirik gabeko behar "psikogenikoak", elkarren artean bereizi zituen (Murray, 1938). Behar psikogenikoak 28 ziren guztira —hauen artean kontserbazioa, ordena, exhibizioa, erridikuluarekiko beldurra, nagusitasun nahia, lorpena, autonomia, besteekiko identifikatzeko beharra, eta afiliazioa, besteak beste— eta portaera politikoa hein zabal batean azal zezaketen.

Kurt Lewin-en psikologia politikorako ekarpenak laburbiltzea ez da lan erraza, haren produkzioaren aniztasuna eta konplexutasuna direla eta. Batetik, *eremu-teoria*n eta *ekintzan-ikerkuntzan* gauzatzen diren ekarpen teoriko-metodologikoak daude: hau da, edozein arazo soziali ekin baino lehenago, beharrezkoa da bere azterketa, ekin ondoren ere jarraitu behar duena. Bestetik, arazo sozial zehatzei buruzko ekarpenak daude: industria, komunitatea, gutxiengoekiko diskriminazioa eta abarreko alorrak.

Lidergo-estiloen ondorioei buruzko ikerlana, hau da, lidergo demokratikoa, autokratikoa eta *laissez-faire* (Lewin eta kolaboratzaileak, 1939), ikerkuntza-lerro emankorraren abiapuntua da. Horretaz gain, lan hauek demokraziaren defentsa dira, faxismo eta anarkismoaren ordezko gobernu-mota gisa. Lippit eta White-ren hasierako galdera ez zen ondokoa: «Zein da lidergo demokratikoaren izaera?» baizik eta «antolakuntza politiko autoritarioa bezain eraginkorra izan daiteke demokrazia?» (Marrow, 1969). Emaitzek lidergo demokratikoaren nagusitasuna fro-gatu zuten, ondoren oso eztabaidatuak izan arren. Hala ere, Lewin-en ustetan, garai haietan, emaitza hauek «ageriko asetasun-iturriak izan ziren, zeren bere sistema demokratikoarekiko nagusigoa bermatu baitzuten» (Marrow, 1969:126).

1936an argitaratu zen psikologia politikoaren idazlan berezienetariko bat: *Psikologia eta Orden Soziala*. Egilea J. F. Brown izan zen, 1929 inguruan Berlingo gestaltikoekin parte hartu zuena eta Lewin-en lehen ikerlanak AEBn aditzera eman zituena. Autore horren iritziz, Lewin-en ideia —baldintza sozial guztiek bazuten kualitate dinamikoa eta aldakorra— iraultzailea zen, eta ikuspegi marxista eta lewindarrak elkartzeko baliagarria zen. Ikuspegi bien arabera, teoriak paper dinamizatzailea zuen, eta baldintza sozialen aldaketari garrantzi handiagoa eman behar zitzaion, bere hartan eusteari baino. Beraz, lege eta prozesu dinamikoen azterketak lehentasuna zuen baldintza estatikoen gainetik. Brown-en pentsamenduaren ideia nabarmenetariko bat psikologia sozialaren aplikazioa izan zen. Bere garaiko arazo sozialekiko kontzientzia zorrotzak (faxismoa Europan, depresioa AEBn) bultzatu zuen egilea, psikologia sozialaren garapenerako oinarri gisa, analisi marxista onartzera. Garaiko psikologia nagusia ez zen oso egokia autore horren ustetan. Taldeek eta gizabanakoek gizartean duten funtzionamenduari buruzko

kontzeptualizazioa oso politikoki baldintzatua zela baieztatu zuen: zientziaren jakintza ez dela balio-irizpiderik gabea, alegia. Ideia hauek eta Brown-ek Sobiet Batasunaren sistema komunistari emaniko babes publikoak azaltzen dute beste psikologo amerikar batzuek teorialari honen ikerlanarekiko izan zuten ezkurdura (Minton, 1984). Hala ere, oso hedatua izan zen bere ikuspegia, Minton-ek (1984) berak esan zuenez. Apfelbaum-ek (1986) Brown-en ikerlanean 30eko hamarkadako psikologo sozialen konpromiso politikoaren beste zeinu bat ikusten zuen, psikologo sozial horiek Arazo Sozialekiko Azterketa Psikologikorako Elkartea sortu zutelarik.

Elkarte horren sorreran, D. Katz-ek eta T. Newcomb-ek hartu zuten parte. Katz-ek 1938an psikologia sozialeko eskuliburua argitaratu zuen, Schank-ekin batera. Eskuliburuaren azken atalean Brown-ek landutako hainbat arazo aplikaturen antzekoak ukitzen zituen, klase sozialak eta sindikatuak, besteak beste. Eskuliburu hau oso barreiatua izan zen, nahiz azken atalaren inplikazio eta edukiekin ez ikusiarena egin (Apfelbaum, 1986).

Newcomb-ek jarrera soziopolitikoari buruzko lehen ikerketa burutu zuen. Bennington ikastetxera familia kontserbatzaileko ikasleak joaten ziren, bertako zuzendariak *New Deal*eko ideologia aurrerakoiaz jabetuak ziren, ordea. Newcomb-ek frogatu zuenez, ikasle gehienek jarrerak aldatzen zituzten bertako egonaldian, irakasleen jarreren norabidean. Aldaketa, Newcomb-en ustez, *erreferentzia-taldea*ren eraginez gertatzen zen. Izan ere, hasierako jarrerari eusten zioten ikasle urrien erreferentzia-talde positiboa familia zen —horrek gainerako ikaskideen errefusatzea eta isolamendua zekarren arren— eta, askotan, unibertsitatea erreferentzia-talde negatiboa. Urte batzuk geroago, Newcomb (1967) jarrera-aldaketaren egonkortasuna ikertzen saiatu zen eta aldaketa nahiko egonkorra zela aurkitu zuen. Horretarako, ikasle izandakoen jarreren hainbat adierazle hartu zuen eta aldaketa mantentzen zela egiaztatu zuen: demokratekin ezkonduta zeuden, alderdi demokratikoen aldeko botoa ematen zuten eta hainbat arazo sozialekiko jarrera zabalagoa zuten.

Hamarkada honetako psikologia politikoaren garapenaren irudirik eraginkorrena H. Lasswell politologoa da, AEBko Zientzia Politikoaren Elkarteko presidentea izan zena. Bai alorrean berrikuspena teorikoak egin dituzten autoreek (Davies, 1973; Stone, 1981) bai psikologia politikoaren ikertzaile gehienek, biek onartzen dute egitate hau.

Lasswell-en ekarpena bere lehen idazlanaren argitalpenarekin batera hasi zen, *Psikopatologia eta politika* (1930), eta 60ko hamarraldiraino heldu zen, eduki eta interes desberdinak barne hartzen baitzituen. Lasswell, zuzenbideko ikaslea izanik, heziketa psikoanalitikoa jasotzen eta jakintza hori politikara aplikatzen lehenengoetariko bat izan zen. *Psikopatologia eta politika* idazlanean, politikan sarturiko gizon eta emakumeen kasu-ikasketen bilduma egin zuen. Kasu horietan oinarrituz, ondorengo urteetan erabiliko ziren burutazioak egin zituen: politikaria moti-

bo partikularren ekoizpena zen, motiboak objektu publikoaren inguruan desplazatuak eta arrazionalizatuak baitziren, interes publikoaren alde.

Era berean, ikerlan horretan Lasswell-ek rol politikoen tipologia egin zuen —eragilea, teorikoa, administratzailea—, geroztik tipo politikoen kontzepzio modernoagoetan agertu zena.

Lasswell-en arabera, «politikaren azterketa *eragina*ren eta *eragingarria*ren azterketa» zen (1935, 181); beraz, hortik dator eliteei eman zien garrantzia. Bere ustez, orden soziala ez-arrazoizko adostasunean oinarritzen zenez eta elitea "masa" baino indartsuagoa zenez, eliteak sinboloen manipulazioa ikasi behar zuen, masek obeditu ziezaioten (1935). Idazlan horretan ere "piramide-sistema" —edo "balioak", geroago izendatu ziren moduan— agertu ziren. Piramideak segurtasuna, diru-sarrerak eta errespetua ziren, gizabanakoen aurrejoera organiko eta oinarrizkoak, portaeran eragina zutenak.

2.5. 60KO HAMARRALDIRA ARTE

2.5.1. 1940-50: Lasswel, boto-portaeraren azterketak; Gramsci, nortasun modala eta nazio-izaera; psikologiaren luzapena politikarekiko

Lasswell-ek, 1948an, *Botere eta nortasuna* idazlana argitaratu zuen. Adler-en ideietan oinarrituz, aurrerantzean zenbaitetan birformulatuko zuen hipotesia egin zuen, hau da, botere soziala gutxiagotzearen konpentsazioa dela zioen hipote-sia: «Botereak niaren estima baxua gaindi dezan espero da, bai niaren nortasun-bereizgarriak, bai ingurunea ere aldatuz» (1948:39).

Lazarsfeld, Berelson eta Gaudet-en (1944) ikerlana, AEBn, jarrera politiko eta boto-portaerari buruz eginiko lehenengoetariko bat izan zen. Autoreen arabera, lehentasun politikoak mugatuta zeuden ezaugarri sozial iraunkorrak eta aldakorrak zirela medio, erlijioa, bizitokia eta status sozioekonomikoa, besteak beste. Lehenengo aldiz, boto-portaeraren azterketak planteamendu deskriptibo eta ateorikoa gainditu zuen. Urte haietan ere, Stoetzel-ek, Frantzian, iritzi publikoaren inguruko azterketari ekin zion, *Iritzien teoria* (1934) eta *Iritzien azterketa esperimentala* (1945) lan ezagunak argitaratuz.

Antonio Gramsci italiarrak, Lenin-en osteko pentsalari marxiano eraginkorrenetariko bat, *Espetxeko koadernoak* (1948) izeneko idazlana argitaratu zuen. Lan horretan, prozesu politikoetan dauden gogamen-fenomenoen alde agertuz, garaiko autore marxianoei aurre egiten zien, autorearen iritziz, gogamen-fenomenoak produkzio-bideen proprietate legala bezain garrantzitsuak baitziren.

"Kontzientzia" gaia, urte askotan, Psikologiaren funtsezko ikergaitzat hartua izan bada ere, gutxi dira "kontzientzia politikoaren" inguruan eginiko ikerlanak, eta "klase-kontzientziaren" ingurukoak, hain zuzen. Arlo honetako lan nabarmene-

tariko bat Richard Centers-en *Klase sozialen psikologia. Klase-kontzientziaren azterketa* (1949) idazlana da, premisa teoriko ez-marxistetan oinarritua. Halere, terminologia marxista ezaguna duen irakurleari liburuaren tituluak edukiaren irudi faltsua eman diezaioke, zeren geruza sozial desberdinen jarrera soziopolitikoei buruzko azterketa baita (adibidez, emakumearen rola, erlijioa, balioa, desira eta abar.).

H.S. Sullivan (1940) psikiatrak ingurunearen garrantzia azpimarratzen zuen, gizabanakoa gizartera egokitu behar zela argudiatuz. Egokitzea gertatuz gero, gogamen aldetiko gizabanako osasuntsua zegoen. Baina, gizabanakoa endotaldearen arauetara baino egokitu ezean, gizabanako "erradikala" zen ondorioa, bere bulkada erradikalak justifikatzeko endotaldea erabiltzen zuena.

Kardiner-en idazlanean, psikoanalisia funtsezko bihurtu zen gizartearen eta gizabanakoaren arteko harremanak aztertzeko. Bigarren Mundu Gerran eta horren ondoren ere, gobernuek gizarte primitiboak ikertzeko antropologo, psikiatra eta psikologoak kontratatu zituzten, nazio modernoetan antzeko azterketa egiteko. «Helburua zen ondoren "izaera nazionala" izendatu zena aztertzea, "nortasunaren oinarrizko egituraren" antzekoa zena» (House, 1981:531).

Azterketarik ezagunenak eta argudiatuenak Gorer-enak dira, japoniar izaera nazionalari buruzkoa (1943) eta errusiar izaera nazionalari buruzkoa (Gorer eta Rickman, 1949), hain zuzen ere. Ikerketa horien eta garai haietan egin ziren antzekoen oinarrian nortasuna eta gizartea lotzen zituen oinarrizko teoria zegoen, Gore-k berak formulatua. Teoria horren arabera, gizarte jakin batean "mantentze-sistemak" aritzen ziren, funtsean, ekonomia, egitura soziala, kultura, eta besteak. Sistema horiek "hazkuntza goiztiarreko praktikak" mugatzen zituzten, amek eta beste agente sozialek, haurrekin erabiltzen zituzten praktikak. Horrela, denboraren poderioz, nolabaiteko "haur-nortasuna" gauzatzen zen, eta kulturaren barnean uniformea izateko joera zuen. Nortasuna "nortasun heldua" bihurtzen zen, gizartean, oso ekoizpen kultural zehatzen isla zena.

Fromm psikoanalisian (praxia) eta marxismoan (Frankfurteko Zirkuluan kidetza) aditua zen. Ikuspegi biak elkarri lotzeko, Kardiner-engana hurbildu zen; azken finean, autore horrekin bat eginik, "matrize sozial eta kulturalak" herri eta zibilizazioak moldatzen dituelako ideia zuen eta.

Askatasunari beldur idazlanean, 1941ean argitaratua, Mendebaldeko zibilizazioan faxismoak suposatu zuen krisialdia aztertu zuen. Horretarako, XX. mendean nagusia izatera heldu den izaera-motaz baliatu zen, hau da, nortasun autoritarioaz. Europan, Erreformak suposatu zituen aldaketa sozialetan aurkitu zituen nortasun autoritarioaren erroak. Fromm-en arabera, garaiko gizarteetan pertsona-masa andanek esperimentatzen zituzten isolamendu eta herstura-sentimenduek sustatzen zuten indarra eta boterearen goraipamena, eta faxismoaren oinarri bihurtzen ziren. Analisi historiko, psikodinamiko eta sozioantropologikoaren elkartze hau bere on-

dorengo ikerkuntzaren ezaugarri egonkorra izan zen, eta jarraitzaile eta imitatzaile asko izan zuen.

Miller eta Dollard-en (1941) idazlana, giza portaera sozialaren inguruan, ikaskuntza-teoriatik eginiko lehen saioa izan zen. Teoria horretatik, giza portaerara erraztasun handiagoz aplika zitezkeen kontzeptuak aukeratzen ziren. Gainera, hizkuntzari eta imitazioari arreta berezia ematen zitzaien, konduktismoaren ikuspegitik eta prozedura esperimental ortodoxoen bitartez lantzen zirela. Idazlanaren azken zatian, agresioa, biolentzia, portaera kolektiboa eta psikologia politikorako interesgarriak diren beste hainbat prozesu lantzen ziren. Horrelako prozesuen bitartez, jokabide sozial guztia ikaskuntza-teoriatik azal zitekeela nabarmendu zuten autoreek, besteak beste, Eysenck-en eta Bandura-ren ekarpenak aurresanez.

B. F. Skinner-ek eta "baldintzapen operantea" formulazioak eragina izan dute psikologia politikoan. Eragina zeharkakoa ez ezik (haren ideiak portaera "politikoak" azaltzeko eta aldatzeko aplikatu izan dira), zuzena ere izan da, *Walden Dos* bezalako esperientziak egin baitira AEBn, Kanadan eta Mexikon.

Maslow-ek, "psikologia humanista" delakoaren ordezko eta bultzatzailea, beharren zerrenda (1943) landu zuen. Davies-en (1973) arabera, zerrenda horrek adierazten du erredukzionismo freudiarraren eta Murray-ren elaborazionismoaren arteko erdigunea. Behar horiek bost motatakoak ziren eta egitura hierarkikoa zuten, non behar-mota bakoitzaren zabalerak behar horien indar erlatiboa adierazten zuen. Horren arabera, behar fisikoak indartsuenak ziren. Ordenamendu hierarkikoan beharrek zuten kokapenaren arabera, maila gorenean kokaturik zeuden beharrak, organismoak ase zitzan, beheragoko beharrak ase egon behar ziren. Esate baterako, autoerrealizazio beharra asetzeko, ordenamenduan toki garaienean zegoena, beharrezkoa zen ordenamenduan beherago dauden beharrak aseak izatea aldez aurretik; hain zuzen ere, behar fisikoak, segurtasunekoak, sozio-afektiboak eta autoestimukoak, eta orden horretan, bederen. Maslow-en ereduak bestela irrazionala izan zitekeen portaera politikoaren zenbait patroi azal zezakeen. Eredu hori, psikologia politikoaren zenbait teorialarik eta ikertzailek erabili izan dute (Davies, 1973).

2.5.2. 1950-1960: zientzia politikoa eta soziologia, sozializazio politikoa, jarrerak, konformismoaren eta independentziaren arteko azterketa

Aurreko hamarraldietan Lasswell-ek adieraziriko eliteak eta elite horiek "masarengan" zuten eragin-prozesua aztertzeari ekin zion, era zabal batean, bere *Izaera demokratikoa* (1951) idazlanean. Boterean zegoen eliteak egiten zituen sinboloen manipulazioak, hau da, propagandak, arrakasta izan zuen, eliteak «agresibitatea, erruduntasuna, ahuldura eta afektua» (1951:311) erabiltzen zituenez gero. Hala ere, kontuan izan beharra zegoen kontraelitea ere bazegoela (adibidez, iraultzailea), zeinak sinboloak erabiliko zituen bere propagandak autoritate-sinboloekiko masek zuten afektua desegiteko.

Idazlan horren gunea Lasswell-ek demokraziaz zuen ardura da, bere alderdi formalean ez ezik, botere, errespetu eta beste balioen banaketa efektiboan ere. Halere, Lasswell-ek ikergai horiek lantzen zituela, nolabaiteko kontraesana adierazten zuen, elitearen eta demokraziaren artean, hain zuzen ere. Batetik, pertsonak lortu behar zituen balioei zegokienez, berdintasuna azpimarratzen zuen; baina, bestetik, berdintasun hori eliteek sustatuko zutela zioen. 1956ko idazlanean, Lasswell-ek balioen berdintasun-banaketaren alde egiten zuen.

Davies-ek (1973) dioenez, Lasswell-ek psikologia politikora egiten duen ekarpena erraldoia da, zientzia politikoen ikertzaileen arteko ekarpenik handiena. Hala ere, ekarpen hau ahaztua izan da, zientzia politikoaren teorialarien aldetik, hain zuzen ere.

Hyman-en *Sozializazio politikoa: zientzia politikoaren psikologiako azterketa* idazlana alhalegin berria izan zen alor honetan, Psikologiaren eta zientzia politikoaren zientzialarien arteko hurbilpenerako. Hyman-en idazlanaren bertutea da, haurren joera politikoen inguruan, aldez aurretik oso barreiatuak ziren teoria eta ikerketak laburbiltzea. Bestalde, bere idazlanean langile-klaseen eta klase ertaineko familien artean erkatu zuen sozializazio politikoa, familiaren eraginean nola eskolako berdinen taldeen eraginean ere sakonduz.

Duverger-i egokitu zitzaion zientzia politikoaren azterketetan metodologia zientifikoaren sarrera (1959). 1955ean *Emakumeen paper politikoa* idazlan interesgarria argitaratu zuen. Bertan, emakumeak gizonezkoak baino eskuindarragoak eta kontserbadoreagoak zirela aurkitu zuen, bai alderdi politikoetan bai jarrera orokorren lehentasunetan, eta gizabanako inkonformistekiko —sozialistak eta komunistak, esaterako— tolerantzia gutxiago zutela. Emaitza hauek, halere, zalantzan jarri izan dira gerora.

Riessmann-en arabera, gizarteko parametro ekonomikoen aldaketek sustatzen zituzten gizarte horietan zeuden izaera-tipo nagusienetan aldaketak. Autorearen ustez, funtsezkoa zen egitura sozialen eta izaeraren arteko erlazioen eboluzioa, egun dauden hiru gizarte-motetan: a) *tradizionala*, b) *hedapen ekonomiko eta demografikoa*n dauden gizarteak; c) demografia-beherapen aldiko *oparotasun-gizartea* (Riessmann *et al.,* 1950).

Hedapenaldian dagoen gizartearen izaera *barnetik zuzendua* da, hau da, ez du behar tradizioak ematen duen kanpo-zuzendaritza. Gainera, gai da gizarte aldakorrak ekartzen dituen arazo berriei aurre egiteko. Gizarteak, independentzia-printzipioen aldez aurretiko barneratzeari esker eta ondo eginiko lanari esker, gidatzen du bere jokabidea. Ingurukoen onespen sozialaren gabeziarekiko kutsagaitza da, zeren jarritako irizpide edo estandarrei soilik erantzuten baitie.

Garaturiko gizarteetan, aldiz, izaera, *kanpotik zuzendua* da. Gizarte-mota hauetan masa-kontsumoa nabaria da. Pertsonek materia-inguruneak baino garrantzi

handiagoa dute, eta besteek norberari buruz pentsatzen dutenaren araberako jokabidea azaltzen da. Besteekiko dependentzia garaia da eta lokarri sozialen etenaldiak norabiderik eza sorrarazten du. Riessmann-en tesia ondokoa da, alegia, egun masakontsumoko eredu honen antzeko gizarteak gero eta gehiago dira, eta "andana bakartiak" sortzeko joera dute; hau da, besteekiko ukipena oparoki bilatzen duten pertsonak sortu dira, baina gogamen eta ideia propiorik gabeak dira (Bryant, 1978).

Erikson-ek ere eragina izan zuen psikologia politikoan, *Haurtzaroa eta gizartea* idazlanaren bitartez. Lan horretan, pentsamendu psikoanalitikoa eta planteamendu sozialak elkarri lotzeaz gain, giza garapenari buruzko kontzepzioa ere azaldu zuen. Garapen hori osatzen zuten zortzi aldietan zehar, gizabanakoak bilatzen zituen interesak aldatzen ziren. Kontzepzio hori oso baliagarria izan da karrera politikoaren ulermenerako.

Freud-en psikoanalisi tradizionaletik aldenduz, Erikson-ek, sozializazioa, positibotzat hartzen zuen, nortasunaren potentzialitateen garapen osoa suposatzen zuena. Bere ustez, haurrari inposatzen zaizkion frustrazioak eta bulkaden errepresioa ez ziren neurosiaren kausa; bulkaden berezko zuzentzea ez zen berez negatiboa, zuzentze horren zentzu sozialaren gabezia zen negatiboa, ordea.

Bestalde, Erikson-ek Lutero-ren (1958) biografia idatzi zuen, eta ondoren Gandhi-rena (1969). Lider politikoen inguruko lehen biografiak izan ez baziren ere (1916an Lord Charnwood-ek Abraham Lincoln-ena eta 1938an Edgar Snow-ek Mao Tse Tung-ena idatzi zituzten), ondorengo psikobiografietan eragin handia izan zuten.

1950ean, *Nortasun Autoritarioa* argitaratu zen, Psikologian idazlanik eragin-korrenetariko bat. Bertan, planteamendu psikologikoen eta politikoen arteko lotura osoa azaldu zen, eta Stone-ren arabera (1981), psikologia politikoaren aro berriaren hasiera zabaldu zuen. Idazlanaren egilea lan-taldea izan zen, Adorno, Frenkel-Brunswick, Levinson eta Sanford-ek osatua, autoreen ordena, bakoitzak egindako lanaren aldetik, alderantzizkoa izan arren.

Nortasun Autoritarioa Adorno kidea zeneko Ikerkuntza Sozialeko Institutuaren ikerketa-lerroan kokatzen da. Aldez aurretik, Erik Fromm-ek *Autoritate eta Familiari buruzko Ikasketak*, Bettelheim eta Janovitz-ek (1950) *Aurreiritziaren Dinamika*, eta Ackerman eta Jahoda-k (1950) *Antisemitismo eta nahaste emozionala* argitaratuak zituzten. Horrela, Adorno-k zuzenduriko ikerkuntza, nahiz originaltasun handiko ñabardurak izan, oinarri sendoak zituen tradizio batean kokatzen zen.

Denbora pasa ahala, ikerketa erraldoi horretatik funtsezko ekarpena autoritate-sindromea neurtzeko lanabesa (F eskala ospetsua) izan zela zabaldu da, nahiz eta Adorno-k eta lankideek jarrera-eskalak erabiltzeaz gain, elkarrizketa klinikoak, test proiektiboak eta abar. erabili zituzten. F eskalan, puntuazio altua jasotzen zuten pertsonek talde faxisten ideologia eta propaganda onartzeko aurrejoera hobea

zuten. Ikerkuntza handia bideratu izan da F eskalaren eta beste nortasun bereizgarri batzuen arteko loturak frogatzen.

Hala ere, akatsa litzateke *Nortasun Autoritarioa*ren ekarpena F eskalara mugatzea (ikus Torregrosa, 1969). Izan ere, ikerkuntzaren helburua, batik bat, eboluzio indibidualean nortasun autoritarioaren sorrera azaltzea izan zen, eta ikerlanaren alor horretarako psikoanalisia funtsezkoa izan zen. Liburuaren tesia honako hau izan zen: exotaldeekiko antisemitismoa (A eskala) eta aurreiritzia (etnozentrismoa) (E eskala) funtsezko elementuak ziren faxismora zuzenduriko nortasunean (F eskala), kontserbadurismoarekin (C eskala) batera. Beste era batera esanik, exotaldearekiko aurreiritzia, eta autoritarismoa oro har, nortasunaren oinarrizko konfiguraziotik —alderdi kognitiboak eta motibazionalak barne— eratortzen ziren. Gizabanako autoritarioek pentsamendu estereotipatua zuten eta gutxiengoekiko edo euren mendekoekiko agresibitatea ere bai. Euren *nia* ahula zen, eta agresio eta sexubulkadak, besteekiko proiektatzen zituzten. Nolabait laburbilduz, sindrome autoritarioak ondoko ezaugarriak zituen: 1) Konbentzionalismoa: klase ertaineko balioekiko atxikimendu zurruna. 2) Autoritatearekiko mendetasuna. 3) Agresio autoritarioa. 4) Anti-intrazepzioa: subjektiboarekiko eta imajinazioaren aurkakoa. 5) Superstizio eta estereotipia: gizateriaren patuko mugapena. 6) Botere eta gogortasuna; boterearekiko identifikazio gehiegizkoa. 7) Suntsigarritasuna eta zinismoa: gizateriarekiko etsaigoa. 8) Proiektibitatea: bulkada irrazionalak kanpora proiektatzeko joera. 9) Gehiegizko sexu-ardura: arau-desbideraketarekiko gaitzespena.

Eysenck-ek, 1954an argitaratutako *Erabaki politikoaren psikologia* idazlana, bi zatitan antolatu zuen. Lehenengoan, Eysenck-ek berak garaturiko eskala batekin eginiko ikerketa-saila aurkezten zen. Bertan *Nortasun Autoritarioa*ren autoreei erantzuna ematen saiatu zen. Eysenck-en ustez, onartezina zen Adorno eta abarren autoritarismoaren eta faxismoaren arteko identifikazio osoa. Eysenck-en galde-sorta, 1954tik aurrera luze erabilia, jarrera soziopolitikoen neurketan klasiko bihurtu da. Bertan bi artikulazio-dimentsio ziren nagusi: kontserbadurismoa vs erradikalismoa, eta mentalitate itxia vs irekia (Billig, 1982)

Hovland-ek Yaleko animalia-ikaskuntzaren laborategian lana egina zuen, 30eko hamarkadaren bukaeran eta 40ko hamarkadaren hasieran, Hull-en zuzendaritzapean. Bigarren Mundu Gerran parte hartu zuen Stouffer-ek koordinaturiko *Soldadu Amerikarra* ikerlan kolektiboan, eta bertan, "masa-komunikabideei buruzko esperimentuen" arduraduna izan zen Hovland.

Yale Unibertsitateko irakasle-jarduera berrartu zuenean, unibertsitate horretako komunikazio-programa zuzendu zuen, hamar bat urte iraun zuena (1950etik 1960ra). Bertan, inoiz baino zehaztasun handiagoz eta ordura arte aldagai biko esperimentuekin bakarrik landuak izan ziren komunikazio pertsuasiboaren ezaugarriak ikertu ziren, jarrera-aldaketak lortzeko eraginkorrak baitziren. 1959ko artikulu

batean Hovland-ek bere azterketa esperimentalen emaitzak eta egoera naturaletan eginiko jarrera-aldaketaren azterketarenak erkatu zituen.

Hovland-en ikerkuntzak emandako efektu askoren artean, agerikoa da "lozorro efektua" (*Sleeper-effect*): komunikatzailearen sinesgarritasunaren efektuak, denbora pasa ahala, desagertzeko joera zuen (Kelman eta Hovland, 1954). Hau da, «denbora pasa ahala, subjektuen iritziek komunikatzailearen (sinesgarritasun baxukoa) argudioaren norabidean aldatzeko joera zuten, baina sinesgarritasun altuko komunikatzailearen norabidera jotzen zuten subjektuari *nork* (eman zuen mezua) gogorarazten zitzaionean» (Davies, 1973:11). Efektu honen ondorioak jokabide politikorako interesgarriak dira, gizartean, gutxiengo edo talde minoritarioen eta bazter-taldeen eraginpean agertzen diren jarrera- eta uste-aldaketak azal ditzaketen neurrian.

Eysenck eta kolaboratzaileek portaera politikoa jarrera bakar baten neurketatik azaltzen zuten. Smith, Bruner eta White-k (1956) gauza bera egiten zuten, pertsonaren funtsezko iritzi eta jarrerek betetzen zituzten funtzioetan oinarrituz. Autoreen arabera, iritzi eta jarrerak pertsonei zertarako zaizkien baliagarri jakinez gero, orduan, zergatik hartu eta mantentzen diren ere jakitea dago, baita zeintzuk diren jarrerak aldatzeko estrategia egokiak ere. Autore horiek planteatzen zituzten funtzioak ondoko laurak dira: i) *Funtzio utilitarioa* edo *doitze-funtzioa*: jarrera harreman soziala ezartzeko baliagarria denean. Adibidez, erreferentzia-talde batekin identifikatzeko. ii) *Funtzio ego-babeslea edo kanporatzailea*: gizabanakoak, nahi gabe, kanpoko jazoera bati erantzunez, barne-gatazka adierazten duenean. Adibidez, norberaren ziurtasunik eza iluntzen duten gutxiengoekiko jarrera eta aurreiritziak. iii) *Objektuen funtzio ebaluakorra*: pertsonaren interesak islatuz, inguruko jazoera eta objektuak hautemateko eta hartzeko baliagarria denean. Objektuen kategorizazio-prozesupean egoteko joera du funtzio honek. iv) *Funtzio adierazkorra*: gizabanakoaren berezko estiloa helarazteko baliagarria denean (gehiago sakontzeko, ikus Kiessler *et al.,* 1969).

Festinger-en *Disonantzia kognitiboaren teoria* (1957) ikerlanak eragin handia izan zuen jarrera-teorian, oro har, eta jarrera soziopolitikoen ingurukoan ere bai. Bertan, disonantzia jasateko gauza ez zen gizabanakoa aurkezten zen; hau da, norbera edo barne-pentsamenduaren eta kanpo-portaeraren arteko inkoherentzia jasateko gai ez den gizabanakoaren irudia. Idazlan horretan disonantzia urritzeko gizabanakoek zituzten erak ere agerrarazten ziren.

Asch-en *Gehiengoaren presio bateratua* (1952) esperimentuak taldeak norberaren hautemateak soslaitzeko dituen ahalmenak azaldu zituen. Konformismo edo gehiengoaren menderatzearen paradigma sorrarazi zuen, nahiz eta bere jatorrizko asmoa judizio-askatasuna sustatzen zuten baldintzak izan.

Ikertzaile amerikar gehienek konformismoa landu zuten arren, Marie Jahoda-k maccarthysmoaren testuinguru politikotiko independentzia landu zuen (1956). APAk 1979an honelako gorazarre-hitzak egin zizkion: «MacCarthy-ren garaian, murrizteen autoinposizioan, segurtasun-neurriek eta zerrenda beltzek zuten eragina landu zuen. Bere lanak gurutzada antikomunistak sustaturiko obedientzia ideologikoan izaniko efektu erreala argitu egin zuen» (1980:74).

2.6. PSIKOLOGIA POLITIKOAREN INSTITUZIONALIZAZIORA ARTE

2.6.1. 1960-1970: nortasuna eta sistema soziala, sozializazio politikoa, **kontrol-locus***a, anomia eta ideologia, politikari profesionalak, nazionarteko harremanak, eta norabide berriak*

Inkeles eta Levinson-en (1969) arabera, 1955. urteak kultura eta nortasunari buruzko azterketen lehen aroaren amaiera adierazi zuen, "nortasunaren oinarrizko egituraren" ideia krisialdian sartu baitzen. Ikerketa-lerro hau irteerarik gabeko zuloan zegoen zenbait arazorengatik: 1) arazo metodologikoak, ez baitzen datu sistematikorik biltzen, 2) ezta populazioen nortasun-ezaugarrien datu ordezkagarriak ere; 3) ez ziren zehazten erabiliriko hazkuntza-praktikak, ondokoa suposatzen zelako, alegia, «...partekatutako portaera-ereduak dira partekaturiko nortasun-ereduek ekoiztuak; era berean, azken horiek partekaturiko hazkuntza-ereduen esperientzien ondorioa baitira» (House, 1981:543). Azterketa enpirikoek oinarri hauei muzin egiten zieten. Nortasun-ereduak ez dira homogeneoak, gizarte primitiboetan hazkuntza-praktikak uniformeak ez diren bezalaxe. Hazkuntza-praktiken eta nortasunaren arteko loturak ere ez ziren argiak. Arazo hauen pilatzea zela eta, planteamendu sendoagoak zituzten azterketa berriak agertu ziren.

Milgram-en ikerlanak (1963, 1969) agerikotasuna lortu zuen, publiko orokorraren artean subjektu esperimentalei ezarririko egoera larriarengatik, eta psikologo sozialen artean eragin sozialaren azterketarako paradigma sortzeagatik. Hala ere, Stone-k (1981) arrazoia zuen, esperimentu hau, nortasun-desberdintasunen eraginaren frogatzat baino areago egoerazko faktoreek jokabidean izandako eraginaren froga garbitzat hartzean. Subjektu esperimentalen *% 69k* —estratu sozial desberdinek osatua— esperimentatzailearen aginduei men egin zieten, eta deskarga elektriko mingarriak, eta potentzialki hilgarriak, eman zizkioten biktima inozenteari. Obedientzia-maila, egoeraren aldaketen (subjektu esperimentalarengan egiten zen presioa) arabera baino ez zen aldatzen.

Rokeach-ek *Mentalitate zabala eta itxia* idazlanarekin (1960) zirrikitu bat zabaldu zuen ordura arte monolitikoa zen nortasun autoritarioaren interpretazioan. *Studien*-etik Fromm-engana eta horrengandik Adorno eta kolaboratzaileengana heldu zen hipotesia gogoratuz, nortasun autoritarioak izaera-nahasketa larriak mozorrotzen zituen, *nia*ren ahulezia eta *zera*ren bulkadak gelditzeko zailtasunak zirela eta. Rokeach-ek, hipotesia onartu bainoago, funtzionamendu kognitiboan birkokatu

zuen oinarria. Autoritarismoa mentalitate itxiaren funtzionamendu kognitiboak zuen estiloa izatera heldu zen. Izen berria sortu zuen adierazteko, *dogmatismoa;* baita neurtzeko eskala berria ere, *D eskala*. Rockeach-en arabera, dogmatismoak ez zuen erlaziorik uste politikoekin. Hala ere, frogatu izan da, "eskuineko taldeetako kideek, ia aldakortasunik gabe, ezkerreko taldeetako kideek baino puntuazio altuagoak dituztela" D eskalan (Stone, 1981:34).

McClelland-ek *Gizarte anbiziosoa* (1961) idazlanean konpondu egin zituen, *Nortasun modala* eta *Izaera Nazionala* lanetan autoreek egindako akats larrienetariko batzuk. Weber-en kapitalismoaren sorkuntzarako azalpenari eduki psikologikoa ematen saiatu zen. McClelland-ek, etika protestantearen ekarpenarekin ase gabe, motibazio-mota berri bat sartu zuen, lorpen-motibazioa, hain zuzen. Gainera, motibazio berria neurtzeko tresna sortu zuen eta independentziaren heziketa goiztiarraren bitartez eskuratzen zela ere frogatu zuen. Ondoren, Weber-en tesia historikoki baldintzatuta zegoela frogatzen saiatu zen, eta hazkuntza ekonomikoaren benetako erantzulea ez zela etika protestantea, lorpen-motibazioa baizik. Denboraren poderioz, McClelland-en analisia ezegokitzat eta oso handinahitzat hartu izan bada ere, originaltasunean eta zehaztasun metodologikoan gainditu egin zituen Gorer, Fromm eta Dicks-en analisiak, besteak beste.

Almond eta Verba-k (1963) jarrera politikoen eta instituzio politikoen arteko kongruentzia aztertu zuten, sistema demokratikoko bost naziotako populazio helduaren lagin adierazgarrian (AEB, BH, Alemania, Italia eta Mexiko). Autoreen arabera, herritarren gaitasun politikoa, instituzio desberdinekiko konfiantzaren bitartez adierazirik, kultura politikoa sortzen duen nazio bakoitzeko historia bereziari dagokio. Autoreen azterketak tradizio berri bati ekin zion, gizarte desberdinetako lagin adierazgarrien ezaugarri psikologikoen eta sistema sozial eta politikoaren arteko erlazioak aztertuz.

Bi urte lehenago, Verba-k psikologia politikorako ekarpen garrantzitsua argitaratua zuen, oharkabean gelditu zena: *Talde txikiak eta portaera politikoa: lidergoaren azterketa* (1961). Bertan, talde txikiaren analisitik abiatuz, zientzia politikorako "egoki eta erabilgarriak" ziren teoriak garatzen saiatu zen. Autorearen ustez, «era guztietako talde primarioek, prozesu politikoaren puntu estrategikoetako harreman politikoetan, bitartekotza-lana egiten dute»; beraz, beharrezkoa zen zientzia politikoa, lidergo politikoa, sistematikoki aztertzen saiatzea (1961:4-5). Autorearen helburua bukatu gabe gelditu zen, taldeen inguruko ikerketaren adierazpen paregabea bazen ere, ez baitzuen lortu prozesu politikoekin uztartzea, bere hasierako asmoa zena.

Inkeles-ek, 1960an, egitura sozialen eta izaera edo nortasun indibidualen arteko erlazioen analisirako proposamen berria egin zuen. Proposamen hori Kardiner-en formulazioarekiko lehen alternatiba esplizitua izan zen: «Antzeko egitura duten instituzioek partaideen nortasunean egitura edo erregulartasun psikiko komunak

sortzeko joera dute» (Suzman, 1977:40). Kardiner-ek antzeko sozializazio-prozesuaren bitartezko kultura barneko berdintasunak eta kulturen arteko desberdintasunak aurreikusten zituen, kultura desberdinetan antzeko instituzioak baziren ere. Inkeles-ek, berriz, alderantzizkoa aurreikusten zuen: «Antzeko kokapen sozio-ekonomikoko pertsonak, gizarte industrializatu askotan, antzekoak dira balio eta jarreretan» (1969, 1978). Garapenean zeuden sei herrialdetako sei mila langilez osatutako laginaz egin zuen ikerketak frogatu zituen azken autore honen aurreikuspenak.

Kohn-en (1969) ikerlanak klase sozial jakin bateko kidetzaren eragin indibidualari heldu zion, eta, nolabait, Inkeles-en ikerlana osatu egin zuen. Kohn-en ustez, "klase-kulturak" ez zituen klase horretako haurrak haurtzarotik moldatzen. Azalpen estrukturala hobesten zuen: pertsonen lanbideak eta lan-baldintzak garrantzitsuak dira balio eta jarrerak ulertzerakoan. Beraz, Kohn-en arabera, pertsonaren okupazioaren eraginak gurasoen statusetik aske ematen ziren, eta alderantzizkoa ez zen egia.

Sozializazio politikoa aztertzeko alorrak Hyman-en ikerlanetik hazkuntza sendoa jasan izan zuen. 1960an F. I. Greenstein-ek "Borondate oneko Liderra: autoritate politikoaren haurtzaroko irudiak" artikulua argitaratu zuen, datu enpirikoetan oinarritua. Urte berean, Hess eta Baston-ek ikerketa baten emaitzak argitaratu zituzten, aitarekiko jarreren eta presidentearekiko jarreren arteko harremana frogatuz.

1965ean Greenstein-en *Haurrak eta politika* liburua argitaratu zen, New Haven-eko haurrengan oinarrituz. Bertan ondoko gai hauek aztertu zituen: autoritate politikoarekiko jarrerak, haurren informazio politikoen eta euren alderdi-motibazioaren garapena, klase sozialaren eta ikaskuntza politikoaren arteko erlazioa, sexu-desberdintasunak ikaskuntza politikoan eta aurreko alor horiek denboran zehar jasaten zuten aldaketa eta egonkortasuna. Autore honen ekarpen garrantzitsuenak honela laburbil daitezke: a) helduen portaera politikoaren alde garrantzitsuen erroak haurtzaroko ikaskuntza politiko goiztiarrean kokatzen dira; b) haurrek gobernari eta politikari amerikarrekiko dituzten kontzepzioak oso aldekoak dira —emaitza hau Easton eta Hess-enekin (1962) bat dator—; c) hein zabal batean, sozializazio-prozesuaren eraginak kontserbatzaileak dira. Sozializazio-prozesuak *status quo*a indartzen du, batetik, partaidetza politikoan klase- eta sexu-desberdintasunak iraunkor eginez, bestetik, alderdi-hobespenen belaunaldien arteko egonkortasuna dela medio, eta, azkenik, instituzio politikoetan helduek duten konfiantza belaunaldien artean egonkor bihurtuz. Hain zuen ere, autoreak aurkitu zuenaren arabera, klase ertaineko haurrak interesatuagoak ziren politikan, langile-klaseko haurrak baino, eta klase bietan interes hori handiagoa zen haurrengan; gainera, emaitza bitxia, klase ertaineko gurasoek, erabakiak hartzean, kontzepzio demokratikoak eta aktiboak erakusten zizkieten haurrei.

Ikuspuntu sozialetik, sozializazio-prozesurik garrantzitsuena, ziur asko, garapen moralarena da, hau da, jokabide moralari dagokionez, haurrak arau eta usteak jasotzea. Garapen morala, teoria askok ikertu izan du, bakoitzak bere ikuspegitik egin badu ere. Adibidez, psikoanalisiak prozesu horri egozten dio *superni*aren garapena. Halere, ikuspegi kognitiboak azaldu du ondoen garapen moralaren prozesua, Piaget-en jatorrizko ikerlanari jarraikiz. Ikuspegi horren arabera, hiru fase zeuden garapen moralean. Lehenengo fasean, haurrak baimendua duena eta debekatua duena ezagutzen du, baina ez da arau-iturriaz jabetzen. Bigarren fasean, arauak aldaezinak dira. Hirugarren fasean, dauden arauak konbentzioz ezarriak izan dira, talde-ekoizpenak dira, eta beste era batekoak izan zitezkeen. Kohlberg (1963) Piaget-engandik bereizi zen, prozesu morala, moral heteronomotik moral autonomorainoko urrats soila baino areago prozesu luze eta konplexutzat hartzean. Kohlberg-en analisiaren ondorioz, maila batetik besterako urratsa emateak aurreko mailari lotutako pentsamendu-moldetan aldaketa suposatzen zuen. Horren arabera, moraltasuna hiru mailatan banatzen zen (aurrekonbentzionala; konbentzionala eta postkonbentzionala), hauetariko bakoitza bitan bana zitekeela, ondorioz, garapen moralaren sei maila agertuz: 1) zigorra ekiditea, 2) sariak lortzea, 3) gaitzespena ekiditea, 4) "autoritate legitimoen zentsura eta ondorengo erruduntasuna ekiditea", 5) behatzaile inpartzialen begirunea mantentzea, komunitateko ongizatearen arabera juzgatzen baitute, 6) autozentsura ekiditea (1963).

Hamarraldi honen bukaeran *Sozializazio politikoa* izeneko bi idazlan agertu ziren, bata Dawson eta Prewitt-ek idatzia, eta, bestea, Laughton-ek idatzia. Lan horietan, sozializazio politikoaren azpialorrean onarpen zabaleko ideia baieztatzeaz gain, bizitzaren lehen urteen garrantzia azpimarratzen zuten baieztapen teorikoak zeuden. Gainera, sozializazio-prozesuen jakintza enpirikoari ekiteko egindako saioak gutxi zirela adierazi zuten autoreek.

Greenberg-en (1979) *Sozializazio politikoa* liburua ere aipatzekoa da, aurreko hamarraldian alor honetan eginiko ikerkuntza nagusien sintesi polita baita. Horretaz gain, Sears, Lindzey eta Aronson-en *Handbook of Social Psychology* lanaren bigarren edizioan eginiko laburbiltzea aipagarria da.

Davies-ek zioenez (1973), II. Mundu Gerraren ostean, psikologia politikoaren alorrean elkarren artean nahiko bereiziak ziren ikerkuntza-bideak agertu ziren. Horietariko bat da demokrazia iraunkorretan boto-jokabidearen azterketa, Michigango Unibertsitateko Survey Research Center delakoak buruturiko ikerkuntza (Campbell *et al.,* 1960). Campbell-en ikerlanak, ikuspegi makrosozial eta demografikotik, izaera psikologikoagorako hausnarketa-aldaketa suposatu zuen, hautagaiekiko jarrerak eta alderdi politikoarekiko identifikazioa aldagaiak kontuan hartu behar ziren eta (Sobral *et al.,* 1986). Hala ere, 1960ko Campbell-en ikerlaneko alderdirik interesgarrienetariko bat *eragin politikoaren sentimendua* aztertzea da. Efikazia politikoaren sentimendu altuko gizabanakoak —kontzeptu hau bost itemeko eskalaz neurturik— herritarrek herrialdeko gobernuaren gaietan eragina

izan zezaketela pentsatzen zuen; sentimendu baxukoak, aldiz, politikariak eta haien jarduerak herritarraren eguneroko kontrol eta boteretik kanpo zeudela pentsatzen zuen. Gainera, oso emaitza iradokigarria aurkitu zuen: gai publikoarekiko liberalismoaren eta gai pribatuekiko liberalismoaren arteko korrespondentziarik eza. Ideia bikoitza hau beste zenbait alorretan agertu izan da berriz, alegia, sexu-jarreretan, etxeko lanen banaketetan, eta abar.

Ildo beretik, Milbrath-en (1965) ikerlana aipatu beharra dago. Babes enpirikorik ez zuen arren, partaidetza politikorako moduen eta zergatien laburpen sistematikoa burutzeaz gain, koherentzia teoriko nabarikoa izan zen.

R. Lane aipatua izan da aurreko hamarraldian. Hamarkada horretan bi ekarpen garrantzitsu argitaratu zituen. Lehena *Ideologia Politikoa* (1962) da, jarrera politikoen erroak aztertzeari heldu ziona. Psikobiografian oinarrituriko metodologiaren bidez, Lane-k langile-klaseko hamabost pertsona elkarrizketatu zituen eta nolabaiteko anbibalentzia aurkitu zuen haiengan; hau da, bizi zireneko sistema eta autoritatearekiko errespetua, batetik, eta sumindura ere, bestetik. Bigarren liburuan —*Pentsamendu eta kontzientzia politikoa* (1969)— psikologia politikoaren alorreko ikertzaileek oso gutxitan azterturiko ikergai bati ekin zion. Hain zuzen, pertsonak prozesu politikoan parte-hartzaile autokontziente gisa, norberaren kontzientziak hartzen dituen formak aztertu zituen.

Hamarraldi honetan, Rotter-ek bere ikerlerroari ekin zion, zeinak eragina izan baitzuen elkarren artean oso fenomeno eta testuinguru desberdinetakoak diren alorretan —nahaste psikikotik komunitate marjinaletako aldaketa sozialeraino—. Ikaskuntza sozialean oinarritu zen, gizabanakoek inguruneari buruz dituzten iguripenei garrantzia emanez, eta *kontrol-locus* kontzeptua garatu zuen. Kontzeptu hau nortasun-bereizgarria da, pertsonek, gertakarien inguruan, espero duten norberaren erantzukizun mailari dagokiona. Kanpoko *kontrol-locus*ak pertsonari gertatzen zaiona patuaren, zortearen edo besteen ekintzen ondorioa dela pentsatzera darama, beraz, pertsona hori kontrol gabea da. Barneko *kontrol-locus*ak, berriz, pertsonaren gaitasun eta esfortzuaren ondorioa dela pentsatzera darama.

Rotter-en teoriak eta, aldez aurretik, Seeman-ek (1959) alienazioari buruz egindakoak antzekotasun handia dute elkarren artean. Alienazioak bost esanahi hartu zituen: a) botere gabezia gisako alienazioa (*powerlessness*), b) alienazio normatiboa (*normlessness*), c) norabide gabezia (*meaningless*) gisako alienazioa, d) isolamendua eta e) autoenajenamendua.

Ondoren, Seeman-ek I-E (barne-kanpo) eskalaren kanpo-muturra *powerlessness* gisa (botere gabezia) definitu zuen. Autoreak eginiko zenbait ikerkuntzak frogatu zutenez (Stone, 1981), *powerlessness*ean baxuak (hau da, barnekoak) diren pertsonak iguripenekin bat eginik portatzen dira, eta, horrela, pertsona horiek ingurunean eragina izateko zituzten posibilitate xumeak galtzen dituzte. Hau irudikatzearren, pentsa dezagun, adibidez, oso bazterturiko komunitate batean. Halere,

*powerlessness*aren eta partaidetza politikoaren arteko erlazioa konplexua da, eta elkarren arteko harreman automatikorik jartzerik ez dago.

Psikologia politikoaren beste alor garrantzitsu bat gatazkaren azterketari dagokio. Alor honetan ezaguna da Sherif-ek haurrekin eginiko ikerketa, psikologia sozialean oso aipatua.

60ko hamarkadatik aurrera eztabaidatzen hasi zen, intentsitate handiz, ondoko hamarraldian gaina joko zuen aztergai bat: psikologo politikoen balioen eta horien azterketen ondorioek zuten eraginaren arazoa (Stone, 1981). Stone-k hainbat ikaslanen bidez frogatu zuen, psikologo politikoek "ekoizturiko" zientzian, soslai ideologikorik gabeko zientziarik ez dagoela. Arazo honen adibiderik garbiena Jensen-en (1969) lanarekin hasiriko eztabaidan dago, alegia, IQ edo adimen-koefizientean arraza-desberdintasunak azaltzeko balizko oinarri genetikoari buruzko eztabaidan.

Psikologia politikoan behin eta berriro agertu den beste ikergai bat autokontzeptua eta autoestimua aztertzea da. Gai hau lider eta zuzendari politikoen portaerari lotuta dago, baita lehen aipaturiko lorpen-motibazioa eta *kontrol-locus* ikergaiei ere. 1962an R. Wylie-k *Niaren kontzeptua* eta 1965ean Barber-ek *Legislatzaileak* argitaratu zituzten. Azken horretan, Connecticut-eko legegileekin eginiko ikerketaren emaitzak agertzen ziren, non legegile horiek galde-sortari erantzun eta sakonki elkarrizketatuak izan ziren. Barber-en arabera, euren izaera psikologikoa zela eta, legegileak lau taldetan banatuak izan zitezkeen: legegilea, iragarkizalea, ezbaitia eta behatzailea. Talde bakoitzari zegozkion gizabanakoak legislaziolanetan jasotako roletan bereizten ziren elkarren artean, baita agerturiko autoestimu-mailan ere, legegilearena altuena eta besteak baxuak baitziren (ikus Barber, 1992).

DiRenzo-ren (1967) ikerlana nortasunaren eta sistema sozialaren arteko korrespondentziaren ideia bukaeraraino eramateko saioa da. DiRenzo-ren arabera, «nortasun eta partaidetzaren, jokabide politikoarekiko interesaren, hautespen ideologikoen, eta boto-portaeraren arteko erlazioak» frogatuta egotea ez zen nahikoa (1967:2), politikari profesionalaren nortasuna alboratua izan baitzen. Ondoko autoreen ideietan oinarritu zen: 1) Spranger-en ideietan: gizaki politikoa funtsezko sei balioetariko baten gihartzea da, boterearen gihartzea, alegia; 2) Lasswell-en ideietan: gizabanako politikoarengan botere-desira hori bera ikusten du; hala ere, norberaren gabezien konpentsazio-ideia gehitu zuen DiRenzo-k; eta 3) Haberle-ren ideietan: politikaria ez da *boterearentzat* bizi dena, *boteretik* bizi dena baizik. Beraz, politikari profesionalen ezaugarriak zehazteko, boterean oinarrituriko nortasunmota bereizgarririk zegoen aztertzea zuen helburu.

Ikerketa horretan nabarmenena izan zen, 1961ean, parlamentuan aulkia zuten parlamentari italiarrekin egindakoa. Lagina 129 parlamentariz osaturik zegoen (populazio osoa 596 zen) eta ganberan ziren partidu guztiak ordezkatzen zituen

(alegia, Demokrazia Kristauko 31, Alderdi Komunistako 25, Demokrazia Alderdiko 3, Alderdi Liberaleko 11, Alderdi Sozialdemokratako 8, Mugimendu Sozialistako 18 eta Talde Mistoko 12).

Lagin horretan nortasuna neurtzeko Rokeach-en D eskala erabili zuen. Eskala honek Adornoren F eskalak zituen zailtasunak gainditu eta botere eta indarrarekiko joera neurtzen du. Gainera, «...gure helburuetarako, garrantzi teoriko handiagoa du nortasunaren egitura orokorra zedarritzen duen eskala lortzeak, nortasunaren aldagai edo elementuetara mugatzen den eskalak baino» (1967:30). Makiavelismo-eskala ere erabili zuen.

DiRenzo-ren hipotesiak sei ziren, guztiek politikari-laginaren dogmatismo-mailarekin zerikusirik zutenak. Autoreak ondoko hau aurreikusi zuen: politikarien laginean dogmatismo-maila altua izango zela (1. hipotesia), ez-politikarien laginean baino altuagoa izango zela (2. hipotesia), autoritarismorako orientabidea egongo zela politikoengan (3. hipotesia), alderdi politikoetako parlamentarien artean nortasun-egituran desberdintasunak izango zirela (4. hipotesia), dogmatismoa altuagoa izango zela muturretako ideologia zuten alderdietan (5. hipotesia), eta ezker muturreko eta eskuin muturreko alderdien artean dogmatismo-desberdintasunak izango zirela (6. hipotesia).

Hipotesien testa oinarritu zen D eskala laburtuaren bertsioari emaniko erantzunetan, gehienbat. Gainera, kontrol-taldea ez-adierazgarria (N=500), hirugarren hipotesirako makiavelismo-indizea eta bosgarren hipotesirako subjektiboki eraikitako *continuum*a erabili zituen. Oro har, aurkituriko emaitzak aurreikusiriko norabidean ari ziren.

Emaitzen artean azpimarratzekoa da, eskalako (0tik 10era) puntuaziorik baxuenak Partidu Komunistak (0,92) eta Partidu Sozialistak (2,23) hartzen zituztela. Altuenak Mugimendu Sozialari (9,55) eta Partidu Demokratikoari (9,33) zegozkien. Bosgarren hipotesia ez zen egiaztatzen: ez zegoen erlaziorik ezker-eskuineko *continuum*ean egotearen eta dogmatismoaren puntuazioaren artean. Azkenik, politika eskuindarrak mentalitate itxira jotzen zuen (dogmatikoa) eta politika ezkertiarrak mentalitate zabalera (ez-dogmatikoa) (1967).

Datuak bildu eta hipotesiak frogatzearekin batera, DiRenzo-k sistema politiko italiarraren azterketari ekin zion, baita “Izaera nazional italiarra” lantzeari ere, liburuko IV. kapituluan batik bat. Autorearen grina nortasunaren eta sistema sozialaren arteko lotura frogatzean zetzan, frogatu ezinik utziko zuena.

Psikologiaren eta zientzia politikoaren arteko desberdintasunek inflexio garrantzitsua hartu zuten Kelman-ek 1965ean argitaraturiko *Nazioarteko jokabidea: analisi psikosoziala* liburuarekin. Jokabide politikoa aztertzean, Psikologiak bete dezakeen papera aztertzen, lehengoetarikoa izan zen. Nazioarteko jokabidea haren azpialortzat hartzen zen.

Liburuaren sarreran Kelman-ek hartu zuen kokapena zehaztasun eta koherentzia altukoa da. Nazioarteko harremanen alorreko azterketa puntualak alboratu egin zituen. Horietariko batzuk gerraren garapenaren eta nazioarteko jarrera eta estereotipo nazionalen ingurukoak izan ziren. Beraz, horiek baztertu eta nazioarteko azterketa psikosozialak hobetsi zituen eskubide propioz, espezializazio-alorra izatera hel zitezkeelako (Kelman, 1965).

Kelman-ek ez zuen onartzen "beste ikerlan-alor batzuetatik eratorritako printzipio psikologikoak" nazioarteko egoeran aplikatzearekin nahikoa zenik ere. Izan ere, horrela eginez gero, ez ziren kontuan hartzen nazioarteko jokabideak dituen barneko ezaugarriak. Psikologia indibidualak, gerra eta bakeko nazioarteko jokabidera zabaltzean, testuinguruko alderdia ahazten zuen, nazioarteko harremanekiko funtsezkoa den dimentsioa.

Kelman-en oinarriak honako hauek dira: a) nazioarteko jokabidea herritar eta lider politikoen motibo eta interesen *isla zuzen hutsa baino zerbait gehiago* da; b) ezin da egon, ondorioz, auto-nahikoa eta auto-edukia den nazioarteko erlazioen teoria psikologikorik; c) Psikologiak, halere, ez du nabaritasunik galtzen; bere ekarpena "gizabanakoaren motibazio eta hautemateekin jardun dezaketen baldintza sozial eta politikoen" jakintzarekin lotu behar da, ordea (Kelman, 1965). Alderdi psikologikoak nazioarteko harremanetarako (potentzialki izan daitekeen) teoria orokorraren zatia izango dira, baldin eta, aldez aurretik "aplikagarriak diren prozesuaren puntuak" ezagutzen badira.

Nazioarteko jokabidean garrantzitsuak diren psikologiako azterketaren bi alor nabarmentzen ziren: nazioarteko irudiak eta nazio-irudiak batetik, eta nazioarteko harremanetan interakzio-prozesuak bestetik. "Irudia", pertsonak bere nazioaz, beste nazioez eta nazioarteko sistemaz duen kontzepzio osatua da. Nazio bakoitzak bere irudia du, nazio horretako pertsona guztiek, fideltasun handiagoz edo txikiagoz eta partzialtasun joriagoz edo urriagoz, onartzen dutena. Horregatik, irudiak ideologia politikoa kontzeptualizatzen laguntzen du, maila sistemikoa eta indibiduala lotuz. Irudia erkaketak egiteko ere baliagarria da, nazio bat, besteen aurrean, bere burua aurkezteko era eta besteek hautematen duten modua erkatzeko, alegia. Liburuko zenbait artikuluk nazioarteko eta nazio-irudien mugatzaileak aztertzen zituzten.

Era berean, nazio eta nazioarteko sistemak baliagarriak ziren hainbat interakzio sozialetarako definizio-testuinguru gisa: a) populazio nazional jakin batean gertatzen diren interakzio-prozesuak, «nazioarteko ekintza hartzeko orduan, prestatze-egoera sortzeko baliagarriak baitira» (1965:29), sentimendu abertzalearen sorrerarako, esaterako; b) nazioarteko harremanen erantzuleak diren pertsonek, gobernu barnean, egiten dituzten interakzioak; c) zenbait herrialdetako pertsonen arteko interakzio zuzenak.

Hala ere, nazioarteko harremanen azterketek, bai irudien ingurukoek, bai interakzioen ingurukoek, ekarpenak egin zituzten. Ekarpen horien garrantzia

kontzeptu-ikuspegi egokian kokatzen direnean baino ez da onartzen; Kelman-en hitzetan, ondoko galderari era egokian erantzuteko baldintzak sortzen baldin badira gertatuko da hobespena: zein da probabilitatea interakzioko (bi nazioren artean) egoeran hasitako gertakizun-sail batek emaitza jakina izan dezan, adibidez, gerra edo bakea?

Galdera horri erantzuteko bi analisi-mota egitea beharrezkoa zen. Lehenengoz, interakzioaren garapena bost urratsetan zehar jarraitzea: komunikazioa, egoeraren definizioa, ekintzarako egokia den ingurumenaren garapena, ekintza bera, eta ekintzaren ondorioak; horrela, interakzio-maila berri bat sustatuko da edo hasierako orekara itzuliko da. Bigarrenez, arreta handiagoa jartzea urrats bakoitzean eragina duten faktoreetan: *gizarte-faktoreak*, nazioarteko harremanen mugak zehazten dituzten nazioen ezaugarriak; *jarrera-faktoreak*, erabaki eta ekintza jakin batzuekiko aurrejoerak; eta *egitura-faktoreak*, erabakietan eragina nork duen, eta nola gauzatzen den. Azterketa psikosoziologikoa, funtsean, «bi nazioren arteko interakzioan jarrera-aldagaien efektuetan» oinarritzen da (Kelman, 1965:33).

Oso gaurkotuak dira Osgood-en (1962) —APAko lehen presidentea— planteamenduak. Autorearen ustez, nazioarteko tentsioaren urritzea, nazio batek aldi bateko armagabetze mailakatua hasiz lor zitekeen, zeren horrek, aurkako nazioan, gauza bera egiteko presioa eragingo baitzuen.

1948an Arazo Sozialen Azterketa Psikologikorako Elkarteak Lewin-en oroimeneko saria eratu zuen —*Kurt Lewin Memorial Award*—. Garapen zientifikoa zela medio, aldaketa eta hobetze sozialerako lanik onena adierazten zuen autoreari emateko saria zen. Ordutik *Journal of Social Issues* aldizkariak argitaratu ditu autore horien hitzaldiak. Hitzaldi horietariko batzuek, denek ez esan arren, psikologia politikorako interesa adierazten zuten. Kapitulu honetarako aipagarria zaigu ondokoa: Clark-en (1965) "Botere eta aldaketa sozialeko arazoak: psikologia sozial nabarmenerantz". Autore honen tesi nagusiaren arabera, psikologia sozialak konpromiso politikoa hartu behar zuen, ez borroka politiko konbentzionalari ekiteko, baizik eta gizartea aldatzean eta hobetzean parte hartzeko. Boterea, zientzia sozialeko funtsezko kontzeptua izanik, eta psikologia sozialak hura aztertzea ekidin duelako, bere status zientifikoa konpromisorik gabeko metodologia garatzen eta sendotzen ari izan da. Beraz, psikologia sozialak uko egin dio «ikerkuntzarako garrantzitsua den botere-kontzeptua onartzeari(...) (zeren horren onarpenak) gaurko ikerkuntzaren zati handi baten atzean zer dagoen berrikustera bultzatuko bailituzke psikologo sozialak» (1965:6). Boterea aztertzeari uko eginez ez da objektibotasunik lortzen, arazo sozialen aurrean axolagabetasuna adieraztean baizik.

Clark-en arabera, zientzia sozial guztien artean, psikologia soziala da boteregaia ulertzeko gutxien egiten ari dena. Alde batetik, oztopoak jartzen ari zaizkio ikuspegi integratua lortzea ahalbidetuko lukeen diziplinen arteko partaidetzari, eta bestetik, bidea errazten ari zaie «Psikologia, kontrol mekanizista, eta zentzugabeko saritze-estrategia huts gisa hartzen dutenei» (1965:19).

Hamarraldi honetan, psikologia politikoaren ekarpenak barreiatzen hasi ziren hainbat tokitan. Hala nola, Suedian, Himmelstrand (1960) —urrats aitzindariei jarraikiz eta azterketa sozial enpirikoei aditasun urria ematen zien korronte baten aurkakoa— eta Sjöblom (1968) —*Partidu-estrategiak, partidu anizkoitzeko sistema batean* argitaratu zuena, zeinak zientzia politikoaren eskandinaviar ikertzaileen belaunaldi oso batengan eragina izan baitzuen—; Latinoamerikan, Davila eta kolaboratzaileen (1956) lanak, haur mexikarrek Estatu Batuetako haurrei buruz zuten irudien ingurukoa; Salazar-ena (1961), unibertsitarioen jarrera politikoen inguruko ikerketatik hasia, eta De Castro–rena (1968), latinoamerikarrek herrialde desberdinetako gizabanakoei buruz zituzten estereotipoak aztertu zituena; Montero-ren (1986) lanak, edo Lipset eta Solani-ren (1967) *Eliteak Latinoamerikan* liburua, non zenbait eliteren (militarra, erlijiosoa, kulturala, politikoa, eta abar) inguruko ikerlanak eta sozializazio politiko, ideologia politiko eta nekazari-mugimenduei buruzko ikerlanak agertzen ziren.

2.6.2. 1970-1980: Psikologia Politikoaren loraldia diziplina gisa

Sears-ek, 1969an Lindzey eta Aronson-en *Handbook of social psychology* bigarren edizioko V. liburukian, psikologia politikoaren berrikuspenean horren loraldiaz hitz egiten zuen. Halere, 70eko hamarralditik aurrera iritsi zen loraldi hori bere heldutasunera. Hamarraldi horretan, psikologia politikoa diziplina gisa eratu zen, eta noski, aldez aurretiko planteamendu askori jarraitu zion. Ikus daiteke, adibidez, Christie eta Geis-engan nortasun politikoa aztertzeko beste saio bat: nortasun makiavelikoa (1970). Winter-ek 1973an botere-motiboaz idatzi zuen eta Skinner-ek 1971n *Askatasun eta dignitatea baino harantzago* liburua argitaratu zuen.

Beraz, jadanik, psikologia politikoak lortua zuen masa kritiko nahikoa, fronte komun teoriko eta metodologikoa hartzeko moduan. Adierazleak garbiak ziren: Knutson-ek 1973an lehenik *Handbook of Political Psychology* argitaratu zuen eta 1974an beste eskuliburu batzuek jarraitu zioten, hala nola Stone-renak.

Gainerako guztia oraingo historia da, eta idazki honetako beste kapitulu batzuen ikasketa-objektua. Halere, azpimarratzekoa da Psikologiaren barnean kontzientzia kritikoaren sorkuntza. Hamarraldi honetara arte, orain ez bezala, psikologoek euren lanaren alderdi ideologikoez ez ziren arduratzen. Baina, talde arteko gatazken dimentsio ideologikoa azpimarratzen zuen Billig-en (1976) lanak, edo egungo ideologia nagusien argipean teoria psikosozialak aztertzen zituen Archibal-en (1978) lanak, edo Psikologian eginiko lanen baldintzapen politiko eta sozioekonomikoak aztertzen zituen Buss-enak (1979), horiek guztiek aurrera eginiko urratsa suposatu izan dute, agian itzulirik gabekoa.

Zirriborratu dugun ibilbide historikoari jarraikiz, ikus daiteke denbora luzean egon dela jokabide politikoaren azterketan zer psikologikoak kontuan izateko

beharraren kontzientzia. Halere, kontzientzia horrek ez zuen suposatzen psikologia politikoak jakintza-alor autonomoa izan behar zuenik. Ondorioz, egiten ziren ekarpenak oso heterogeneoak ziren, neurri handi batean desfokatuak eta, batik bat, ez zuten ematen jakintzaren metatzean pentsatzeko aukerarik. Beste hitz batzuetan, ikerkuntza, hein zabal batean, koiunturala izan da. Bi ikerketa-lerro edo ikuspegi nagusi egon dira Psikologiaren eta Politikaren arteko interakzioak aztertzean: lehenengoa, Psikologiaren argipean arazo politikoak aztertzean datza; bigarrena, eredu teorikoak formulatzen edo sortzen egin diren saioetatik —askotan isolatuak— eratortzen da, ondorioz, ikergai hauen inguruan egitura bat (H. Lasswell-en ikerlana aipagarriena litzateke) sortzeko gai direnak. Psikologia politikoa joera biak gurutzatzean sortzen da.

Azkenik, psikologia politikoaren "muga-izaera" aipatu beharra dago. Psikologia politikoa hartzen badugu zientzia politikoa eta Psikologiaren arteko lotura gisa, horrek esan nahi al du lotura hori Psikologia *guztia*ren eta zientzia politiko *guztia*ren artean gertatzen dela? Edo beste era batera esanda, Psikologiaren alor guztiak garrantzitsuak al dira maila berdinean politikarako, eta alderantziz? Kapitulu honen edukia —edo beste laburbiltze historiko batzuk— berrikusten badugu, baietz esan beharko dugu. Hain zuzen ere, Psikologiaren ikuspegitik behintzat, jokabide politikoaren azalpenerako ia alor guztiak garrantzitsutzat hartu izan dira (psikologia fisiologikoa, garapen-psikologia, nortasunezkoa, eta abar, psikologia sozialeraino). Hala ere, ikuspegi honek eztabaida eta arazo larriak sorrarazi ditu. Izan ere, ikertzaileek ondoko bereizkuntza sakonarekin egin dute topo: batetik, enfasia, gizabanakoarengan jarri duten planteamendu eta fokatze teorikoekin eta, bestetik, talde, elkarte, antolakuntza, komunitate, estatu eta beste komunitateen unitateetan jarri dutenekin. Hemendik, beraz, aktore indibidualaren eta horrek parte hartzen dueneko kolektibitateen artean elkarrekintza eta transakzio-katea kontuan hartu beharra ondorioztatzen da.

3. Lidergo politikoa


3.1. SARRERA: LIDERGO POLITIKOAREN HIRU IKUSPEGIAK

Lidergo politikoa «gehien behatua eta gutxien ulertua izan den fenomenoa da» (Burns, 1978). Ez da arraroa, beraz, honelako fenomenoari ekitean adostasun-gune gehiegirik ez egotea teorialarien artean. Beste era batera esanik, zein antzekotasun eta desberdintasun dute elkarren artean MacCarthy, Franco, Kennedy, Hitler, Cohen, Gandi, Argala, Felipe Gonzalez, Menahem Begin pertsonaia ezagunek? Eta euren jarduerek? Zein antzekotasun eta desberdintasun daude jarduera politiko desberdineko liderren eta liderrak izatera heltzen ez direnen artean? Lider izatera heltzeko zergatiak edota lorpenera nahiz porrotera daramaten erabaki-hartzeak nondik eratortzen dira? Beste era batera esana, liderra jaio ala egiten da? Liderraren izaeratik, nortasun-bereizgarrietatik ala inguruneko baldintzetatik datoz zergatiak? Eta azken baldintzetatik baldin badatoz, garaiko espiritutik ala jarraitzaileen iguripenetatik eratortzen dira? Hau da, kasuistika historikoak jartzen du liderra ala jarraitzaileek jarri eta baliagarri ez zaienean kendu egiten dute?

Hiru elementu hauetan oinarrituz –ezaugarriak, ingurunea eta jarraitzaileak—, lidergoaren azterketaren historiak hainbat erantzun eman izan ditu, askotan erredukzionismoz beterikoak.

Zientzia politikoak, esate baterako, aditasuna gizabanakoaren ezaugarrietatik kanpo jarri badu ere (Jervis, 1989), psikologia politikoaren ikuspegitik alderantzizko akatsa burutu da, liderraren ezaugarri soiletan oinarrituz (Lasswell, 1939; Freud, 1921).

Berriki, lidergo politikoaren azterketaren "dilematik" (Hermann, 1986) ateratzeko, aurreko hiru baldintzen elkarrekintza aztertzea proposatu da (Kressell, 1993).



Jarraian, beraz, hiru elementu horiek aztertzearen jatorriari helduko diogu.

Liderraren ezaugarrien jatorria. Ikuspegi honek hiru funtsezko oinarri hartu izan ditu. Batetik, Weber-en (1947) karisma kontzeptua dago ("Grazia-Dohaina"): «autoritatearen legitimazioa liderraren erakargarritasunean eta jardueran oinarritzen da»... Gainera, lider karismatikoak duen "nortasun-kualitatearen" arabera, «besteengatik bereizten da eta, naturaz gaindiko botere edo kualitatezko dohainak dituelakoan, horrela hartua da» (358-360. or.). Jarraitzaileek halabeharrez obeditzen diote, eta ez norberaren erabakiaren ondorioz. Bestetik, Freud-ek (1921) talde-sorkuntzaren dinamikatik aztertu zuen liderra. Oinarria ego idealaren (*supernia*) liderrarekiko identifikazioan kokatu zuen. Liderrak nartzisista, norberarengan konfiantza duena eta independentea izan behar zuen. Liderraren ezaugarriak aztertzeko hirugarren oinarria Lasswell-ena (1948) da. Horren arabera, liderraren zioa botereirrika izanik «norberaren estimu baxua konpentsatzeko nahitik» zetorren (39. or.). Laburbilduz, hauek dira liderren ezaugarri egonkorretan oinarritutako lidergo-hipotesiaren iturriak.

Egoerara doitzen den lidergoaren oinarria. Lidergoaren lorpena eta erakarpena egoerak eskatzen dituen ezaugarrien mendekoak dira. Adierazpen hori Bem eta Lord-ek (1979) pertsona vs egoeraren eskakizunen hipotesia izendatu zuten. Ideia horren adibide dugu Barber-en (1985) hauteskundeei buruzko eredu ziklikoan agertzen ziren hiru aldiak. Ereduaren arabera, AEBko Presidentziarako hauteskundeek hiru aldiko ziklo erregularra daramate: 1) indarren arteko gatazka, 2) gatazkaren kontzientzia-hartzea, eta 3) gatazkan dauden alderdien arteko adiskidetasun-beharra. Aldi bakoitzak lidergo-ezaugarri desberdinak behar ditu, hala nola, borrokalaria lehen aldian eta paktuzalea hirugarrenean.

Jarraitzaileengana egokitzen den lidergoaren oinarria. Erikson da ikuspegi honen oinarria. Autore honek Gandi, Lutero eta Hitler-en psikobiografiak aztertzetik (1964) honako hau ondorioztatu zuen: «Liderrak, beren identitate, gatazka eta beharrekin, garaikideek aurkituak eta hautetsiak dira, azken hauek haien gatazka eta beharren antzekoak dituztela» (204. or.). Ikuspegi honen arabera, liderren ezaugarri pertso-nalak, batetik, eta jarraitzaileen historikoki baldintzatuak diren ezaugarriak, bestetik, elkarren artean bateratzea lortzen bada, liderren erakarpena eta lorpena gertatuko da.

Hiru ildo hauen ikusmira murriztailearen aurrean, lidergoa aztertzeko interakzio-fokatzearen onarpena gero eta handiagoa da. Horrek Hermann-ek adieraziriko "dilema" gainditzen lagun diezaguke. Honelako onarpenak suposatuko luke, alde batetik, pertsona politikoari buruzko ikuspegi berria, besteengandik eta testuingurutik bereiztezina, gizarte-psikologiaren ekarpen berriek adierazi dutenaren arabera (Moscovici 1976; Israel eta Tajfel, 1972; Valencia, 2002). Bestalde, jadanik psikologia politikoaren barnean, horrelako onarpenak suposatuko luke dinamika politikoen eta fenomeno psikologikoen artean dagoen lotura era interakzionistan ulertzea, lehen kapituluan azaldu dugun moduan.

Mota honetako azterketak agertzen hasi dira jadanik. Esate baterako, Winter-en ikerketan (1993) lider politikoen ezaugarriak (lorpen, afiliazio eta botere-beharra), jarraitzaileen ezaugarriak eta garaiko testuinguruko ezaugarriak elkarrekintzan agertzen ziren.

Hermann-ek berak (1986) honelako ikuspegi ez-erredukzionistaren alde egin zuen, lidergo politikoaren inguruko ikusmira ulerkorrak ondokoa kontuan izatea suposatuko zuela esanez: 1) nortasuna, *background* edo hondoa, eta lider izateko errekrutatze-prozesua; 2) liderraren mendeko taldearen ezaugarriak; 3) lidergoaren eta jarraitzaileen arteko harremanaren izaera; 4) lidergoa ematen deneko testuinguruaren ezaugarriak; 5) lidergoaren eta jarraitzaileen arteko elkarrekintzen emaitzak egoera zehatzetan.

Laburbilduz, lidergo politikoaren azterketa sakonak ondoko hiru azterketa eskatzen ditu: 1) liderren ezaugarrien azterketa, ingurunetik bereizia; 2) sistematikoki egoera aldakorren eskakizunetara egokitzen diren liderren ezaugarriak aztertzea; eta 3) jarraitzaile edo populazio orokorrera egokitzen diren liderren ezaugarriak aztertzea.

Kapitulu honetan, beraz, portaera politikoaren zenbait alderdiren azterketari ekingo diogu, protagonista berezia den ikuspegitik: subjektua bizitza soziopolitikoaren agente nabarmen gisa hartzen duen ikuspegitik, alegia. Hemen, *Animalia politikoa* izendatu ohi den fenomenoari buruz dugun jakintza sistematizatura hurbiltzen saiatuko gara. Gure helburua gizabanakoarengana hurbiltzea da, baina ez ikusmira *indibidualista*tik.

3.2. LIDERGO POLITIKOA: PSIKOLOGIZAZIOAREN ETA MUGAPEN KULTURALAREN ARTEAN

3.2.1. Eremu politikoaren psikologizazioa

Psikologian arazo zaharra da, gizabanakoa, ikusmira hertsiaren erdian jartzeko joera. Subjektuarenganako prozesu eta ezaugarrietan arreta jartzea *basoa ikustea eragozten duen zuhaitza* izan da askotan. Historiaren, ekonomiaren, politikaren edo psikopatologiaren ikuspegia *pertsonalizatu* egiten dugunean, gizabanakoa heroiaren edo biktimaren rolean jartzen dugu eta, areago, jazoera kolektiboen erantzulearen edo errudunaren rolean ere bai.

Joera hau, psikologia sozial modernoak erabat gainditu ezin izan duena, lidergo politikoaren ikertze-alorretan nabarmena da oso. Izan ere, lidergo politikoaren azterketa ezaugarri, *nortasun-bereizgarri* edo atributu *berezi*en bila jardun izan da sarritan. Berezitasunek aukera eman dezakete —maiztasun urriarengatik edo intentsitate ezohikoagatik—, testuinguru politikoetan, lider izatera heltzen den gizakiaren balizko apartekotasuna ulertzeko. Ikuspegi honek *printzipio-eskaria* dakar. Horrelako

premisak erabiliz arakatzen dena bilatzen bada, hori berori ager liteke, abiapuntuaren "ontasuna" frogatuz. *Modus operandi* honen bitartez, gezurtatu ezin den funts logikoaren prozesua sortzen da: pertsonaren apartekotasuna *normaltasun gabeko* parametro psikologikoen bitartez baino ezin da ulertu. Honelako berezitasunak, positiboki edo negatiboki ebaluatuak izateaz aparte, askotan, *psikologizazioa*k, lidergo politikoa eta bere jarduera *patologizatzeko* bidea ematen du. Horrela, jarduera horiek bulkada irrazionalen, botere-nahi mugagabe eta ezohikoen, edo sindrome konplexuen eta defentsa-mekanismoen ondorio gisa hartzen dira. Esate baterako, Lasswell-ek (1948) botere eta nortasunari buruzko idazlan entzutetsuan, portaera politikoaren inguruan ari diren nortasun-bereizgarrien rola ikertu zuen. Politikariak deskribatzen zituen biografian oinarritutako sindrome konpentsatzaileek eta defentsarakoek ezartzen dituzten beharretara mugatuta. Norbaitek jarduera politiko nabarmenari ekiten dionean edo lidergo ezohikoa burutzen duenean, berehala, azalpen eta analisi-lanabesak eman ditzan eskatzen zaio Psikologiari. Funtsean, Katz-ek (1973) zioenez, banakoen jokabide politikoak prozesu patologiko edo *irrazional*ekin lotuak izan dira, maiz. Horren ondorioak, hein zabal batean, nabarmenak eta oso negatiboak dira. Franco-ren *hoztasun psikopatikoa*ren edo Hitler-en *erotasun megalomanoa*ren aipuek oztopatu besterik ez dute egiten, egiturazko oinarriak, oinarri sozialak, ekonomikoak edota politikoak aztertzea. Nolabait, ahaztu egiten da oinarri horiek ahalbidetu zutela pertsona horiek agertoki politikoan egotea, euren proiektu politikoekin batera. Gainera, fokatze *psikologizista*k arriskutsuak diren ondorioetara eraman gaitzake. Hitler eta Franco-k jarraitzaile sutsu ugari izan zituzten: guztiak ziren eroak? eta nahiz eta botererik ez izan, botere-nahi irrazionalik ere bazuten?

Gure hasierako proposamena lidergo politikoaren analisi psikologikoa *normaltzea* da, hau da, normaltasun psikologikoaren Psikologia egitea. Analisi honek ez du horregatik erakargarritasunik galtzen, ezta analisi psikologikoaren mamirik ere.

3.2.2. Psikologizazioa versus *mugapen kulturala: eredu elkarreragilea*

Aurreko ideietatik hasirik, ez genuke oker ulertuak izan nahi, psikologia politikoaren mapatik pertsona ezabatzea proposatzen dugula sinetsaraziz. Hori arestian aipaturiko akatsa litzateke. Makro-mugapen sozial, kultural, ideologiko eta historikoak kontuan izateak ez gaitu bultzatu behar analisi sozial eta kultural hutsera. Horrek ere ez liguke utziko portaera politikoaren ulermen orokorra izaten, ezta lidergo politikoarena ere. Komunitatearen egitura-ardatzak sakonki aztertzeak aukera ematen digu, une zehatz batean, lidergo politiko mota jakina agertzea sustatu zuen ingurunea zein izan zen ulertzeko. Hala ere, mugapen kulturalaren adierazpen hertsiak onargaitzak diren ondorioetara eraman gaitzake: esate baterako, komunitate horretako edonork bete dezakeela lidergoa; edo, egiturazko sare sozialean nork gidatzen duen berdin dela, zeren rola betetzeko baldintzak, eta askatasun-graduak, aldez aurretik tinko jarriak baitira, erreferentzia-taldeak eta baldintza sozioestrukturalek jarriak, hain zuzen ere.

Kontzepzio psikologizatzailean, gizartearen historia eta bere magalean bizi izan ziren "gizaki handien" historia gauza bera dira. Ikuspegi soziokulturaletik, aldiz, historia hori sorkuntza kolektiboa da erabat, kolektiboaren kideak elkarren artean berdin-berdinak izanik, egoera soziohistorikoak bultzatuak baitira. Bigarren ikuspegia lehenengoa bezain biziatua da eta, lidergo politikoarekiko *txotxongilo* irudiaren alde egiten du (Hermann, 1986). Lidergo politikoaren ezaugarrietariko bat egitura sozial baten zirrikitu edo ahuldurak asmatzeko trebezia da, zeinak haustura-, erreforma- edo iraultza-mugimenduak gidatzen eta definitzen laguntzen baitu. Konplexua den sistema sozialean, egiturak gutxitan izaten dira maniobra-aukerarik ez emateko bezain ugertuak. Beraz, ekintza eraberritzailearen *nola eta noiz* egoki antzematea da lider politikoaren trebezietariko bat. Hauxe dugu aldaketa sozial eta politikoa, batetik, eta gizabanakoa, bestetik, elkarren artean lotzeko bide bakarra. Ikuspuntu honetatik, lider politikoa ez da agertzen ezaugarri mitiko, ia magiko edo ezohikoen jabe, bere nagusigo eta botereari esker komenientziazko egiturak sortzen dituena. Aldiz, beste irudi bat dugu: liderra egituraren barnean ari da, egitura aldatzeko egituraren ahulduraz baliatzen da edo egiturari eustetik etekinak ateratzen ditu. Jarduera, bata edo bestea, helburua, bata edo bestea, ezin dira bete, batetik, egoerazko mugapenak eta, bestetik, lidergo-funtzioak betetzen dituen banakoen trebeziak edo gaitasun potentzialak, biak kontuan izan gabe. Beraz, berriz ere, harremanezkoa eta interaktiboa den ateraldira bultzatuak gara eta, horregatik hain zuzen, ikuspegi psikosoziala ikusmira pribilegiatua da holako gaiak aztertzeko. Jarrera baten ukaziotik eta haren alderantzizkoaren ukaziotik sortu beharko litzateke, era dialektikoan, ikuspegi integratzaile eta ulerkorragoa. Horrelako ikuspegia, gaur egun abian dena, ondokoa litzateke: a) lidergo politikoa bere jarduerak itsasten diren parametro sozial eta kultural orokorrekin batera ulertzea; b) lidergo politikoa berau legitimatzen dutenen beharrei, iguripenei eta balioei estu loturik ulertzea, hau da, jarraitzaileei loturik; c) ikuspegi irekiagotik ulertzea zernolako gaitasun eta ezaugarriek baimendu edo ukatzen duten gizabanakoek lidergo politikoa gauzatzea; d) arazo aldakor batez ari garela kontuan izatea, historizitate-iturri batez, hain zuzen; beraz, ebidentzia enpirikotik jakintza metatua eta testuinguru ezberdinetara orokortze baliagarriak lortzea oso zaila da.

3.3. LIDERGO POLITIKOA: POLITIKA ALORREKO LIDERRA

Oro har, lidergoa prozesua da. Horren bitartez, sistematikoki, gizabanako batek besteek baino *eragin handiagoa egiten du* talde-funtzioen garapenerako. Eragin-mota hau era egonkor eta sistematikoan dabil eta, ondorioz, aurreikusgarria da. *Aurreikusgarritasuna* da, funtsean, lidergo-portaerei datxekien ezaugarria. Ez gara ari, beraz, unean uneko eraginaz, ezta talde-jarduera zehatz bati loturiko eraginez ere. Gainera, lidergoak *erreferente kolektiboa* du: eragina ibiltzen den prozesua da, baina ez edozeinengan eta une jakin batean, baizik eta pertsona kopuru zabal batengan eta denbora luzez. Aurreko horiek lidergo orokorraren ezaugarriak izanik,

esan al daiteke lidergo politikoaren ezaugarri zehatz eta bestelakoak badirela? Horrelako galderak erantzutea erraza izan daiteke, baita okerra ere, baldin eta lidergoa politikaren alorreko funtzioaz definitzen badugu. Lidergo politikoa definitzeko egokiagoa da (eta zailagoa), nolabaiteko batasunaz, prozesu psikologikoen ezauga-rri zehatzak eta bestelakoak ezagutzea.

Lidergoaren kontzeptua zedarritzeko egin diren saioak berrikusiz (Burns, 1978; Hunt eta Larson, 1979; Kellerman, 1984; Stodgill, 1974; Hermann, 1986; Winter, 1993; Kinnvall, 2002), *liderra*ren irudi orokor eta integratutik oso urrun gaudela esan daiteke. Izan ere, lidergoaren hainbat irudi daude, elkarren aurkakoak ez direnean behintzat, lotzeko zailak dira. Irudi horietariko bakoitza, gainera, eskema teoriko ezberdina erabiltzearen ondorioz sortzen da. Elkartruke sozialaren ikuspegitik, liderra *saltzailea* da, etekin pertsonalen truke bere zerbitzuak eskaintzen dituena. Egozpen-ereduaren aldetik, besteek mugatzen dituzte lidergoaren funtzioak; beraz, *txotxongilo* liderraz ari da. Kontingentzia-ereduetan (Fiedler, 1986), lidergoa inguruneko eskakizunei emaniko erantzunez sorturiko funtzioa da; hau da, lider *suhiltzailea.* Bokantza handiko liderra, *Hamelingo Txiru-laria* alegia, paradisu berrien eskaintzailea eta talde-helburu handien emailea da; "gizon handien" inguruan ari gara. Hermann-ek (1986) zioenez, lidergoari buruzko teoriaren eta lidergo politikoaren adibideen arteko elkarketa egiten saiatzen garenean, *komenientziazko ezkontza*z ari gara. Agerikoa dena onartu behar dugu: lidergoa *aterki* kontzeptua da, bere babesean kontzeptu eta fenomeno ugari elkartzen baitira.

Dena den, lidergo politikoaren berezko zenbait elementu identifika daitezke. Lidergo politikoaren eta beste lidergo-mota batzuen arteko desberdintasunik nabarmenena eragiteko helburuan oinarri daiteke. Horri dagokionez, bada, izaera politikozko hiru helburu gutxienez badira: a) *talde-helburu*en berridazketa edo aldaketa, indarrean dagoen sistemen apurketan edo erreforman eragina duten neurrian; b) sistemaren egonkortasunerako baliagarriak diren indar eta *baliabide baliotsuen mobilizazioa*; c) *baliabide eta saritzeen banaketa*ren eta esleipenaren inguruan erabakiak hartzeko gaitasuna, sistemaren aldaketa edo egonkortasunerako eragina izan baitezakete. Lider politikoak, beraz, politikak ezartzeko boterea izan behar du, eta, horretarako, askatasunez banatzeko baliabide-ondarea ere bai. Horrelako lidergo politikoa gobernu edo alderdi politikoetatik kanpoko beste inguru batzuetan ere aurki daiteke. Enpresako zuzendaria, ospitaleko zuzendaria, unibertsitateko errektorea edo kirol-elkarteko zuzendaria, aurretiko eskakizunen bat edo gehiago betetzen duten aldetik, lidergo politikoa zertzen ari dira.

Hala ere, lidergoaren baldintza mugatzaile horiek lidergo politikoari alor emankorra zabaltzen badiote ere, murrizteko indar nabaria ere badute. Izan ere, ezin da lidergo politikoaren funtzio gisa hartu *burokrata*rena, nahiz bere kokapena gorena izan instituzio-organigrama batean. Burokratak ezarrita dauden arauak edo beste instantzia batzuetako ordenak betetzen ditu. Liderrak, arauak ezarri baino, sortu edo aldarazi egiten ditu, eskura dituen baliabideak baliatuz. *Adituaren boterea* ere ez

litzateke hartu behar lidergo politikoaren eragin gisa. Jakintza teknikoa iradokitzeak talde-jardueraren ondorioa hobetzen lagun dezake, baina jarduera proposatzen duena ez da aditua. Bere jakintzak baliabide gehiago sortzen lagun dezake, baina ez du baliabide horien banaketa erabakitzen. Adituaren jarduera ez dago zuzen-zuzenean izaera politikozko helburuei lotuta: adituari ez dagokio sistemaren aldaketa edo eustea. Hala ere, gehiegizko inozotasuna litzateke pentsatzea adituaren botereak eta botere politikoak ez dutela inoiz elkar ukitzen. Ukipen hori ondoko egoeretan islatzen da, esaterako: a) politikariak, adituak emaniko jakintzaren bitartez, erabakiak hartu eta justifikatzen dituenean; b) adituak, politikariaren erabakiak, *teknikoki* egokitzat hartuz legitimatzen dituenean; c) adituak, botere politikoaren deialdiari men eginez, aldez aurretik hartutako erabakiak *a posteriori* bermatzeko argudio teknikoak ematen dituenean; d) adituak, borondatez ala ez, ondorioak orraztu egiten dituenean, botere politikoaren nahietara egokitzeko. Egoera horietan guztietan, nahiz aditua politikari gisa ez aritu, bere jarduerak balio politikoko eragina du.

Adituaren adibidea baliagarria zaigu, lidergo politikoak direnak eta ez direnak, praktikan bereiztea oso zaila dela adierazteko. Hala ere, hemen iradokiriko identifikazio-elementuak baliagarriak dira, hainbat baldintza eta jarduera-alorretan, berez politikoa den ezaugarri nagusia ezagutzeko.

Lidergo politikoan, identifikazio-irizpideak frogapean jartzeko eremu bat antolakuntzetako erabaki-hartzeak dira.

3.3.1. Lidergo politikoa eta antolakuntza-hierarkia

Katz, 1973ko ikerlanean, doitasun analitiko osoz hurbildu zen fenomeno honetara. Egun nahikoa onartuta dago, gizarte demokratikoetan, erabakiak hartzean partaidetza izateak, berez, sari-balio nabaria duela. Erabakiak hartzean eta ondorengo gauzatzean izan daitekeen kontrol-mailaz gain, badirudi, erabakitzean partaide izateak berak asetasun-maila izugarria sortzen duela. Antolakuntza modernoetan, ondoko fenomeno orokorrarekin egiten dugu topo: behe-mailako subjektuek goi-mailako subjektuengan presioa egiten dute, bai helburuen definizioan bai hartu behar diren erabakietan, partaidetza eta inplikazio-maila handiagoa eskatzeko asmoz. Horrela, behe-mailakoek goi-mailakoen autoritatearen legitimitatea zalantzan jarri edo horri desafio egiten diotenean, berez, egoeraren egituran aldaketa nabarmenak egiten saiatzen ari dira. Horregatik, jarduera eta testuinguru horiek izate politikoa hartzen dute.

Horrelako presioak ondo diseinaturiko botere-egiturazko sistema sozialetan agertzen dira. Horrelako egiturak, eragina izateko ahalbideei dagokienez, gune nabarmenak dira. Hierarkikoki ondo definituriko egituretan, eraginaren norabidea eta helburuak, argitasun osoz agertzen dira. Oro har, antolakuntza-egiturek piramideforma hartzen dute eta lehen urratsetan daudenek (hau da, gehiengoak) helburuetan

edo erabakietan parte hartzeko aukera gutxi izaten dute. Egitekoa emana dute eta arauak ere bai. *Behe-maila* horretan, liderrak gaitasun teknikozko estrategiak erabil ditzake, edo pertsonen arteko lotura gisa ari daiteke, maila sozioemozional egokia emateko. Hala ere, bere jarduera ezin da politikotzat hartu. Izan ere, funtzio horiek betetzeko, aldez aurretik definituriko egituraren ahalbideez baliatzen da. Ez du egitura sortu, ezta eraldatu ere.

Antolakuntza-piramidearen *maila ertain*etan ez da horren erraz bereizten lidergo politikoa dena eta ez dena. Maila honetan ez gara ari, jardueraren garapen on baterako, aldez aurretik jasoriko trebeziak erabiltzen dituen liderraz. Ekimenerako autonomia eta ikuspegi eraberritzailea duten portaerak agertzen dira, egiturak baimentzen dituen maniobra-marjina zabalagoak sustaturik. Hemen, egitura zalantzan jar daiteke. Beraz, antolakuntza baten (lan, politika, erlijio, edo horrelako arloetan) maila ertainetan, gizabanakoek halako aldaketak egiteko eragina dutenean, euren jarduera lidergo politiko bezala ulertua da; ez da nahikoa arau zaluak erabiltzea: promesa, pertsuasioa eta paktuak erabiltzea beharrezkoa izaten da. Gainera, ez da ahaztu behar maila ertainetako gizabanakoei dagokien funtsezko jarduera, alegia, piramidearen goi-mailen eta behe-mailen arteko bitartekotza —informazioaren lanketan eta alderdi sozioemozionalean—. Erdi-mailako liderrak, denboraren poderioz, antolakuntzetako helburuetan aldaketa xumeak sar ditzake, beste mailetako subjektuek berarekin konpromisoa hartzea lor dezake eta antolakuntza barneko elkarrekintza soziala eta talde-kohesioa hobetzen eta sustatzen laguntzeko estrategiak gara ditzake.

Argi dago, antolakuntza-piramidearen *goi-mail*etan, helburuak definitzeko, sisteman aldaketak ezartzeko eta baliabideak banatzeko aukera gehiago dagoela. Eta antolakuntza, bere egitura formalean eta bere prozesu funtzionalean, zenbat eta hierarkizatuagoa eta autoritarioagoa izan, orduan eta aukera handiagoa dago. Hala ere, antolakuntza demokratizatuetan arazoa bestelakoa da. Liderrak, horrelakoetan, hautatuak eta errefusatuak izan daitezke, edo ez berrautatuak. Horrela, baliteke liderrak beren aukeretan mugatuta eta etengabe mehatxatuta sentitzea. Euren jarraitzaileen uste eta balioak errespetatu behar dituzte eta iguripen eta beharrak ase. Hala ere, horrelako antolakuntza demokratikorik aurkitzea ez da erraza. *Zentralismo demokratikoa* delako asmakizunak, adibidez, alderdi politikoak *gizarte demokratiko*etako gauzarik ez-demokratikoenak izatea lortu du. Horregatik, ez dago dudarik, lidergo politikoak antolakuntza-hierarkiaren goi-mailetan aurkitzen duela formarik garbiena: politikak formulatzeko gaitasuna, sisteman aldaketak sartzeko eta programatzeko gaitasuna, baliabideen maneiua, talde-helburuen definizioa, promesaren eta pertsuasioaren erabilera eta, funtsean, bere buruaren inguruan jarraitzaile-masa baten aglutinazioa.

Antolakuntza barneko liderren jarduera, halere, era zabalago batean landu izan da Soziologiaren ikuspegitik, Weber, Mosca, Pareto eta Michels-en burokraziaren azterketatik, hain zuzen ere. Weber-en ustez, antolakuntzaren burokrazia (publikoa

ala pribatua izanik) tipo ideala zen, arrazionaltasun eraginkorrera zuzendua, eta zenbait ezaugarri zituen: 1) antolakuntzaren jardueren helburu garbien definizioa; 2) boterearen egituraketa eta hierarkia; 3) zereginak betetzeko zehaztasunak hierarkikoki antolatuta; 4) lanpostuen despertsonalizazioa: formalismoa, errekrutatzea, promozioa eta ordaina; eta 5) boterea arbitrarioki burutzetik babesteko kontrol-sistema. Michels-ek (1911), burokraziaren despertsonalizazioan oinarrituz, *Oligarkiaren burdina-legea* plazaratu zuen: burokrazien antolakuntza formalek oligarkiara daramate derrigorrez. Jatorriz idealistak eta demokratikoak diren antolakuntzak, denbora pasa ahala, boterea eta erantzukizuna eskuratzen dituen botere-talde txiki batek menderatzen ditu, eta elite horrek, askotan, antolakuntzaren helburuetan oinarritutako erabakiak hartu beharrean, boterean jarraitzeko helburuetan oinarritzen ditu erabakiak. Lege honek oinarrizko partaideengan bi ondorio ditu, Weber-ek deskribaturiko despertsonalizazioa eta alienazio pertsonala elkartzen dituztenak. Batetik, boterean ez daudenak elitean eragina izaten saiatzen dira, parte-hartze maila handiagoa eskatuz eta, bestetik, apatiara eta alienaziora bultzatuak dira. Horrek azal dezake, gizarte demokratikoetan, 1960tik hona mobilizazio politiko ez-institu-zionalean eman den areagotzea, baita hauteskundeetako partaidetzaren urripena ere (esate baterako, AEBn 1964an % 70ek inguru ematen zuen botoa eta 1988an % 50ek inguru bakarrik). Beraz, edozein antolakuntzak —pribatua, publikoa edo estatua izanik— lege honen ondorio kaltegarriei aurre egiteko prest egon behar du politikaren alorrean, alderdi politikoen antolakuntzak batik bat.

3.3.2. Lider politikoa subjektu gisa

Sarreran esan dugunez, fokatze desberdinak eman izan badira ere, arazo honi ekiteko bi modu nagusi aurki daitezke, eta ondoko bi galderetan isla daitezke. 1) Liderrek, nortasun-bereizgarri edo atributu motibazionalik ote dute, jarraitzaileen rola betetzen dutenengandik guztiz bereizten dituenik? 2) Zeintzuk dira lider politikoaren ezaugarriak, lidergoa inguru batean edo bestean gauzatzen denean, eragina izateko?

Lehen galderak lidergo politikoaren ikuspegi *pertsonalista* eta *apartekotasunekoa* iradokitzen du (berezitasun horren oinarrizko nortasun-elementuak bilatzen ditu, Weber-Freud-en hipotesiak zioenez). Bigarrenak egitura sozialean gizabanako batek betetzen duen kokapenari dagokiola iradokitzen du. Gizabanako horrengandik garrantzitsua ez da liderra izatea baimentzen duen apartekotasuna, barneko ezaugarri-multzoa baizik. Izan ere, ezaugarri horiek, inguruarekin elkarrekintzan, lidergo-estrategia desberdinen funtzionamenduan eragin baitezakete (*hipotesi interakzionista*). Argi dago, beraz, kapitulu honen hasieran esan dugunez, bigarren ikuspegia hobesten dugula.

Hona hemen, bada, galdera gakoa: zeintzuk dira lidergoaren, testuinguruaren arabera, ezaugarri potentzialki mugatzaile horiek?

Lehen ezaugarriak *lidergoaren usteekin zerikusia du.* Uste politiko horiek, hein zabal batean, liderraren eta jarraitzaileen arteko harremanak ulertzen laguntzen digute. Usteek mugatzen dute liderrak ingurune politikoari buruz egiten duen interpretazioa, eta horri esker, lanean ari deneko ingurunearen hautemate egokia egiten du. Uste horiek suposatzen dituzten balio sakon eta instrumentalak aztertzeak lider politikoaren kokapen politikoa ulertzen laguntzen du. Uste-sistemaren azterketa sakonen bitartez, azpian dauden elementu motibazional askoren jarduna inferi genezake. Walker-ena (1983) bezalako ikerlanak honelako analisi-motarako egokiak diren lanabesak sortzen saiatu dira, *kode operazionala* kontzeptu zaharra gaurkotuz (Bar-Tal, 2002).

Lider politikoak ulertzeko, eta euren portaerari buruzko aurreikuspenak egin ahal izateko, ez da nahikoa *zer* uste duten jakitea, uste horien *indarra* ere ezagutzea beharrezkoa baita. Interesgarri litzateke jakitea, kasu bakoitzean, liderrek dituzten beharrak zein neurritan diren garrantzitsuak eurentzat. Uste horiei konfiantzaz eusten bazaie, errealitate politikoaren interpretazioa uste horiei egokitu beharko zaie. Usteak ahulak badira, eta behin eta berriz erlatibizatzen badira, orduan liderra inguruneko kanpo-eskakizunen erantzule bihurtuko da. Kasu horretan, usteak errealitate politikoaren interpretazio-prozesu batean ezartzen dira, eta ez alderantziz. Irakurle zorrotzak ez du gehiagorik behar gure eguneroko ingurune politikoan prozesurik maizkoena zein den asmatzeko. Germaniarrek, jadanik VI. mendean, azken erabakia hartu baino lehenago, bi aurre-erabaki hartzen zituzten, bata mozkortuta eta bestea mozkortu gabe, eta erabaki biak bat zetozenean orduan baino ez zuten hartzen azken erabakia. Tetlock-ek (1984) usteei garrantzia emanez, bi politikari-mota aurkitu zituen: gurutzatuak eta pragmatikoak.

Beste funtsezko aldagaia lidergoaren *estilo politikoa* da. Estiloak, dudarik gabe, jarraitzaileengan eragina du, baina ez usteek bezain zuzena. Kontzeptu honi, oso zehaztugabea dela eta, ondoko erreferente enpirikoen bitartez hel diezaiokegu: bere jarraitzaileekin nolako harremanak dituen eta nola aritzen den haiek ordezkatzen dituenean. Gerta daiteke liderrak *aurrez aurreko* ukipenari garrantzia ematea, ukipen zuzenari alegia; edo beste bitarteko batzuez jardun nahi izatea. Zenbaitetan, liderrek *beste pertsonekin batera* lana egin eta erabaki kolegiatuak hartu nahi izaten dituzte; beste batzuetan, liderrak berak erantzule izan nahi du eta arazoei eta soluzioak bilatzeari bakarrik aurre egin. Lider politiko batzuek *erretorika*ri eta propagandari lotzea nahiago izaten dute. Batzuek pertsuasio eta komunikaziorako gaitasun dramatiko bereziak dituzte. Hortaz, estilo politikoa ezaugarri horien adierazpen globala litzateke. Horri dagokionez, bost politika-estilo bereizi dira: zaindaria, zeremoniatsua, indibidualista, exekutiboa eta programa-zuzendaria (Ward, 2002).

Liderraren estilo politikoak jarraitzaile-mota ugari biltzen ditu bere inguruan. Batzuek —nolabaiteko informazio-prozesatze automatiko gisa— *hura bezalakoa* izan nahi izaten dute eta haren jarrerak, hitzezko adierazpena, estilo-aldartea, itxura,

eta abar hartzen dituzte. Besteak, aurkakoak batik bat, estilo alternatiboa sortzera behartuak izaten dira, identitate- eta ezberdintasun-zeinu gisa. Halere, gehienek hauteman egiten dute eta, hein zabal batean, haren uste politikoen edukiak baino, liderrak berak eragin izaten die.

Lider politikoaren —gizabanako gisa— analisirako beste faktore bat kargua betetzeko motibazioa da, hemen boterearen motibazioarekin topo egiten baitugu. Hala ere, badirudi botere-motibazioa ez dela eragin bakarra lidergo politikoan. Badira lidergo politikoa betetzera bultza dezaketen beste arrazoi batzuk. Beste arrazoi horiek botere-nahiaren *mozorroak* besterik ez direla pentsa liteke. Dena den, motibazio-aurretiko gisa nahiz lidergoa betetzeko beharrezko elementu gisa, badirudi boterea dela lidergo politikoaren barnekoa. Horrela, Barber-ek (1993), lider politikoaren motibazioaren eta jardueraren arabera, lau lider-mota aurkitu izan ditu: iragarlea, gogogabea, ikuslea eta legegilea.

Esan berri dugunez, botereaz gain, bestelako elementuak aipatu izan dira motibazio-sortzaile gisa (Burns, 1978; Hermann, 1977). Besteak beste, ondokoak izan daitezke: a) betebeharraren motibazioa (kanpotik eskaturiko dimisioa ez aurkeztearren, oso maiz aipatzen dena); b) onespen- eta estima-beharra; c) kargua betetzeak suposatzen duen erronka (erronka pertsonal gisa); d) afiliazio-beharra; eta nolabait psikiatrizatuz, e) nork bere frustrazio eta arazo sakonetarako konpentsazio-bideak aurkitzeko beharra. Gure ikuspegitik, arazo hau era errealistago batean konpon liteke, behar eta motibazio horiek duten zentralitate axialaren maila kontuan izango balitz; hau da, behar horiek asetzeak ez du berez boterea bermatzen, baina boterea izateak, berez, behar horien asetzea bermatzen du, ordea. Beraz, gure ustez, boterea ez da izan litezkeen motibazio askoren arteko beste motibazio soil bat, baizik eta *bokazio politikoa*ren ardatz integratzailea.

Boterea lortzea eta, batik bat, botereari eustea oso jarduera *estresagarria* da. Izan ere, une jakin batzuetan *estresa*ri aurre egiteko gaitasuna eta modua, lider politikoaren jardueran eragina duten ezaugarritzat hartu izan dira (Gerpe, 1980; Holsti, 1972). Lidergo politikoak *estres-maila* garaia darama: askotan ziurtasun handirik gabeko egoeretan hartzen dira erabakiak. Arrisku-maila garaia da, zeren batzuetan norberaren jarraitzaileak eta talde boteretsuak batera asetzen saiatu behar izaten baita, beste batzuetan, gatazkan dauden balioen inguruan hartu behar baititu erabakiak, eta abar. Nahiz eta aipaturiko elementuak lidergo politikoaren jarduerari estu atxikitakoak izan, zenbait une eta girotan, lider politikoak estres-maila izugarri eta apartekoa jasaten du: krisialdi sakonetan, gerretan, iraultzetan, sistemaren aldaketa-egoera larrietan, eta abarretan. Badirudi, une horietan, liderra zurrunago bihurtzen dela, hau da, ondorioak arintasunez ateratzeko joera duela; bere ekintzen ondorioak gutxiago aurreikusten dituela; egoera definitzerakoan, datu objektiboen analisian baino gehiagotan, aurretiko esperientzian oinarritzen dela; bere lankideez gutxiago fidatzen dela eta erabakiak hartzeko prozesuaren kontrol zuzena hartzeko joera duela. Beraz, zenbait egoeratan, lider politikoaren jokabidea ezagutu eta

aurreikusteak, hein batean, *estresa* maneiatzeko bere baliabideak zeintzuk diren jakitea suposatzen du.

Estresaren eta erabakiak hartzearen arteko loturak beste arazo berezi batera garamatza: *talde-pentsamendua*ren arazora, alegia (Janis, 1983; 1993). Fenomeno horrek erakutsi duenez, hainbat erabaki politiko —Pearl Harbour; Cochinos badia, Vietnamgo gerra— porrot nabaria izan da, lider politikoaren erabakiak aholkulari-taldeko erabakien araberakoak baitziren, hain zuzen ere. Talde-pentsamendua da oso kohesionatuak diren taldeek pentsatzeko duten joera, euren erabakiak okerrak ezin izan daitezkeela, alegia: taldekide guztiek taldearen erabakiak bermatzeko eta aurkako informazioa baztertzeko beharra dute. Janis-en (1971) hitzetan, talde-pentsamendua «hartzen den pentsaera da; talde homogeneo batean konkurrentzia bilatzea hain nabaria denez, har litezkeen beste ekintza-ereduen benetako ebaluazioa desagerrarazten da». Pentsaera honen ezaugarriak honako hauek dira: 1) ilusio ukiezina; 2) arrazionalizazioa; 3) talde-moralitatearen aldeko baldintzarik gabeko ustea; 4) aurkariari buruzko ikuspegi estereotipatua; 5) konformitatea-rekiko presioa; 6) autozentsura; 7) adostasun osoko ilusioa, eta 8) pentsamenduaren zaintza.

Azkenik, lidergo politikoaren betetzea ulertzeko garrantzitsuak diren zen-bait faktore aipatuko ditugu, liderraren historia pertsonala osatzen dutenak. Lide-rraren aurrekari-sail baten inguruko informazioak etorkizunean nola jokatuko duen aurresateko aukera emango digu. Badira, beraz, kontuan izateko hiru oinarrizko elementu:

a. Liderraren aldez aurreko kokapen politikoak. Barber-ek (1972) Etxe Zuriko presidente amerikarren portaera-aurreikusgarritasunari buruzko ikerketan, ondoko elementuak aipatzen ditu: estatus horretara heltzeko erabiliriko bitartekoen analisia; aurreko postuetan buruturiko jokabide garrantzitsuak; karrera politikoa baino lehenago, arrakastara eraman zuten portaerak, egoerak eskatuta errepikatzeko joera baitute. Elementu hauek oroimenean toki nabarian daude eta egoera zehatzetan abian jartzen dira.

b. Liderraren aurreko esperientzia oraingo kokapenarekiko. Esate baterako, elementu nabarmenak dira antzeko karguetan metaturiko esperientzia, kargu horretan emandako denbora eta aurreko karguekiko antzekotasuna. Baina elementu horiek interesgarriak badira ere, alorreko ikerkuntzak ondoko arazoarekin egiten du topo: zein neurritan zabal daiteke egoera bateko ikaskuntza beste egoera batera? Arazo honek eztabaida interesgarria ekarri du (Rejai, 1984; Burns, 1984; Moore, 1983; Hermann, 1983). Esate baterako, pentsa liteke hauteskunde-kanpainarako eta boterera heltzeko beharrezkoak diren trebezia eta estrategiak, batetik, eta gobernatzeko eta botereari eustekoak, bestetik, elkarren artean oso bestelakoak direla. Era berean, aldaketa politikoen garaiak (esate baterako, iraultza-garaiak) eta normaltasun

eta sistema politiko berria bermatzeko garaiak oso bestelakoak dira. Zenbaitetan borrokan oinarrituriko estrategia (borroka armatua, hain zuzen ere) aldatu beharra dago, paktuan, burokrazian eta teknika administratiboetan oinarrituriko beste estrategia batzuen truke. Alderantzizkoa ere gerta daiteke. Iraultzen historiak garbi frogatu du, ezarririko ordena deuseztatzeko baliagarria den pertsona ordena berria eraikitzeko baliogabea dela.

c. Norberaren historiaren elementu biografiko horietaz aparte, historia hori garatu zeneko ondare sozioestrukturaleko arrastoak ere arakatu beharko genituzke. Interesgarria litzateke ezagutzea liderraren haurtzaroko eta gaztaroko ideia eta jazoera nagusiak, alegia, sozializazio politikoa garatu zeneko ingurunea. Ikuspegi honek lider politikoaren *belaunaldi-ikuspegi*ra hurbiltzen gaitu; izan ere, zenbait esperientzia komunek mundu soziopolitikoarekiko uste eta arauei eragin diete.

Karisma

Karisma bizitza politikoaren ia alor guztietan agertzen den elementua da. Askotan, lorpen eta porrot politiko handiak karisma delakoaren gabeziaren edo izatearen bitartez azaldu izan dira. Azter ditzagun bada, Hamelingo Txirulariaren metaforatik eratorririk, mistifikazio urria eta eskuragarritasun urriagoa dituen kontzeptu honen hainbat alderdi.

Hasteko, liderraren jarraitzaileekiko karismaz hitz egiten denean, esan behar da *emozio- eta erlazio-elementu*ez ari garela. Lider karismatikoak jarraitzaileekiko harremanean, besteak beste, distantzia egokia aurkitzen du: identifikazio-prozesuak sortzen laguntzeko nahikoa hurbil dago jarraitzaileengandik eta irudi goren eta ezezagunen aureola mitikoaz jantzita egoteko nahikoa urrun ere bai. Horrela baino ez du lortzen jarraitzaileengan aktibazio emozionaleko mailarik altuenari eustea. Beste edozerk baino hobeto, jarraitzaileengan eta aurkakoengan sorrarazten dituen erantzunen emozionaltasunak definitzen du lider karismatikoa. Karisma duen liderrak era askotako erantzunak sorrarazten ditu, baina axolagabetasuna inoiz ez.

Bestalde, liderraren karismak *hautemate-soslai* nabariak sorrarazten ditu jarraitzaileengan: liderraren gaitasunak areagotzen dituzte, haren eraginkortasunmaila gehiegi baloratzen dute, eta haren bitartez lor ditzaketen etekinekiko iguripenak zentzugabekoak izatera hel daitezke. Prozesu honek, maiz, desengainura darama: gehiegizko iguripenak ez dira asetzen, liderrarekiko mendekotasunak ez ditu ematen *trukean* eskatutako sariak, eta liderrari buruzko irudia lur jota gelditzen da. Idulkia hutsik gelditzen da eta frustrazioa eta desenkantuak agertzen dira. Dena den, taldekideek zikloari berriz hasiera emateko beste pertsona bat bilatzeari ekiten diote: karisma, beraz, ez da liderraren ezaugarria, jarraitzaileen beharra baizik.

Izan ere, zein faktorek sorrarazten ditu intentsitate handiko erantzun emozionalak eta liderraren inguruko gehiegizko usteak? Lehenbizi, *distantzia*ren arazora jo beharko genuke berriro. Badirudi liderraren eta jarraitzaileen arteko eguneroko intimitateak ilusioa urritzen duela: ukipen iraunkorrak ez dio tokirik uzten ia magikoa den inolako aureolari. Horregatik, oso arraroa da lidergo karismatikoa sistemaren hierarkiako maila baxuetan agertzea.

Bigarrenik, liderrak karisma izan dezake, jarraitzaileek gatazkak konpontzeko nahi dituzten soluziobideen sinbolo bihurtzen den heinean. Lider karismatikoaren nortasunean eta programan nolabaiteko *soluzio sinbolikoa* (Katz, 1973) agertzen da. Lider honi ez zaio eskatzen arazoen zio konplexuak edo jendearen frustrazioaren jatorriak azter ditzan, baizik eta jendearen sentimenduen oihartzuna har dezan, jendearen erresonantzia-kutxa egin dezan eta, behar bada, etsaiaren aurkako borroka bultza dezan. Beraz, jarraitzaileek honelako lidergotik jasotzen dituzten etekinak psikologikoak dira eta ez arrazoizkoak.

*Soluzio sinbolikoa*ren prozesuak suposatzen duen karisma maizago agertzen da ezarririko sisteman aldaketak sortu nahi dituzten mugimendu sozialeko lidergoetan, sistemarekin bat datozen lidergoetan baino.

Karisma gaia aztertzeko oinarri psikoanalitikozko postulatuetara jo duen autorerik ere ez da faltan izan. Horrela, Sarnoff-en (1962) arabera, karismak aitarekiko mendekotasunaren jarraipena ezkutatzen du, hau da, lider erasotzailearekiko identifikazioa, alegia. Horretarako ondoko bi baldintzak egotea nahikoa da: a) lider erasotzailearen boterea besteena baino askoz handiagoa izatea, eta b) liderraren boterea erabiltzetik datozen ondorioetatik alde egiteko gai ez izatea besteak. Horrek azal dezake zergatik sistema totalitarioetako lider politikoek maiz karisma izan duten. Izan ere, sistema totalitarioek oso autoritarioak diren heziketa eta irakaskuntza-praxiak ezartzeko joera dute, botere-irudiekiko mendekotasun emozionala bultzatzen dutelarik.

Azkenik, lidergo karismatikoaren beste adibide batzuetan, boterea duenarekiko mendekotasun emozionalaren ordez, lidergoaren botere-mailarekiko hautemate-soslaia gertatzen da. Arestian esan dugunez, jarraitzaileek lidergoari dagokion boterea gehiegi handitzeko joera dute. Soslai hau oinarrian dagoen ondoko elementuari erantzuteko joeratik erator daiteke: honelako pentsamenduek taldeko arazoei aurre egiteko gaitasuna norbaiti egozteko funtzioa betetzen dute. Garrantzitsuena ez da eginiko egozpenaren egokitasun logikoa, baizik eta egozpen horrek itxaropena mantentzeko funtzioa zein aldaketarekiko iguripen berriak garatzeko eta behar kolektiboak asetzeko funtzioa betetzea.

Laburbilduz, karisma oso gai interesgarria da ikuspegi interaktibotik helduz gero: jarraitzaileek eta testuinguruek karisma agertzeko eta mantentzeko ekarpen handia dute. Beraz, karismaren ikuspegi funtzionala ematerik badago, baldin eta

haren pertzepzio-oinarriak, izaera emozionala, inplikaturiko pentsamenduak eta taldearekiko birtualtasunak kontuan hartzen baditugu.

3.4. TESTUINGURUKO ELEMENTUAK

Lidergo politikoarekiko *testuingurua*, oro har, lidergoa zertzen ari den inguruneari dagokio. Testuingurua aztertzea, liderraren eta jarraitzaileen arteko egoera aztertzea da, hau da, nola dauden, nola komunikatzen diren eta nolako harremanak dituzten elkarrekin. Lidergo politikoaren lehenengo zedarritzea arestian aipatu ditugun 3 irizpideen testuingurutik dator: sistemari eustearen edo sistema aldatzearen aldeko erabaki-hartzeko testuingurua, baliabideen banaketarako testuingurua, eta taldexede estrategien definizioa egiten den testuingurua (Kellerman, 1984; Hermann, 1986). Horrelako testuinguruek maiz balio-gatazkak agertzea eta *garaile eta galtzaile*ekiko emaitza desberdinak dakartzate.

Lidergo politikoa, gobernu edo testuinguru ofizialetara mugatzeko joera izanik ere, testuinguru zabalagoetan ere gauzatzen da. Hori dela eta, lehenik, lidergo politikoa ager daitekeen testuinguru-anizkoiztasunari buruz arituko gara, testuinguruen nolabaiteko taxonomia egin ahal izateko. Beraz, zeintzuk dira lidergo politikoaren testuinguruak sailkatzeko faktore garrantzitsuak? Azter ditzagun horietariko batzuk.

a. *Portaeraren mugapen estrukturalaren maila.* Mutur batean oso hierarkizatuak diren testuinguruak kokatzen dira, rolaren eta kokapen-sistemaren arabera antolatzen direnak. Armada litzateke horietariko adibide bat. Beste muturrean, adina edo lanbidea bezalako ezaugarri soilen arabera taldekatzen diren gizabanakoen kolektiboak daude. Erdialdean *mugimendu sozialak* daude: ez dira lehenengoak bezain antolatuak, baina lider ezagunen eta helburuen inguruko talde-jarduerak gauzatzen dituzte.

   Maila bakoitzari dagokion testuinguruak lidergoarekiko portaera-mugapen desberdinak eta jarraitzaileen eredu interaktibo desberdinak ditu.

b. *Talde arteko harreman-maila.* Taldeek eta antolakuntzek beste egiturekiko mendekotasun-maila handiagoa edo txikiagoa izan dezakete. Hau da, sistema politikoak, definizioz, beste sistemetan sartuta daude, eta horiekiko interdependentzia-maila altua dute. Horrelako interdependentziak elkarrekintza eta elkartruke soziala edo menderatze/mendeko erlazioak ekar ditzake. Askotan, lidergo politikoaren azterketak analisi-maila hori ahaztu izan du, talde barneko analisietan baino oinarritu ez delako. Esate baterako, sistema bat beste sistema batekiko mendekoa baldin bada edo interdependentzia badu, itun eta konpromisorako trebeziak beharrezkoagoak ditu.

c. *Testuinguru totalitarioa vs testuinguru demokratikoa.* Era formalean, hauteskundeak demokraziaren mami nominala dira, prozesu horren ondorioz

erabaki politikoak hartzeko herri-ordezkariak hautatzen baitira. Testuinguru totalitario vs demokratikoari dagokionez, esan beharra dago XX. mendeak aldaketa politiko erraldoia pairatu duela. Demokraziarekin lehiatzen ziren gainerako sistema politikoak, alegia, monarkiak, aristokrazia, kolonialismoa, nazismoa, frankismoa, herri-demokraziak eta abar, desagertu edo ilundu egin dira. XX. mendearen hasieran, munduan ziren 55 estatuetatik 25ek zuten hauteskunde-prozesua eta horietatik batek ere ez zuen boto-eskubide unibertsalik (genero, arraza, erlijio, eta abarren arabera). Gainera, munduan egun diren 192 estatuetatik, mende hasieran, 33 beste estatu batzuetako parte ziren eta 112 estatu kolonialen pean zeuden. Gaur egun, ikuspegia zeharo aldatu da, munduan dauden estatu gehienek (119) boto-eskubide unibertsala dute eta gutxienek (16) dute boto-eskubide hertsia. Hala ere, oraindik munduko populazioaren % 32 boto-eskubide gabeko herrietan bizi da. Beraz, testuinguru demokratiko vs totalitarioa *continuum* bezala harturik, funtsezkoa da lidergoaren jarduera zedarritzeko. *Continuum* horretan, mutur bietako eskakizunak, askatasun-mailak eta ekimena eta rolarekiko iguripenak zeharo desberdinak dira. Demokrazian, liderra 1) adostasunaren teknologoa izatera mugatua dago, 2) jarraitzaileekin eta 3) aurkakoekin elkartruke sozialeko prozesu iraunkorretara mugatua baitago. Beraz, 4) gatazka urritzeko edo desagerrarazteko, itunak sortu eta negoziatu egin behar ditu. Nork bere hautesleen eta beste taldeen aurrean 5) bere lorpenen erantzule izan behar du.

Sistema totalitarioko liderra, aldiz, elkartrukerako ezberdintasun-egoeran kokatzen da, eta jendearen nahiak eta beharrak bildu beharrean, nahi horiek gauza ez daitezen oposizio aktiboaren mugimendu antolatuez kezkatzen da gehiago. Lider totalitarioak, eskuarki, 1) sistemaren kupularen aurrean baino ez du erantzun behar, harekin oso identifikatuta baitago; 2) ordena mantentzeaz arduratuko da; 3) kanpoko sistemekin ukipen urriak ditu eta 4) litezkeen mugimendu sozialekin gehiago arduratuko da bere egiturako barneko konspirazioekin baino.

Testuinguruak, beraz, lidergoa nola gauzatu mugatzen du. Murrizketa, laburbilduz, ondoko faktoreetatik eratortzen da: a) erabakiak hartzeko arauak formaldurik egotea ala ez, eta haien izaera; b) liderrak ase egin behar ditu pertsona eta sistemak eta horien aurrean erantzule gisa agertu: garrantzitsua da lider politiko hautatuen eta lider politiko izendatuen arteko bereizkuntza; c) oposizioaren indarra eta izaera, lider politikoak aditasuna nori eta zeri emango dion adierazten duena; d) jarraitzaileen uste politikoak, liderraren portaeraren kontrol eta doikuntzarako mekanismo gisa; e) testuinguruak liderraren esku jartzen dituen baliabideen kantitatea eta kalitatea; f) liderrari dagokion antolakuntzaren organigrama; g) liderraren ekintza gauzatzen den une historikoaren ezaugarriak: egonkortasuna, aldaketa, aurrerakuntza edo atzerapen ekonomikoa eta abar.

Beraz, testuinguruko elementuak sakon aztertuz soilik mugatuko ditugu lidergo politikoaren fenomenoak, alegia, lidergo politikoa nork, nola, zergatik eta noren aurrean gauzatzen den aztertuz.

Testuinguru politikoaren funtsezko elementua jarraitzaileei dagokie. Hau berau aztertuko dugu ondoren.

3.4.1. Pertsona arteko ingurune hurbila: jarraitzaileak eta liderrarekiko harremanak

Lidergo politikoari buruzko ikerkuntzak ageriko zerbait ahaztu izan du askotan: liderrek jarraitzaileei esker heltzen diote beren izate horri. Baieztapen honen soiltasunak hutsak ez diren ondorioak ditu eta lidergo politikoari buruzko pertsona arteko ikuspegi interaktiboa hartzeko beharraren adi jartzen gaitu: lidergoaren azterketaren parametro batzuk errazago ulertzen dira *besteengandik,* lider berarengandik baino. Liderrak erantzun behar die jarraitzaileek hari buruz duten eskari, iguripen eta ebaluaketei; jarraitzaileen faktore horiek, ondorioz, lidergoaren portaera mugatuko dute, hein zabal batean.

Alor honetako lehen lerroa liderraren eta jarraitzailearen artean ezartzen den *bitartekotza-mota*ri dagokio. Inguru batzuek aukera ematen dute liderrak jarraitzaileekin *buruz buruko ukipen maizkoak* izan ditzan; jarraitzaileek, beraz, zuzenean komunika diezazkiokete beharrizan eta nahiak, eta esperientzia horietan oinarritutako irudia eratzen dute. Halere, gizarte modernoetan, buruz buruko ukipenaren intentsitatea galduz joan da, eta *konplexuagoa den bitartekotza*ri zabaldu zaio bidea, batik bat, masa-komunikabideek egiten dutenari, alegia. Liderrarekiko irudia, beraz, era guztietako *zuriketa*z jantzita ager daiteke. Horrek hautemate faltsua, mitifikazioa, eta holako fenomenoak gertatzeko aukera handia ematen du, ondorioz manipulaziorako aukera gehiago baitago. Horren adibide dugu Iyengar eta kolaboratzaileen (1984) ikerlana, presidenteen ebaluazioaz telebistako berrien eraginari buruzkoa.

Liderrak jarraitzaileen iguripenak eta bere jardueraren beharrak batera asetzeko, zenbait funtzio bete behar ditu. Horien artean nabarienak ondokoak dira (Sabucedo, 1996): 1) koalizioak eratu; 2) agenda ezarri eta hori garatzeko politika diseinatu; 3) jarraitzaileengan gogo bizia iradoki; 4) irudia eratu eta horri eutsi; 5) talde eraginkorra hautatu eta garatu, 6) informazioa bildu; eta 7) eginbeharrak eta proiektuak gauzatu eta betearazi.

Jarraitzaileei dagokien beste alor bat liderrari jarraitzeko motibazioa da. Hau da, lider horri jarraitzeko zein motibazio dute? Zergatik dira talde horretako kideak? Kidetza hori estrukturalki mugatua da ala borondatezko intentzio-prozesuaren ondorioa da? Kidetza hori aktiboa ala formal hutsa da? Hauek eta antzeko galderek lidergo-prozesua *kokatzeko* bide ematen dute, jarraitzaileen ezagutzaren bitartez.

Galdera horiei, halere, ezin zaie era hertsian erantzun, zeren lidergo-prozesu bakoitzak erantzun desberdinak behar baititu eta patroi orokorrik ez baitago.

Lidergoaren funtsezko oinarria da liderra jarraitzaileen araberakoa izatea. Baina, berdina da jarraitzaile guztien arabera? Galdera honen erantzunak *mendekotasun selektiboa* delakoaren hipotesira garamatza. Liderrak, rola betetzean, azpitalde batzuekiko beste batzuekiko baino mendekotasun handiagoa senti dezake, edo zenbait gizabanakorekiko beste batzuekiko baino mendekotasun handiagoa. Beraz, oro har, jarraitzaile guztiak indar eta eragin berdinekotzat ezin dira hartu. Batzuek liderra bere tokitik kentzeko botere handiagoa dute, beren kokapenak baimentzen duelako edo aktiboagoak eta kritikoagoak direlako. Horrela, liderra ezagutzeko, aditasun handiagoa zein gizabanako eta zein talderengan jartzen duen jakin behar da. Beste era batera esanda, liderraren eta jarraitzaileen artean erdibideko ehun soziala sortzen da, zeina lidergo politikoa ulertzeko gako-indarra baita.

Beraz, testuingurua eta jarraitzaileak ezaguturik, egoera zehatzetan, lidergoen portaerari buruzko aurreikuspenak egiteko gako diskriminatzaileak aurkituko ditugu. Ondorioz, jarraitzaileei buruzko ezagutzaren beharra azpimarratzen dugunean, liderraren eta jarraitzaileen arteko harreman-moduak azpimarratu nahi ditugu. Jadanik aipaturiko Hermann-en (1986) liburuan, ondo laburturik aurki daitezke erlazio honetako alderdi batzuk. Postulatu orokorraren arabera, lider politikoa zenbait prozesu direla medio jartzen da harremanetan jarraitzaileekin, azken horien behar, desira eta iguripenekiko kongruentzia edo bateragarritasuna areagotzeko joera duten prozesuak, alegia. Beraz, jarraitzaileek liderrari bermea emateko joera ondoko egoeretan areagotuko da: a) Karguan aritzeko lehen uneetan. Izan ere, une horietan liderrak ekimenei ekiteko askatasun-gradu handienak izaten ditu; bere sinesgarritasuna ukigabea da eta *grazia-aldia* eman ohi zaio kritika eta oposizioari dagokienez. b) Mahai gaineko ardurek talde jarraitzaileari zuzen-zuzenean ukitzen ez diotenean. Dubin-ek (1979) frogatu zuenez, jarraitzaileek neurri erradikalen sail handia onar dezakete inolako arazorik gabe, baldin eta euren burua ukitutzat hartzen ez badute. Liderra jarraitzaileekiko *axolagabetasun-gunea*n aritzen denean, horien laguntza bermaturik agertzen da. c) Liderrak jarraitzaileei nolabaiteko etekina ematen dienean. Elkartruke honen emaitzak positibotzat hartzen dira eta harremana sendotuta suertatzen da. d) Liderrak jarraitzaileekin duen harremana bat baldin badator jarraitzaileek nahiko luketen harremanari buruzko irudikapenarekin.

Harremanaren alderdi horiek kontuan hartzen dituen lidergo politikoaren azterketak etorkizuneko ikerketa-lerrorik oparoena dirudi.

3.5. LIDERRA ALDAKETA SOZIAL ETA POLITIKOAREN ERAGILE GISA

Argi dago ongi egituraturiko sistemetako edo sistema instituzionaletako liderrek abantailak dituztela unean uneko sorrerako mugimendu sozialeko liderrekin alderatuz. Egitura antolatuko liderrak kohesioa bermatuta topatzen du, arau-sistema

konplexuaren, rol-interdependentziaren eta autoritatearekiko mendekotasunaren bitartez. Horrelako liderrak baliabideak ditu, masa-komunikabideetan sarrera handiagoa eta legitimitatea bere kokapenetik etortzen zaio. Sistema iraultzeko mugimendu sozialen buru denak, aldiz, 1) legitimazioa, ideologia bat garatuz bilatu behar du, 2) taldearen frustrazioak antzeman behar ditu, jarraitzaileei identifikaziorako tresnak eman, eta, funtsean, mugimenduaren aldaketa-idealak sustatzeko gai izan behar du.

Paradoxikoa badirudi ere, sistema aldatzea nahi duten mugimendu sozialetan sorturiko liderrek ere abantailak dituzte. 1) Askatasun-aukera gehiago dute lider *instituzionaldu*ek baino: mugimendua antola dezakete beren neurriko egitura sortzetik, batetik, eta, bestetik, beren legitimitatea ideologia berri baten gidaritzatik, eta horrela esparru zabalagotik interpreta dezakete. 2) Ezarririko antolakuntza bateko liderrak bertan dauden arauak erabil baditzake ere, mugimendu matxinatuaren liderrak arauak sor ditzake. *Ordena berria* planteatzeko liderraren gaitasunak jarraitzaileen desirak zedarrituriko muga baino ez du. Berritasunak —segurtasunaren ordez— eta aldaketak —sistemaren inposaketen ordez—, biek, haren alde egiten dute. Hasieran, bere inguruan aktibitate handiko eta barne-kontsistentzia sendoko gutxiengoak biltzen dira. 3) Horrek guztiak giro emozional-erlazional hori sustatzen du, *karisma* kontzeptuaz definitu duguna. 4) Mugimendu sozialeko liderra ez dute mugatzen sistema horretatik eratorritako *emaitzek,* zeinak aldatu nahi dituen, hain zuzen. Beraz, ideia eta hitz handietara hurbil daiteke, inflazio edo Barne Produktu Gordinaren kalkuluen kontra egiteko inolako beldurrik gabe. 5) Lider instituzionalizatuaren armarik nagusia sistemaren lorpenak dira; lider iraultzailearena, aldiz, promesa. Horrela, ziklikoki, ezinegon eta nahigabearen —edozein sistematan gertatzen direnak— gorenean dauden liderrak agertzen dira. Beraz, sistema-aldaketa proposatzen duten mugimenduak edozein sistema politikoren barne-logikaren berezkotzat har daitezke.

Ezinegonaren jatorriak ekonomikoak, erlijiosoak, etnikoak eta, maiz, horien guztien arteko konbinazioa izan daitezke. Aldaketa sozial eta politikoaren prozesuak aztertuz jabetu egiten gara azpiko egitura soziala aztertu gabe ezin dela lidergo politikoa ondo ulertu.

Zeintzuk dira, bada, iraultza gertatzeko baldintzak? Era paradoxikoan, iraultzek ez dute kolektibo desfaboratuen gabezia gehieneko uneetan eztanda egiten. Brinton-ek (1938) jadanik klasikoa den iraultzen analisian adierazi zuenez, iraultzak kolektiboen iguripenak hobetze-prozesuan dauden uneetan gertatzen dira, adibidez, hazkuntza ekonomikoaren uneetan. Badirudi, beraz, depribazio psikologikoaren prozesua eta depribazio materialaren prozesua garrantzi parekoak direla. Jendeak, ongizatean eta kontsumorako gaitasun-mailan nolabaiteko hobetzea izatean, etorkizunean hobetze berriak lortzeko bideak eskatzeko eta planifikatzeko joera du. Iguripen horiek areagotzen direnean, krisialdi ekonomikoa datorrela, kolektibo horiek, dagoen sistemak ematen dituen aukeren bitartez, iguripenak

lortzeko ezintasunaz jabetzen dira. Orduan frustrazioa nabarmentzen da eta errebelatu beharra sortzen da. Hau bera da Davies-en (1962, 1971) tesia, ondokoa adierazten duenean: baldintza ekonomikoek inplikazio iraultzaileak dituzte, desfaboratuen nahi-mailak areagotzearekin batera agertzen direnean. Iraultzaren teoria psikosozialak kontuan izan beharko luke hobea izan litekeen etorkizunari buruzko iguripen kolektiboen garapena sustatzen duten baldintza ekonomikoen hobetze puntuala. Gurr-ek (1970) anomiaren postulatu klasikoetan oinarrituz adierazi zuenez, une horretan ez badago bateratzerik iguripen orokor berriak eta sistemak iguripen horiek asetzeko dituen bitartekoak, sistemaren aldaketa sakonerako tentsioa sortuko da. Hala ere, lider iraultzailea ez da giro horren ekoizpen soila, paper aktiboa jokatzen du, ordea. Funtsean, bere lana prozesu hori bizkor dezaketen estrategiak planifikatzean datza: jendearengan iguripenen eta sistema barneko posibilitate errealen arteko desadostasuna gertatzen dela eta, liderrak bide alternatiboak proposatzen ditu eta holako desadostasunik ez duen sistema berri bat diseinatzen du. Liderra saiatzen da sistemaren ahuldurak nabarmentzen, ezinegona sustatuz eta ekintza kolektiboa bideratuz.

3.6. IRUZKINAK

Kontuan hartzen badugu lidergo politikoak barne hartzen dituela, besteak beste, baliabideen banaketari buruzko erabaki-hartzeak, talde sozialen xede eta helburuak planifikatzea eta *status quo*an aldaketa sakonak, nabaria da prozesu honek gure gizarteen bilakaerari oso eragiten diola. Horretaz jabetuta, gai honi eman zaion aditasun urria txundigarria da. Hermann-en (1986) hitzetan, lidergo politikoaren inguruko ikerkuntza, oraindik, *haurtzaroa*n dago. Gaiari buruz metatu den jakintzaren analisiak nolabaiteko etsipena edo desilusioa sorraraz dezake. Sarritan, ikerkuntza ñabardura *kasuistiko*ez jantzia izan da: lider politikoen portaera-sail zabala aztertu izan da une historiko zehatz batzuetan (ia beti, AEBko presidenteak) *kasu-analisia*ren ikuspegitik, zeinak informazio desintegratua, batzuetan anekdotikoa, eta jakintza metagabea eman baitigu. Batzuk lidergoaren arrazoi *psikologikoak* bilatzen aritu dira, beste batzuek testuinguruko elementuak aztertu dituzte eta gainerakoek jarraitzaileen berezko ezaugarriak ezagutzeari ekin diote. Beraz, lidergo politikoaren ikuspegi zatikatua dugu. Arlo honetan arazoaren benetako *ikuspegi psikosoziala* gauzatu ez dela esan liteke. Kapitulu honetan, saiatu gara iradokitzen harremanak eta elkarrekintzak kontuan hartzen dituen ikuspegiak izan ditzakeen aurrerapenak. Horrelako ikuspegiak eredu integratuagoak proposatzea ahalbidetzen du, non osagairik garrantzitsuenak agertzeaz gain, elementuen arteko erlazio anizkoitzak eta elkarrekintzak ager daitezkeen. Zenbaitetan, hausnarketarik egin gabe, eskema epistemologikoak birlandu izateagatik agertu da desilusioa. Horrelako gaietan, legez, orokortze iraunkorrak lor daitezkeela espero badugu ere, etsipena ekidinezina izan daiteke. Lidergo politikoa, aztergai hartua, bizia, aldakorra eta dinamikoa da oso, eta mugatzaile kultural eta historikoen mende dago, Gergen-en tesia zuzen-

zuzenean aplika dakiokeelarik. Ezagutzen hasiak garela pentsatu orduko, jadanik aldatua da; kultur testuinguru batean ezagututa, ezin dugu beste kultur alor batzuetara zabaldu. Ebidentzia hau alboratzeak desilusiora garamatza. Nahikoa lana du alor honetako ikerkuntzak kontuan hartu behar diren aldagaiak proposatzen. Edukiz osatzeko, *hemen eta orain* lantzen duen ikuspegiak egin beharko du beste guztia.

4. Sozializazio politikoa

4.1. SARRERA

Sozializazio politiko terminoaren erabilera oso berria bada ere (Hyman, 1959), bere hartze-alorrak funtsezko garrantzia du gizartearen garapenerako, azken finean, gizartearen euste eta aldaketa, belaunaldien artean gertatzen baita. Sozializazio hitza ere sortze berrikoa da, 1925ean Durkheim-ek nazio-estatu batek bere barnean bizi diren komunitate eta herrialdeen leialtasunak erakartzeko bete behar ziren ezaugarriak azpimarratu zituenekoa, hain zuzen. Sozializazioak hezkuntzaren azken xedea proposatzen du, alegia «haurra bizi deneko ingurune sozialera doitze metodikoa», (1925). Sozializazio hitza, beraz, estatuaren garapenari lotuta, sorreraz politikoa da.

Sozializazioaren garrantzia areagotu egin da azken urteotan, XX. mendeko demokratizazioaren eta ongizate-estatuaren garapenak arazoak sortu dituenetik, hau da, gizartearen garapenerako erabiltzen ziren bi kontrol-bide nagusiak zalantzan jarri direnetik. Batetik, estatuen demokratizazioak zalantzan jarri izan du jendea kontrolatzeko biolentziaren erabilera (Weber, 1919). Bestetik, ongizate-estatua ekonomiaren garapenean oinarritzeak suposatu ditu estatu aberatsetan garapen ekonomikoaren krisialdiak eta estatu txiroetan kanpoko zorra eta dependentzia ekonomikoa, eta horrek ekonomiaren bidezko kontrol-bide honetan konfiantza urritzera eraman du.

Beraz, aurreko bi kontrol-bide horien urratzeak gizartean sozializazioaren —sozializazio orokorraren zein sozializazio politikoaren— mekanismoak aztertzearen garrantzia areagotu egin du.

4.1.1. Gizakia animalia politikoa da izatez

Definizio aristoteliko zaharra gure hizkuntzara itzultzeko modu honek (Politika, I, 1253, a 2-3) traditu egiten du bere jatorrizko esanahia, ez bada adierazten *politicos* hitzak, grezieraz, herritarra, komunitarioa edo soziala esan nahi duela. Gainera, egungo esanahi honek zeharka bakarrik adierazten du jatorrizko *politiko* hitzaren esanahia. Era berean, hizkera aristotelikoan, definizioek helburu-zentzua zuten: «Gauza baten izatea bere xedea da, eta hain zuzen ere, izaki bakoitzak bere garapen guztia lortu duenean, bere izate propioa dela esaten da» (ib., 1252, b 33-37). Greziar filosofian adituek, definizio aristoteliko horren esanahi literala honela interpretatzen dute, alegia, “gizakiak osotasuna gizartean soilik lor dezake”.

Gizakia, beraz, soziala da berez, izatez —sortzez eta garapenez— bi zentzutan: bere azken xedeagatik eta politiko izateagatik. Xedez soziala da bai sortzez eta bai garapenez. Era berean, izaeraz politikoa da, soziala delako komunitate bateko kidea den aldetik. Gainera, politikoa delako, komunitate horren asuntoen antolaketan, administrazioan eta kudeaketan parte hartzea dagokio. Aristotelesen arabera, komunitatea, esanahi osatuan, *polis*a zen (eta bertatik eratortzen da *politicos*, 'hiritar', hain zuzen ere).

Badirudi, sozializazioan ohiz erabili izan den definizioak ere xede-zentzua barneratzen duela. Definizio horretan, mundura jaiotzen den haurra pertsona gizarteratu bilakatzeko prozesu gisa hartzen da sozializazioa. Ondoren, sozializazioak gizabanakoaren bizitza osoan irauten duela gaineratzen da: gizakiak, jaiotzen denetik hiltzeraino, inguruneko eskakizun eta baldintzetara moldatzen ez du etsitzen. Era horretan, sozializazioa prozesu amaigabea da, garatu gabeko potentzialtasunik gelditzen delako beti. Beraz, izate sozialak izate komunitarioa adierazten badu, hots, izate politikoa, sozializazioa ere politikoa da bete-betean.

Dena den, sozializazio hitzak adiera murritzagoa ere hartu izan du eta gizabanakoaren gaztaroraino mugatzen den prozesu gisa definitu da; hots, gizakia heldu bilakatzen den arte, heldua «talde sozialetan eta gizartean, eragin handiagoaz edo urriagoaz, parte hartzeko» gai delako (Brim, 1966).

Sozializazioa, oro har, eta egungo adieraren ildoan ere, politikoa da beti, bai gertatzen den baldintzengatik (adibidez, maila sozial, ekonomiko, kultural, eta abarreko estratu jakin bati dagokion familia batean gertatzen da), bai bere ondorioengatik (adibidez, nortasuneko zenbait ezaugarriren heziketak konpromiso-kokapen jakin batzuetarako edo bere partaidetza politikorako aurrejoera sortzen du).

Sozializazio orokorraren adiera-bikoiztasun hori sozializazio politikoan ere agertu izan da. Batetik, sozializazio politikoa hertsiki lotu izan zaio politikoa denari. Bestalde, gizabanako baten "nortasun politikoa" zentzu hertsian politikoak ez diren beste alderdi batzuen arabera ere eratu izan da (*ageriko sozializazioa*, hau da, jakintza edo jarrera politikoak igortzera nahita zuzenduriko instrukzio-modu guztiak, eta *ezkutuko* edo *sozializazio gordea*, hau da, kokapen politikoetan zeharka eragina duten hezkuntza-modu guztiak) (Greenstein, 1965). Iraupenaren aldetik ere, batzuetan, sozializazio politikoak bizitza osoan irauten duela eta gizabanakoen kokapen politikoetan izaten diren aldaketak edozein adinetan gerta daitezkeela ulertzen da. Besteetan, sozializazio politikoa gizabanakoak oinarrizko kokapen politikoak asimilatzera heltzen denean —haurtzaroan, nerabezaroan edo gaztaroan gerta daitekeena— bukatzen dela ulertzen da.

Izan ere, definizio aristotelikoaren arabera, gizakia izaeraz politikoa da. Aitzitik, konbentzionalismoaren ustez (Hobbes, Locke, Rousseau), gizakia politikoa da (gizartean bizi da) beharrez (behar historikoaz). Rousseau-k dioenez (Gizarte Hitzarmena, I, 6), gizakiak «halako puntura helduak, non, beren buruen naturalezako

egoeran...», hitzarmen batera iristen dira, eta hitzarmen horren arabera «bakoitzak komunean jartzen ditu bere burua eta bere botere guztia, borondate orokorraren zuzendaritza gorenaren pean». Hala ere, gizabanako bakoitzaren babesa «elkartzeko era bat aurkitu behar da, hartan kide bakoitzaren pertsona eta ondasunak, ororen indar osoaz, zainduak eta babestuak izanen baitira, eta haren bidez bat-bederak, besteekin elkartuz ere, bere buruz baizik ez baitu obedituko, eta aitzinean bezain libro egonen baita». Hau guztia posible da, zeren «kide bakoitzak bere burua erabat ematen badu, baldintza hau besteek ere beteko baitute, inork besteentzat kaltegarria izateko interesik ez duelarik».

Beraz, sozializazio politikoa, hitzarmen horretan, belaunaldi berrien partaideen aldetiko sartze-prozesua da, edo mitikotasun gutxiagoko hitzetan esanda, «pertsonak indarrean dagoen sistemak (soziopolitikoak) onarturiko arau, balio, jarrera eta jokabidez jabetzen direnen bitarteko prozesua» (Sigel, 1970). Hala ere, aurrerago aztertuko dugunez, arau eta balioen onarpen-prozesu hori, agian, hitzarmenerako baldintzen negoziazioa da, gizartearen aurreko egoeraren igorle soila bainoago.

4.1.2. Sozializazio politikoaren izaera

Greenstein-ek (1965) komunikazio-jakintzatik harturiko analisi-eskema erabili zuen sozializazio politikoaren prozesuan parte hartzen duten elementuak deskribatzeko, alegia: nork ikasten duen zer, norengandik, zein baldintzatan, zein efekturekin.

Esan dugunez, *Nork* belaunaldi berriak dira, baina, sozializazio orokorreko prozesuan bezala, sozializazio politikoan ere, lehen (senitartean), bigarren (eskolan) eta hirugarren (lanean, eta abar) sozializazioa bereiz daitezke. Hala ere, haurra jaiotzatik da sozialdua, horregatik zaila da sozializazio politikoa noiz hasten den (lau edo bost urterekin?) eta noiz bukatzen den (nerabezaroan edo lehen gaztaroan?) zehaztea.

Zer politika kontzeptutik beretik eratortzen da. Esan bezala, sozializazioaren ikaskuntzaren edozein edukik izaera politikoa izan dezake, era zuzenean edo zeharka, hots, sozializazio orokorrak sistemarekiko dituen ondorioengatik edo jatorriarengatik.

Dena den, kontuan hartu beharrekoak dira, batik bat, komunitatearen (*polis* edo *respublica*) asuntoen kudeaketarekin, administrazioarekin eta gobernuarekin zuzenean zerikusirik duten balioak, jarrerak, arauak eta jokabideak. Horrek guztiak kontzientzia politikoarekin, hau da, sistema politikoari buruzko orientazio eta informazioaren garapenarekin du zerikusia. Horrela, alor honetako ikerkuntzak ondoko ikergaiak aztertu izan ditu: maila orokorrean, sistemarekiko leialtasuna edo bermea, alderdi politikoen hobespena edo politikariekiko konfiantza, gaitasuna eta

tolerantzia, eta, maila zehatzagoan, beste aurrejoera-mota batzuk: talde etniko edo beste nazioekiko jarrerak, eskubide zibilen onarpenari buruzko kokapena, eta abar.

Batzuen ustez, politika da subjektuak politikotzat jotzen duen ekintza oro: «ekintza batzuk politikoak direla adieraztea hizkuntz konbentzioan oinarritzen da, baita ekintza horiek burutzen dituen subjektuaren intentzio-adierazian ere» (Baeyert-Katte, 1969:1040). «Ekintza politikoa, gizakiaren hautemate subjektiboan gizakia bera eta gizakiak "politikotzat" hartzen duen errealitate sozialeko alorra erlazionatzen dituen jokabidea da» (Schulze, 1976:1172).

Halere, hemen sozializazioa izanik interesekoa, ekintza politikoaren ordez, politikarekiko aurrejoera eratzea da garrantzitsua; hau da, politikaren alde, denbora, dirua, energia eta beste helburu pertsonal batzuk jarduera politikoetan emateko norberaren aurrejoera.

Ohiz, *jarduera politiko* kontzeptuan sozialki horrela (politikotzat, alegia) interpretatzen diren ekintzak sartu izan dira. Bestela, oso zaila litzaiguke sozialkuntza politikoaren alorrean sartzea, adibidez, nozio politikoez jabetzea edo norberaren herrialdearekiko, instituzioekiko edo pertsonaia politikoekiko jarreren eratzea, zeren horrelako kasuetan subjektuak ez baitu "politikoki" aritzeko ez kontzientziarik ez intentziorik.

Norengandik ikasten den agente edo instantzia sozializatzaileei dagokie; hain zuzen ere, familiari, eskolari, berdinen taldeari edo komunikabide, alderdi politiko edo sindikatuei eta horien moduko erakundeei.

Zein baldintzatan: ekintza politikoarekiko aurrejoeren jabetze-prozesuak sartzen dira hemen, eta ekintza politikoa modulatzen duten aldagaiez gain, sozialkuntza gauzatzen deneko baldintza eta egoerak ere bai.

Zein efekturekin: sozializazio politikoa prozesu baten ondorioa da, hau da, gizabanakoaren betebehar eta eskubideen kontzientzia hartzearekin zerikusirik duen "politizazio-mailari" dagokio, betebeharrak nola burutu eta eskubideak nola defendatu azaltzen baitu. Beste era batera esanik, sozializazioaren ondorioak gizabanakoak jokatzeko hartu dituen disposizioak dira, edo jarduera politikoan parte hartzeko hartu duen konpromiso-maila, edo sistemarekiko duen adostasuna edo desadostasuna. Beraz, sozializazio politikoa ez da sistema politiko bera berrekoizten duen prozesua soilik, baizik eta sistema politikoaren aldarazpena (edo suntsipena) eragiten duen prozesua ere bai. Horregatik, sistema politikoaren euste eta aldaketan eragina dute, arazo publikoen antolaketa eta kudeaketarekin zerikusi zuzena duten alderdiez gain, honako faktore hauek ere: gizartean bizitza ulertzeko forma berriak, besteekin erlazionatzeko forma berriak, eta gizakiak bere burua eta bere bizitza ulertzeko forma berriak ere bai. Sozializazioa prozesu bat da, non belaunaldi berriak alderdi aktiboak baitira eta ez "hezkuntza politikoaren" hartzaile pasi-

boak; funtsean, hitzarmen sozialaren klausulen negoziazio iraunkorra izango da sozializazioa.

Sozializazioa, berez, nolabaiteko eraberritze-modua da, zeren gizartearen dinamikak berak errealitate soziala —errealitate sinbolikoa bereziki— eraldatzen baitu, bai bere errealtasun objektiboa bai bere xede eta utopiak. Berrikuntzek hainbat ikuspegi dituzten belaunaldi edota talde sozialen arteko gatazkak sorrarazten dituzte. Agente horiek ikuspegi desberdinak dituzte, hain zuzen ere, errealitate soziala nolakoa den eta bizitza soziala eta indibiduala nolakoak izan beharko liratekeen, baita nolabait utopikoak diren xede horiek lortzeko moduen inguruan ere.

Sozializazioaren aurpegi biak —tradizioaren eta eraberritzearen helarazpena— paraleloki ari dira. Munduari buruz jasoriko interpretazioak ingurune sozialeko baldintzekin bat egiten duenean (tradizioaren) helarazpena azpimarratzen da; baina bata eta bestearen arteko ezberdintasuna handia denean, horrek sustatzen dituen tentsioek eraberritze sakonerako joera dute: aldaketa soziala eta krisialdiak, alegia.

4.1.3. Sozializazio politikoaren interesa: teorikoa edo politikoa?

Herritarren sozializazio politikoari ematen zaion esanahiaren arabera, hots, sozializazioa nola gertatzen den deskribatzea edo sozializazioa nolakoa izan beharko litzatekeen jakitea, ikusmirak eta eredu teorikoak desberdinak dira. Pareka ditzagun, beraz, Merriam (1931) eta Habermas-en (1973) hasierako planteamenduak, bata deskribatzailea eta preskriptiboa bestea.

Lehenengo ikuspuntutik, has gintezke eguneroko herritar arruntaren deskripziotik, hots, bere jarrera, jakintza eta jarduera politikotik, eta jarrai genezake politizazio-maila hori nola jaso duen deskribatzen. Bigarren ikuspegiaren arabera, has gintezke herritarraren jokabide politikoa nolakoa izan beharko litzatekeen ideiatik. Halere, horrek suposatuko luke aldez aurretik helburua (epe laburrean, ertainean edo luzean, edo utopikoa —definitu gabea izanik—) zein izan beharko litzatekeen jakitea –esplizitu edo inplizituki—, baita gizarte horren eraikuntzan eta xede horien lorpenean herritarraren papera nolakoa izan beharko litzatekeen ere.

Zalantzagarritasun nabaria dagoela onartu beharra dago: batetik, zientzialariak, berez, ezin ditu (zientzialari izateari uko egiten ez badio eta manipulatzaile bihurtu) bere balioak sartu errealitate sozialeko ikertzaile-jardueran, errealitatea faltsutu egingo bailuke; bestetik, zientzialaria herritarra ere bada, eta bere jarduera, ondorioz, "politikoa" da. Beraz, nahita ala nahi gabe, zientzialari bakoitzak hartzen dituen postulatu teorikoak, teoriak, eta abar, haren uste-sistemak —uste-sistema politikoak barne— kutsaturik daude. Eremu honetako ikerkuntzako adibide deigarriak badira; esaterako, "aberrirako leiala den herritarraren" definizioaren arazoak planteatzerakoan, Kinder eta Sears-ek (1985, 725) ondokoa galdetzen dute: ea haur abertzaleak «aberriaren etsaiei, komunistei esaterako, aurre egin behar dien ala askatasun-adierazpena bermatu behar duen». Adibidean ikus daitekeenez, interes teorikoa,

erraz, politiko bihur daiteke, deskripziotik preskripziora igarotzeko inolako beharrik gabe.

Ikerkuntza, gainera, botere akademiko, administratibo eta politikoek baldintzatuta dago, beraz, ikerkuntza ez da neutroa, ezta zientifiko hutsa ere.

Sozializazio politikoaren inguruko ikerkuntzaren historian, gertatu denari buruzko hausnarketak azpimarratu duenez, egin diren salaketekin batera, fokatze osoa kritikatzen dutenak ere badira. Salaketen artean, esate baterako, estruktural-funtzionalismoan oinarrituriko sozializazio politikoaren inguruan hasierako ikerketei eginiko salaketa dago, hain zuzen, ideologikoki fokaturik zeudela, zeren eta sozializazioaren eredu preskriptiboa proposatuz, erregimen politiko jakin batetiko herritar konformista sortzen baitzuten. Kritikoen arabera, sozializazioak kritikoa izan behar du, eta egonkortasun politikora zuzendu beharrean, gizartearen eraldaketara zuzendu behar da, berdinagoa edo justuagoa egiteko. Deskripzioaren eta preskripzioaren arteko doitze-prozesu batetik soilik gainditukо dugu dilema hau, bien arteko erlazio dialektiko-kritikotik sintesia agertuko baita.

4.1.4. Gizarteari buruzko kontzepzioak eta sozializazio politikoaren ereduak

Merelman-ek (1986), gizarteari buruzko kontzepzioarekiko tradizio nagusiko lau teoria handiak gordinki laburbiltzerakoan, "sozializazio politikoari buruzko argudio esplizitu edo inplizituen" inguruko ikuspegi orokorra ematen du. Gainera, lau kontzepzio hauetariko bakoitzetik sozializazioaren "*zer, nork, zein baldintzatan eta zein efekturekin* elementuak nola ulertzen diren" azaltzen du, hain zuzen. Hala ere, «sozializazioari buruzko etorkizuneko ikerkuntzarako oinarri arrazional-teoriko orokorra lortzeko teoria horien berreraikuntza» (282. or.) posible ez delako, bosgarren paradigma ezartzea erabakitzen du, «egungo sistema politikoetan sozializazio politikoaren rol-nagusiagoari (iraganean baino) aurre egiteko, baita aurreko lau teorien akatsak zuzentzeko ere, egokiagoa dena».

Sozializazio-ereduak, eta aktoreak, indarrak, inplikazioak eta ondorioak

Teoria	*Aktoreak*	*Gizartea elkartzen duten indarrak*	*Sozializazioaren inplikazioak*	*Proposaturiko sozializazioaren ondorioak*
Sistema-teoria	Borondate oneko liderra eta bere jarraitzaile leialak	Adeitasuna, behar morala eta erantzukizuna	Sistemarekiko berme zehaztugabea ematen du	Autoritate politikoarekiko lege eta ordena, instituzio politikoekiko jarrera positiboak eta efikazia politikoaren sentimendua
Teoria hegemonikoa	Kontzientzia-heziketaren industrien jabe kapitalista eta bere aliatu politikoak *vs* moldaerraza den eta zenbaitetan suminkorra den publiko atomizatua	Manipulazioa eta kontzientzia faltsua	Agentzia anitzen bitarteko barreiatze ideologikoaren prozesua; balio ekonomikoen irakaskuntza ekintza politikoaren oinarritzat	Gazteek talde menderatzaileen mezua ikasiko dute medi, eskola eta herri-kulturaren bitartez
Teoria pluralista	Interes-taldeak eta alderdi politikoak	Onarturiko "jokoaren arauen" barneko errepresentazioa	Bere interesak bilatzeko publiko gaituaren sorkuntza, autoritatearekiko ez beldurtia eta "jokoaren arauez" jabe dena	Identifikazio militante iraunkorra eta gogorra; orientabide ideologikoak ikasi eta erabili egiten ditu "jokoaren arauak" ikasten dituenak; bat ez datozenekin tolerantea; benetan parte-hartzaile bihurtzen dena
Gatazka-teoria	Elkarren arteko lehian ari diren gizarteko taldeak (klaseak, estatusak, eliteak)	Talde barneko solidaritatea; botere-oreka aurkari-taldeen artean; alde guztientzako noizbehinkako irabaziak	Norberaren taldearekin oso identifikatuak diren gazteak sortzea, norberaren taldearen aurrerapenerako	Talde-kontzientzia; gatazka eguneroko politika maneiatzeko bitarte gisako erabilera
Albo-teoria	Horizontalki loturiko soziali-zazio-agenteak, gizarteko eredu desberdinetan sozializatzeko elkarren artean lehian daudenak	Aukerak, berdintasuna, amore ematea	Era guztietako gizarteen irudien artean aukeratzeko arauen garapena, politikoki aritzeko	Interes politikoak eta inplikazio politikoetarako arrazoiak artikulatzeko trebezia

a. Sistema-teoriaren ikuspegia

Estruktural-funtzionalismoaren fokatzeari loturik, sozializazioa, prozesu gisa hartzen da, non "funtsezko aktoreak lider politiko erantzuleak diren, borondate onekoak baina autoritarioak eta euren mendekoekiko leialak".

Ikuspegi honen arabera, gizabanakoek adin goiztiarrean jasoriko autoritate-irudiak errespetatzeko joera psikologikoek bultzatzen dute, familiako autoritate-irudi horiek autoritate politikoaren irudi bihur daitezen. Bilakaera hori Easton eta Dennis-ek (1965) adieraziriko lau urratsetako ereduaren arabera gertatzen da: politizazioa, pertsonalizazioa, idealizazioa eta instituzionalizazioa. Gizarteko kontzepzio honen oinarrien ordezko klasikoak Durkheim eta Parsons lirateke.

Sozializazio-prozesuaren funtsezko aktoreak "borondate oneko" liderrak eta bere mendeko leialak dira. Gizartea bateratuta mantendu eta bizikidetza bermatzen duten indarrak dira begirunea eta beharraren eta erantzukizunaren sentimenduak. Sozializazio politikoaren ondorioa indarrean dagoen sistemarekiko berme barreiatua da; sozializazio politikoaren efektuak autoritate politikoarekiko, legearekiko, orden eta instituzio politikoekiko jarrerak eta autoefikazia politikoaren sentimenduak dira.

b. Teoria hegemonikoa

Teoria hegemonikoaren ikuspegitik, aktore nagusiak, alde batetik, kontzientzia-eratzearen industrien jabe kapitalistak eta euren kide politikoak dira, eta bestaldetik, mendua dagoen baina barrenetik mindua den klasea. Lehenengoen eta bigarrenen arteko erlazioa "kontzientzia faltsukoa" da, propaganda engainagarrikoa. Erlazio-mota horren arabera, ondasun komuntzat hartzen dira berez talde menderatzaileen interesak direnak. Sozializazio-agenteak (eskola, propaganda, publizitatea) mendekotasunerako doktrinamenduaren zerbitzuan dauden lanabesak dira, eta egun, kontsumismoa urritzeko eta *status quo*aren edozein berrikuntzarako errefusatze-kontzientzia sortzeko gazteengan. Tradizio marxista da kontzepzio honen funtsezko adierazpena, Marx eta Gramsci adierazle, batik bat.

Dawson, Prewitt eta Dawson-ek, teoria hegemonikoari dagokionez, «sozialkuntza politikoaren prozesuetan balioak nola transmititzen diren aztertzen dute, gizartearen interes menderatzaileetatik talde menderatuenganaino. Luzaroan irauten duen sozializazioa garrantzi gutxiagokoa da botere-taldeen bidez gauzatzen den sozializazioa baino. Teoria hegemonikoak gidaturik, sozializazio politikoaren azterketak honako hau galdetzen du: gobernatuek nola ikasten dute gobernariek haiei buruz espero dutena?» (1977:27).

c. Teoria pluralista

Eredu honen arabera, funtsezko aktoreak herritarren bermea izateko lehian ari diren alderdi politikoak eta botere-taldeak dira. Herritarrek, unez une eta egoeraz

egoera, euren interesak hobekien ordezkatzen eta defendatzen dituztenei eskaintzen diete bermea. Sozializazio politikoa norberaren eskubideak defendatzeko partaidetza aktiboko konpromisoa saiatzen da sortzen; hala ere, desadostasuna eta hautespen-anizkoiztasuna baimentzen da, oso partaidetza masiboko kokapen erradikalak errefusatuz. Sozializazio politikoaren emaitzak partaidetza politikoaren maila altua eta alderdi politikoekiko atxikimendua dira, eskuin politikotik ezker politikoraino hartzen baitu. Adierazpen-askatasunaren oinarrian, hauteskunde politikotik ateratako gehiengoak gobernatzen du. Sozializazio-agente nagusiak eskola, gurasoak, komunikabideak eta elkarren artean lehian ari diren erakunde politikoak dira. Doktrinaren aurretikoak Rousseau, Stuart Mill, eta Converse-ren egungo ikerkuntzak lirateke.

d. Gatazka-teoria

Gizartean badira elkarren arteko lehia iraunkor eta ekidinezinean ari diren talde kohesionatuak. Talde barnean ere desberdintasun handiak daude eta kontrol-sistema autoritarioa ere bai. Lehia egonkor hori badago ere, gizartea talde barneko leialtasunari esker da posible, zeina sozializazioaren ondorioa baita hein zabal batean. Sozializazio-agenteak elkarteetako propagandarako organoak dira; auzokideenak bezalako ingurune egonkorrak eta talde-interesak ordezkatzen dituzten antolakuntzak ere bai. Botereak eta eskolek leialtasun-sentimendu hori igortzen dute. Taldeak boterean une laburretan egoten direlako posible da taldeen arteko oreka mantentzea (Mosca edo Weber dira ikuspegi soziologiko honen ordezkari ospetsuak).

Funtsean soziologikoak diren lau oinarrizko eredu hauek, hala ere, ez dituzte zedarritzen sozializazio politikoak historikoki aztertu izan dituen fokatze askotarikoak. Horrela, hasieran estruktural-funtzionalismoa aritu bazen ere, ondoren, beste orientabide bat agertu zen. Ikuspuntu berri horren arabera, sozializazioa ez da gizarte baten balio, jarrera eta antzeko —heredatuak eta komunak diren— elementuen igorpen hutsa. Aldiz, gizabanakoaren ekintza-potentziala zirriborratzen duten alderdi subjektibo eta objektiboak ere bere barnean hartzen ditu, baita ekintza-potentzial horren gauzatzea ere, gizabanakoaren bizitza-baldintzei eta egoera sozialei aurre egitean. Beraz, lehenengo sozializazio bat gertatzen da, Weiss-ek (1981) aipaturiko *oinarrizko nortasun politikoa* gauzatzen delarik. Nortasun-mota hau eratzeko, subjektuak partaidetza aktibo txikiagoa duenez, "sozializazio gordeaz" eraginda gertatzen da lehen sozializazioa. Bigarren sozializazioan *identitate politikoa* eratzen da, ageriko sozializazio politikoa gertatuz. Ereduak, egitura sozialak, arau eta erregela sozialen sistema, esanahi sinbolikoak, legitimazioari buruzko adostasuna, eta abar, kontuan hartzea ere suposatzen du.

Merelman-en (1986) arabera, teoria hauek guztiek sozializazioa prozesu bertikal gisa hartzen dute; pertsonen arteko transakzio gisa (gurasoengandik semealabengana, irakasleengandik ikasleengana, komunikatzaileengandik audientziengana, liderrengandik jarraitzaileengana), botere-desberdintasun agerikoekin.

Sozializazio politikoaren definizio gehienek komunean dute bertikaltasun hori, haur sozialduaren "moldeamenduan" eta igortzean. Gainera, sozializazioa gutxitan hartua izan da «haurraren identitatea apurka garatzen duen hazkuntza idiosinkratikotzat»; identitate horrek «bere burua adierazten eta berezko behar eta balioak lortzen baimentzen baitu» (Kinder eta Sears, 1985:714).

Izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, egungo ikerkuntzak arazoari aurre egiten dio, alegia, egungo gizartea, antolaketan eta funtzionamenduan, aurreko ereduetariko bati ere ez dagokiola. Egun, sozializazio-eredu berria beharrezkoa da, sozializazio-prozesuan indeterminazio-heina zehazteko gai izan dadin, baita berori kontuan izan dezan ere. Merelman-ek albo-sozializazioaren teoria proposatzen du. Teoria horren arabera, «gaur egungo sozializazioaren gakoa, lau eredu tradizionalen artean, aukera-sail zabalean kokatzen da, sozializazio politikoan iraunkor hedatzen den berdinen arteko albo-konexioarengatik» (258. or.). Eta ikusmira hau, «egungo sozializazio politikoa deskribatzeaz gain, lau teoria tradizionalen arteko erlazioak ere deskribatzen dituelako, sozializazio politikoaren metateoria da; hau da, teorien teoria da» (258. or.). Kapitulu honen azken zatian dago planteamendu honen azalpen zehatza.

4.2. SOZIALIZAZIO POLITIKOAREN PROZESUA

4.2.1. Ikerkuntzaren garapen historikoa

Sozializazio politikoaren inguruko ikerkuntzak hezkuntza alorreko zenbait diziplinatan du jatorria. XIX. mendearen bukaeratik dagoen ardura handia —erregimen politikoarekikoa, jarrera sozial funtzionalak itsasteko moduarekikoa— hartzen da aurretiko gisa.

Sozializazio politikoaren ikergaietan aitzindari izan zen Merrian (1931), dudarik gabe, *The making of citizens* liburuan, sistema politikoak egonkortasuna bermatua izan zezan sozializazio-prozesu hori nolakoa behar zen aztertzean. Ikerkuntzaren historia hiru alditan bana daiteke: Bigarren Mundu Gerrara arte (30-50), 60ko hamarkadako aldaketak eman arte (50-65) eta psikologia politikoaren sorkuntzara arte.

Hogeita hamarreko hamarkadatik berrogeita hamarreko hamarkadara bitartean, gorakada handia izan zuen jarrera autoritarioak sustatzen dituzten baldintzen azterketak, ikuspegi sozialetik (Reich, Horkheimer eta Fromm, 1936, 1941) nahiz indibidualetik (Adorno eta kolaboratzaileak, 1950), hau da, izaera sozialean fokatzetik (Fromm) nortasun autoritarioan fokatzeraino.

Inspirazio psikoanalitiko garbikoa, ikerkuntza-lerro hau filosofia sozial kritikotik hasten da, sozializazio gordeari ematen dio aditasuna eta autoritarismoan oinarritzen da iturri gisa, batik bat nagusiei eginiko elkarrizketetatik ateratzeko datu enpirikoak erabilirik.

Ikerkuntzaren bigarren lerroa, 50etik 65era enpirikoagoa da eta *status quo*aren ideologia legitimatzailetik hasten da, sistemarekiko konformitatean oinarritzen da batik bat, eta datu-bilketarako teknika gisa, 6 eta 12 urteko haurren elkarrizketak erabiltzen ditu. Horren oinarri teorikoa eklektikoa da, estruktural-funtzionalismotik, sistema-teoriatik, eta psikoanalisi banalizatuaren bertsio batetik eratorririko elementuak erabiltzen ditu, teoria piagetianoaren garapen kognitiboen aldiak ere hartuta.

Identifikazio-kontzeptu ilun batetik hasirik, ikerkuntza-lerro honen funtsezko postulatua ondokoa da: sozializazio politikoa oinarrizko jarrera politikoak gurasoengandik seme-alabengana igortzea da (gurasoekiko identifikazioz eta horien ageriko portaera politikoen imitazioz). Oinarrizko jarrera horiek, postulatu psikoanalitikoetan bezala, oso adin goiztiarrean ezartzen dira —nerabezaroan baino lehen— eta ondoko bi printzipioek gidatzen dituzte (*kristaltze-tesi*tzat ulertuak izan direnak): *lehentasun-printzipioa* (haurtzaroan oinarrizko jarrera horiek behin ezarriz gero, helduaroan aldaketa xumeak besterik ez dute jasango) eta *egituraketa-printzipioa* (oinarrizko jarrera horiek esperientzia berria egituratzen dute, eta geroztiko jakintza politikoak ere bai).

Ikerketa-lerro honen lehen aldiaren emaitzak, funtsean, Hyman-en (1959) lanean agertzen dira laburbildurik, aurreko azterketak bildu eta balantzea egiteaz gain, sozializazio politikoaren adiera gauzatzen hasten da (Greenstein, 1960, 1965; Hess eta Torney, 1967; Easton eta Dennis, 1969).

Funtsezko ikergaiak dira erregimen politikoarekiko oinarrizko leialtasunak, alderdi politikoarekiko identifikazioa eta boto-jokabidea. Jadanik Berelson, Lazarsfeld eta McPhee-ren (1954) eta Campbell eta kolaboratzaileen (1960) ikerlanek familia jarri zuten gizabanako helduaren jarrera eta portaera politikoaren iturri gisa, batik bat, alderdi-hautespenari eta boto-jokabideari dagokienez. Hortik dator, beraz, senitarteari agente sozializatzaile gisa eman izan zaion garrantzi handia, baita alderdiarekiko identifikazioari ere, haurtzaroan eratu eta bizitza osoan irauten duen jarrera gisa.

Hirurogeiko hamarkadaren erdialdean irakaskuntza ertaineko haurrak ikertzen hasi ziren, ikerkuntza horretan gurasoak eta irakasleak ere sartuz. Sozializazio-prozesua, Easton eta Dennis-en (1969:391-393) ereduan islatzen da:

– *Politizazioa:* familiako autoritate-irudiekiko jarrerak autoritate politikoaren irudietara transferitzen dira (funtsean nazioko presidentea).

– *Pertsonifikazioa:* autoritatea kargu politikoetan ari diren pertsonekin identifikatzen da.

– *Idealizazioa:* kargu politikoetan ari direnei bereizgarri onak egokitzen zaizkie (boterea, ontasuna, zintzotasuna, eta abar), borondate oneko liderrarengan islatzen direla.

– *Instituzionalizazioa:* haurra garapen kognitiboan pentsamendu abstraktura-ko gai denean, etxeko leialtasunak instituzioekin (presidentzia, parlamentua, eta abar) lotzen dira; horren arabera, erregimen politikoarekiko leialtasuna mantentzen da, eta era berean, kargu instituzionaletan ari direnen orienta-bide edo erabaki politikoekiko desadostasuna ager daiteke. Sozializazio politikoa, beraz, familian eta adin goiztiarrean mamitzen da, eta eskolak familian jasoriko jarrerak baieztatu besterik ez du egiten.

1970 inguruan ikerkuntzaren norabideak barreiatu ziren eta garaiko akats metodologikoetan arreta jarri zen (Vaillancourt, 1973; Niemi, 1974; Tedin, 1976). Elementu berrien artean; gutxiengo edo talde minoritarioei buruzko ikerkuntza (Hirsch, 1971; Abramson, 1977), gutxiengoen askatasun zibilen onarpena eta balio-motak (Inglehart, 1971, 1977; Simpson, 1977) sartzen dira. Garai hartan ere, gerraren eta Vietnam eta Watergate-ren inguruko ikerketak egin ziren (Tolley, 1971) eta nazioarteko datuekin egin zen lan (Torney, Oppenheim eta Farrnen, 1975). Sozializazio politikoa ikerkuntza-alor gisa gauzatzen da eta gizabanakoaren bizi-tza osoan agertutako edozein aurrejoera (inplizitua edo esplizitua) ikasten hasten da.

Orduan sortutako orientabideen hiru funtsezko ezaugarri aipa ditzakegu:

– Adin helduari aditasun handia ematen zaio, aurreko hamarkadari aurre eginez, adin horretan aldaketarik gertatzen ez zela pentsatzen baitzen.
– Bizi-zikloen, belaunaldien eta garaiko mentalitate edo *Zeitgeist*en efektuak ikertzen dira.
– Gertakizun soziopolitikoei (esaterako, eskandalu nazionalak, gerrak, ekonomia-krisialdiak, eta era iraunkorrean iritzi publikoa hunkitzen duen edozein fak-tore ere) garrantzi handia ematen zaie.

Ez-unibokoak eta ez-homogeneoak ez badira ere, garai honetako ikerketa enpirikoek ez dituzte aurreko garaiko hipotesiak baieztatzen: lehentasun eta egitura-tze-printzipioak ezeztatzen dituzte; hau da, gizabanakoaren biziaren lehen urteetako kokapen politikoen oinarrizko kristaltze-tesia ezeztatzen dute. Gainera, sozializazio-prozesuaren lau aldien unibertsaltasuna ezeztatzen da. Horrela, Jaros, Hirsch eta Fleron-ek (1968) borondate gaiztoko liderraz eta Tolley-k (1973) lider hauskorrez hitz egiten dute, haur amerikar guztiek presidentearen irudia ez dutela idealizatzen nabarmentzeko, ezta instituzioen irudiak ere.

Identifikazio-tesia ere ezeztatzen da. Jennings eta Niemi-k (1968) aurkitu zutenez, gurasoen eta seme-alaben belaunaldien jarreren arteko korrelazioa 0,4koa edo baxuagoa zen seme-alabek 18 urte zituztenean, nahiz eta korrelazio hori altua zen alderdi politikoaren hautespenean. Hala ere, Dawson eta Prewitt-ek (1969) aurkitu zuten azken emaitza hori amek eta aitek hautespen politikoetan bat zetozenean baino ez zela lortzen. Ildo beretik, bederatzi herrialde europar hartzen zituen ikerketa batean, Allerbeck eta kolaboratzaileek (1979, 1981) korrelazio

altuak aurkitu zituzten (Alemaniarako 0,83koa zen alderdi-hautespenean, beste jarrera politiko zehatz batzuetan 0,30eko korrelazioa gainditzen ez bazen ere). Oro har, baiezta daitekeen bakarra da, familia kontserbatzaileagoek —euren belaunaldikoekin erkatuz— seme-alaba kontserbatzaileagoak dituztela, horien belaunaldiko batez bestekoa baino.

Hess eta Torney-k (1967), jarrera politikoei dagokienez, anai-arreben arteko berdintasuna aurkitu zuten, anai-arrebak ez direnen artekoena baino zertxobait handiagoa izanik. Sears-ek (1975) idealizazioa ez dela beti gertatzen aurkitzeaz gain, frogatu zuen, gertatuta ere, beti ez dagoela adin helduan sistemarekiko berme hauskorrarekin koerlazionatuta.

Aurreko garaian aurkitu ziren korrelazio altuen eta ondoren aurkitu zirenen arteko desberdintasunak, hasieran, ingurune politikoaren aldaketari egozten zitzaizkion. Geroztik, berriz, erabiliriko metodologiari kritika larriak gaineratu zaizkio, eta korrelazio altuak (0,80 ingurukoak), datu akastunak garbitu ondoren, korrelazioak urriagoak zirela aurkitu zen. Horrela, Connell-ek (1972) aurreko garaiko zenbait lan aztertuz, alderdiaren hautespenari zegokion korrelazioa 0,6koa zela aurkitu zuen eta 0,2koa beste orientabide politikoei zegokiena.

Jennings eta Niemi-ren (1974) ikerketaren arabera, institutuko azken urteetako ikasleek, amekin, aitekin baino areago koerlazionatzen zuten, baina gurasoen boto-jokabideak seme-alaben alderdi-hautespenean eragina zuen, ikasleen gainerako ideia politikoetan baino gehiago. Hau azaltzeko, adin horretan ere AEBko alderdi politikoak alternatiba ideologikotzat baino hauteskundetarako erakundetzat –makineriatzat, alegia— hartzea proposatu da (Caldeira eta Greeenstein, 1978; Merelman, 1986).

Bestetik, familiako rol-egiturak, afektuzko inguruneak eta familiako komunikazio-ereduek gaztearen politikarako konfiantzan edo desafekzioan eragina dute. Horrek pentsarazten digu, sozializazio gordea, sozializazio agerikoa baino eraginkorragoa dela. Azterturiko beste aldagai bat gurasoen politizazioa da: altua denean seme-alabengan eragina du, baina ez baxua denean (Tedin, 1974); familian aitarik ez dagoenean, eta beltzen familietan ere, seme-alabek politikarekiko mesfidantza garbia dute, edo muturreko kokapenak hartzen dituzte (Niemi, 1973; Davies, 1970; Clarke, 1973).

Langton-en (1969) arabera, familiarekiko identifikazioa dagoenean, gurasoen kokapen politikoen eta seme-alaba unibertsitarioen arteko korrelazioa handiagoa da.

Bestalde, badira ikerketak guraso-taldeen eta seme-alaben taldeen arteko korrelazio baxuak aurkitu dituztenak. Dena den, altuak edo baxuak izanda, korrelazio horiek ezin dira kausa-ondorio erlaziotzat hartu; era berean, korrelaziorik eza ere ezin da hartu familiak seme-alaben jarrera politikoetan eraginik ez balu bezala.

Izan ere, faktore askotarikoak egon daitezke, elkar neutraldu, elkar potentziatu edo elkarrekintzan daudenak. Baliteke, eskola, berdinen taldea, edo komunikabideen eta abarren eragina familiaren efektuei lotua izatea, eta orain arte ez dago faktore horietariko bakoitzaren ekarpena desberdindu duen ikerketarik.

Familiaren beraren barnean ere, badira holako aldagaiak; horrela, familia-autoritateko egitura, hautemandako ingurunea, hezkuntza-estiloak, afektuzko ingurunea edo kultur maila, besteak beste, eragin ezberdinekoak izan daitezke. Ildo horretatik, Jennings-ek (1974) familiaren kultura-maila baxua izanik, politikarekiko interes-maila, tolerantzia politikoa eta konfiantza politikoa ere baxuak zirela aurkitu zuen.

Familiaren eta eskolaren arteko efektu sozializatzaileak erkatuz, Hess eta Torney-k (1967) bigarrenari egozten diote eragin handiagoa; Renshon-ek (1975), aldiz, familiari.

4.2.2. Sozializazioaren edukien egonkortasun eta iraunkortasuneko gaiak

Heldutasuneko jokabide politikoan, sozializazioaren eragina sozializazio politikoaren azterketaren garrantzi handiko alderdia da. 1970etik hasita batik bat, ikerketa askok lehentasun-printzipioa okerra dela frogatu dute (Sears *et al.,* 1973; Peterson eta Somit, 1982), nahiz eta oraindik baden, elkarren aurkako emaitzak ikusirik, printzipio hori baieztatzen duen ikertzailerik. Hala ere, oro har, egun gizabanakoen bizitza osoan aldaketa garrantzitsuak gertatzen direla onartzen da, aldaketaren profilei dagokienez, iritzi-desberdintasun handia badago ere.

Kinder eta Sears-ek (1985) gizabanakoen bizitzan diren kokapen politikoen aldaketaren lau eredu garrantzitsu biltzen dituzte:

- Adina garrantzirik gabekoa da, aldaketa edonoiz gerta daiteke bizitzan.
- Badira bizi-zikloak, non kokapen jakin batzuk gertagarriagoak baitira: nerabezaro eta gaztaroko erradikalismoa, adin nagusiko kontserbadurismoa, esaterako.
- Badira aldi kritikoak: adibidez, azken nerabezaroan eta lehen gaztaroan ("urte inpresionagarriak") inguruneko presioarekiko ukigarritasuna.
- Adin txikitan jasoriko kokapenak ondoko urteetako aldaketarekiko nahikoa kutsagaitzak dira.

Kokapen politikoen iraunkortasunaren inguruan bilduriko datuak, maiz, akats metodologikoz beteta egon dira. Hasieran, esaterako, subjektuen atzera begirako azalpenak erabili ziren; horrek jarrera politikoen iraunkortasun errealari buruzko datuak faltsutzea sustatu baitzuen. Bestalde, kohorte, edo askotan esaten zaion bezala, belaunaldi-efektuen inguruko ikerketek ondoko eragozpena dute, alegia, ez dituzte erraz bereizten bizi-ziklo edo faseen efektuak (nerabezaroa, gaztaroa,

helduaroa, edo gizabanakoen bizitza zedarritzen duten gertakizunak, hala nola ezkontza, haurrak eskolan izatea, lanbideratzea edo igoera) eta garaiko efektuak edo *Zeitgeist*a.

Erreferentzi puntutzat hartua izan den lanetariko bat, Jennings eta Niemi-k (1974) burututakoa da. Ikerketa horretan, hamazazpi urte inguruko ikasleek eta euren gurasoek osatutako lagin handi baten jarraipen longitudinala egin zuten, 1965. (lehen datu-biltzea) eta 1973. (azken datu-biltzea) urteen artean. Ondoko ondorioetara heldu ziren: hamazazpi urterekin sozializazio politikoa ez da bukatu; jarrera politikoen multzo baten inguruan (askatasun zibilak, eskola-politika, efikazia politikoa) bildutako datuen arteko korrelazioa 0,20koa zen seme-alaben belaunaldirako eta ez zuen gainditzen 0,40koa gurasoen belaunaldirako.

Era berean, gurasoen eta seme-alaben alderdi-hautespenen arteko berdintasuna, iraunkortasun-prototipotzat hartua izan da. Halere, Converse-k, 1954-1964 bitartea aztertuz, helduen % 2 bakarrik alderdi batetik bestera aldatu zela aurkitu zuen AEBn; baina, alderdi politikoetatik askea izatetik alderdi politiko bateko kide izatera % 20 zen igaro. Glenn-ek (1972) aztertutakoaren arabera, 20 urtetik hasirik, mugikortasun handia zegoen, politikoki askea izatetik alderdi politikoko kide izatera; baina belaunaldi-efektua izan zitekeen.

Jennings eta Niemi-ren (1978) beste ikerketa baten arabera, 18 urterekin pertsona gutxi batzuk aldatu ziren alderdi errepublikarretik demokratara eta alderantziz; baina gizabanako askeak alderdi batekin lotzea edo alderantzizkoa heldu nagusien artean % 40koa zen eta heldu gazteen artean handiagoa. Alderdi politikoaren hautespenaren egonkortasun erlatiboari dagokionez, ikerketa askotan frogatu izan da (Newcomb *et al.,* 1967; Converse eta Marakus, 1979).

Konfiantza politikoari dagokionez, Jennings eta Niemi-k (1978) luzaroan 0,27ko korrelazioa aurkitu zuten helduengan. Konfiantza-mailarik garaienak 60ko eta 70eko hamarkadetan jaitsi ziren nabarmen (Miller, 1974), luzaroan korrelazio indibidualez aparte. Horren azalpena, konfiantza handia edo txikia dutenen ordena mantendu bada ere, denen urritze nabarmenean datza.

Beste jarrera politiko batzuei dagokienez, 60ko hamarkadan denboraldi laburrean aldaketa indartsua eman zuten arraza-jarrerek; 70eko hamarkadan sexuen arteko eskubide-berdintasunak aldaketa nabarmena jaso zuen, belaunaldi-aldaketaren emaitzatzat hartua izateko aldaketa handiegia izan zena.

Alderdi-hautespenari dagokionez, aldi luzeetan ere 0,5eko korrelazioa aurkitu da (nahiz eta partiduarekin desadostasuna egon, erabaki eta jarduera politiko zehatzetan).

Bizi-zikloak

Alde batetik, badirudi garapen-zikloei loturiko faktoreak daudela. Horrela, gazteek politikan parte hartzeko joera urriagoa dute nagusiek baino, nahiz eta hori bizi direneko komunitateko gazteen kidetza berriagatik azaldu den zenbaitetan (Verba eta Nie, 1972).

Ikuspegi psikologikotik, jarrerak eta jokabide politikoa bizi-zikloei lotuta daude, nortasun indibidualeko faktoreen eskutik (Rosenberg eta Farrel, 1976). Gordon (1972) bizi-zikloetako inflexio-puntuak zedarritzen hasi zen (heldu gaztea, heldutasun goiztiarra, heldutasun osotua, zahartzaroa). Zahartze-prozesuagatik gertatuko litzateke adinagatik baino areago (batzuk beste batzuk baino lehenago heltzen edota zahartzen direlako) edo agian gizabanako baten inguruko aldaketek, berdinen arabera, iritzi, jarrera eta jarduera politikoetan eraldaketak ekartzen dituztelako.

Bestalde, badirudi bizi-zikloak eta kokapen politiko orokorrak koerlazionatuta daudela: gazteek jarrera liberalagoetara jotzen dute adinak gora egin ahala (Merelman, 1971); baina, nagusiak kontserbatzaileago bihurtzen dira adinak aurrera egin ahala, nahiz inflexioa noiz gertatzen den garbia ez izan.

Ikuspegi piagetianotik, nerabezaroko eta lehen gaztaroko "erradikalismoa", gizabanakoak, bizitzaren aldi horietan ikuspuntu oso hertsiak dituelako gertatzen da, bizitzaren esperientzia faltan, errealitatea bere konplexutasunean ikusten uzten ez baitu. Bestalde, denboraren poderioz gertatzen diren berregituraketa aktiboei esker aldatzen dira jarrera politikoak, eta ez agente sozializatzaileen eraginagatik, agente horien rola subjektuak birlanduko dituen material-emate hutsa delarik.

Oro har, adinarekin batera inguruneko eraginarekiko zabalkuntza areagotzen dela onartzen da, baina adin handian, zahartu ahala, urritzen da. Izan ere, gizabanakoa kognitiboki garatuz joatean, ingurunea bereizgarriago bihurtzen da eta konplexutasun-maila altuagoekin koordinatzen du.

Adinarekin batera barne-aldaketak (nortasunezkoak edo garapen kognitibozkoak) gertatzen dira, gizabanakoak hartzen dituen jarrerak baldintzatzen dituztenak. Hala ere, ikuspuntu soziologikotik, adinaren aldiekin erlazionaturiko iguripen-gune jakinak ere badira (Kholi, 1978).

Schulze-ren arabera (1977), gaztaroan finkatzen dira jarduera politikoarekiko disposizio-mailak; hau da, «jarduera politikoan denbora, dirua, energia edo politikaren alde emateko disposizio pertsonala [finkatzen da gaztaroan], eta egin gabe utzi dituen jarduera "apolitikoen" etekinen ukatzea [ere finkatzen da gaztaroan]» (1977:11-12). Bizitzaren bigarren hamarraldian gizabanakoaren jarduera politikoa baldintzatzen dute elkarri loturik dauden hiru faktorek: garapen kognitiboa, identitate-bilakuntza eta ekintza abagune politikoekiko eskuragarritasuna.

Bizitzaren hirugarren hamarraldian finkatzen da jarduera politikoarekiko disposizio-maila. Jarduera politikoarekiko norberaren disposizio-maila mugatzean zenbait prozesu zirkularrek hartzen dute parte: hasierako jarrera politikoek eragina dute adiskidetasun-guneak eta antolaketa politikoak hautatzean eta, aldi berean, horien arteko elkarrekintzak eragina du jarrera politikoetan. Gainera, jarduera politikoarekiko abagune objektiboak elkarturik daude berdinen taldeen estratu sozialarekin, eskola edo lana izanik.

Ekintza politikoarekiko disposizioaren eraketan, garrantzia dute bai jatorriz politikoak diren esperientziek (maiztasuna, balorazioa, eta abar) bai, politikoak ez izan arren, subjektuaren nortasunaren egitura ukitzen dutenek ere (arazoekiko, konplexutasunekiko, gatazkarekiko, anbiguotasunarekiko tolerantzia). Hala ere, esperientzia politikoek, nahiz politikoak ez direnek, behaketa-ikaskuntzan dute oinarri, horregatik hogeita hamar urteko adinean politikarako aurrejoera "finkatutzat" jo daiteke; adin horretan, gure gizartean, elkarrekintzan dauden pertsonak eta inguruneak jadanik egonkorrak baitira, edo funtzionalki antzekoak behintzat.

Kontuan izan beharko genuke, hala ere, bizitzaren hainbat alditan, inpresionagarriagoak izateaz gain, subjektuek, nortasunaren gauzatze-maila urriagoz, inguruko presio indartsuak jasaten dituztela (goi-ikaskuntzarako edo lanerako sarrera); presio horiek bai talde sozialetatik (berdinen taldetik, batik bat), bai ukipenetatik (eduki politikoen ikasketa, jarduera sindikala, eta abar) datoz.

Belaunaldi-ondorioak

Belaunaldi hitzak, filosofia sozialaren ekarpenetan (esate baterako, Ortega y Gasset-en lana), elite-oihartzunak ditu, baina ikerkuntza enpirikoan Mannheim-ek emandako adieran hartzen da. Autore horren arabera, belaunaldi kontzeptua «pertsona-unitatea da, esperientzia historiko komunetara esposatua izan dena eta kontzientzia, mentalitatea edo ideologia komuna garatu duena». Ikerkuntzari dagokionez, beti ez da egiten belaunaldiaren eta kohortearen arteko bereizkuntza.

Belaunaldia markatzen duten esperientzia historikoen adierazle globaltzat hartzen dira krisialdi ekonomiko edo belikoak, edo mundu-mailakoak, besteak beste. Egoera historikoaren arabera, gertakariek talde sozial batzuk ala besteak ukitzen dituzte, eta talde horien barnean, egituraketa subjektibo pertsonaleko aldian dauden adin-taldeak —hogei urte ingurukoak— markatzen dituzte (Sigel eta Hoskin, 1977; Valencia *et al.,* 2002). Hala ere, duda-mudak badira, egituraketa hau erabateko kristaltze zentzutzat hartzeko (Glenn, 1977).

Garaiko ondorioak (edo **Zeitgeist***)*

Garaiko efektuen ikuspegitik ez dago gizabanakoen bizi-ziklorik, ezta belaunaldiaren esperientzia komunik ere, baizik eta, garai jakin batean, jarreren izaera uniformatzailea (*Zeitgeist*, edo garai bateko mentalitatea) duten populazio-multzo

osoaren esperientziak; ez dago, beraz, populazioaren taldekatzerik bizi-zikloetan edo jaiotza-kohortetan. Hala ere, eragin horiek operazionalizatzea zaila da, zeren *Zeitgeist*en aldaketek ezberdin eragin diezaiekete adin-talde eta bizi-zikloetako talde desberdinei.

Transmisio-ereduen arabera (60ko hamarkadaren erdialdera arte nagusi izan zena, eta sozializatzailearen eta sozialduaren jarreren artean, familian batik bat, berdintasuna suposatzen zuena), ikerketa enpirikoetan agertzen ziren desberdintasunak *ad hoc* hipotesien bitartez azaldu ziren. Horren kontra, ikerketa enpirikoek, adibidez, berdinen taldeek, adinak aurrera egin ahala, gero eta eragin garrantzitsuagoa dutela frogatu dute.

Gainera, adin, belaunaldi edo *Zeitgeist* aldagaien efektuak osatu behar dira beste alderdi soziologiko batzuen eraginaz, hala nola estratu sozial, sexu, arraza edo erlijioarekin, hau da, egitura sozialaren atxikimenduarekin.

4.2.3. Sozializaziorako agenteak

Familia

Ikusi dugunez, familiaren eragina hasieran pentsatu zen bezain erabakigarria ez bada ere, ez dugu ahaztu behar familia barneko "heziketa-praxiak" ikuspuntu desberdinetatik kontuan hartu izan direla; hala nola, Kardiner-ek *Psikologia Kultural*etik, From-ek *Egitura sozial*etik edo Adorno eta kolaboratzaileek *Nortasun autoritario*tik.

Horri dagokionez, jadanik 40ko hamarkadan Baldwin-ek guraso eta seme-alaben arteko bi harreman-estilo kokatu zituen: demokratikoa eta kontrolekoa. Lehenengoa guraso eta seme-alaben arteko komunikazio arinean finkatzen da, haurrei iritziak galdetzean eta arauak ezartzeko arrazoiak azaltzean. Bigarrena alderantzizko portaera-ereduan oinarritzen da. 70eko hamarkadan, Baumrind-ek Baldwin-en lana osatu zuen 3 portaera-estilo adieraziz:

– Estilo autoritarioa. Guraso autoritarioek obedientzia osoa, autoritatearekiko errespetua eta ordenari eustea eskatzen diete haurrei. Behar horiek guztiak inposatuak dira eta ez dago inolako azalpen edo arrazoinamendurik.
– Autoritateko estiloa. Autoritatea duten gurasoek seme-alabei debekuen arrazoiak azaltzen dizkiete eta, elkarrizketa eta argudioen bitartez, portaera ez-desiragarriak aldatzen saiatzen dira. Seme-alabengan independentzia eta segurtasuna sustatzen dute, baina behar izanez gero autoritatea erabiltzen dute.
– Estilo baimenkorra. Seme-alabei desiren arabera, nahi duten bezala portatzen eta hartu behar diren erabakiei buruz behin eta berriz galdetzen uzten diete. Exijentzia-maila urria dute eta oso gutxitan erabiltzen dute autoritatea.

Portaera-estilo hauen emaitzen arabera, gazterik independenteenak eta erantzuleenak autoritateko estiloko familietatik zetozen, eta independentziarik urriena eta erantzukizun-maila ertaina zuten familia autoritarioetakoek. Azkenik, ingurune baimenkorretan heziek erantzukizun urria eta independentziarik gutxiena zuten.

Eskola

Ugaria ez izateaz gain, eskolaren bidezko sozializazioak dituen efektuen inguruko ikerkuntzak zailtasunak ditu, oraindik gainditzeke daudenak: haurra eskolara iristen denerako familiak baldintzaturiko jarrerak daramatza; gainera, haurra agente anizkoitzen eta beren garapeneko faktoreen eraginpean dago.

Teoria hegemonikoa izan da eskolaren efektuaz gehien arduratu dena, ondoko hiru prozesuen bitartez: eduki-curriculuma; hezkuntza-prozeduren bitarteko ikasleen banaketa, eta curriculum ezkutua. 1) *Eduki-curriculuma.* Ikasketen curriculumak estatuaren ikuspegi kapitalista nahiago izan duela aurkitu izan da (Fitzgeral 1979), menderatzaileak diren propietate pribatuko balioak eta ikuspegi ekonomiko eta sozial kapitalista saritu baititu. 2) *Ikasleen banaketa, hezkuntza-prozedura desberdinetan*. Goi-mailako heziketaren prozeduretako ikasketek (klase sozial altukoek) autokonfiantza eta asertibitate politiko handiagoa (Jennings eta Niemi, 1981) eta hezkuntza-mezu eraberritzaileagoak eta demokratikoagoak (Norga, 1977) garatzen dituzte, behe-mailako prozeduretako ikasketek (klase sozial behekoek) baino. 3) *Curriculum ezkutua* edo eskolako praxi sozial ez-formalek (eztabaida irekia vs zuzendua, lehiakortasuna sustatzea ala ez, eta abar) zerikusi handia dute. Horrela, Merelman-ek (1981) eskola amerikarrak autoritarismoaren aurkako curriculum ezkutua sustatzen zuela aurkitu zuen, eta Willis-ek (1977) behe-klaseko ikasleek eskolako porrotak dakarren estigmatizazioaren aurka borrokatzen zutela, horrela, "galduen legiokoek" eskola-sistema aldatu nahi zutela frogatuz.

Teoria hegemonikoaz aparte, ikerkuntzak bat datoz ageriko sozializazioak (eduki politikoekin zuzenean erlazionaturiko ikasgaiak) ez duela ia eraginik ikasleen jarrera politikoetan (Langton eta Jennings, 1968; Patrick, 1972). Ikasleen jarrera politikoetan eragiteko eskolak duen inefikazia, irakasleei egotzi izan zaie, askok (% 80k, Tolley-ren arabera; 1977) gai arazotsuei buruz hitz egiteari uko egiten diotelako. Ezezko horren zergatia, gizarte demoliberaletan, irakasleak ikasleen doktrinamendutik aldendu beharra da, nahiz eta, dirudienez, irakasleen promozio gazteenek euren iritzia azaltzeko joera duten, sozialki eztabaidagarriak diren gaietan ere bai (Wasmund, 1982).

Bestalde, bai irakasleen kokapenagatik, bai irakaskuntzarako materialen ezaugarriengatik (programak, testuak, eta abar.), eskolak gizartearen alderdi gatazkatsuekiko familiaren bidezko sozializazioaren itsutasuna areagotzeko joera du; eta, horrekin, jadanik barneraturiko arau sozialekiko konformitatearen alde egiten du (Siverman, 1970: historia-testuen berrikuspena).

Eskolak, bere osotasunean, sozializazio politiko gordean eragina izan dezake eskola-antolaketaren bitartez. Horrela, antolaketa parte-hartzaileagoa duten eskolek jarrera politiko kritikoagoak sustatzen dituzte. Hala ere, ikasle bakoitzarengan eragin desberdina du, ondoko faktoreen arabera: haren garapen-mailaren arabera, iguripen eta motibazioen arabera eta familiako aldez aurreko sozializazio politikoaren norabide eta mailaren arabera, besteak beste (Hartmann, 1982). Gainera, berdinen taldeekiko topagune eta harremangunea da eskola, horregatik, eskolako osaketa soziala oro har, eta batik bat ikasgelakoa, kontuan izan beharra dago.

Berdinen taldeak

Gero eta gehiago dira, eta goizago, familiatik kanpo ordu asko igarotzen dituzten haurrak; horregatik, berdinez osaturiko taldea garrantzi gehiago hartzen ari da sozializazio orokorrerako eta, ondorioz, sozializazio politikorako. Berdinen taldeak oso lanabes eraginkorrak dira jatorri desberdineko jarrera eta balioen transmisioan. Haurrek taldean esperientzia zuzenak dituzte, euren familietan ezagutu dituzten autoritate-egituretatik bestelakoak, eta arau eta erregela sozialak nola aldatzen diren ikusteaz gain, euren interesak adierazteko eta balioztatzeko ere aukera izaten dute.

Berdinen taldeen eraginpean sortutako jarrerek familian bizikidetzarako ondorioak izan ditzakete, eta gurasoen sozializazio berria sustatzen dute. Gizabanakoen ardurekiko eta interes komunekiko topaketa gutxiengo aktibo asaldari bihur daiteke, eraberritzeak barreiatzeko edo, beste talde batzuekin elkarturik, mugimendu eraberritzailea sortzeko gai dena.

Komunikabideak

Komunikabideek, eta telebistak bereziki, bi ikuspegitatik dute eragina. Batetik, adin-taldeekiko programa bereziak egoteak azpikulturak sortzen lagun dezake, programa horien edukiak, maiz, berdinen taldeetan edo senideen artean eztabaidagai direlarik. Bestetik, komunikabideak informazio-iragazki gisa ibiltzen dira, batik bat gazteengana heltzen baitira (Chaffee eta kolaboratzaileak, 1977).

Horri dagokionez, bi funtsezko planteamendu daude:

1. *Iturrira —bitarteko gisa— zuzenduriko ikerketak:* entzuleriari zein zuzeneko ondoriok eragiten dioten ikertzen dute; halere, kontuan hartzekoa da komunikabideen mezuek urriki eragiten dutela, zeren, ia beti, tartean baitaude hartzailearen aurrejoera psikikoak eta beste pertsonen eta taldeen eraginak.
2. *Hartzailearengana zuzenduriko ikerketak*, funtsean, honako honetan laburbiltzen dira: komunikabideek entzuleriarengan asetzen dituzten beharrak, —hau da, komunikazio-prozesuan hartzaileak jasotzen duen etekina— eta hartzaileak nola prozesatu eta nola egiten dion aurre komunikabideen eskaintzari.

Chaffe-k (1977) alor honetako ikerkuntzaren emaitzak ondoko puntuetan laburbiltzen ditu:

– Komunikabideak informazio politikoaren iturri nagusia dira.

– Komunikabideen berriei jaramonik egiten dieten haurrak, beren taldeetan politikaz hitz egiteko eta eztabaidatzeko prestago daude.

– Komunikabideen garrantzi erlatiboa aldatzen da adinarekin batera. Telebista haurtzaroan mugatzaileagoa da, baina nerabezaroan urritzen da horren garrantzia eta prentsarena areagotu egiten da. Helduaroan, norberaren jakintza politikoaren mailaren arabera dago telebistaren eragina, zenbat eta maila urriagoa izan, telebistaren garrantzia handiago baita; eta oro har, klase baxuko estratu sozialetan, telebista da beste edozein komunikabide baino garrantzitsuagoa.

– Oro har, komunikabideak instantzia sozializatzailerik eraginkorrenak direla onartzen da; hala ere, ez da aurkitu korrelazio argirik berri politikoen kontsumoaren eta jarduera politikoaren artean (Chaffe, 1979).

4.3. EREDU TEORIKOAK

Sozializazio politikoa gidatu duten norabideen arteko sailkapena egitean, alde nabaria dago; batzuetan sailkapena egiten da orientabide soziologiko eta psikologikoagoetan oinarritua; beste batzuetan, berriz, oinarrian dauden teoria psikologikoen araberako sailkapena hobesten da. Hemen egingo dugun sailkapena, eztabaidagarria bada ere, orientabide bezala baliagarri izan dakiguke.

Sailkapenarekin hasi baino lehenago, esan behar da Toney eta Hess-ek (1981) sozializazio politikoa azaltzean, lau eredu ematen dituztela, prozesu honetako bi elementu funtsezkoren arteko erlazio-motan oinarritzen direnak: agente sozializatzaileetan eta horien eraginaren helburua den gizabanakoarengan. Lau eredu horiek, funtsean, honako hauek dira: eredu kognitiboa, metatze-eredua, identifikazio-eredua eta rolak transmititzeko eredua. Hemen, lau ereduok ondoko bi sailetan banatuko ditugu, alegia, konformitate-legitimazioaren ereduak eta desberdintze eta eraberritzearen ereduak.

4.3.1. Konformitate-legitimazioaren ereduak

a. *Identifikaziozkoak*

Oro har, estruktural-funtzionalismotik eratorrita, eta sistema-teoria klasikoan oinarrituta, eredu hauen arabera, sozializazio belaunaldi batetik besterako jakintza politiko, jarrera, balio eta arau politikoen transmisio bertikala da. Eredu hauen ardura sistema politikoaren iraunkortasuna bermatzen duten prozesuak dira;

bermatze horretarako, sistemaren instituzioen eta egitura funtzionalen garapena ziurtatzea beharrezkoa baita. Horregatik, honen barnean topiko ugari daude: familiako eta eskolako autoritate-irudietatik autoritate politikoaren irudietara gertatzen den transferentzia onartzea ("borondate oneko liderra") eta, halaber, alderdi politikoari atxikitzea, bai gurasoekiko identifikazioaren bitartez, bai haien portaera politikoen imitazioaren bitartez.

1960ko hamarraldiaren hasiera arte nagusi zen ereduaren arabera, teoria psikoanalitikoaren azalaldeko jabetze banalizatua gertatzen zen (*nortasun autoritarioa*n agertzen zen sakontasunera heltzen ez zelarik), garapen kognitiboaren teoria piagetiarretik eratorririko eta bereganatu gabeko elementu batzuekin batera.

Psikoanalisitik eratorritako printzipioak elkarri lotzetik (esperientzia goiztiarreko *lehentasun-printzipioa*, eta *egituratze-printzipioa*, zeinaren arabera lehen esperientziek egituratzen baitituzte ondoren datozenak) *kristaltze-tesia* ondorioztatzen da. Hirurogeiko hamarkadako ikerketek frogatu zutenez, gizabanakoak lau-sei urte bitarteko adinean jabetzen ziren lehen nozio politikoez, eta hamabi-hamalau urtetan, oinarrizko bilbe politiko konplexuan sendotzen ziren, gizabanakoaren ondorengo bizitza guztian, aldaketa urri eta ahulez, irauten zutelarik. Hipotesi biak, zalantzan jarri dira larriki (ikus belaunaldi edo garaiko nahiz *Zeitgeist* azterketetan oinarrituriko hipotesiak), eta ikerketa enpiriko gehienek frogatzen dute helduaroan aldakortasun handia dagoela.

Horrenbestez, zalantzan jarri dira fokapen hauek, zeren arraza zuriko eta klase ertaineko haurrengan oinarritu ziren ikerketak, eta ez beste etnia edo estratu sozialetan, non sistemarekiko konformitatea desberdina eta, nolabait, aurkakoa den.

b. *Metatze-eredua*

Informazioaz jabetzen da haurra, heltzen zaion heinean; baina ereduak ez du ezer esaten informazioa lantzeko eta bereganatzeko dauden suposizio subjektiboen inguruan. Haurrak era guztietako informazioak hartzen ditu, elkarren aurkakoak ere bai (bereziki, familian eta gehienbat eskolan gauzatzen den ageriko sozializazioari dagokionez). Dena den, eredu honek ez du azaltzen informazioak duen gaitasuna jarrerak sortzeko, zeren informazioaren motibaziozko alderdiez ez baitu ezer esaten. Azpian dagoen subjektu-eredua, hartzaile pasiboa den organismo batena da. Hain zuzen ere, sozializazio-prozesua eta kontrol sozialeko prozesuak antzekoak lirateke.

c. *Pertsona arteko transferentziaren eredua*

Haurra ikasten ari da, saritze-errefortzuz lagundurik, aldez aurreko interakzio-esperientzien arabera. Horrela, autoritate politikoaren irudian (alkatea, presidentea, eta abar) haurrak jadanik beste autoritate-irudi batzuetan (aita, irakaslea, eta abar) ezagutzen dituen bereizgarriak hautematen ditu. Era berean, objektu berri horiekiko (pertsona, ekintza, erregelak, kokapen politikoak, eta abar) sentimenduak

orokor (edo transferi) daitezke. Orokortze-prozesu honek azal ditzake haurraren lehen jarrera politikoak, eta horien afektuzko zama ere bai. Ereduaren oinarria, beraz, baldintzapen instrumentaleko ikaskuntzan dago.

Eredu honek ere ez du ezer esaten subjektuak dituen garapenaren aldi desberdinetako jakintza politiko konplexuak bereganatzeko beharrezko baldintzez. Orokortze-transferentzia hori gerta dadila, subjektuak hautematen dituen ezaugarri komunak (aitaren eta presidentearen artean, esate baterako) zeintzuk diren ere ez du argitzen.

4.3.2. Desberdintze eta eraberritzearen ereduak

Estruktural-funtzionalismotik eratorririko ereduak, eta hein batean teoria psikoanalitiko eta piagetiarraren elementuetan oinarriturik, herritarren arteko uniformetasunaren eta sistema politikoaren egonkortasunaren bermatzea azaltzen saiatzen ziren. Beste eredu batzuek, aldiz, gizabanakoen arteko desberdintasunak eta berrikuntza soziopolitikoak hobesten zituzten.

a. *Ikaskuntza-ereduak*

Eredu hauetan, ingurune soziohistorikoek gizabanako bakoitzari aurkezten dizkioten estimulu-konfigurazioekin batera, sozializazio politikoan paper erabakigarria jokatzen dute.

Garrantzi nabarmenekoak dira hemen ikaskuntza sozialeko ereduak (bai Bandura-ren bai Rotter-en bertsioetan) eta autosaritze-ereduak. Batik bat, posible da eredu hauetatik oinarritzea kokapen politikoen aldakortasuna bizitzaren edozein alditan, horrela, sozializazio politikoak gizabanakoaren bizi-ziklo osoa hartzen duelako. Hala ere, ez dira asko izan ikuspegi honen arabera eginiko ikerketak, jokabide suntsikorretan agresibitatearen hainbat alderdiren azterketa izan ezik.

Ikuspegi horretako oinarrizko postulatua ondokoan datza, alegia, haurrek erreferentzia-pertsonen (gurasoak, irakasleak, pertsonaia publiko edo komunikabidetako "heroiak") jokabide politikoak imitatzen dituzte baldintza jakinen pean, baina ezin da zehaztu zein jokabide imitatuko duten: jokabideen alderdiren bat, alderdi batzuk ala "beste adierazkorraren" jokabide guztia (Bandura, 1986). Transferentzia-eredutik bereiziz, hemen ez da eskatzen jokabideak espresuki irakatsiak izatea; sozializazio *gordea*k ageriko sozializazioak baino rol garrantzitsuagoa jokatzen baitu.

Eratorpen psikoanalitikoaren ikuspegitik, ereduaren jokabide osoarekiko identifikazio globala ematen da, eta aparatu psikikoaren sorrerari lotuta dago. Ikaskuntzaren ikuspegitik, berriz, identifikazioa hartzen da jokabide zehatzen imitaziotzat, imitazioak har badezake ere behaturiko ereduaren jokabidearen sail handiagoa edo txikiagoa. Identifikazio-imitazio horretan hiru alderdik jokatzen dute funtsezko

papera: ekintzaren ondorioen balorazio soziala, ereduaren jokabidearekiko afektuzko balioen baldintzapena, eta baliabide baliotsuen banatzaile gisa ereduak duen botere-kokapena.

Behaketa-ikaskuntzak, gainera, ikaskuntza-edukiaren alderdi konplexuak (kodeketa, egituraketa, biltzea) ikasteko subjektu behatzailearen gaitasuna suposatzen du. Gaitasunak *erantzun ikasketa*ren *(response acquisition)* eta *erantzun burutzea*ren *(response performance)* artean dagoen luzapena azaltzeko balio du, baita jokabide erabat funtzionalak —hots, jokabideen ondorioek beraiek gidaturikoak— garatzea azaltzeko ere.

Aronfreed-ek (1969) garrantzi handia ematen dio *afektuzko* aldagaiari: jokabide-ereduen irudikapen kognitiboak sentimendu positiboekin elkartzen dira. Lotura horrek, era berean, ikasitako jokabideen motibaziozko alderdia azaltzen du; bi errefortzu-mota daramatza jokabidea gauzatzeak: alde batetik, balorazio soziala eta, bestetik, afektuzko egoeren alderdi saritzailea.

Ikuspegi hori eraginkorragoa da jarrera politikoen jabetzea azaltzeko, baina arazo larriak ditu haien *aldaketa* azaltzeko; bereziki, beste adierazkorrekiko alderantzizko norabidean ari denean aldaketa. Dena den, behaketa-ikaskuntza ereduaren garapen zehatzagoak —psikologia kognitiboaren alderdi garrantzitsuak hartzen dituztenak— ez dira oraindik erabili sozializazio politikoaren ikerkuntzak nahiko lukeen intentsitate guztiaz. Freedman eta Freedman-engan (1981) ikus daiteke alor honetarako ikaskuntza-teorien esfortzu nabaria, emaitza hobeak merezi dituenak.

b. *Interakzionismo sinbolikoa*

Rol-teoria interakzio-ikuspegiarekiko hurbiltzeak, eta, batik bat, interakzionismo sinbolikoaren norabidetik garatzeak, sozializazio politikoaren ikerkuntzarako, planteamendu emankorra prometatzen zuen; baina autore gutxi baliatu da planteamendu honetaz, eta gainera, gutxi horiek ez dute atera rol-teoriak eskain lezakeen etekin guztia.

Ikuspegi hau erabili dutenen artean Dawson eta Prewitt (1969) daude. Autore hauek, *social self*aren analogiaz, sozializazio politikotzat *political self*aren garapena hartzen dute. *Self* politikoa, aldi ebolutiboekin parekatuz, subjektuaren aldetiko hainbat orientabide politikoren jabetzeaz eraikitzen da, hamahiru urteko adinaren inguruan garaturik dagoena. Hau da, *self* politikoa eratzen da jakintza zehatzen, sentimenduen eta jarreren garapena dela medio.

Era berean, autoreek *kristaltze-tesia* onartzen dute. Horren arabera, oinarrizko orientabideak eratuz doazela, ondoren agertuko diren esperientziekiko iragazki gisa arituko dira. Hala ere, familia-sozializazioa etengabe eta kontsistentzia barik gauzatzen delako, oinarrizko kokapen politikoak zalantzan jartzeko eta aldatzeko, nolabaiteko aukera gelditzen zaio beti norberari.

c. *Indibiduazioaren eredua*

Geulen-engandik (1977) harturiko terminologiaz, Weiss-ek (1981) aurrez aurre jartzen ditu "errepresio-" eta "integrazio-ereduak" batetik eta "indibiduazio-eredua" bestetik. Errepresio-ereduen arabera, sozializazioa honako hau da: «instantzia sozial bat barneratzea, subjektibotasun indibidualeko elementuekin kontraesanean dagoena, bai "jatorrizko" indibidualtasunarekin bai bulkada-sail batekin» (ikus Geulen, 1977:494; Weisse, 1981:40). Integrazio-ereduen arabera, aldiz, subjektuaren beharegiturekin sinkronizatua dagoen rol sozialen garapena da sozialkuntza; beraz, sozializazioa eta subjektu baten integrazio osoa gizartean bat datoz, bai gizartean duen tokiaren araberako rola betetzean bai asetzea eskatzen dituen beharren arabera.

Indibiduazio-eredua aurreko eredu bien artean kokatzen da, eta ondokoa azpimarratzen du: «besteekiko interakzio dialektikoak eta estrukturalki burututako *self* erreflexiboaren eraketa», Weiss-ek Geulen-engandik osorik harturiko definizioa.

Honetan, gizabanakoaren *gaitasun politikoa* nola eratzen den aztertzen da, horretarako ekintzarako gaitasunaren azterketa orokorra erabiltzen baita. Ekintzarako gaitasuna bi gaitasunek mugatzen dute: batetik, subjektuak bizitzan eragina izateko duen gaitasunak (*ego*-identitatea —beste edonor ez bezalakoa izatea—) eta, bestetik, jardutean elementu sozialak eta egoerazkoak kontuan izateko gaitasunak (gaitasun soziala —besteak bezalakoa izatea—). Bi identitate horietan oinarriturik (*phantom uniqueness versus phantom normalcy*), lehen sozializazioan jaso eta elkarren arteko aurkakotasun dialektikoan daudenetan, ekintza politikorako gaitasuna garatzen da (gizabanakoaren bigarren sozializazio politikoa).

Weiss-ek ekintza politikorako gaitasunaren lau oinarrizko dimentsioak nabarmentzen ditu:

– Borondatezko partaidetza: norberaren beharrak aurkezteko gaitasuna.
– Erantzukizun-kontzientzia (edo kontzientzia soziala): bestearen lekuan jartzeko gaitasuna.
– Tolerantzia politikoa: komunikazioa izateko gaitasuna, norberaren beharrak asetzea ezin bada ere.
– Kontzientzia morala (komunitarioa): indarrean dauden arau nagusietatik eta jokabide-iguripenetik urruntzeko gaitasuna, printzipio orokorrek horrela eskatzen dutenean.

Ekintza politikorako gaitasunaren lau oinarrizko dimentsioetariko bakoitzean hiru maila bereizten dira: jakintza politikoak, jarrera politikoak eta jarduera politikoarekiko aurrejoera; eta horietariko bakoitzak eragina du gizabanakoen arazo politiko zehatzen egituran, dagozkien lau oinarrizko dimentsioetan.

d. *Garapen kognitiboaren eredua*

Garapen kognitiboaren teoria piagetiarrak, Kohlberg-ek (1973) nerabezaroko eta helduaroko garapen moralari dagokionez jarraitua eta Trapp-ek (1976) lege-jakintzari dagokionez jarraitua, eragin handia du eguneko sozializazio politikoaren inguruko ikerkuntzan. Halere, denbora luzean, hipotesiak sortzeko erabili beharrean, aurkikuntza enpirikoak *a posteriori* azaltzeko erabili izan da.

Alde batetik, sozializazio politikoa maila jakin batzuetan gauza dadin, garapen kognitiboaren maila jakina beharrezkotzat hartzen da. Izan ere, haurrak ezin ditu ulertu parlamentuaren edo gainerako instituzioen funtzioa, edo demokrazia, sistema ekonomikoa, gerra edo bakea eta antzeko kontzeptu abstraktuak, maila horri dagokion abstrakzio-maila ez duen arte. Horrela, *pertsonalizatze*tik *instituzionalizatze*raino eginiko urratsa, berez, haurraren gaitasun kognitiboen aurrerapenaren ondorio gisa ulertzen da; urrats horrek baimentzen baitu bereiztea rol politikoaren eta rol hori burutzen duenaren artean (Easton eta Dennis, 1969).

Beste alde batetik, kontzientzia moralaren eta kontzientzia politikoaren garapenen arteko paralelismoa ezartzen da. Piaget-ek (1932) hiru aldi aurkitu zituen arau sozialak hautematean: a) *egozentrikoa* non haurrak baimentzen eta debekatzen zaizkionak identifikatzen baititu, baina ez da gai arau horien jatorria eta oinarriaren iturria jakiteko; b) *kooperaziozkoa* non indarrean dauden arauak "aldaezinak" diren eta, ondorioz, portaera-aukera bakarra. Hemen ere haurrak ez du arau horien jatorria zalantzan jartzen, ezta aldarazteko posibilitaterik ere; c) *erregela-kodeketa* non haurrak, jolasetan, indarrean dauden arauak konbentzionalki ezarri direla aurkitzen baitu, taldearen onarpenaren ondorioak direla, eta era horretakoak izanik ere, beste era batekoak izan litezkeela ohartzen da.

Hiru aldi horien bitartez, moral heteronomotik moral autonomora igarotzen da haurra. Kohlberg-ek aurrekoei ondoko hiru mailak erantsi zizkien: a) *Aldi aurrekonbentzionala:* bederatzi urtera arteko ezaugarria, norberarengandik kanpokotzat jotzen dira arauak eta erregelak. b) *Aldi konbentzionala:* gizartean dauden arauak gizarteko kide guztiek partekatzen dituztela onartzen da. Aldi honetan, gizabanakoek arauak barneratu eta bete ere egiten dituzte; gainera ez zigorraren beldurrarengatik, haien balio intrintsekoarengatik baizik. c) *Aldi postkonbentzionala:* azken maila da eta batzuek baino ez dute lortzen. Hemen, gizartean indarrean dauden arauen onarpena lortzen da, baina horrekin batera, gizabanakoek beren printzipio moralak garatzen dituzte. Arauen eta norberaren printzipioen arteko gatazka gertatzen bada, gizabanakoak azken horietan oinarrituko dira, lehenengoen kalterako. Aurreko hiru maila bakoitza, era berean, bi alditan banatzen da; horien bitartez, haurra zigorrean oinarrituriko moraletik etika-printzipio orokorretan oinarrituriko kontzientziara igarotzen da.

Hala ere, garapen kognitiboaren, garapen moralaren eta kontzientzia politikoaren arteko erlazioa ez da garbia. Garapen kognitiboa, dudarik gabe, beste bi

garapen-alorretarako *beharrezko baldintza* da, eta onar daiteke, printzipioz, kontzientzia politikoaren garapena kontzientzia moralean oinarritzen dela. Hala ere, ez Piaget-ek ez Kohlberg-ek ez zuten lortu garapen kognitiboaren eta moralaren arteko "korrespondentzia-erregelarik" ezartzea.

Piaget-ek berak garapen kognitiboaren eta garapen moralaren arteko paralelismoa baieztatu bazuen ere, ekidin egin zuen bata bestearen bidez azaltzea. Moraltasunaren garapena ekintza sozialaren funtzioa da: moral heteronomotik moral autonomora igarotzeko, berdinen taldean kooperazio soziala funtsezkoa da. *Introiektaturiko* taldeko egitura da garapen moral autonomoaren gunea.

Kohlberg-en ustez ere, ingurune sozialekiko interakzioa, rol sozialekikoa, judizio moralaren garapenerako funtsezko prozedura da; hala ere, Kohlberg-i kritikatu izan zaio judizio morala pertsona arteko harremanen ebaluaziora mugatzea. Interakzioaz gain, botere- eta mendetasun-harremanak sartuko bagenitu, garapen morala izango litzateke kontzientzia politikoaren garapenaren zatia, azken hori balorazio moralaren pean soilik ez dagoen arren (Asmus, 1983:64).

Garapenaren eredu piagetiarrari kritikatzen zaio nortasunaren beste alderdi batzuk (motibazioa, emozioa, jarrerak, eta abar) albora uztea. Bestalde, garapen kognitiboaren ikuspegitik, ingurunea ez da aritzen sozialdua moldatzen duen agente sozializatzaile gisa, subjektuari edukiak ematen baizik, sozialdua gero eta konplexuagoak diren berregituratzaile aktiboak bereganatuz doalarik.

Garapen kognitiboaren eta kontzientzia politikoaren arteko erlazioa

Garapen kognitiboaren eta kontzientzia politikoaren arteko korrespondentzia aztertzeko burutu diren ikerketa enpirikoak bat datoz ondokoa baieztatzean, alegia, kontzientzia-hartze politikorako jakintza beharrezko baldintza dela baina ez nahikoa.

Gallatin eta Adelson-ek (1979) hainbat naziotako hamar eta hamazortzi urte bitarteko haurrekin ikerketa burutu zuten. Emaitzen arabera, operazio formalak bereganatuak zituzten 13 urteko subjektuek ez zuten garapen kognitibo horren antzeko mailako erregela politikoen ulermena, politika alorrean urrats preoperazionalari dagokion aldian ari baitziren.

Connell (1971) eta Adelson (1971) antzeko ondorioetara iritsi ziren: nerabeek ez zuten politikoari buruzko inolako inplikazio pertsonalik azaltzen, baizik eta helduen eta telebista-iragazkiaren bitarteko esperientzia. Hamabi eta hamasei urte bitartean, nerabeek kontzientzia-hartze politikorako beharrezkoak diren baldintzak jadanik bereganatuak zituzten: autoritatearen sinesgarritasuna desmitifikatuta zuten, etorkizunerako nolabaiteko ikuspegia zuten, askatasun indibidualaren eta eskakizun sozialen arteko erlazioei buruz dauden arau eta egitura sozialak printzipio orokorren arabera zalantzan jartzeko gai ziren, eta ideologia eta kokapen politiko desberdinez

jabetzen ziren, besteak beste; dena den, kontzientzia politikoa euren garapen-posibilitateak baino atzeratuago zegoen.

Ijzendoorn-ek (1980) garapen kognitibo, moral eta politikoaren mailak erlazionatzeko espresuki egindako ikerketa batean, korrelazioa positiboa zela aurkitu zuen: zenbat eta garapen kognitibo handiagoa, orduan eta kontzientzia moral altuagoa eta kontzientzia politiko kritikoagoa; baina korrelazioa oso urria zen. Autore honek eremu fisikoen eta sozialen heterogeneotasuna azpimarratzen zuen: mundu fisikoan, inolako arazorik gabe, haurrek erabiltzen dituzten erregela logikoak, mundu sozialean erabiltzea oso zail egiten zaie.

Dena den, garapen morala garapen kognitiboa baino geldoagoa dela dirudi. Kuhn eta besteek (1977) aurkitu zuten ikerturiko laginaren % 60k operazio formalen aldia eskuratua zuela, baina % 10 baino ez zela iritsi zegokion garapen moralaren aldira, printzipioen moralera, alegia. Gainera, garapen moralaren eta kontzientzia politikoaren arteko *décalage*a baieztatu zuen ikerketa horrek.

Garapen moralaren eta kontzientzia politikoaren arteko erlazioa

Adelson-en esanetan (1971), gaitasun kognitiboaren arabera gertagarriagoa da kontzientzia politikoa, lorturiko kontzientzia moral mailaren arabera baino. Ijzendoorn-ek (1979, 1980) alderantzizkoa adierazten zuten datuak lortu zituen: "kontzientzia politikoaren" bariantzaren % 10 "kontzientzia moralak" adierazten zuen, eta horrek, "etorkizuneko ikuspegia", "sexua" eta "aitaren status profesionala" aldagaiekin batera bariantzaren % 31 azaltzen zuen. Ondorioz, bariantzaren % 69 azaldu gabe gelditzen zen, sozializazio politikoaren egoera adierazten diguna, ikuspegi honetatik, behintzat. Dena den, gaitasun kognitiboak azalduriko bariantza-ehunekoa zegoen, garapen moralak azaldurikoaren azpitik.

Döbert eta Nunnen-Winkler-ek (1975) moraltasunaren eta kontzientzia politikoaren arteko erlazioa aztertu zuten. Autore hauen arabera, maila postkonbentzionaleko subjektuak kritikoenak ziren indarrean zeuden baldintzapen sozialen aurrean, eta balio altruistagoak eta justizia sozialera zuzenduak ziren. Hala ere, autore hauek ondokoa ere aurkitu zuten: subjektu postkonbentzionalen taldearen barnean, erradikalismoaren dimentsioan eta balioen onarpen edo errefusapenari dagokionez, kokapen politikoak nerabezaroan bizi izandako krisialdiaren intentsitatearen arabera aldatzen ziren. Horrek adierazten du, kontzientzia morala, edukiei dagokienez, neutrala dela. Beraz, kontzientzia politikoa norberaren esperientziako beste aldagai batzuen pean egongo litzateke autoreen arabera; funtsean, nerabezaroko krisiaren intentsitatepean. Krisialdia oso indartsua ez den subjektuengan, moral konbentzionaletik postkonbentzionalerako urratsa, gurasoen heziketa-praktiken pean dago; printzipio liberaletan eta pertsuasio arrazoituan oinarrituriko heziketa baldintza garrantzitsua da, nerabea, maila postkonbentzionalera hel dadin.

Haan eta besteek (1968) aurkitu zutenez, subjektu aurrekonbentzionalek eta postkonbentzionalek kokapen politiko erradikalagoak hartzen zituzten konbentzionalek baino; aurrekonbentzionalek, judizioetan egozentrikoagoak izateaz gain, konpromiso egonkorragorako aurrejoera urriagoa zuten eta antolakuntza erradikalagoetan militante ziren; postkonbentzionalek, aldiz, kontzientzia-printzipioen arabera hartzen zituzten erabakiak, judizioetan soziozentrikoagoak ziren eta, militante izanez gero, antolakuntza liberal edo erradikaletan egiten zuten. Dena den, azken horiek, arazo sozialak erabakitzeko biderik egokiena jarduera politiko instituzionalizatua zela pentsatzen zuten, nahiz eta, bizitzaren zenbait alorretan, instituzionalizatzea errefusatzen zuten, esate baterako, ezkontza edo praktika erlijiosoaren forma tradizionaletan, besteak beste. Autoreen arabera, nerabetasunaren krisialdia iragateko moduak du instituzioekiko kokapenean eraginik handiena (kontzientzia moralaren mailak baino handiagoa): postkonbentzionalek krisialdi indartsua jasan badute ere, instituzioekiko oso mesfidatiak dira; konbentzionalek, aldiz, indarrean dauden botere-instituzioak eta autoritateak onartzen dituzte

Bestalde, Döbert eta Nunnen-Winkler-engana itzuliz (1975), pertsonen egitura moralak, gizarte burgesaren instituzio politiko eta ekonomikoetan atxikirik dauden printzipio postkonbentzionalen isla dira: berdintasuna, askatasuna eta indibidualismoa (norberaren erantzukizun edo gizabanakoaren eskubide eta betebeharren zentzuan). Era berean, oraingo gizartea (burgesa) legitimatzeko printzipio gisa baliagarriak diren horiek, alderdi formaletara laburtuak eta komenientzia-irizpideen arabera behin sektorizatuak, menderapena justifikatzeko erabiltzen dira.

Berdintasuneko printzipio formala mugatzen da, politikaren alorrean, ondoen "saltzen" duen alderdiari (bere programa hobekien "iragartzen" duen alderdiari, alegia) botoa emateko eskubidera; ekonomiaren eremuan, berdintasun formala mugatzen da, errendimendu pertsonalaren araberako ordainsarira, eta errendimendurako gaitze-aukeren desberdintasuna ahaztu egiten da, horrela, desberdintasun ekonomiko eta kulturala justifikatuz.

Gizartearen horrelako kontraesanek, halere, indarrean dauden printzipio orokorrei eusten dieten aldetik (praktikan, alderdi formaletara mugaturik gelditu badira ere), belaunaldi berriengan, printzipio moral postkonbentzionalak eratzea sustatzen dute. Horrek bultzatzen du, era berean, herritarrak sistema instituzionalaren kontraesanak uler ditzan eta printzipioen alderdi materialetan eta berezkoen aldarrikapenean politikoki inplika dadin. Horrela, garapen moralaren alderdi psikologiko-indibidualek errealtasun sozialean dute isla paraleloa: esfera biak bat datozenean, herritarraren sozializazio politikoa da emaitza, eta herritarrak, horrela, sozialtzen duen sistemak sarrarazten dituen baina betetzen ez dituen eskubide eta betebeharren kontzientzia hartzen du.

Ikus daitekeenez, garapen kognitiboaren ereduak ikerkuntza enpirikorako erakargarritasuna badu ere, ez du lortu azaltzea zeintzuk diren gizabanakoek jarduera

politikorako aurrejoera eratzeko dituzten mekanismo psikologikoak, ezta gutxiago ere, nola ikasten diren jokabide politikoak. Dena den, badirudi ikuspegi honek azaltzen duela ondoen jokabide(politiko)ak gidatzen dituzten oinarrizko printzipioak.

4.4. ETORKIZUNAREN IKUSPEGIAK

Sozializazio politikoaren ikerkuntzaren balantze ezkorra egiten zuen Merelman-ek (1986) eta ez da baikorragoa Percheron-en (1985) idazlanetik norberak atera dezakeena. Jadanik badakigu, indarrean dauden ereduek zein arazori egin behar izaten dioten aurre; gainera, azken mende laurdenean, aldaketa izugarriak izan dira gizarte industrializatuetan, eta orain arte ereduren bat baliagarria izan balitz, egun bere baliagarritasunari uko egingo lioke, zeren gizarte bakoitzean, gizartearen lau kontzepzio orokorretariko bakoitza eta guztiak baitaude, eta kanal nahiz bitarte desberdinetatik transmititzen baitira.

Alderdi politikoak "hauteskunde-makineria" bihurtu dira, gero eta gehiago, eta badirudi euren koadroen gaineko kontrol-funtzioek lehentasuna dutela jarduera politikoaren alderdi ideologikoaren aurretik; ondorioz, leialtasun iraunkorrak sortzeko eta eusteko zailtasun larriak dituzte.

Sindikatuek eta erlijioek izaera militantea galdu egin dute Mendebaldeko gizarteetan. Holako gizarteetan, bizitzaren alor guztietako maila-berdintze ekonomikoak eta sekularizazio ideologikoak tradiziozko klase ertainetakoen oso antzekoak diren kokapen eta balioetara hurbiltzen dute gizartearen populazioaren zati handia, antolakuntza militanteen berezko mamirik gabea baina.

Bestalde, egungo gizartean, hein zabal batean, desagertuz joan da hezkuntzako norabide bakarreko transmisioaren lerro hierarkikoa, familia-statusean edo adinean oinarritzen zena; adintsuagoa izatea edo aita izate bera ere ez da nahikoa botere-erlazio hierarkikoan oinarritzeko. Horrela, sozializazioan parte hartzen duten aktoreen arteko harremanak gero eta borondatezkoagoak, berdinagoak eta iragankorragoak dira. Eragina, gero eta gehiago, afektuzko harremanetan oinarritzen da, adinaren edo senidetasunaren ordez, horrek daraman hauskortasun eta iragankortasunarekin batera.

Irakaskuntza instituzionalizatuak uko egin dio botere politikoez kontrolaturiko doktrinamendu politiko dogmatikoa izateari, eta gero eta gehiagotan aldarrikatzen da aukera anitzerako eskubidea, norberak egokiena iruditzen zaiona aukera dezan.

Mugikortasun sozial eta geografikoak, batetik, eta besteen bizimoduen barreiaketa globalizatuak, bestetik, eredu- eta aukera-andana handiekin topo egitera bultzatzen dituzte gizabanakoak. Oso barreiaketa handia aurkitu du honako men-

talitate edo etika sozial honek: gizabanako bakoitzak erabaki eta konpromisoak hartu behar ditu, eta norberak egokitzat jotzen dituen balioak arduraz aukeratu behar ditu, horrela, besteek ezarririko jarrera eta balioak onartzeko presioa errefusatzen baita.

Horregatik guztiarengatik, sozializazio-eredu tradizionalak, guztiak izaera bertikalekoak izanik, ezegokiak dira, besteak beste, jadanik ez delako ikertzen "hitzarmen sozialeko" eredua nola transmititzen den, hau da, kontzepzio politikoko eredua. Aitzitik, egun herritarrak eskura dituen erabaki anitzen aurrean, hautespen desberdinen artean aukeratzeko zein irizpide edo erregela ibiltzen diren, nola sortzen diren eta nola transmititzen diren ere ikertzen da.

Merelman-ek (1986) gizartearen *egitura kognitibo sakon*eko kontzeptu estrukturalista aipatzen du, autoreak, "hautespen-eredu indibidual" horien iturritzat hartzeaz gain, "gizartearen mentalitate" gisa ere definitzen duena.

Transmisio-hierarkia deuseztaturik, eta belaunaldi berriek topo egiten dituzten aukera anitzetan —horien artean, bakoitzak bere erantzukizunpean eta bere erabakiz aukeratu behar ditu— eraldaketa sozialak direla eta, Merelman-ek *albosozializazioa* izeneko eredu berria proposatzen du. Eredu horren arabera, gizabanakoari eragina ez datorkio goitik (guraso, irakasle, eta abarrengandik), berdinen taldeetatik edo horizontalki bere maila berean dauden beste herritarrengandik baizik. Erabaki pertsonala, gainera, egun ez dagokio sistemarekiko leialtasunari edo alderdi jakin batekiko identifikazioari, baizik eta gizartea nolakoa den eta nolakoa izan beharko litzatekeen galderen inguruan norberak eratzen duen irudiari.

Dena den, gizarteak bere osotasunean, eta batik bat ikuspuntu politikotik, jarraitzen du izaten botere-egitura bertikala eta hierarkizatua. Hortaz, kontraesana gertatzen da sozializazioaren *edukia*ren eta *prozesua*ren artean; hau da, transmititzen denaren eta transmititzeko moduaren artean, eta horrek azalduko luke zergatik hainbatetan ematen den lehenengo frustrazioa, gero etsipena eta azkenik gazteriaren *pasotismoa,* politikari dagokionez.

Hala ere, sozializazio-ereduei buruzko ikerkuntza beharrezkotzat hartzen da, gaur egun inoiz baino gehiago, zeren egun inoiz baino gehiago behar baitira politikoki *emantzipatutako* herritarrak. Behin, norberaren ekintzaren ondorioetatik kanpoko (izaera erlijioso, politiko edo sozialak, oro har, izanik ere) beldurrean oinarrituriko kontrol *heteronomoa* desagertuz gero, kontrol fisikoei beldurra geldituko litzateke. Baina, gaurko teknologiak gizabanako bakoitzaren esku uzten du kontrol guztietatik alde egiteko gaitasuna eta ia mugagabea den suntsikortasun-boterea ere eskaintzen du.

Historia osoan jokabide antisozialak egiteko gai diren gizabanakoak izan dira, baina Erdi Aroan infernuaren beldur ez zenak, edo aro modernoetan epaile edo poliziaren beldur ez zenak, ez zituen gaur egun dituen baliabide suntsikorrak, eta

"desbideraketek" beti botere mugatua zuten. Gaur egun, aldiz, pertsona bakar baten ekintza gizarte guztirako atzeraezineko ondorioa izatera hel daiteke. Goitik beherako "desbideraketari" dagokionez ere, Estatuari dagokionez, hain zuzen ere, antzekoa gertatzen da. Estatuak demokratizatu badira ere, historiaren une jakinetan gero eta gehiago agertzen ari dira 1984ko aurpegi orwelianoak.

Garai batean, kontrol-botere gisa, aurrerapen ekonomikoan jarri izan zen konfiantza, eta horrek belaunaldi berrientzat eta gizabanako jakinarentzat suposatzen zuen pizgarrian ere bai. Kontrol-modu hori eraginik gabekoa suertatu da, ekonomiaren behin-behineko krisialdiengatik nahiz sistemak sortu eta asetzen ez dituen iguripenengatik. Bai oparotasun kolektiboaren utopia, bai "ongizate-gizartearen" utopia, behin-behineko irudikeria besterik ez dira.

Hitzarmen soziala posible egiteko, gizartean bizikedetzarako, alegia, bide bakar gisa herritarraren *sozializazio politikoa* gelditzen da. Herritar horrek bere eskubide eta betekizunez kontzientea izateaz gain —haiek eskatzen jakin eta hauek betetzeko—, kultura politikoa garatua izan behar du, gizartea atzera eginarazi nahi duten gizabanakoen esku ez uzteko, zeren azken horien arabera «biziraun ezin duen natura-izaerara» (Rousseau, *Gizarte Hitzarmena*, I, 6) eraman nahi baitute. Komunitateko arazoekiko partaidetza aktiboa ez da soilik eskubidea, eskakizuna baizik; horrela, norberaren eskubideen aldarrikapena eta defentsa aktiboa behar bilakatzen da, gizabanako zein gizartearen beraren babeserako. Gizarte parte-hartzailean, sozializazio politikoa ez dagokio kontzepzio eta ideologien transmisioari, baizik eta bizikidetza duinerako laguntza ematen duten erabaki-irizpide pertsonalei.

5. Partaidetza politikoa

5.1. SARRERA

Polis barneko jarduera *demo-krazia*pean baldin badago eta ez *aristo-krazia*pean, orduan, *polis*eko antolakuntzan, *zoos-politikon*aren partaidetza funtsezkoa izango da haren garapenerako. Beste era batera esanik, herritarrak baldin badira demokraziaren oinarria, haien partaidetza funtsezkoa izango da *polis*aren antolakuntzarako; hain zuzen ere eliteen menpean egotea nahi ez badugu.

Partaidetza politiko kontzeptua lotuta dago, beraz, demokrazia kontzeptuari. Erregimen demokratikoaren mamia eta legitimazioa da, gertakizun politikoen harian, eragina izateko herritarrek duten ahalmena. Horregatik, era formal batean, demokraziak izan behar ditu partaidetzarako bide egokiak, herritarrak euren patuaren jatorrizko erantzuleak izan daitezen.

Dudarik gabe, partaidetza politikoaren modurik ohikoena botoa ematea izan da. Milbrath-ek (1981) dioenez, alor honetako lehen ikerlanek arazo honi ekin zioten orain dela hogeita hamar urte baino gehiago. Hala ere, botoa ematea garrantzitsua bada ere, gizabanakoak politika-munduan eragiteko eskuragarri dituen baliabideetariko bat besterik ez da. Ildo horretatik, Kaase eta Marsh-ek (1979) nabarmendu zuten, legezko bideak eta bide instituzionalak gainditzen dituzten beste partaidetza-modu (ekintza, esango lukete eurek) berrien agerpena.

Errealitate sozialak behartzen gaitu, bada, partaidetza politikoaren hasierako kontzeptu hura zabaltzera, eta horren barnean, botoaz gain, beste jarduera-modu batzuk ere onartzera.

Hurrengo orrialdeetan, partaidetza politikoaren arazoari hurbilduko gatzaizkio, eta horretarako, dimentsio eta ezaugarriak azpimarratzeaz gain, politika-munduan parte hartzeko subjektuaren mugapenean faktore erantzule nagusiak ere identifikatuko ditugu.

Arestian esan dugunez, demokraziarekiko mamia baldin bada partaidetza politikoa eta demokraziak, hitz handietan izateko, herritar guztien lankidetza behar duela onartzen badugu, orduan, portaera-mota honekiko adierazgarriak diren aldagaiak definitzearen garrantzia agerikoa izango da. Era horretan bakarrik diseinatu ahal izango dira partaidetza errealeko estrategiak, eta horrela gainditu ahal izango da printzipio-adierazpenetan soilik oinarritzen den eskubide formal gisako partaidetza.

5.2. PARTAIDETZA POLITIKOAREN KONTZEPTUA

Lehen esanikoarekin bat, partaidetza politikoaren kontzeptua pixkanaka zabalduz joan da, sistemak diseinaturiko iritzi publikoaren kontsulta-bideetatik (hauteskundeak edo erreferendumak) kanpo dauden jardueretaraino. Izan ere, zentzu zabalean, partaidetza politikoa honela defini daiteke: gizabanakoak edo taldeak buruturiko edozein ekintza-modu, era batean edo bestean, arlo publikoan eragina izateko helburua duena. Partaidetza politikoak, beraz, ondoko lau ezaugarriak ditu: 1) *gizabanakoek* egiten dute; 2) prozesua *borondatezkoa* da; 3) *jarduera* da; eta 4) jarduera *nahitakoa* (hau da, xedez beterikoa) da (Memmi, 1989).

Horrela definituriko partaidetza politikoak barne har ditzake sistemak eskaturiko jokabide konbentzionaletatik (botoa, esaterako) ez-legezkotzat edo biolentziatzat jo daitezkeen jokabideetaraino (Sears, 1987).

5.2.1. Partaidetza politikoaren motak

Partaidetza politikoaren inguruan eginiko neurtze- eta sailkatze-saioek adierazten dute kontzeptu honek jasan duen bilakaera historikoa; hain zuzen ere, lehenengo saioa hauteskunde eta botoaren ingurukoa izan zen.

Horrela, Campbell eta kolaboratzaileen ikerlanean (1954), bost itemez osaturiko partaidetza politikoaren eskala aurkezten zen, non hauteskundeekin erlazionaturiko ondoko bost egoerak islatzen baitziren: 1) botoa eman, 2) mitinetara joan, 3) alderdi edo hautagairen baten kanpainari ekonomikoki lagundu, 4) alderdiren batekin lan egin, eta 5) hautagai jakin bati botoa emateko pertsonak konbentzitu.

Stone-k (1974), bere aldetik, *konpromiso politikoa* neurtzeko eskala bat erabiltzen zuen, bost partaidetza-maila bereizten zituena. Boto jardueratik kargu publikoren bat betetzeraino hartzen zuen eta bi jarduera horien artean, zeharkako partaidetza, hauteskunde-kanpainetan parte hartzea eta kargu politikorako hautagai izatea zeuden. Maila bakoitzean, hainbat konpromiso eta jarduera-modu adieraz zitezkeen.

Aipatutako ikerketa horietan, baita Campbell, Converse eta kolaboratzaileenean (1960) eta Berelson eta kolaboratzaileenean (1954) ere, boto-portaerari estuki loturiko partaidetza politikoan oinarritu ziren.

Gizabanakoen jarduera politikoaren zerrenda, dudarik gabe, ez da mugatzen jarduera konbentzional hauetara. Populazioaren jokabide politikoari behatuz, erraza da konturatzea beste estrategia batzuk ere eragina izaten saiatzen direla botere politikoaren erabaki-hartzeetan: grebak, manifestaldiak, boikotak, eta abar. Horregatik, jarduera politikoaren moldeen artean, bereizteko beharra ikusi dute autoreek.

Bereizte ohikoena da partaidetza politiko konbentzionalaren eta ez-konbentzionalaren artekoa. Barnes eta Kaase-ren lanean (1979), esate baterako, bi partaidetza-mota horiek aipatzen ziren. Partaidetza politiko konbentzionala ebaluatzeko item gehienak hauteskunde-prozesuarekin zerikusirik duten egoeretara zuzentzen ziren, gai honi buruzko lehen ikerketetan gertatzen zen bezala. Item horiek ondokoak ziren: 1) egunkarietan, politikari buruz irakurri; 2) politikaz eztabaidatu; 3) kideak konbentzitu botoa emateko; 4) komunitateko arazoei aurre egiteko lana egin; 5) politikari edo funtzionarioekin ukipenak izan; 6) hautagai baten alde lan egin. Partaidetza ez-konbentzionalari dagokionez, ondoko ekintza hauek hartzen ziren barne: 1) administraziorako eskariak izenpetu; 2) legezko manifestazioak; 3) boikotak; 4) legezko grebak; 5) legez kontrako grebak; 6) egoitzak okupatu; 7) trafikoaren blokeoa; 8) jabegoari kalte egin; 9) biolentzia pertsonala erabili.

Milbrath-ek (1981) ere partaidetza politiko konbentzionalak eta ez-konbentzionalak erabili zituen. Bere egoera-zerrendak islatzen zituen Barnes eta Kaaseren egoeren oso antzekoak diren partaidetza-mota biak, nahiz eta partaidetza politiko konbentzionala zehaztuagoa izan eta partaidetza politiko ez-konbentzionala orokorragoa.

Partaidetza politikoaren era biak sistemaren eskariaren arabera bereiz daitezke. Partaidetza politiko konbentzionala indarrean dagoen botereak adoretu eta sustatzen du, ondorioz, hobeto kontrolatu eta bideratu ahal izateko; partaidetza politiko ez-konbentzionalak, ordea, indarrean dauden partaidetzarako mekanismoak gainditzen ditu, zenbaitetan, indarrean dagoen legalitateari aurre egiten baitio.

Orain arte, literaturan identifikaturiko bi partaidetza-era nagusiak aipatu ditugu: partaidetza konbentzionala eta ez-konbentzionala. Hala ere, irakurle arretatsua ohartuko zen, bi kategoria horien azpian dauden jardueren zerrenda nahikoa heterogeneoa izan daitekeela. Partaidetza politiko konbentzionalaren barnean, botoa emate soiletik mitinetara joaterainoko egintzak sartzen ziren; eta partaidetza politiko ez-konbentzionalaren barnean kokatzen ziren, adibide batzuk bakarrik aipatzearren, horren desberdinak diren legezko manifestaldiak eta biolentzia pertsonalaren edo borroka armatuaren erabilerak, besteak beste.

Horregatik, bi dimentsio horien azterketan zertxobait sakontzea egoki iruditzen zaigu, dimentsio bakoitzaren barnean egon daitekeen balizko unitatea frogatzeko eta elkarren artean dagoen erlazio-maila aztertzeko ere.

Partaidetza politiko konbentzionalari dagokionez, Marsh eta Kaase-k (1979), haren jarduera-zerrenda, Guttman eskala bihur zitekeela baieztatzen zuten, nahiz eta zenbait herrialdetan baieztapen batzuen ordena aldatu egiten zen. Hala ere, *dimentsio-bakartasun* horrekiko salbuespen bat bazegoen: botoa. Jokabide politiko hori ez zetorren bat Guttman eskalamenduaren betebeharrekin, aurreko jardueretatik oso bereizten baitzen. Alor honen inguruan buruturiko beste ikerlan batzuetan

ere (Verba eta Nie, 1974; Milbrath, 1961, 1971a; Ühlinger, 1983; Schmidtchen eta Ühlinger, 1983), boto-portaera agertu da beste jardueretatik bereizia.

Boto-portaera jarduera politiko *sui generis* gisa aurkezten duen tesiarekin bat datoz Milbrath-en (1968) ikerlanaren hainbat adibide. Azterketa horretan, boto-jokabidea loturik agertzen zen *"nire herria maite dut", "nahiz ados ez egon, gerretan neure herria babesten dut"* eta horrelako esanahi abertzale garbiko baieztapenei. Beraz, Verba eta Nie-k (1972) adierazten zutenez, partaidetza politikoa ezin da hartu dimentsiobakarreko eredutzat, *lau faktore*z osaturiko eredutzat baino: kanpaina politikoan jarduerak, jarduera komunitarioa eta administrazioarekiko ukipenak, boto jardueraz gain. Milbrath-ek (1981) ere iradokitzen zuen, bere ikerlanetan (Milbrath, 1968, 1971) eta Verba eta Nie-renean (1972) oinarriturik, jarduera politiko konbentzionaleko hainbat modu daudela. Jarduera-modu horiek Verba eta Nie-k bildurikoak dira, autoreak *komunikatzaile* izendatzen duenaz gain.

Arlo honetan, orain arte adierazirikotik, ondoko bi gogoeta iradoki daitezke. Lehenik, argi frogatuta dagoen egitate bat, azterketa desberdinetan iraunkor agertzen dena: botoa da beste jardueretatik oso bereizia den jokabide politikoa. Bigarrenik, honetan dagoen adostasun orokor hori ezin da luzatu arazo honetako beste alorretara. Beraz, Verba eta Nie-ren (1972) zein Milbrath-en ustez (1981), partaidetza politiko konbentzionala, faktore askeek osatzen dute; Marsh eta Kaase-ren ustez (1979), jarduera-era horretan dimentsio-bakartasuna dago, ordea.

Halere, bi kokapen horiek ez dira hasieran pentsa zitekeen bezain aurkakoak. Emaitza desberdin horiek beren hartan ulertu ahal izateko, hainbat elementu izan behar dugu kontuan. Lehenengo, ez da ahaztu behar ikerketa horiek egin zireneko uneak eta azterturiko herrialdeak desberdinak zirela. Ez dugu horren inozoak izan behar, portaera-patroi horiek izaera unibertsalekoak direla pentsatzeko, ezta edozein une eta tokitan era berean gertatzen direla sinesteko ere. Aitzitik, susmatu egin behar dugu jarduera-mota hori estuki lotuta dagoela une historiko, sozial eta kulturalei. Horregatik, parametro horietarikoren batean desberdintasunak esanguratsuak baldin badira, gertatzen diren jarduera-eretan eta horien egituraketan ere izango dira. Honela, Barnes eta Kaase-ren ikerlanean frogatzen denez, partaidetza politikoaren eskalako dimentsio-bakartasuna ahulagoa zen AEBn, herrialde europarretan baino. Horregatik, eta kontuan izaten badugu Verba eta Nie-ren ikerlana herrialde amerikarrari zegokiola, txosten biren emaitzen desberdintasunak ez dira horren kontraesanezkoak.

Bestalde, ikerketa bietan bilduriko jarduera-erak zertxobait desberdinak zirela ere izan behar dugu gogoan, baita horrek suposatzen dituen gaiaren fokatze- edo kontzepzio-desberdintasunak ere. Horri dagokionez, Marsh eta Kaase-k (1979) honako hau baieztatzen zuten: «Verba eta Nie faktore anizkoitzeko eredu batetik abiatzen ziren, eta hori euren ikerketan sartzen zuten jarduera-multzo zabalagoan islatzen zen» (87. or.).

Beraz, azterketaren eremu desberdina eta partaidetzari buruzko kontzepzio desberdina nahikoa arrazoiak ziren azterketa horiek emaitza desberdinetara irits zitezen.

Partaidetza politiko ez-konbentzionalari dagokionez, etiketa honen azpian agertzen den jarduera-heterogeneotasuna da deigarriena. Horren froga egokia da Muller-en (1979, 1982) ikerlana, jokabide politiko ez-konbentzional batzuk konbentzionalen barnean hartzen baitzituen, partaidetza demokratiko eta legezkoaren kategoriaren barnean, hain zuzen ere; literaturan portaera ez-konbentzional gisa sailkaturiko beste jokabide batzuk, aldiz, legez kanpoko eta partaidetza agresiboaren kategoriari atxikitzen zitzaizkion. Argi gelditzen da, bada, jarduera ez-konbentzionalen bestelakotasunezko izaera. Horietariko multzo bat legalitatea-ren barnean ari da, besteek, aldiz, hari aurre egiten diote zuzen-zuzenean. Barnes eta Kaase-k (1979) aztertutako ekintza ez-konbentzionalen zerrendara itzultzen bagara, konturatuko gara, bertan, bai legezko jokabideak bai legez kanpokoak daudela.

Schmidtchen eta Ühlinger-ek (1983), estrategia metodologiko gisa, dimentsio anitzeko eskalamendua eta kluster analisia erabili zituzten partaidetza politikoaren dimentsioak edireteko. Lorturiko emaitzen arabera, elkarren artean nabarmen desberdintzen ziren bi jokabide-multzo zeuden: legezkoak eta ez-legezkoak. Baina, agian aurrekoa baino garrantzitsuagoa, jarduera ez-konbentzional jakin batzuk legezko portaera politikoen taldean kokatzen ziren. Beste taldekatzean, legez aurkakoan hain zuzen, jarduera biolentoak eta ez-biolentoak argi eta garbi bereizten ziren.

5.2.2. Partaidetza politikoaren modu desberdinen arteko erlazioa

Milbrath-en (1981) ikerlanean, eta bereziki Barnes eta Kaase-renean (1979), partaidetza politiko ez-konbentzionalen areagotze esanguratsua iradokitzen zuten datuak aurkezten ziren. Lederer-en (1986) arabera, areagotze horrek «masen politizazioa eta ekintza politikoaren estilo berrien agerraldia» (355. or.) islatzen zuen. Beraz, sistematik alboraturiko taldeek bermatzen duten adierazpen sozial bat —baina ez bakarra— dugu aurrean. Izan ere, ekintza-mota hauek egiteko prest dagoen subjektuen ehunekoa altua izateak iradokitzen digu ekintza politikoaren beste moduekin oso bateragarri izan daitekeen jarduera-mota baten aurrean ari garela.

Kaase eta Marsh-ek (1979), kulturen arteko azterketan, partaidetza politiko konbentzionalaren eta protesta-potentzialaren arteko erlazio-maila aztertu zuten. Emaitzen arabera, portaera-mota bi horien arteko korrelazio-gradua 0,17tik —lagin iparramerikarrean— 0,28raino —lagin germaniarrean— zabaltzen zen. Ondorengo ikerlanean, lehen ikerketa eratu zuten bost herrialdeetatik hirurekin eginikoan (Alemania, Holanda eta AEB), Kaase-k (1983) lehen ikerketan islaturiko partaidetza-modu bien artean antzeko korrelazio-maila aurkitu zuen berriro.

Jardunbide politiko bien arteko erlazio positiboa beste ikerlan batzuetan ere baieztatu da. Jadanik, Muller-ek (1977) korrelazio positiboa zegoela aurkitu zuen, portaera konbentzionalaren eta portaera agresiboaren artean. Beste azterketa batzuetan, Muller-enean (1982) eta Schmidtchen eta Ühlinger-enean (1983) esaterako, erlazio-mota horri eutsi egiten zaio. Ikerketa horiek guztiek, beraz, portaera-mota bien arteko lotura positiboa adierazten dute. Horregatik, protesta politikoa ezin da hartu sistemaren mamiaren aurka zabal egiten duen jarduera politikotzat, baizik eta erabaki politikoetan presentzia izateko asmoz subjektuek erabiltzen duten estrategiatzat. Eta estrategia hori ez da beste prozedura konbentzionalagoen erabilerarekin bateragaitza.


Aipatu ditugun ikerketetan, partaidetza politiko konbentzionalaren eta ez-konbentzionalaren artean dagoen erlazio positiboa ez da zalantzan jartzen, baina, zailtasunak ageri dira, ez-konbentzionala subjektuen errepertorio politikoaren urrats bat gehiago balitz bezala hartzerakoan.

Partaidetza politikoa, Barnes eta Kaase-k *continuum*tzat jotzen zuten, non, subjektuak, modu konbentzionaletatik hasirik, ortodoxia gutxiagoko moduetaraino aurreratzen baitziren. Autoreen arabera, garai berri horien ezaugarria zen, gizabanakoek, euren ekintza politikoaren errepertorio orokorrean jarduera ez-konbentzionalak sartzea. Planteamendu hori oinarritzen zen bai partaidetza politiko konbentzionalaren eta ez-konbentzionalaren artean frogaturiko korrelazio positiboan, bai eta autoreek erabiliriko eskalen balizko dimentsio-bakartasunean ere. Dena den, azkenaldi honetan, berrikuspen-prozesua ari da egiten, tesi horrekin bat ez datozen emaitza berriak direla eta.


Muller-ek (1982) aurkitu zuen partaidetza demokratikoarekiko partaidetza agresiboak zuen efektu zuzena nahikoa zabala (r = 0,32) zela, baina eragin hori askoz urriagoa zela alderantzizko erlazioa kontuan hartzen zenean (r = 0,09). Horrela, bazegoen jokabide ez-konbentzionalak eta jokabide konbentzionalak bateratzen zituen subjektu-kopuru bat eta beste kopuru batek jokabide ortodoxoak soilik burutzen zituen. Schmidtchen eta Ühlinger-ek (1983) ere ekintza politikoaren eite desberdinen arteko teilakatzea gertatzen zela adierazten zuten; hala ere, azpimarratzen zuten jokabide konbentzionaletan parte hartzen ez zuen eta ekintza politiko zuzenagoak burutzeko prest zegoen subjektu-kopuru garrantzitsua ere bazegoela. Azkenik, Kaase-k (1983) bilduriko datu berriek, 1979ko datuek eta alor honetan eginiko baieztapenek, zalantzan jartzera bultzatzen gaituzte.

Eremu honetan, hainbat ikerketa zuzendu da dimentsioen arteko erlazioa lantzera. Horrela, Valencia-k (1988), partaidetza konbentzionaleko eta ez-konbentzionaleko itemak erabiliz eta horiei *"ezer ez egin"* itemak gehituz, faktore-analisiaren bitartez, 5 dimentsio agertzen zirela frogatu zuen: lehenengoan, protesta erradikaleko jarduerak (poliziarekiko enfrentamenduak, trafikoaren blokeoa, boikota, egoitzak okupatu); bigarrenean, partaidetza instituzionala (Estatuko parlamentuko ordezkaria,

hurbilagoko ordezkaria, hauteskunde-zerrendako kide); hirugarrenean, hauteskunde-jarduerak (botoa, botoa eta mitinetara joan, kanpaina egin); laugarrenean, jarduera ez-konbentzionala (manifestaldiak eta idazkiak izenpetu) eta, bosgarrenean, parte ez hartzea ("*ezer ez egin*" item biak). Beste ikerketa batean, Gonzalez-ek (1998) antzeko itemak erabiliz (borroka armatuan parte hartzea gehituz) bost dimentsio berdinak aurkitu zituen.



Bestalde, era sakonagoan, Sabucedo eta Arce-k (1991), portaera konbentzionaleko eta ez-konbentzionaleko eskala batean, batetik, jardueren artean hautemandako hurbiltasuna ebalua zezaten eskatu zieten subjektuei; eta bestetik, bakoitza ondoko dimentsioetan ebalua zezaten: eraginkorra/eraginik gabekoa; demokratikoa/ez-demokratikoa; justifikatua/ez-justifikatua; desiragarria/ez-desiragarria; progresista/kontserbatzailea; baketsua/biolentoa; konbentzionala/ez-konbentzionala; legezkoa/ez-legezkoa; neketsua/ez-neketsua; konprometitua/ez-konprometitua; sistemaren alde/sistemaren aurka. Erabiliriko jardueren zerrenda honako hau izan zen: 1) botoa; 2) mitinetara joan; 3) besteak konbentzitu; 4) gutunak bidali prentsara; 5) manifestaldi baimendua; 6) ez-baimendua; 7) boikota; 8) greba baimenduak; 9) greba ez-baimenduak; 10) biolentzia armatua; 11) jabego pribatuari kaltea; 12) egoitzak okupatu; 13) trafiko-mozketak. Dimentsio anitzeko eskalaren bitartez, jarduerak bi dimentsio nagusik antolatzen zituztela aurkitu zuten: biolentoa-legez aurkakoa-ez-demokratikoa vs baketsua-legezkoa-demokratikoa eta progresista vs kontserbatzailea.



Azken finean, esan daiteke, beraz, ikerketa hauek frogatzen dutela partaidetza politiko konbentzionaleko eta ez-konbentzionaleko eiteen artean erlazio positiboa dagoela baina, era berean, zalantzan jartzen dute partaidetza-eite horiek subjektuen jarduera politikoaren errepertorioaren luzapen hutsa direla.

5.3. PARTAIDETZARI BURUZKO IKUSPEGI TEORIKOAK

Aurreko ataletan nabarmendu dugunez, *partaidetza politikoa*ren kontzeptuaren baitan oso jokabide-sail zabala dago, boto-ematetik protesta erradikala adierazten duten ekintzetaraino zabaltzen dena. Jarduera horien izaera askotarikoa eta prozesu politikoarekiko duten garrantzia direla eta, jarduera-mota horiek sakoneko lan monografikoa beharko lukete. Hala ere, kapitulu honen mugak eta xedeak ez dute aukerarik ematen partaidetza politikoaren modalitate garrantzitsu horien azterketa puntual eta osatua gauzatzeko.

Dena den, argi dago partaidetza politikoaren aldagai erantzuleen multzoa identifika daitekeela, har ditzakeen adierazpen zehatzez aparte. Era berean, aurreko printzipio-adierazpena ez da oztopo, behar den tokian, partaidetza politikoaren modu garrantzitsuetarako zenbait aldagairen ekarpen erlatiboa azpimarratzeko.

Jokabide horren erantzuletzat jo ohi diren faktoreak askotarikoak dira eta analisi-maila desberdinei egokitzen zaizkie: ingurune soziokulturalari egokitzen zaizkion faktoreetatik subjektu indibidualaren ezaugarri berezienetarikoren bati egokitzen zaizkion faktoreetaraino, alegia. Alor honen inguruko ikerkuntzaren zati

handi bat ondoko hiru kategoria nagusietan taldeka daiteke: ingurumen soziopolitikoa, azterketa demografikoa eta azterketa psikosoziala. Gure azalpena, beraz, aurreko hiru dimentsio horietara mugatuko da.

Lehenengoz, partaidetza politikoan rolik garrantzitsuena jokatzen duten izaera soziodemografikozko aldagaiak identifikatuko ditugu. Ondoren, alor psikosozialari dagokion aldagai-multzo bat aztertuko dugu, portaera politikoarekiko duen eragina beti azpimarratua izan baita, eztabaida ugari sortu badu ere. Azkenik, koordenatu zabalagoetan kokatzen saiatuko gara partaidetza politikoa, subjektua murgildurik dagoen ingurune soziopolitikoan, hain zuzen. Planteamendu honetatik, ikuspegi osoa eta ez-partziala eman nahi dugu, hurbiltze desberdinak eta analisimaila desberdinak elkarri lotuz. Hemen lantzen dugun gaiari ezin zaio heldu ikuspegi teoriko bakar batetik, txosten partziala eta alderdikoia egin nahi ez badugu behintzat. Azken hori gure helburua ez denez inolaz ere, aurreko ikuspegia aukeratzen dugu, horrela, azalduko ditugun hurbiltze-multzo hauen bitartez partaidetza politikoaren arazoa ulertzeko gakoak aurkituko ditugulakoan.

5.3.1. Azterketa soziodemografikoa

Partaidetza politikoarekiko aldagai soziodemografikoen azterketa, funtsean, alor horretako ikerlan guztietan konstante bat izan da. Dimentsio horretan eginiko nabarmentzea zenbait arrazoiri dagokio. Lehenenik, aldagai horien izaera dela eta, ez dute neurtzeko arazorik eta biltzeko errazak dira. Bigarrenik, populazio-zati handiak aztertzea baimentzen dute zailtasun handirik gabe. Hirugarrenik, aztertzen den jokabidearen inguruan, oso informazio baliotsua eskaintzen digute aukeratutako aldagaiaren segmentuek duten eragin diferentzialari buruz. Horrek guztiak bermatzen du hurbiltze honen egokitasuna eta baliagarritasuna.

Hala ere, azterketa-maila hau ez da nahikoa horrelako arazoen azterketari era egokian ekiteko. Izan ere, aldagai soziodemografiko guztietatik batek ere ez du portaera jakin bat azaltzeko nahiko indarrik; ez adinak, ez sexuak, ez status sozialak ere, ez dute azaltzen zergatik diharduten subjektuek diharduten moduan. Aitzitik, eta hau bai garrantzitsua, aldagai horiek hainbat kategoria soziodemografikotako subjektuek adieraziriko jarrera- eta portaera-patroi desberdinak azaltzen dizkigute. Baina hortik aurrera, sakondu beharra dago, faktore soziodemografikoekin batera zein ezaugarri dauden elkarturik, ondorio horiek sortzeko. Horregatik, aldagai demografikoak ez lirateke portaeraren jatorrizko kausa; aitzitik, jarreretan eta usteetan kategoria soziodemografiko batekiko kidetzak dituen ondorioak dira portaeraren jatorrizko kausa. Beste era batera esanik, aldagai soziodemografikoen eragina zeharkakoa litzateke, subjektuengan sustatzen dituzten errepresentazio sozialen bitartez.

Partaidetza politikoari dagokionez, gehien aztertutako aldagai soziodemografikoetariko batzuk ondoko hauek dira: status sozioekonomikoa, adina, sexua eta hezkuntza.

Status sozioekonomikoa

Partaidetzari buruzko literaturan usu agertzen den aldagaia da. Autoreek status sozioekonomikoa ebaluatzerakoan, besteak beste, ondoko irizpideei jarraitzen diete: diru-sarrerei, lanbide-prestigioari eta klase bateko kide izateari, baliokide erabiltzen baitira. Nahiz eta neurri horien guztien artean ñabardurak aurki daitezkeen, elkarren artean erlazio estua dago. Hain zuzen ere, status sozioekonomikoa kontuan hartu duten ikerketarik gehienak antzeko emaitzetara heltzen dira, neurketa-irizpide ezberdintxoak erabili arren.

Ikerketa horien guztien ondorio garbienetariko eta egonkorrenetariko bat status sozioekonomikoaren eta partaidetza politikoaren artean dagoen erlazio positiboan datza. Zenbat eta altuagoa izan gizabanakoen status sozioekonomikoa, orduan eta probabilitate gehiago dago paper aktiboa har dezaten politika-munduan. Baieztapen hori, halere, ñabartu beharra dago, aurreko ataletan deskribaturiko partaidetza politikoen eiteak kontuan hartu behar baitira.

Milbrath-en (1981) arabera, status sozioekonomikoaren eragina handiagoa zen partaidetza ez-konbentzionaletan, konbentzionaletan baino. Jarduera ez-konbentzionaletarako, konbentzionaletarako eskatzen ez diren trebezia eta jakintza bereziak beharrezkoak dira. Horregatik, status garaiagokoek —trebezia horien jabe direnek— status apalagokoekin erkatuz —trebezia horietan sartu ez direnekin— jarduera ez-konbentzionalak garatzeko joera handiagoa adieraziko lukete. Hund eta Goel-ek (1980) ere berretsi zuten status sozioekonomikoaren eta par-taidetza politiko ez-konbentzionalaren arteko erlazio positiboa.

Autore horien gogoetak, hein batean behintzat, Barnes eta Kaase-ren (1979) kulturen arteko ikerketan frogatuak izan ziren. Izan ere, partaidetza politiko ez-konbentzionalari dagokionez, lanbide-prestigioaren eta diru-sarreraren bidez neurtutako status sozioekonomikoarekiko erlazio positiboa zegoen. Korrelazio horiek, hainbat herrialdetan, 0,07-0,05 bitartekoak ziren lanbide-prestigioa kontuan hartzen zenean, eta 0,14-0,23 bitartekoak diru-sarrera kontuan hartzen zenean. Aitzitik, korrelazio horiek urriagoak ziren, eta lagin holandarrean negatiboa, subjektuei zegokien klase soziala hartzen zenean taldekatze-irizpidetzat. Emaitzek adierazten dutenez, status sozioekonomiko garaiko subjektuek, oro har, jokabide politiko ez-konbentzionalak gauzatzeko joera dute, aldagai horren eragina oso indartsua ez bada ere.

Antzeko joera azaltzen zen partaidetza politiko konbentzionala aztertzean; alegia, status altuagoko subjektuek ekintza-mota hauei ekiteko joera handiagoa zutela zirudien. Oro har, alor honetan aurkituriko korrelazioak zertxobait altuagoak ziren partaidetza politiko ez-konbentzionalari lorturikoak baino. Salbuespen bakarra lagin austriarrean zegoen, non erabiliriko hiru kategoria sozioekonomikoetan

(lanbide-prestigioan, diru-sarreran eta klase sozialean) kokapen altuago duten subjektuen puntuazioak altuagoak baitziren protesta-potentzialean partaidetza politiko konbentzionalean baino. Lagin britainiarrean antzeko emaitzak aurkitu ziren sarrera ekonomikoa kontuan hartzen zenean.

Nolanahi ere, ikerketetan agerturiko partaidetza politikoaren eta statusaren arteko harremana positiboa bada ere, kontuan izan beharra dago, status sozioekonomikoa eta beste aldagai soziodemografikoak oso lotuta daudela. Beraz, faktore horren azalpen-ahalmena erator daiteke, status-kokapen jakin batean dauden subjektuek dituzten beste ezaugarri batzuengatik eta ez status horretan kokaturik egoteagatik beragatik. Atalaren gainerakoan arazo honetan sakonduko dugu.

Adina

Partaidetza politikoaren eremuan adina da beste aldagai soziodemografiko garrantzitsu bat. Tesi klasikoak adierazten du gaztaroaren eta partaidetza politiko ez-konbentzionalaren arteko lotura estua. Erlazio horretarako oso arrazoi ezberdinak eman daitezke. Garrantzitsuenen artean, gaztaroari egotzitako ondoko hauek aipa genitzake: indarrean dauden arauekin identifikazio-gabezia, erantzukizun sozialik eza, aisialdia izatea, eta abar. Hori guztia, sistemaren barnean, gazteek ohi duten azalaldeko kokapena aipatuz laburbil daiteke.

Kaase eta Marsh-en (1979) ikerlanean, adinaren eta protesta-potentzialaren arteko korrelazioak bazirela frogatu zen, lagin austriarraren –0,17tik lagin amerikarraren –0,32raino. Horrek berresten du adinaren eta partaidetza politiko ez-konbentzionalaren arteko erlazioaren inguruko arestiko baieztapena.

Dena den, aurreko emaitzetatik eratortzen den adinaren eragina jarduera politikoarekiko beste zenbait gertakizunek ere baldintzatzen dutela ondorioztatzen da; bitarteko horien artean azpimarragarria baita komunitate batek bizi duen giro soziala eta politikoa.

Gazteen aldeko gatazka-maila urri dezakete benetako integrazioa susta dezaketen partaidetza-bideak egoteak eta egitura sozioekonomikoak beren esku izateak.

Adinaren eta partaidetza politiko konbentzionalaren arteko erlazioa askoz lausotuagoa da. Marsh eta Kaase-k (1979), esate baterako, korrelaziorik eza edo oso txikiak aurkitu zituzten aztertutako bost herrialdeetatik lauretan. Bosgarren herrialdean, Alemanian hain zuzen ere, aldagai bi hauen arteko korrelazioa –0,11koa izan zen. Ikus daitekeenez, adinak askoz garrantzi urriagoa du partaidetza politiko konbentzionalerako, partaidetza ez-konbentzionalerako baino. Gainera, erlazio horren norabidea ez da garbia. Milbrath-en (1981) arabera, bi faktore horien artean erlazio positiboa dago, eta zenbaitetan lerromakurra partaidetza politiko

konbentzionala adin jakin batera arte areagotuz doa, ondoren urritu egiten delako. Hala ere, Blenn eta Grimes-ek (1968) eta Riley, Former eta kolaboratzaileek (1968) ziurtatzen dutenez, zenbait faktoreri, hala nola sexuari eta hezkuntzari egonkor eutsiz gero, erlazio lerromakur hori ez da gertatzen. Geroago itzuliko gara arazo honetara.

Aurrekotik bi ondorio atera ditzakegu. Lehena, adinaren eta partaidetza politiko konbentzionalaren arteko korrelazio baxua azal daiteke, gazteenek eta adintsuenek jarduera-mota honekiko ardura gutxi adierazten dutelako. Talde biek, eta arrazoi desberdinengatik, portaera-mota hauek islatzen duten dinamika sozial ofizialagotik kanpo daudela sentitzen dute. Adin-talde bi horien artean kokaturiko subjektuek adierazten dute partaidetza politiko horrekiko interesik handiena. Eta horrek zerikusi handia du, hain zuzen ere, gizartean, subjektu horiek duten protagonismoarekin. Bigarrena, adinarekin batera inplizitu dauden beste aldagai batzuen ekarpena kontuan izatea beharrezkoa zaigu: sexua eta hezkuntza.

Sexua

Partaidetza politikoan sexuaren araberako desberdintasuna ia ikerketa guztietan agertzen da. Kulturen arteko bi ikerketetan, hots, Barnes eta Kaase-renean (1979) eta Verba, Nie eta Kim-enean (1978), partaidetza politikoa handiagoa zen gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, edozein partaidetza-motatan. Joera hori ia herrialde guztietan azaltzen zen eta, garrantzitsuagoa, adin-tarte guztietan ere bai. Halere, sexuen arteko desberdintasunak urritzen ari direla, gero eta nabarmenago agertzen ari da ikerkuntza berriagoetan (Milbrath, 1981; Baxter eta Lansing, 1980; besteak beste).

Beste aldagai soziodemografikoekin gertatzen zen bezala, emaitza hauek ez dira harrigarriak, baldin eta aldagai horren araberako taldeetako kide izateak sistema sozialean duen kokapena kontuan hartzen badugu. Politika-munduan emakumeen presentzia urriaren zioak izaera ugarikoak dira. Ikus ditzagun bada, erabili izan diren teoria garrantzitsuenetariko batzuek emandako arrazoiak (Orum *et al.,* 1974; Welch, 1980; Jennings, 1983). Lehenik, egoerazko faktoreek zerikusi handia dute emakumeak gure komunitateetan betetzen duen jarduerarekin: ama, emazte, eta abar. Oro har, rol horiek dinamika sozialetik kanpo edukitzen dituzte emakumeak, eta era berean, munduan paper aktiboa izateko beharrezko trebeziez jabetzea ere eragozten diete. Bigarrenik, faktore estrukturalek —hezkuntza, legislazio, lan, eta abarren bitartez— ez dute aukerarik ematen sexuen arteko benetako berdintasun osorako. Hirugarrenik, sozializazio-praxiak ari dira; gizarteak, eta horren izenean sozializazio-agenteek, subjektuengan jarrera- eta portaera-mota jakinak sustatzen dituzte, zeinak sexuaren arabera desberdinak diren.

Dena den, emakumearen partaidetza politiko baxuari buruzko teoria horiek zehazteak gainditzen du, berriro ere, orrialde hauetako helburua. Desberdintasun

horiek aipatuz azpimarratu nahi dugu arazo honetaz dagoen kontzientzia garbia; eta horrez gain, Jennings-en (1983) eta Christie-ren (1985) ikerketak nabarmendu nahi ditugu, non prozesu politikoan populazioaren sektore garrantzitsu baten –emakumeena, alegia— eragin urria aztertzen den eta interes sozial garrantzitsuko fenomeno honen gakoak ulertzen saiatzen diren.

Partaidetza politikoan, sexuaren eta oinarrizko aldagai soziodemografikoen eragin desberdin garbiak adierazten digu zuhurrak izan behar dugula analisi-maila horren aldagai bakoitzaren ekarpen zehatza interpretatzerakoan. Hau da, adina edo status sozioekonomikoa kontuan hartzen ditugunean, nahiz esplizitu adierazi ez, beste alderdi batzuk ere lantzen dira, aurreko aldagaiei oso lotuak, adibidez, sexua. Horregatik, beste aldagai horien efektua kontrolpean jartzeko estrategia metodologiko zehatzak hartu beharra dago; bestela, lorturiko emaitzak, aztertutako balizko faktorearen adierazpenaren ondorio ez ezik, subjektuak berezko dituen beste ezaugarri batzuen ondorio ere lirateke eta aztertzen dugun jokabiderako nabarmenak izan daitezke.

Hezkuntza

Atal honetan aipatu behar dugun azken aldagaia hezkuntza da. Lehenago adierazi dugunez, aldagai soziodemografikoen zeregina, faktore isolatua balitz bezala hartu beharrean, faktore soziodemografiko horiei lotuta dauden ezaugarrien bidez justifikatzen da batik bat. Alderdi honen kualitate garrantzitsuenetariko bat subjektuek lorturiko instrukzio-maila da, nola edo hala, aldez aurretik adieraziriko aldagaietan inplizitu dagoena.

Faktore honen garrantzia erraza da ulertzeko. Edozein egoeraren aurrean, eta zehazki politika-munduaren aurrean, subjektuek duten portaera eratortzen da mundu politikoari buruz duten jakintzatik eta horri aurre egiteko duten trebezietatik, hein zabal batean. Horrela, hezkuntzak beharrezkoak diren baliabideez jabetzeko ahalmena ematen die gizabanakoei, trebezia intelektualen jakintza zehatzagoa eskuratzeko, eta inguru horretan aritzeko oinarrizkoa den informazioaz jabetzeko aukera ere bai. Horrekin batera, eta horregatik ere bai, hezkuntzak mundu sozial eta politikoarekiko ardurak eta kezkak piztu behar ditu gizabanakoarengan.

Marsh eta Kaase-k (1979) eman zituzten, partaidetza politikoan, hezkuntzaren garrantzia frogatzen duten datuak. Horien arabera, hezkuntzak eragin positiboa zuen bai partaidetza politiko konbentzionalean bai ez-konbentzionalean, aztertutako herrialde guztietan. Autoreek landutako protesta-potentzialaren kasuan aurkitu zuten, unibertsitarioek, eskalaren behealdean, oinarrizko hezkuntza jasoa zuten subjektueek baino askoz jarduera gutxiagoko ehunekoa adierazten zutela eta askoz gehiago eskalaren goialdean. Beste era batera esanik, zenbat eta hezkuntza-maila altuagoa izan, orduan eta argiagoa ekintza politiko ez-konbentzionalei lotzeko aukera.

Partaidetza politiko konbentzionalaren kasuan, eta hauteskundeetako partaidetzaren kasuan hain zuzen, Aldrich eta Simon-ek (1986) ziotenez, aldagai soziodemografikoekin eginiko hainbat ikerketa berrikusi ondoren, hezkuntza zen jokabide politiko horren faktorerik garrantzitsuena. Era berean, Wolfinger eta Rosentone-k (1988) ere aldagai honen nabarmentasuna azpimarratzen zuten 136.203 subjektuko laginarekin eginiko ikerlan batean. Hezkuntzak, autore horien arabera, boto-jokabidean eragin zuzena izateaz gain, beste aldagai batzuen bitartez zeharkako eragina ere badu. Hain zuzen ere, hezkuntza aldagaia kontrolatzen baldin bada, lanbideak, diru-sarrerak edo statuseko aldagaiek eragin txikiagoa dute boto-jokabidean. Era berean, lehen adieraziriko adinaren eta hauteskunde-partaidetzaren arteko erlazio lerromakur hura lerro-erlazio bihurtzen da, hezkuntzaren eragina kontrolpean badago. Autoreen arabera, ezaugarri honen garrantzia ondoko honetan datza: «politika bezalako materia konplexu eta ez-ukigarriak ulertzeko gaitasuna areagotu egiten delako, eta herritar-erantzukizunaren etika ere sustatu egiten delako. Gainera, eskolak arazo burokratikoarekiko esperientziak ematen ditu...» (102. or.).

Aurreko azterketatik izaera ezberdina duten bi ondorio atera daitezke. Batetik, partaidetza politikoaren barrutian hezkuntzak duen zeresan nabarmena eta, bestetik, zenbait ezaugarri kontrolpean izateko garrantzia, portaera politiko ezberdinetan aldagai soziodemografikoen ekarpena bere hartan ulertu ahal izateko.

Partaidetza politikoaren inguruan, hezkuntzaren eragina ebaluatzera zuzentzen ziren ikerlanekin batera, beste ikerketa batzuk ere aipa genitzake. Ikerketa horien helburua zen aztertzea subjektuen kontzeptualizazio politikoaren mailak jardueretan zuen garrantzia. Kontzeptualizazio politikoak, gizabanakoek bizitzea egokitu zaien politika-mundua ulertzeko gaitasunari dagokiolako, hezkuntza-mailarekin duen erlazioa nabaria dirudi. Milbrath-en (1977) eta Converse-ren (1964) ikerlanetan zehazten zenez, kontzeptualizazio ideologikoak jarduera politiko konbentzionaleko partaidetzan eragin azpimarragarria du. Klingeman-ek (1979) adierazi zuen subjektuaren ulermen politikorako gaitasunak areagotzen duela ekintza politikoaren gertagarritasuna, bai konbentzionalean bai ez-konbentzionalean.

Atal honetan, partaidetza politikoaren inguruko aldagai soziodemografiko batzuen eragina aztertu dugu. Berrikuspena arin horretan, nabaria denez, ezin izan ditugu kontuan izan literaturan bildurik agertzen diren faktoreetariko bakoitza eta guztiak. Hala ere, gure ustetan nahikoa esan da alderdi horiei buruz, eta alderdi horien eta subjektuek munduaz duten ikuskera eta ulerpenaren artean dagoen erlazioari buruz, partaidetza politikoan horrelako aldagaien eragina ulertzeko. Era berean, eta aurreko eztabaidan argi agertu denez, aldagai soziodemografikoak ez dira nahikoak partaidetza politikoaren mugatzaileei buruzko jakintza sakonerako. Horretaz ondoko ataletan arduratuko gara.

5.4. ALDAGAI PSIKOSOZIALAK

Partaidetza politikoaren gakoetako lehen hurbilketa bat lortzeko, aurreko atalean landutako aldagai soziodemografikoak erabilgarriak izan dira. Bertan ikusi dugunez, kategoria soziodemografiko desberdinetako subjektuek portaera politiko desberdina izaten dute. Hala ere, eta bere unean adierazi den moduan, informazio hori ez da nahikoa partaidetza politikoaren dinamikan sakontzeko. Jarduera politiko hori burutzea ala ez, edo partaidetza-mota bat edo beste hautatzea, funtsean, eratortzen dira subjektuak berak sistema politikoarekiko duen erlazioari buruzko jarreretatik eta usteetatik. Beraz, azken finean, analisi-maila honetan partaidetza politikotik hurbilen dauden motibazioak aurkitzen ditugu. Ikerkuntza-lerro honetan, bereziki, gizabanakoen eta baldintza sozialen faktoreak uztartzen diren honetan, partaidetza politikoaren azalpenerako dimentsio itxaropentsuenak aurkeztu dira. Ikus ditzagun bada dimentsio horietariko batzuk.

5.4.1. Herritar beharra, alderdiarekiko eta taldearekiko identifikazioa

Lehen aldagai-multzoa, mundu politikoaren instantzia desberdinekin subjektuek ezartzen dituzten identifikazio-erlazioei dagokie: sistema politikoarekin berarekin, alderdi politikoekin eta taldearekin. Entitate horiekin subjektuak dituen loturak eragiten du, subjektuak, instantzia horiek sustaturiko dinamika eta jardueretan integra daitezen. Beraz, barruti politikoaren elementu horien izaera desberdina bada ere, egoki iruditu zaigu atal berean sartzea, horien eta subjektuaren artean ezartzen den erlazio-mota azpimarratuz eta desberdintzen dituzten ezaugarri estrukturalak alboratuz.

Herritar beharra

Herritar beharraren sentimendua oinarritzen da subjektua bizi den sistema politikoarekiko aldez aurretiko identifikazioan. Identifikazioaren bitartez subjektuak barneratzen ditu sisteman indarrean dauden arau eta erregelak eta sistemak eskaturiko jarduera-mota garatzen du. Horrela, eta herritar behar honi esker, subjektuak bultzatuak izaten dira botere-instantzietatik eskaturiko partaidetza politikoaren eite horietan parte hartzera. Horregatik, ez da harrigarria subjektuak sistemarekiko duen jarrera horrek jarduera politiko konbentzionaletan garrantzi berezia izatea, jarduera konbentzionalak, sistemaren mamia izateaz gain, sistemak berak eskaturikoenak ere badirelako (Milbrath, 1981; Aldrich eta Simon, 1986). Hain zuzen ere, *botoa* da herritar beharraren sentimenduak gehien bultzatzen duen jokabide politikoa. Baieztapen hau egiazkoa bada, subjektuek jarduera horretan parte hartzeko joera izango dute hauteskundearen emaitzarik kontuan izan gabe. Horrek azalduko luke hauteskundeetan herritarren zati baten parte-hartzea, aukera politiko jakinaren alde emaitzak aurreikusita eta herritarren botoa eragin urrikoa izango dela aldez aurretik jakinda ere.

Herritar beharrak partaidetza politiko konbentzionalean, —hauteskunde-portaeran, hain zuzen— ekarpen positiboa zuela baieztatzeko erabilitako arrazoi berberengatik esan beharko genuke jarrera hori ez dela garrantzitsua ortodoxia urriagoko beste jarduera politikoekiko. Izan ere, jokabide horiek partaidetza politikoaren ohiko bide instituzionaletatik urruntzen direnez gero, eta horietariko portaera batzuk legezkoak ez direnez gero, nabaria da ezin daitezkeela izan sistemarekiko identifikazio-jarrerak motibatuak.

Herritar beharraren sentimendua estu lotuta dago gizarteetan indarrean dauden sozializazio-praxi politikoei. Jarrera horien garapenerako Milbrath-ek (1981) azpimarratu zituen subjektuaren hurbileko inguru soziala eta inguru politikoa ere bai. Almond eta Verba-ren (1963) eta Verba eta kolaboratzaileen (1971) kulturen arteko ikerketetan aztertutako herrialdeetan, herritar beharraren sentimenduak jatorri desberdina zuela azpimarratzen zen. Hortaz, jarrera horiekiko inguru sozio-kulturalaren garrantzia bermatzen da, hots, sozializazioaren praxiarena.

Alderdiarekiko identifikazioa

Aldagai psikosozialen lehen multzoko beste aldagai bat dugu alderdiarekiko identifikazioa. Subjektuak aukera politiko jakin batekin ezartzen duen loturak jarduera alderdizale guztietan parte hartzera darama: botoa, hauteskunde-kanpainak, eta abar. Litekeena da jarduera instituzional hauetatik beste jarduera ez-konbentzional batzuetara luzatzea, partiduaren unean uneko estrategia politikoaren arabera. Hala ere, aldagai horren indarra adierazten da, bereziki, hauteskundeko testuinguruarekin erlazionaturiko egoeretan, boto-portaeran hain zuzen.

Hauteskunde-egoeretan kokatzen diren beste hainbat aldagairen aurrean, alderdiarekiko *identifikazioa da hartze luzeko indarra*, subjektuen partaidetza eta botoa mugatzen baititu. Michigango Unibertsitateko taldeak (Campbell *et al.,* 1954) garrantzi berezia eman zion aldagai horri. Talde horrek alderdiarekiko identifikazio-indize bat eratu zuen, honako lau kategoria hauek zituena: indartsua, ahula, joerazkoa eta askea edo ez-alderdizalea. Aldagai hori kontuan izanik egin izan den zenbait ikerlanek frogatu du, alderdiarekiko lehentasun edo identifikazio handiagoa duten subjektuek, politika-munduan, partaidetza aktiboagoa dutela (Milbrath, 1981).

Michigango taldearen eta Campbell eta kolaboratzaileen ikerlanek aurre egiten zioten boto-jokabidea aztertzean zegoen tradizio soziologiko oso bati (Lazarsfeld, Berelson eta Gaudet, 1948), Chicagoko taldeari, hain zuzen ere. Chicagoko taldeak boto-emaileen ezaugarri sozialetan jarri zuen arreta: erlijioa, klase soziala eta nekazari-ingurunea versus hiri-ingurunea. Michigango Eskolak aldaketa ekarri zuen, botoa azaltzeko faktore soziologikoen ordez psikologikoak azpimarratuz. Euren ikerlanetarik lehenean (Campbell, Gurin eta Miller, 1952), 1952ko presidentziarako hauteskunde amerikarrak aztertuz, azpimarratzen zen boto-erabakian

alderdiarekiko identifikazioa zela elementurik garrantzitsuena. Ondorengo ikerlan batean, Campbell eta Stokes-ek (1959) aurreko baiezpena frogatu zuten, aukeraturiko hautagaiarekin korrelaziorik gorena alderdiarekiko identifikazioa zela aurkitzean. Talde horren ikerketarik garrantzitsuenetariko bat den *American Voter* lanean (Campbell eta kolaboratzaileak, 1960) honakoa aurkitu zuten: hauteskunde-kanpainetan sortzen diren gaien inguruan subjektuek dituzten jarrerak hartze luzeko indarrek mugatzen dituzte, subjektuen alderdiarekiko identifikazio-indarrek alegia. Talde horren ikerlanez gain, beste autore batzuek ere (Goldberg, 1966; Sears, 1969) berretsi dute boto-jokabiderako alderdiarekiko identifikazioaren garrantzia. Aldagai honen funtsezko afektuzko izaera eta ez-arrazoizko izaera nabari agertzen da Sears-en (1969) honako baieztapen honetan: «(alderdiarekiko identifikazioa) hartze luzeko konpromisoa da, populazioaren zatirik handienean kokapen politikoen arteko "adaptazio" baten emaitza soila bainoago. Beraz, ez dirudi alderdiekiko lehentasunak kontsiderazio politikoekiko oso sentikorrak direnik» (368. or.).

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, aldagai horren garrantzia ahulduz joan da; hauteskunde-kanpainako gai propioak garrantzi handiagoa hartzen hasi dira, ordea, eta gai horietan alderdiek hartzen dituzten kokapenak ere bai (Nie *et al.,* 1979; Blutler eta Stokes, 1974). Horri dagokionez, Sabucedo-k (1984b) ondokoa zioen: «Esan daiteke egungo ereduen ezaugarri komuna arrazionaltasuna dela. Boto-emailea bere erabakia maximizatzen saiatzen den pertsona gisa hartzen da, hau da, bere interesak ondoen ordezkatzen dituen alternatiba hautetsiko du, edo bere ikuspegitik hurbilen dagoen gizartea defendatzen duena. Horregatik, boto-erabakia azaltzeko saioek ahalegin handia egiten dute, alternatiba politiko desberdinez subjektuek egiten dituzten ebaluazioak ezagutzen» (6. or.). Arazoen aurrean subjektuek duten kokapena lortzera zuzenduriko estrategiek (Anderson, 1962; Tversky, 1972; Fishbein eta Ajzen, 1981; Himmelweit, 1981) nabarmen islatzen dute ikerlerro honek harturiko norabidea.

Taldearekiko identifikazioa

Alderdiarekiko identifikazioaz gain, subjektuek antzeko loturak ezar ditzakete beste erreferentzia-taldeekin (Miller eta kolaboratzaileak, 1981). Horrela, taldearekiko identifikazioak, alderdiarekikoak bezala, subjektuen partaidetza politikoa areagotu egiten du.

Taldeko kidetzaren hautematea subjektuaren identitate soziala eratzearen oinarrian dago (Tajfel, 1981). Baina taldeko kide izatearen sentimendu horrek hartzen du benetako dimentsioa, beste talde sozialekiko erkaketa sozialaren mekanismoen bitartez (Festinger, 1954). Horrela, formulazio teoriko horien ondorioetako bat honako hau da: identitate sozial positiboa garaturik ez duten taldeek, sistema sozialean duten tokia dela eta, beren onurarako zuzenduriko jarduerak gauzatzen dituzte, taldekideen autoirudia hobetzeko asmoz.

Tajfel-ek (1981) azpimarratzen zuen erkaketa sozialaren teoria talde arteko mailan kokatzearen garrantzia, baita gabezia erlatiboaren teoriarekin erlazionatzearena ere, talde sozial gutxiagotuen portaera politikoak azaldu ahal izateko. Tajfel-en planteamendua saiatzen da ematen dimentsio sozialagoa indarrean dauden teoria psikosozial batzuei, baita lotzen ere eskema kontzeptual horiek sarri ekintza politiko ez-konbentzionalak justifikatzeko erabili izan diren *gabezia erlatiboa* bezalako beste formulazio batzuei.

Kaase eta Marsh-ek (1979) arreta berezia eman zioten gabezia aldagaiari. Autore horiek adierazten dutenez, garrantzitsuena ez da subjektuek duten gabezia erreal edo objektiboaren maila, gabezia horietaz duten hautematea baizik, hau da, euren *gabezia erlatiboa.* Gurr-ek (1970) kontzeptu horren esanahian sartu zen zuzen-zuzenean: «(Gabezia erlatiboa hau da) aktoreek duten balio-iguripenen eta balio-gaitasunen arteko aldearen hautematea. Balio-iguripenak jendeak, bizibaldintzak eta ondasunak, bere jotzen dituelako pentsamenduari dagozkio. Balio-gaitasunak jendeak bizi-baldintzak eta ondasunak lortu eta eusteko gai direlako pentsamenduari dagozkio... Azpimarratzea (...) gabeziaren hautematean datza; jendea subjektiboki gabezian egon daiteke, nahiz eta kanpoko behatzaile bat horren beharrean ez dagoen. Era berean, behatzaile objektibo batek pobrezia osotzat edo "gabezia absolututzat" har dezakeena ez da beti injustutzat edo derrigorrezkotzat jotzen esperimentatzen dutenen aldetik» (Tajfel, 1981:297). Hala ere, jokabide politikoa ulertzen laguntzeko, gabezia erlatiboa beharrezkoa da pertsona-talde edo kolektibo batek onar dezan eta dimentsio politikoa har dezan. Dahl-ek (1971) gabezia erlatiboa jarduera politikoaren motor bihurtzeko bost baldintza adierazi zituen:

a. Gabezia hautematea.
b. Gizabanakoarentzat eta taldearentzat nabarmentasun garaia izatea.
c. Gabeziaren ebaluazioa ez legitimotzat jotzea.
d. Zenbait sentimendu, hala nola frustazioa, sumindura eta haserre bizia, gabeziarekin elkartzea.
e. Deuseztatzeko eskakizunak.

Dahl-ek azalduriko baldintzek aukera ematen dute taldeek euren egoerari eta konpontzeko beharrari buruzko kontzientzia azaltzeko. Hala ere, ekintza politikoaren teoria baten barnean gabezia erlatiboa jarri ahal izateko, beharrezkoa litzateke, aurrekoarekin batera, subjektuek jasaten duten egoeraren erantzukizuna sistema politikoari edo arazo publikoak maneiatzeko ikuspegiari egotz diezaioten.

Ikus daitekeenez, taldearekiko identifikazioak —psikologia sozial europarrak horren maite dituen identitate sozial eta erkaketa sozialeko topikoekin batera— zein gabezia erlatiboak sofistikazio nahikoa duen tramankulu teorikoa ematen digute, talde sozialek buruturiko protesta politikoaren ekintzak aztertzeko eta azaltzeko.

5.4.2. Alienazio politikoa eta erlazionaturiko hainbat kontzeptu

Alienazio politiko etiketan sistema politikoan subjektuak dituen sentimenduei dagozkien kontzeptu eta teoria guztiak sartu nahi ditugu. Atal honetan ikusiko dugunez, lantzen dugun alorra ulertzeko erabilgarriak diren eta alienazio politikoarekin zerikusirik duten elementuak ugariak dira. Izan ere, partaidetza politikoari buruz egindako ikerkuntzaren zati handi batek alienazioa eta horri lotutako kontzeptuak ere erabiltzen ditu, portaera-mota horien faktore azaltzaile gisa.

Ez dago dudarik Marx izan dela kontzeptu honek izan duen zabalkuntzaren erantzulea, nahiz eta kontzeptuaren jatorria zaharragoa izan. Esate baterako, greziar gizartean, alienazioa, eskubide edo ondasunen transferentzia edo besterenganatzea adierazteko erabiltzen zen; edo Erdi Aroko gnostikoek "harantzagoko" bizitzaren autoerrealizazioa adierazteko erabiltzen zuten; edo Plotino eta San Agustin mistikoek kontenplazioa eta estasia adierazteko erabiltzen zuten. Edonola izanda ere, Marx gaztea izan zen termino honen eduki-emailea, lau adiera nagusirekin: langilea alienatzen dute 1) bere lanak, 2) bere lanaren ekoizpenak, 3) klaseko kideek, eta 4) gizaki izateak. Dena den, hitzaren esanahiaren erabilgarritasuna berehala agertu zen, jatorriz lan-munduari egokiturik, mundu sozialeko beste alor batzuetarako: erlijiorako, politikarako, eta abar. Alienazio hitza horren arrakastatsua izanik, gaur egun zaila da kontzeptua agertzen ez duen edozein alorretako idazlanik ez aurkitzea. Hala ere, hitzaren erabilera ugari eta zabala dela eta, edo agian horregatik, ageriko zailtasunak daude haren definizio zehaztu baterako. Yinger-ek (1973) alienazioa honela definitu zuen: «Indarrean dauden egitura sozialei dagokienez, erlazioaren eta partaidetzaren nahiz kontrolaren galera sentitua da. Galera hori ekiditera zuzenduta dauden neurriekin elkartuta ala ez egon daiteke» (187. or.).

Agerikoa da, beraz, alienazio kontzeptuak elementu eta esanahi desberdinak biltzen dituela bere barnean. Seeman-ek (1959) literaturan aurkituriko bost bertsio identifikatu zituen: *powerlessness,* «gizabanakoak duen iguripen edo probabilitate subjektiboa da; probabilitate horren arabera, gizabanakoaren portaerak ezin lorturiko emaitza edo sari desiratuak gerta daitezen»; *meaninglessness,* «gizabanakoa sinetsi behar lukeenari buruz nahasirik dago»; *normlessness,* «xedeak lortzeko jokabide ez-onartuak behar direlako iguripen handia»; gizabanako *isolatuak,* «gizartean positiboki baloratuak diren xede edo usteei balio txikia ematen dietenak»; eta *autoalienation,* «gizartearen baldintzak bestelakoak balira, norbera benetan izan litekeena baino gutxiago izatea». Michigango Unibertsitateko Survey Research Center delakoak, bestalde, alienazio politikoaren bi osagarririk garrantzitsuenak neurtzeko lanabesak garatu zituen, *powerlessness* eta mesfidantza politikoa. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera ezinegon politikoari buruzko ikerkuntzan erabili izan dira (Wright, 1981).

Alienazioari lotutako aurreko kontzeptu-zerrendatik *powerlessnes* delakoa da aztertuena (Seoane, 1982; Sabucedo, 1986). Horixe, bada, landuko dugu. Era

berean, eta lehen eskainiriko definizioa dela eta, nabaria da alor horretan proposaturiko beste aldagai batzuekin *powerlessness*ak duen lotura estua, efikazia politikoaren sentimenduarekin eta *kontrol-locus*arekin, hain zuzen. Efikazia politikoaren sentimendua *powerlessness*aren zeharo alderantzizkoa da; kontzeptu biak Rotteren (1966) errefortzuei buruzko kontrol-iguripenen teoriarekin egokituko lirateke. Horregatik, kontzeptu hauek partaidetza politikoaren literaturan atal desberdinetan agertzen badira ere, guk batera landuko ditugu.

Campbell eta kolaboratzaileek (1960) egin zuten lehen ikerlanetako bat partaidetza politikoaren gakoak ulertzeko. Autore horien arabera, *efikazia politikoa*ren sentimendua partaidetzaren faktore mugatzaileetariko bat zen. Euren hipotesiak frogatzeko efikazia politikorako eskala bat burutu zuten, ondoko bost itemez osaturik:

1. Ez dut uste politikariei interesatzen zaienik nik eta ni bezalako jendeak pentsatzen duguna.
2. Pertsonek ematen duten boto-norabideak erabakitzen du, funtsean, herrialde horretako gauzak nolakoak izango diren.
3. Botoa da nik eta ni bezalako pertsonek gobernuko gauzak nola eramatea nahi dugun adierazteko dugun bide bakarra.
4. Nik eta ni bezalako jendeak ez dugu zer esanik gobernuak egiten duenari buruz.
5. Batzuetan, politika eta gobernua, horren gauza konplexuak izanik, niretzat eta ni bezalako jendearentzat zailak dira ulertzeko.

Eskala honetan subjektuek emaniko puntuazioak eta partaidetza politiko konbentzionalean emanikoak erlazionatuz, autoreek ondorioztatu zuten efikazia politikoaren sentimendua altuagoa zen heinean, jarduera konbentzionaletan partaidetza handiagoa zela.

Beste ikerlan ugarik *kontrol-locusa* erabili izan du partaidetza politikoaren aldagai aurresale gisa. Rotter, Seeman eta Liverant-ek (1962) aurkitu zuten barneko *kontrol-locus*a zuten subjektuek eta kanpoko *kontrol-locus*a zutenek ekintzari buruzko jarrera desberdina adierazten zutela. Lehenengoek, gertakizunak euren erantzukizunaren emaitzatzat hartzen zutelako, gertakizunen jarioan eragina izatea gertagarriagoa zen. Aitzitik, kanpo-orientabideko subjektuek fenomenoen gertaera patuari edo zoriari egozteko joera zuten, eta horregatik, gertakizun horiek eraldatzeko ez zeuden edozein jarduera-motatan parte hartzeko oso motibatuta.

Hala ere, aldagai hau erabili zen ikerketetan lorturiko emaitzak ez dira oso egonkorrak. Era guztietako datuekin egiten dutu topo. Horrela, ikerlan bakar batzuk aipatzearren, Blanchard eta Scarboro (1972), Gootnick (1974), Geller eta Howard (1972), Arkel (1976) eta Silvern eta Nakamura (1971) aipa genitzake, zeinetan *kontrol-locus*aren eta partaidetza politikoaren artean inolako erlaziorik agertu ez baitzen. Antzeko emaitzak aurkitu zituzten Valencia eta kolaboratzaileek (1988)

Euskal Herriko kasuan. Bestalde, Gore eta Rotter-ek (1963) eta Strickland-ek (1965) gazte beltzaranen laginekin eginiko ikerlanetan, herritar eskubideen aldeko borrokan, barne-orientabideko subjektuak kanpoko *locus*a duten subjektuak baino aktiboagoak direla aurkitu zuten. Rosen eta Salling-ek (1971) berrogeita bost ikasle unibertsitarioekin egindako ikerketan frogatu zuten barneko *locus*ekoek puntuaziorik altuenak lortu zituztela jarduera desberdinak barneratzen dituen partaidetza politikorako eskalan baita partaidetzaren intentsitatearen autoebaluazioan ere. Beste hainbat ikerketatan (Sobral eta Vargas, 1986; Perez eta Bermudez, 1986; Sobral, Sabucedo eta Vargas, 1986) antzeko emaitzak lortu zituzten partaidetza konbentzionala aztertzean, nahiz eta Sobral eta kolaboratzaileek (1986) eginiko ikerketan azpimarratzen zen erabiliriko *powerlessness* eskalaren dimentsioen eragin ezberdina. Azkenik, Nassi eta Abramowitz-ek (1980) eta Ghaffaradli-Doty eta Carlson-ek (1979) teorikoki espero zenaren alderantzizko erlazioa aurkitu zuten: kanpo-norabideko subjektuek adierazten zuten jarduera politikoaren mailarik altuena.

Aurreko berrikuspenetik ondoriozta daitekeenez, ikerlan horiek eskaintzen diguten ikuspegia nahiko kaotikoa da. Horregatik, «partaidetza politikoaren alderdi kontzeptual eta teorikoei aditasun handiagoa eman beharra dago, irudiz kontraesankorrak diren emaitza horiei guztiei esanahia emateko» (Sabucedo, 1984:69). Ildo beretik, Klandermans-ek (1983) azpimarratzen du partaidetza politikoaren elementuen artean bereizi beharra, emaitza desberdin horiek azaltzeko. Azken autorearen iritziz, honako bi dimentsio hauek bereiz daitezke: partaidetza politiko konbentzionala vs ez-konbentzionala, eta ekintza adierazkorrak vs instrumentalak.

Partaidetza politiko konbentzionala vs ez-konbentzionala bereizketari dagokionez, Klan-dermans-ek (1983) adierazten zuen barneko *kontrol-locus*aren puntuazioak jarduera ez-konbentzionalerako garrantzitsuagoak zirela, konbentzionalerako baino. Horren zioa ondokoan datza: partaidetza politiko ez-konbentzionalak etxekoitasun urriagokoak dira subjektuentzat, eta horregatik, efikazia-sentimenduek alor horretan ohikoak diren jarduera konbentzionaletan baino indar handiagoa dute. Verba eta Nie (1972) eta Milbrath (1981) antzeko ondoriotara heldu ziren.

Ekintza *instrumentalak* erabiltzen dituen taldearentzat edozein aldaketa edo ondasun bilatzen duten jarduerak dira. Aitzitik, ekintza *adierazkor*rek ez dute, printzipioz, ezinegonaren adierazpena besterik nahi. Kasu honetan, barnekotasuna ekintza instrumentalei lotuta agertzen da maizago eta kanpokotasuna edo *powerlessnes*a ekintza adierazkorrei.

Aurrekoaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu barne/kanpo eskalako puntuazioen esanahia jakitea. Sabucedo-k (1984a) zioenez: «Azken finean, eskalaren bitartez ebaluatzen dira bizitza politikoan eragina izateko gizabanakoaren gaitasunari buruz subjektuak berak dituen usteak, eta uste horiek mugatzen dituzte sistema politikoaren funtzionamenduari buruz gizabanakoak duen eskema ideologikoak eta

egitura sozialaren barnean gizabanakoak duen kokapenak. Nire ustetan, arazo politiko handietan eragina izateko herritar arruntak dituen posibilitateak oso gutxi dira. Egoera hau larriagotu egiten da subjektua talde sozial marjinatuetakoa baldin bada. Gainera, konspirazioaren teorian erortzen ez dela pentsatzen dut ere, herrialde honetako edo besteetako presio-talde nagusiek, hein zabal batean, arazo politiko nagusiei buruz hartzen duten erabakiak mugatzen dituztela» (70. or.). Horrekin bat eginik, *kontrol-locus*eko eskaletan subjektuen puntuazioak, hein zabal batean, norberak dituen ideologiak direla medio gerta litezke: ezkerreko subjektuak eskuinekoak baino kanpoko kontrol handiagokoak dira (Silvern eta Nakamura, 1971; Sabucedo eta Valiño, 1985).

Aurreko gogoetatik erator daitekeenez, kanpokotasunak edo *powerlessness*ak zehazki islatzen du, zenbaitetan, subjektuak sistema politikoaren aurrean duen egoera erreala. Hala ere, subjektuak mundu horrekiko duen erlazioa ondoen definitzen duena *powerlessness*a dela sinesteak ez dakar, behar-beharrez eta *a priori*, partaidetzarik eza. Converse eta Davies-en (1976) ikerlanek argi gehiago dakarte arazo garrantzitsu horri buruz. Ikerlan horietan, efikazia politikorik eza, subjektuen aldetik, bi eratara hauteman daitekeela iradokitzen zen. Lehenengotik, norberaren efikazia gabeziaren ondorio gisa har daiteke; bigarrenetik, botere-gabezia sistemari egotz dakioke. Horrela, subjektuek duten *powerlessness*a kontuan izan beharrekoa da, baina horri buruz egiten dituzten egozpenak ere bai; izan ere, efikazia politikorik eza norberari ala sistemari egozten badiete, gizabanakoen portaera desberdina izango dela pentsa daiteke. Horri dagokionez, Gurin, Gurin eta Morrison-en (1978) arabera, kanpo-orientabideko subjektuek, baina euren kontrol-gabezia sistemari egozten ziotenek, politikoki aktiboak izateko joera zuten.

Klandermans-ek (1983), *kontrol-locus*ari buruzko ikerketetan lorturiko emaitzei esanahia emateko asmoz, ikerlan hauek babesten dituen teoriak bi hipotesi izan ditzakeela adierazi zuen. Lehenengoa, hemen azaldutako ikerlan gehienetan erabilitakoa da, eta horren arabera, barne-orientabideko subjektuek jarduera politikoetan partaidetza handiagoa dute, euren burua eraginkor gisa hautematen dutelako. Bigarrena, lehenago esanikoarekin erlazionatuta dago, eta horren arabera, kontrol-gaitasunik ez duten eta gabezia hori sistemari egozten dioten subjektuek prozesu politikoan parte hartzeko joera dute, horrela euren *powerlessness* sentimendua urritzeko. Hipotesi horiek *efikazia*rena eta *botere-heziketa*rena izendatzen dira, hurrenez hurren.

Alienazio politikoaren teorian oinarrizkoa den beste elementu bat *mesfidantza politikoa* da, partaidetza politikoaren gairako funtsezkoa eta, ondorioz, sistema demokratikorako. Mesfidantza jarrera negatibo bilakatzen da zuzendari politikoen zintzotasunari, gaitasunari eta gobernu-moduei buruzko iritzien arabera. Faktore horrek sistema politikoarekiko duen nabarmentasuna ondoko baieztapenetan argi adierazten da:

> Herritar mesfidatuak —gobernua gutxi batzuen eta ez gehiengoaren interesen pean dagoela uste dutenak— egotea ideal demokratikoaren burutzapenerako oztopo bat da... Liderrek, demokrazia batean, ezin dute arrakastarik izan euren herritarren konfiantza lortzen duten arte (Aberbach eta Walker, 1970:1199).
>
> Elite politikoarekiko konfiantzak —elitea, komunitate politikoaren zatia den heinean, eta ez indar arrotza edo urruna— bultzatzen du, herritarrek boterea eman diezaioten (Almond eta Verba, 1965:357).

Konfiantza politikoaren dimentsio hau, funtsean, politika-munduko ondoko bi funtsezko irudiei dagokie: *gobernari*ei *eta erregimena*ri. Lehenari dagokionez, konfiantzak suposatzen du autoritate-postuetan dauden pertsonen eta horiek diseinaturiko politiken aldeko jarduerak gauzatzea. Bigarrenari dagokionez, konfiantzak suposatzen du sistemaren instituzio eta oinarrizko arauekiko laguntza eta horiekiko aurkakotasuna adierazten duten portaerak ekiditea (Easton, 1968, 1975; Parsons, 1967). Horrela, espero liteke konfiantza politikoak partaidetza politiko konbentzionala areagotzea eta ez-konbentzionala urritzea.

Partaidetza politiko ez-konbentzionalari dagokionez, hainbat ikerketak (Aberbach eta Walker, 1970; Muller, 1972; Seligson, 1980; Wright, 1976; Ussem eta Ussem, 1979) aurreko erlazioa baieztatu du: mesfidantza politikoak korrelazio positiboa du jarduera politiko ez-konbentzionalak burutzearekin edo onartzearekin. Dena den, jokabide ez-konbentzionala aldagaiaren bariantza azalduaren ehunekoa ez da oso altua, eta horregatik autoreen artean eztabaida larriak pizten dira ikerketen emaitzak interpretatzean (adibidez, Rasinsky eta Tyler (1968) *vs* Wright (1981)). Partaidetza politiko konbentzionalari dagokionez, zenbait ikerketak printzipioz arraroak diren emaitzak eman ditu (Conway, 1981; Johnson, 1976; White, 1981, eta abar.): partaidetzaren eta mesfidantzaren arteko erlazio positiboa dago. Egoera hori, Citrin-ek (1974) jadanik aurreratua zuen. Autore horren arabera, politikarekiko mesfidantzaren —edo ezinegonaren— adierazpenetariko asko esnobismoagatik egiten dira, edo subjektuak erreferentzia gisa hartzen dituen talde sozialek onesten dituztelako egiten dira. Horrela, jarrera horiek funtzio sozial garbia betetzen dute. Rasinsky eta Tyler-ek (1986) adierazten zutenez, partaidetza politiko konbentzionalekiko ezinegon-elementu horien eragin urria izaten da portaera horren izaera pribatuari esker. Gure iritziz, portaera-mota horrekiko esnobismoaren edo pribazitatearen azalpenak ez lirateke beharrezkoak izango jarraian azaltzen duguna onartuko bagenu. Alegia, gobernu-modua errefusatzen duten subjektuek ez diete euren eskubideei uko egin beharrik prozesu politikoan eragina izateko, jarduera politiko konbentzionalen bitartez ere ez. Hau nabarmenagoa da politikoki egituraturiko taldeak, alderdi politikoak edo mugimendu sozialak badaudela kontuan izaten badugu, horien helburua gobernu-mota edo sistema politiko oso bati oposizio erradikala egitean baitatza.

Orain arte esandakotik argi gelditzen da jarrera-mota hauek ez direla isolatuki aurkezten, beste batzuekin elkarturik baizik. Wright-ek (1981), honi dagokionez, *powerlessness*aren eta mesfidantzaren arteko korrelazio positiboa azpimarratzen zuen. Baina, erlazio hori ez da horren indartsua dimentsio batean puntuazio altuak eta beste dimentsioan baxuak dituzten subjektuak badaudela kontuan hartzen badugu. Lehenengo Ganson-ek (1968) eta gero Paige-k (1981) aldagai bi horien arteko erlazio-posibilitate desberdinak konbinatuz, tipologia berria landu zuten eta ondoko subjektu-taldeak lortu: leialak, alienatuak, menderatuak eta disidenteak. Lehenengoen ezaugarria efikazian eta konfiantzan puntuazio altuak izatea da; alienatuak, efikazia gabetutzat eta konfiantza gabetutzat hartzen direnak, bizitza politikotik kanpo daude; menderatuak, efikazian puntuazio baxuak eta konfiantzan altuak dituztenak, instituzio politikoen sistemarekiko fidelak eta leialak dira; azkenik, disidenteak, efikazian puntuazio altukoak eta konfiantzan baxukoak, sistemaren aldaketen aldekoak dira. Planteamendu horrek adierazten digu, partaidetza politikoan, aldagai baten eragin isolatua kontuan hartzea ez dela nahikoa, portaera-mota horretan hainbat faktorek duten efektu komuna funtsezkoa baita. Horrela ekidin liteke hainbat ikerketatan lorturiko balizko emaitza batzuen kontraesankortasuna.

Paige-ren araberako efikazia politikoaren eta konfiantza politikoaren arteko tipologiak ondoko taulan ager daitezke.

		Konfiantza politikoa	
		Altua	Baxua
Eraginkortasun politikoa	Altua	Leialak	Disidenteak
	Baxua	Menderatuak	Alienatuak

Atal hau bukatzeko, alor honetan garrantzitsua den beste aldagai bat aipatuko dugu labur: subjektuaren *mundu politikoarekiko interesa*, hain zuzen ere. Aurreko kasuetan bezala, faktore horrek modula ditzake beste aldagai batzuen eragina partaidetza politikoan.

Sabucedo eta Valiña-k (1985) aurkitu zutenez, mundu politikoarekiko interesaren aldagaia adierazkorra da botere politikoaren kontzientzia altua eta baxua duten subjektu-taldeetan, partaidetza-mailen artean bereizteko. Beraz, aldagai hau funtsezkoa da partaidetzaren alorrerako. Ez dago dudarik, *powerlessness* sentimenduak eta pertsonaia eta instituzio politikoekiko mesfidantzak mundu sozialeko eremu horrekiko desinteresa eragin dezakete, partaidetza politikoa baxu bihurtuz. Hala ere, posible da arazo publikoekiko ardura adieraztea, norberaren efikazia politikoari buruz eta sistemari buruz uste negatiboak mantentzen badira ere. Eta hori hala da, azken uste horiek, sistemari buruzkoak alegia, gobernu-moduari buruz egiten diren balorazioetatik eratortzen direlako. Ondorioz, ekintzara bultzatzeko

kitzikagarri bihur daitezke, boteretik hartzen diren erabakiek, zuzen edo zeharka, subjektuekin zerikusirik izan dezaketela kontziente direnen kasuan. Planteamendu hori, gure ustez, *powerlessness*aren eta partaidetzaren arteko erlazioei buruzko botere-heziketaren hipotesiarekin jar daiteke lehian. Bestalde, mundu politikoarekiko desinteres hori, *powerlessness* edo konfiantza-gabeziaren ordez, orientabide pertsonaletik orientabide sozial batekiko lehentasunak motiba dezake, edo subjektuen informazio-mailak eta kontzeptualizazio ideologikoaren maila baxuak ere bai. Horrela, testuinguru bakoitzean beharrezkoa zaigu subjektuak inguruan duen munduarekiko interesean eragina duten arrazoiak aztertzea.

Beraz, partaidetza politikoan aldagai horiek betetzen duten paper nabarmena agerikoa da. Faktore horietan subjektuek duten kokapenak sorrarazten du errepresentazioa edo eskema kognitiboen eratzea (Axelrold, 1973, 1976; Hamill eta Lodge, 1986); eta eskema horrek inguru politikoaren ebaluazioan eta portaeran bitartekaritza-lana egiten du.

5.5. TESTUINGURU SOZIOPOLITIKOA

Partaidetza politikoaren azalpenerako faktoreen azalpen hori osatu gabe geldituko litzateke, baldin eta portaera-mota horietan eragin berezia duen beste alderdi bat aipatuko ez bagenu, labur bada ere: testuinguru soziopolitikoa. Atal hau lantzerakoan, azpimarratu nahi dugu helburu ditugun jarduera politikoak ezin direla aztertu subjektuaren testuinguru hurbila kontuan hartu gabe. Gizakiaz ari gara, eta, beraz, bere jokabidea ez da gauzatzen hutsune sozialean. Gizakiaren eta bere ingurunearen artean ezartzen diren erlazioek mugatzen dute, ordea, portaera-mota bat ala bestea izatea. Atal honetan, aztergai dugun arazorako oso garrantzitsuak diren bi elementu landuko ditugu: estimulu politiko hurbilak eta ingurugiro soziopolitiko orokorra.

Literaturan maiz frogatu izan da zenbat eta estimulu politiko gehiago izan, orduan eta altuagoa dela jarduera-maila (Milbrath eta Goel, 1977, Milbrath, 1981). Gizartean ari diren *estimulu politiko*en aniztasunak eta zabaltasunak gizabanakoak janzten dituzte: subjektuek gertakizunei buruzko informazioa izan dezaten, erabaki-hartzeetara daraman dinamika jakin dezaten, alderdi eta protagonista politikoen kokapena ebalua dezaten, eta abar... Azken finean, horrek guztiak kultura politikoaren garapenerako eta arazo hauekiko intereserako laguntza ematen du, mundu politikoarekiko inplikazio handiagoa adierazten baita.

Subjektuaren ingurune hurbilak jokabide politikoan duen eraginaren adibide bat hauteskunde-partaidetza izan daiteke. Michigango Unibertsitateko taldeak azpimarratzen zuen boto-jokabidean eragina duten hartze luzeko jarrerekin batera bazeudela hartze laburreko indarrak. Hauteskundeen emaitzekiko interesak edo emaitzei buruzko zalantzagarritasunak partaidetza areagotzen laguntzen dute. Elementu horiek garrantzi handiagoa dute noizean behingo boto-emaileengan, ohiko boto-emaileengan baino (Campbell eta kolaboratzaileak, 1960; De Nardo, 1980).

Boto-erabakiaren eredu arrazionalak ere subjektuaren hurbileko inguruan oinarritzen dira. Eredu horien arabera, botoa bitartekoen —eta xedeen— arteko kalkuluprozesua da, hauteskundeetako emaitzen galeren eta irabazien probabilitateak barne hartzen dituena (Downs, 1957; Aldrich eta Simon, 1986). Boto-portaerarekiko hurbiltze teoriko horietan, subjektuek zenbait arazorekiko dituzten jarrerek eta arazo horiekiko alderdiek hartzen dituzten kokapenek ere garrantzizko rola betetzen dute (Sabucedo, 1984b, 1986).

Testuinguru soziopolitikoari dagokionez, partaidetza politikoari buruzko literaturak hainbat dimentsio garrantzitsu azpimarratzen ditu, besteak beste, *modernizazio-maila* eta *alderdi-sistema.*

Milbrath-ek (1981) modernizazioa honela definitu zuen: egitura soziopolitikoan eta balioetan, industria-garapena dela eta, gertatzen diren aldaketak. Aldaketa nabarmenen artean aipa daitezke, batetik, lehen instituzioen (familia, eliza, eta abarren) eraginaren galera, eta bestetik, komunikazio pertsonal eta pribatu batetik masa-komunikazioaren sistema handiraino gizartea mendean jartzeko izan diren aldaketak. Aldaketa horien ondorioz gizabanako berri bat sortu da, mundu-ikuskera zabalagoa eta kontzientzia politiko handiagoa dituena. Horri dagokionez, mundu politikoarekiko interesa eta partaidetza-maila handiagoa da. Halere, zenbait komunitatetan jarduera politikoaren maila baxua da, hein batean behintzat, modernizazio-fenomenoarengatik azal daitekeena. Primarioagoak diren erreferentzia-taldeei lotuta bizitzeak eta, aldi berean, sistema produktibo ez-komunitarioan bizitzeak bultzatzen du sozialtasunaren ordez pribatutasuna eta kolektibotasunaren ordez indibidualtasuna azpimarratzen dituen munduaren errepresentazioa. Horrela, subjektua bere unibertso partikularrean murgiltzen da, eta eguneroko bizimoduan horren eragin urria duen kanpoko mundu hori baztertu eta ez du kontuan izaten.

Alderdi politikoa, bere funtzionamendua eta balorazioa barne, partaidetza politikoan kontuan izateko beste alor bat da. Mendebaldeko sistema demokratikoetan, alderdi politikoek populazioaren aspirazioak eta eskakizunak bideratzeko eta antolatzeko funtzioa betetzen dute. Horregatik, sistema politiko horren barnean funtsezko tokia betetzen dute. Alderdi politikoek instituzionalki eman izan zaien funtzioa bete dezaten, beharrezkoa da herritarrek haien betebeharretan konfiantza osoa izatea. Bestela, herritarren eta beren ordezkarien arteko urruntzea gertatuko da, zeinak partaidetza politikoan eragin negatiboa izango duen. Horri dagokionez, hauteskundeetako promesak ez-betetze sistematikoak, alderdiak babesten dituzten talde sozialen beharrekiko sentsibilitaterik ezak, oposizioko indar politikoekin hitzarmen eta konpromisoak publikoki ez azaltzeak, zerrenda itxien sistemak eta alderdi politikoetan askotan gertatzen diren antzeko portaerek desenkantua sorrarazten dute, gobernu-era horrekiko errefusatzea ez badute sorrarazten, herritarrei lau urterik behin bakarrik galdetu eta bitartean baztertu egiten baitituzte. Hau da, konstituzioak eta printzipio-adierazpenek biltzen duten herritarren balizko protago-

nismoa urrundu egiten da dinamika politiko errealetik. Bestalde, lidergoaren gaian azaldutako Michels-en "burdina-legeak" azal ditzake efektu horietariko batzuk.

Partaidetza politikorako garrantzitsuak diren ingurune soziopolitikoaren elementuak, nabarmena denez, hemen landutakoak baino gehiago dira. Gizartean nagusi diren balioak, haren tradizioak, justizia sozialeko maila eta abar, zehaztu beharreko alorrak lirateke, errealitate politiko desberdinetan arazo horren eguneko egoera sakonki ulertzeko. Hala ere, pentsatzen dugu arazoari buruz eginiko burutapenak nahikoak direla gure helbururako, hots, portaera politiko hau ulertu eta azaltzeko, eta analisi-maila honek duen nabarmentasuna frogatzeko.

5.6. ONDORIOAK

Kapitulu honi bukaera emateko, partaidetza politikoaren alorraren inguruan zenbait gogoeta egitea egoki iruditzen zaigu. Gogoeta hauek alor honen garrantzia azpimarratzea eta gako batzuk nabarmentzea dute helburu.

Aurreko atalean adierazi dugu partaidetza politikoa funtsezkoa dela gobernusistema demokratikorako. Hori horrela bada, zenbait herrialdetan partaidetza politikoaren indizeak ikustean agertzen zaigun ikuspegia ez da oso baikorra. Hauteskunde-partaidetzan ere —jarduera politikoaren "izarra", dudarik gabe— zenbait komunitatetan ez da zentzuzko maila batera heltzen. Wright-ek (1976) *assenting half* hitza sortu zuen, Estatu Batuetako populazioaren ia % 50ak hauteskundeetan agertzen zuen inhibizio-portaera adierazterako. Zenbait zonalde geografikotan, azken urteetan, maila horietara iristen diren ehunekoak eta handiagoak ere lortu dira. Datu hauek interes psikologiko eta soziologiko soila gainditzen dute eta benetako arazo politikoa islatzen dute, arazo hau ikertzeko, 1963an, Kennedy presidenteak sustaturiko komisioak agerrarazten zuenez.

Hauteskunde-partaidetza baxutik eratortzen diren ondorioak, zenbait mailatan azter daitezke. Lehenik, zalantzan jarri beharko litzateke sistema politikoaren gaitasuna. Izan ere, sistema politikoak, bizitza politikoan herritar guztien partaidetza askea meritu gisa aurkezten badu ere, herritar horien zati adierazgarria ez du kontuan izaten; diskurtso politikoa eliteen diskurtso zuritzaile eta justifikatzaile gisa erabiltzen baita. Bigarrenik, lehen esan bezala, eskubide demokratiko hori ez erabiltzea ez da berdin banatzen populazioaren segmentu guztietan; aitzitik, botere eta presentzia sozial gutxiagoko taldeek dute jarduera horiek gauzatzeko aukera gutxien. Horrek azaltzen duenez, sektore jakin batzuetako herritarrek erabakitzen dute komunitate baten etorkizun politikoa eta ez ideal demokratikoak adierazten duen populazio-multzo osoak. Gure ustez, hemen adieraziriko arrazoiek entitate eta pisu nahikoa dute bizitza politikoaren erantzuleak mobiliza daitezen eta sistema demokratikoaren alderdi ez-desiragarri horrekin bukatzeko estrategiak har ditzaten. Egia da gure iritzia baino jarrera lasaigarriagoak eta baikorragoak ere badirela. Holako iritzien aldekoen arabera, partaidetza baxua ez da arazoa, sistemaren egonkortasunari

eta efikaziari eragiten ez dien heinean. Horren pragmatikoa den planteamendu horri ondoko bi gogoetak egin dakizkioke: lehenik, abstentzio politikoaren arazoa ez dagokie soilik sistemaren egonkortasunari eta efikaziari, bere legitimitateari eta bere sakoneko izaerari baizik ; bigarrenik —eta arrazoinamendu hau kontrako iritzia aldarrikatzen dutenak ari diren errealismo-maila berean kokatzen da—, bizitza politikoarekiko urruntasun hori benetako arazo bihurtzen da bi arrazoirengatik: batetik, xede eta helburuen lorpenean herritarrak ilusionatzeko sistemaren ezgaitasunagatik, eta bestetik, sistemaren jarduerarekiko desengainu eta frustrazioagatik. Edonola ere, ikuspegi etiko eta estetikotik edo ikuspegi pragmatikotik, gure ustez nahikoa motibo bada instantzia politikoek arreta berezia jar dezaten hauteskunde-partaidetzan. Politika formalaren egiturak duen antolakuntza, bi mende ostean, krisialdi sakonean ote dago?

Aurreko arazoa alde batera utzita, partaidetza politiko ez-konbentzionalak ere merezi du hausnarketa. Jarduera politiko mota hori areagotzen ari da nabarmen. Ikerketa askoren emaitzek eta errealitate sozialaren behaketa soilak frogatzen dutenez, herritarren zati handi bat ez da mugatzen lau urterik behin bere iritziak adieraztera, boteretik eskatzen zaionean; aitzitik, jarrera aktiboagoa eta konprometituagoa hartzen ari da. Populazioaren hezkuntza-mailaren areagotzeak, informazioaren barreiatze orokor eta arinari esker gertatzen ari den komunikabide-teknika berrien garapenak, eta abarrek, populazioaren jabetzea eta interes politikoa handitzen dituzte. Horrela, egiten diren politiken protagonista erreala izateko desira agertzen du herritarrak eta ez gonbidatu hutsa izatekoa. Beraz, aurreko garaian nahikoak ziren partaidetza-bide zaharrak zaharkiturik gelditzen dira, nolabait, dinamika sozial berri hau dela eta.

Jarduera hauen balorazio-alorrean ez dugu sartu nahi. Izan ere, arazo konplexu eta neketsua da, eta balorazio horretan juzgatzen diren jokabideez gain, horiek babesten dituzten motibazioak eta taldeak ere ukitzen dira, balorazioa egiten duenaren begikotasun politikoa eta ideologia ere tartean egonik. Halere, azpimarragarria den egitate positibo bat, gutxienez, badela uste dugu. Portaera-mota horiek euren desirak eta aspirazioak aldarrikatzeko aukera ematen diete gizartearen talde adierazgarriei, partaidetza politiko konbentzionalagoak diren bideek egiten ez dutena, horretarako indargabeak direlako. Era berean, jarduera horiek komunitatearen gehiengoa ohartzen ez den zenbait arazorekiko —erakunde politiko nagusien ardura-agendaren zati garrantzitsua ez direlako— sentikor bihurtzeko aukera ere ematen dute. Gutxiengo aktiboen psikologiak (Moscovici eta Faucheaux, 1972; Moscovici eta Nemeth, 1974) argi uzten digu gutxiengoek edozein eragin lortu ahal izateko lehen baldintza dela gutxiengo horiek ikusgai bihurtzea. Jarduera ez-konbentzionalak burutzea, horretarako, bitarteko egokia izan daiteke. Azken finean, portaeramota horri buruz kokapen desberdinetatik egin daitekeen judizioa edozein izanik ere, portaera ez-instituzional eta sistemaren aurkakoa hor dago, askotan, bizitasun demokratikoaren benetako adibide eta bultzatzailea dena.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu partaidetzaren arazoa ezin dela analisi-maila bakar eta huts batetatik ulertu. Kapitulu honen zenbait ataletan adierazi dugunez, arazo horren konplexutasunak eta zabalerak ikuspegi eta orientabide teoriko desberdinak integratzea eskatzen dute. Horrela baino ezin dugu eman partaidetza politikoaren ikuspegi osoa eta ez-partziala. Literaturan aurkituriko emaitzek erne jartzen gaituzte, batetik, gai horrekiko hurbiltze soilegiaren arazoaren aurrean, eta bestetik, testuinguru kultural desberdinetan aldagai bakoitzaren pisua aztertzeko beharraren arazoaren aurrean. Ikerkuntzak kontuan izango balitu bai aztertzen den portaera politiko mota definitzen duen maila egokia, baita portaera-mota horren erantzule diren balizko aldagaien artean dagoen lotura-maila egokia ere, ikuspegi aberatsagoa emango liguke, sistema demokratikorako horren nabarmena den partaidetza politikoaren arazoa interpretatzeko, edo beharrezkoa bada, bertan eragina izateko.

6. Gabezia erlatiboa: injustizia eta ekintza kolektiboari buruzko teoria

6.1. SARRERA

Kapitulu honen helburua da ekintza kolektiboaren psikologia sozialaren eta mugimendu sozialen arteko lotura aztertzea. Gabezia erlatiboaren teoriaren inguruan ari da beraz. Mobilizazio sozialaren dinamikaz arduratzen diren ikerlanei begirakunetxo bat ematen badiegu, berehala konturatuko gara zergatik erabaki dugun gai honi toki berezia eskaintzea. Hain zuzen ere, mobilizazio sozialaren dinamika psikosozialaz arduratzen diren teorien artean, bai Psikologian, bai Soziologian, bai Zientzia Politikoan, ez dago, gabezia erlatiboak besteko ikerketa eta eragina izan duen teoriarik (Bobo, 1988; Crosby, 1976; Dobry, 1986; Eckert eta Willems, 1986; Finkel eta Rule, 1986; Gurney eta Tierney, 1982; Isaac, Mutran eta Stryker, 1980; McAdam eta Fernández, 1990; McCarthy eta Zald, 1977; McPhail, 1971; Muller, 1979; Obershall, 1978; Useem, 1980). Mugimendu sozialek, krisialdiek eta errebolta edo matxinadek nolabaiteko lilura sorrarazten dute. Baina, nola dira posible horrelako gertakizunak? Zergatik hartzen dute parte gizabanako batzuek ekintza kolektiboetan, eta beste batzuek, aldiz, baldintza berberak izanik, ez dute ezer egiten? Zerk motibatzen du jendea parte hartzera edo babestera aldaketa sozialak aldarrikatzen dituzten mugimendu sozialak? Teoria gutxik jaso du aztergai dugun teoria horrek besteko arreta, mobilizazio sozialaren Psikologian eta Soziologian adituen aldetik (McAdam eta Fernandez, 1990). Hirurogeiko hamarraldiaz geroztik, bada, gabezia erlatiboaren teoriak, hein zabal batean, aurreko galderen analisia gidatu izan du, baita ikertzaileak bideratu ere.

Gaur egun, gabezia erlatiboari eta ekintza kolektiboari buruzko bibliografia nahikoa dago. Gure lana mugatuko da alor horretako ikerkuntza teoriko eta enpiriko garrantzitsuen integrazioa aurkeztera. Lehenengoz, gabezia erlatiboaren oinarrian dauden funtsezko ideiak aztertuko ditugu eta, ondoren, kontzeptuaren jatorria zehaztuko dugu. Gero, gabezia erlatibo moten arteko desberdintasunak aurkeztuko ditugu, dagoen bibliografia antolatzeko baliagarriak izango zaizkigulakoan.

6.2. GABEZIA ERLATIBOAREN TEORIA

Nola azaldu Txinako 1989ko maiatzaren herri-matxinada? Edo Parisko 1968ko maiatzeko ikasle eta langileen altxamendua? Edo Euskal Herriko 70eko hamarkadaren bukaerako eta 80koaren hasierako mobilizazio erraldoiak?

Horrelako gertakizunetan, ondoko elementu komunak agertu izan dira, gabezia erlatiboaren (GE) funtsezko elementuak direnak:

1. GE ezinegon, injustizia edo frustraziozko sentimendua da (Cook, Crosby & Hennigan, 1977).
2. Sentimendu hori ez da indarrean dauden baldintza objektiboen isla hutsa, zenbait erkaketa sozialen arabera sortzen baita (Crosby, 1976).
3. Sentimendu horrek gizabanakoak prestatzen ditu matxinada edo protestarako (Martin eta Murray, 1984; Taylor eta Moghaddam, 1987).

Beste era batera esanik, GEren teoriaren arabera, jendeak ez du protesta egiten "objektiboki" gabetuta dagoelako soilik; aitzitik, erkatzen den beste pertsona, talde edo egoera batzuekiko erlatiboki gabetuta "sentitzen" delako matxinatzen da jendea.

Psikologia sozialean erdiguneko tokia betetzen duenez gero, GE hainbat ikuspegi teorikorekin erlazionatuta dago, besteak beste, elkartruke-teoria (Homans, 1974), ekitate-teoria (Walster, Walster, eta Berscheid, 1978), erkatze sozialaren teoria (Festinger, 1954; Suls eta Miller, 1977), frustrazio/agresioaren hipotesia (Dolard, Doob, Miller, Mowrer eta Sears, 1939), mundu justuko usteen teoria (Lerner, 1982) eta erreferentzia-taldearen teoriarekin (Merton eta Kitt, 1968). Are gehiago, GEren teoriak alor askotako aplikazioak egin ditu: erakunde-portaera eta enplegatuen asetze-maila alorretatik (DeCarufel, 1986; Martin, 1981) estresa eta gogamen-osasun alorretaraino (Brunk eta Janssen, 1992), bere funtsezko aplikazio-gunea izan den alor soziopolitikoaz gain (Krahn eta Harrison, 1992).

GE kontzeptuaren jatorria Stouffer, Suchman, DeVinney, Star eta Williams-en (1949) ikerketan dago, soldadu amerikarrekin Bigarren Mundu Gerran buruturikoa. Ikerketa horretan espero ez ziren emaitzen interpretazioak sortu zuen kontzeptua, hain zuzen. Emaitza horiek adierazten zuten, armada barneko maila-igoerarako posibilitateari dagokionez, armada-poliziako soldaduak asetuago zeudela hegazkineko pilotuak baino, nahiz eta igotzeko posibilitatea altuagoa izan azken horiengan. Autoreen arabera, emaitza horiek erkaketa sozialean ageri den soslai ezagunaren arabera azal zitezkeen. Armada-poliziako soldaduek maila-igoerarik ez zuten kideekin erkatzeko aukera gehiago zutenez, asetze erlatiboa sentitzen zuten. Aireko armadan, berriz, igotzeko aukerarik ez zuen gizabanakoa erkatzen zen maila-igoera lortua zuen soldadu-multzo handi batekin, eta ondorioz, era ez-justuan tratatua zela sentitzen zuen.

Gaur egunean, oraindik bere garrantziari eusten dion idazlan batean, Merton eta Kitt-ek (1968) kontzeptu honen analisi teorikoa aurkeztu zuten, "Soldadu Amerikarraren" inguruko ikerketetan landua izan zen moduan. Autore horiek frogatu zutenez, Stouffer eta kolaboratzaileek (1949) GE ingurune desberdinetan erabili bazuten ere, kasu guztietan kontzeptu horrek ondoko funtzio teoriko bera betetzen zuen: soldaduen portaeran, sentimenduetan edo jarreretan behatzen ziren aldakortasunak (mendeko aldagaia) azaltzea haien statusaren arabera (aldagai askea). Halere, ikerketa horietan GE ez zen inoiz neurtua izan. Areago, aldagai hori inferitu egiten zen zenbait behaketa azaltzeko. GEk, beraz, Festinger-en (1957) teorian "disonantzia kognitiboak" duen status kontzeptualaren antzekoa du. Era berean, Merton eta Kitt-en (1968) arabera, Stouffer eta kolaboratzaileek (1949) lorturiko emaitzak ez ziren espero sen onaren aurkakoak zirelako (Moscovici eta Hewstone, 1984). Sarritan, suposatu egiten da gizabanakoen ebaluazioak eta egitate objektiboak bat datozela; horrela ondorioztatzen da jendea zoriontsuagoa dela igotzeko aukera urria duenean igotzeko aukera handia duenean baino. Aurreko korrespondentzia hori enpirikoki frogatu ahal izanez gero, gabezia erlatiboaren hipotesia ez litzateke beharrezkoa izango. Hain zuzen ere, soldadu amerikarrek egoera beste era batean definitzen zutela ondorioztatzen zen ikerketa hartatik. Stouffer eta kideek, "definizio" horiek deskribatze soilera mugatu baino, harago joan nahi izan zuten aurkikuntza hori azaldu zutelarik. Horra hor, beraz, Merton eta Kitt-ek (1968) diotenez, ikerketa enpirikoak garapen teorikoa sustatzen duen adibide nabaria.

6.3. GABEZIA ERLATIBO MOTAK

Ikerkuntza klasikoek bi motatako GE bereizten dituzte: gabezia erlatibo *egoista* eta gabezia erlatibo *fraternoa* edo *anaitasunezkoa* (Dubé eta Guimond, 1986; Petta eta Walker, 1992; Runciman, 1966; Smith eta Gaskell, 1990). Bereizkuntza hori proposatzea egokia bada ere (Taylor, Peplau eta Sears, 1994), kapitulu honetan, gaur egun arte buruturiko ikerlan gehienak hiru GE motaren inguruan ari izan direla frogatuko dugu, prozesu psikologiko desberdinekin erlazionatuta. GEren hiru kontzepzio horiek, funtsean, GE mota bakoitzari lotzen zaion erkaketa-izaeraren arabera bereiz daitezke. Alde batetik, *pertsona barneko* GEz hitz egiten dugu, nork bere buruarekiko egin ditzakeen erkaketak lantzen dituzten ikerlanak deskribatzeko. Adibidez, pertsona batek bere gaurko kokapena lehenago zuenarekin erkatuz ebalua dezake eta, ondorioz, asegabetasun erlatiboa sentitu. Norberak iguripenak edo aspirazioak erkaketa-estandar gisa erabiltzea da *pertsona barneko* GE adierazteko egoera egokia. Aitzitik, erkaketa sozialarekin ari garen kasu guztietan, norbera beste batekiko erkaketetan, *pertsona arteko* GEri gagozkio. Egoera hori adierazteko etiketa hori zorrotzagoa da Runciman-ek (1966) proposaturiko GE egoista baino. Gizabanako batek bere talde sozialari dagokion pertsona bat erkaketa-objektu gisa hartzen duenean, *pertsona arteko talde barneko* GEz ari gara. Erkatzeko hartutako gizabanakoa beste talde bati baldin badagokio, *pertsona arteko talde arteko* GEz

ari gara. Azkenik, talde arteko erkaketek suposatzen dituzten ezinegon edo injustiziazko sentimendu guztiak, hau da, nor bere taldeko kide izatearen (endotaldea) eta beste talde bateko kide izatearen (exotaldea) arteko erkaketek suposatzen dituzten egoera guztiak *talde arteko* GEri dagozkio, berriro ere, Runciman-ek (1966) proposaturiko GE fraternoa baino egokiagoa.

Hala ere, tipologia sakonagoa proposatzea ere posible liteke, esate baterako, erkaketen denbora-testuingurua edo unea kontuan hartuz GE mota bakoitzarekiko (ikus Levine eta Moreland, 1987). Badira, baina, aztergai izan ez diren zenbait erkaketa sozial. Horregatik, gure eztabaida teorikoa funtsean arestian aipaturiko GEren hiru mota garrantzitsuetara mugatuko da. Bukatzeko, hala ere, GE mota berri bat aipatuko dugu, ikerkuntzak hartu berri duena: *besteen GE,* alegia.

6.3.1. Pertsona barneko gabezia erlatiboa: iraultzen psikologia

Pertsona barneko GEri buruzko ikerketaren oinarria Alexis de Tocquevillerengan agertzen da, 1856. urtean Frantziako Iraultzari buruz argitaratutako analisian: *L'ancien régime et la révolution*. Jadanik idazlan honetan, Tocqueville-k aurkeztu zuen denboraren poderioz GEren teoriaren garapenerako oinarria izango zen paradoxa.

Tocqueville-ren arabera, baldintza ekonomiko objektiboak eta subjektiboak ez ziren horren erraz elkartzen, zeren, gizakien zortea hobetzen denean, atsekabemailarik handiena ere gertatzen baita. «Frantzian, deskribatu berri dudan oparotasuna garatzen den arabera» idatzi zuen Tocqueville-k, «[gizakien] izpirituak egongaitz eta sosegu gabeago agertzen dira; ezinegon publikoa areagotzen delarik» (276. or.). Ikuspuntu hori garatu zuen autoreak, ondokoa azpimarratuz: «Iraultzarako gunerik garrantzitsuena izan ziren Frantziako zonaldeek zuten aurrerapen handiena, hain zuzen ere; horregatik esan liteke frantziarrek, zenbat eta egoera hobea izan, orduan eta ezinegon handiagoa sentitzen dutela» (276. eta 277. or.).

Frantziako Iraultza ez da, beraz, txirotasun ekonomikoaren edo bizi-baldintzen hondaketaren ondorio naturala. Aitzitik, iraultza goraldi ekonomikoaren garaian gertatu zen, egoerak hobera egiten zuen garaian. Stouffer eta kolaboratzaileek aurkituriko paradoxaren eta Tocqueville-k aurkiturikoaren arteko berdintasuna nabaria da. Izan ere, Tocqueville-k hauxe ondorioztatu zuen: «Honelako ikuspegia txundigarria da; historia osoa horren antzeko espektakuloz bete-beterik baitago. Iraultza ez da beti agertzen egoera gaiztotik gaiztoagora ari denean. Iraultza maizago gertatzen da, kexu eta sentitu gabe, lege gogorrenak jasan izan dituen herri batek, biolentzia erabiliz, errefusatzen dituenean zamak arintzen diren bezain laster, alegia». (277. or.).

Ikusiko dugunez, 120 urte ondoren, psikologo sozialek laborategiko lanen bidez frogatu egin dituzte Tocqueville-k adieraziriko behaketa horiek, bai eta gertatzen

direneko modalitateak ere bai. Halere, aipa dezagun Davies-i (1971; 1974) zor diogula Tocqueville-ren esperientziaren ingurura aditasuna erakartzea.

a. Davies-en Iraultzen Teoria

Oso eragin handia izan duen teorian, Davies-ek (1971) iraultzen azalpen psikologikoa proposatu zuen, Marx eta Tocqueville-ren idazkiak laburbilduz. Marx-engandik honako hau azpimarratu zuen: langile-klasearen egoeraren hondatze progresibotik helduko zen, atzera egiterik izango ez zuen iraultza. Hala ere, Marx-ek horrekiko antitetikoa zen teoria bat proposatu zuela ohartarazi zuen Davies-ek (1971). Teoria horren arabera, iraultza orokorren aurrebaldintza ez zen miseria ekonomiko progresiboa izango, langileen baldintza ekonomikoen hobekuntza baizik, eta horrela, kapitalisten bizi-baldintzekin *erkatuz,* atsekabea sortuko zen.

Davies-ek (1971) bi autoreen arteko antzekotasuna nabarmendu zuen, alegia, Marx-en gabezia erlatiboarekiko kokapena eta Tocqueville-ren Frantziako Iraultzaren azterketaren ondorioa. Beraz, Davis-ek azterketa desberdin horien sintesi berria aurkeztu zuen honako hau iradoki zuenean: «Iraultzek gertatzeko probabilitate handiagoa dute garapen ekonomiko eta sozialeko garai luze baten ondoren, aldaketa malkarren aldi laburra agertzen denean» (136. or.).

Davies-en (1971) arabera, masa-erantzun horiek gizabanakoen psikologiatik uler litezke. Aurrerapen ekonomikoaren garaietan, jendeak oso iguripen edo aspirazio altuak ditu. Jendeak bere desira guztiak asetuak izan daitezen espero du. Bat-bateko depresio ekonomikoa agertzen denean, jendearen iguripenaren eta baldintza objektiboaren arteko desberdintasuna jasanezina da eta, ondorioz, jendea matxinatu egiten da. Baldintza ekonomiko eta sozialen aldaketaren garrantzia, beraz, gizabanakoen tentuan duen eraginean kokatzen da. Horrela, Davies-ek garatzen den ezinegon-sentimenduaren rola azpimarratzen zuen; ezinegonak, gizartean oso larria eta orokortua izatera heltzen denean, biolentziaren bidezko ekintzan aurkitzen du bere ateraldia. Bere lehen idazkietan Davies-ek (1971) ez zuen esplizituki erabiltzen gabezia erlatiboaren kontzeptua. Gurr-ek (1970) aldiz, hitz hori erabili zuen, indarkeria politikoaren teoriaren kontzepturik garrantzitsuena bihurtu baitzen.

b. Gurr-en Indarkeria Politikoaren Teoria

Gurr-ek (1979, 1971) indarkeria politikoari buruz egindako teoria Davies-ena baino konplexuagoa da. Gurr-ek (1970) 50 aldagairen rola azpimarratu zuen bere teorian. Aldagai horien artean, esate baterako, erregimenaren errepresio-rola eta talde disidenteen euskarri instituzionalak zeuden. Hala ere, autore horren ikuspegia Davies-enaren antzekoa da, faktore psikologikoei eman zien garrantziarengatik, hain zuzen ere. Gurr-ek (1971) teoriaren mamia honako hitz hauetan laburbildu zuen:

> Oinarrizko proposamen teorikoa aldagai psikologiko bat [da], gabezia erlatiboa alegia, borroka edo protesta-mota guztien oinarrizko aurrebaldintza dena, eta zenbat eta gabezia handiagoa eta orokortuagoa izan populazio bateko kideengan, orduan eta garrantzitsuagoa izango da era bateko ala besteko protesta (294. or.).

Gurr-ek berak esan zuenez, Berkowitz-en (1972) ikerlanetan oinarritu zen borroka kolektiboak azaltzeko. Frustrazio/agresio erlazioa bihurtzen zen gabezia erlatibo/indarkeria politiko erlazio. Aktoreek beren ustez merezi dutenaren eta lor dezaketenaren arteko aldearen hautemate gisa hartzen zuen gabezia erlatiboa Gurr-ek (Gurr, 1971).

Ikus daitekeenez, Gurr eta Davies-en ustez, gabezia ez zen erkaketa sozial edo talde arteko erkaketetan oinarritzen. Autore horien arabera, erkaketarik egokienak *pertsona barnekoak* ziren (Levine eta Moreland, 1987); eta erkaketa horiek gizabanakoaren oraingo egoeraren eta iraganeko (edo etorkizuneko) egoeren arteko aldea suposatzen dute, edo areago oraindik, barneko erkatze-estandarren arteko aldea (iguripenak, aspirazioak, "merezimendu-sentimendua").

c) Pertsona barneko gabezia erlatiboaren oinarri enpirikoa

Pertsona barneko GEren teoriaren baliozkotasuna bi ikerketa-motatan frogatu da: 1) *Ikerketa estruktural*etan, gizarte-mailako edo talde-mailako gabezia ekonomikoaren indizeak (langabezia, inflazioa, eta abar) gizarte edo talde horretan dauden (ala ez) protestekin erlazionatzen baitira. 2) *Gizabanakoaren mailako ikerket*etan, gabezia pertsonaleko eta ezinegonaren neurriak erlazionatzen dira jarrera- eta portaera-mailako militantismorako neurriekin. Egitura-ikerketek herrialde bateko langabezia-tasen eta protestaren intentsitate-indizeen arteko erlazio nabariak aurkitu dituzte, nahiz eta salbuespenak ere eman izan diren (adibidez, Frank eta Kelly, 1977). Ikerketa hauekin batera, gatazka sozialen jatorrian gabezia pertsonal *subjektiboa*k rol nabaria jokatzen duela ondorioztatu du ikertzaile askok (ikus Davies, 1971; Feierabend eta Feierabend, 1966; Gurr, 1970, 1971). Beste batzuek, berriz, datu berak erabili dituzte gabezia pertsonal *objektiboa*ren forma desberdinek iraultzak azal ditzaketela frogatzeko (ikus Boudon, 1969; Brym, 1980; Musgrove, 1969).

Izan ere, aipatutako ikerketek ez digute inolako aukerarik ematen mota horretako erlazioak ezagutzeko, hots, ea protesta egiten dutenak diren lan-arazoarekin erlazionatuenak, eta are gutxiago, ea protesta egiten dutenen egoera pertsonala ezinegonik handienekoa den. Beharrezkoa zaie, beraz, erlazio hori gizarte- edo talde-mailako joeretatik *inferitzea.*

Ikus dezagun, bada, gabezia erlatiboaren garrantzia frogatzen zuen Gurr-en (1971) ikerketa bat. Erabiliriko metodologia egunkari edo aldizkarien azterketan oinarritzen zen, hainbat ageriko gatazka sozialez dokumentatzeko asmoz. Bilduriko datuak, hau da, gatazken iraupena edo intentsitatea, izan ziren mendeko

aldagaiak. Aldagai horiek gatazkak zituzten gizarteen zenbait ezaugarrirekin erlazionatu ziren. Ezaugarri horiek aldagai askeak izan ziren. Gurr-en arabera, gabezia erlatiboa izan zen —aldagai psikologikoa— aldagai askeen artean garrantzitsuena. Gabezia erlatiboa diskriminazio ekonomikoaren eta horren gisako aldagaien bitartez neurtu zuen eta honelako egituratu gabeko definizioak erabili zituen: «kokapen ekonomiko garaitik talde sozialek duten esklusio sistematikoa» edo «diskriminazio politikoa» edo «ikaskuntzarako aukera-gabezia» (Gurr, 1971:29). Crosby-k (1982) zioenez, aldagai horiek gabezia ekonomiko objektiboaren edo gabezia estrukturalaren neurbideak dira, eta ez gabezia subjektibo edo psikologikoarenak.

Gurr-ek (1971) iradokitzen zuenez, "inferentziaz" ondokoa uler daiteke: gabezia objektiboaren egoera horiek gabezia larria "sortzen" dutela subjektu-kopuru handi batengan. Argudio horrek aldagai psikologikoen garrantziari uko egiten dio, autorearen helburu esplizituaren aurka eginez. Overholt-ek (1977) argudiatu duenez, honelako emaitzek «ez dute ezer frogatzen frustrazio/agresio hipotesiaren inguruan, zeren aldagai soziologikoen eta hipotesi psikologikoaren arteko harremanak inolaz ere ez baitira ezarriak izan. Aitzitik, honelako emaitzak bat datoz eredu soziologiko hutsekin (...) aldagai psikologikoei erabateko uko egiten baitiete» (311. or.).

Gurr-en (1971) ikerketak, beraz, desegokia dirudi protesta sozialaren azalpen psikologikoa baieztatzeko. Gizabanakoaren mailako ikerketek askoz interes garbiago adierazi dute. Hain zuzen ere, ikerketa esperimental ugariek ezinegonari lotuta dauden pertsona arteko erkaketak zehazteko aukera eman dute (Ikus deCarufel, 1979; deCarufel eta Schopler, 1979; Folger, 1977). Esate baterako, Folger-ek (1977) frogatu zuen ezen langilez osatutako lagin batean emaniko tratamenduan igotzeko joera erabiltzen bazen eta denborarekin hobetzen bazen, egoera horrek ezinegona larritzen zuela, Tocqueville-k proposaturiko paradoxa baieztatuz.

Ikus dezagun bada Folger-en (1977) ikerketa, esperientzia tipikoa eta maila teoriko eta metodologikoan oso aberatsa dena. Ikerketaren prozedura honela egin zen: ausazko banaketa egin ostean, subjektu esperimentalek —ikasle gazteek— langilearen rola bete behar zuten, eta horretarako, posta-zerbitzuko gutunak sailkatu behar zituzten. Era berean, beste ikasle batek —ausazko banaketaz hau ere— jabearen edo zerbitzu-buruaren rola hartuko zuela jakinarazten zitzaien subjektuei. Jabe hori gezurrezkoa zen arren, haren lana soldata erabakitzea —bai langileena bai berea— izango zela azpimarratzen zitzaien langileei. Aurreko egoera hori "errealistagoa" egiteko, gainera, langile-subjektuei esaten zitzaien jabeak langileez eta haien errendimenduaz ezer ez zekiela (zeren honelako zerbitzuetan, askotan, hori gertatzen baitzen!).

Manipulaturiko baldintzei dagokienez, lehen baldintza batean esaten zen —baldintza ez-bidezkoan— langile-subjektuek jasotako diru osoa (0,80 dolar kanadar) jabeak beretzat hartzen zuenaren *erdia* (1,60 dolar) zela. Testuinguru

horretan, ondoko bi aldagai askeak ezartzen ziren: egonkor vs aldakor eta ahotsa vs isiltasuna.

Lehenengo, egoera ez-justua jasotzeko modua aldatu egiten zen, langile-subjektuak zein baldintzatan zeuden: baldintza *egonkor*rean (hamar alditan beti tratamendu bera jasotzen zuten) ala baldintza *aldakor*rean (hamar alditan tratamendua denboran zehar *hobetzen* zen). Beraz, baldintza egonkorrean, langile-subjektuek 0,08na dolar kanadar jasotzen zuten hamar aldiz, guztira 0,80 dolar kanadar. Baldintza aldakorrean, aldiz, langile-subjektuek 0,02, 0,03, 0,06, 0,08, 0,08, 0,09, 0,10, 0,11, 0,11 eta 0,12 dolar kanadar jasotzen zuten aldi bakoitzean eta guztira 0,80 dolar kanadar ere.

Bigarren aldagai askea ordainketa ostean ezartzen zen. Aldagai hau Hirschman-ek (1970) proposaturiko "ahotsa" kontzeptuan oinarritzen zen eta Tajfel-ek (1976) kontzeptu horrek talde arteko harremanen teoriarekiko dituen inplikazioak aztertu ditu. Aurreko aldagaien baldintza bakoitzeko subjektuen erdiari "ahozko gutxiengo" izateko aukera eman zitzaion, jabeari soldata egokia eta bidezkoa zehazteko aukera emanez. Subjektuen beste erdiak ez zuen aukera bera izan, "isiltasuna" baldintzapean egonik ("ahotsa" baldintzari oposatuz).

Emaitzek aldagai aske bien arteko elkarrekintza zegoela frogatu zuten. "Isiltasuna" baldintzan, subjektuak asetuago zeuden tratamendua hobetu ahala. "Ahotsa" baldintzan, aldiz, tratamendu aldakorrean zeuden subjektuek ezinegon handiagoa zuten tratamendu egonkorreko subjektuek baino. Beste era batera esanik, tratamenduaren hobetzea zela eta, eskakizun legitimo baten adierazpenak ("ahotsa" baldintza) ezinegon handiagoa sorrarazten zuen, jarraian, tratamenduaren benetako hobekuntza zegoenean, tratamenduak bere hartan zirauenean baino.

Baina, zergatik gertatzen da hau? Dirudienez, Tocqueville-ek (1856/1967) idatzi zuenez: «Apalki eta halabeharrez pairatuko litzatekeen kalte bat, jasanezina iruditzen zaie kalte horretatik aldegiteko asmoa dutenei» (278. or.). Folger-en (1977; 1986) arabera, ahotsa-hobetze baldintzak tratamendu justuaren itxaropena sustatzen zuen subjektuengan, hau da, iguripenaren eta errealitatearen arteko desberdintasuna sorrarazten du. Hain zuzen ere, baldintza horretan, subjektuek tratamenduaren hobekuntza har dezakete, euren eskakizunaren legitimitatearen egiaztatze gisa. Horregatik, subjektuei gero eta ezinegon handiagoa sorraraziko zien honakoa jakiteak: diru-igoerek urritzen ez zutela jabearen alde eman behar zuten 0,80 dolarreko baliabide-banaketaren ekitaterik eza.

Ikerketa horrek eta deCarufel-enenek (1979; deCarufel eta Schopler, 1979) pertsona barneko GEren teoriaren oinarrian dauden zenbait printzipio baieztatzen zuten. Gizabanakoaren gabezia-sentimendua ez da egoera objektiboaren araberakoa soilik. Zenbait erkaketa "dinamikoren" pean dago, ordea; hau da, gizabanakoaren oraingo eta iraganeko egoeren —edo etorkizuneko egoeren— eta induzituak diren (ala ez) aspirazio legitimoen arteko erkaketen pean dago.

Pertsona barneko GE, beraz, aldagai psikologiko garrantzitsua da talde sozialen arteko harremanei dagokienez, urritasun ekonomikoen efektuak argitzeko gai baita (Krahn eta Harrison, 1992). Hala ere, ikerketa hauen emaitzak ez dira horren sinesgarriak pertsona barneko GEren eta ekintza kolektiboetan partaidetzaren arteko erlazioari dagokionez. Hainbat ikerketak hipotesi hori baieztatu badute ere (Abeles, 1976; Bowen eta kolaboratzaileak, 1968; Bwy, 1971; Caplan eta Paige, 1968; Crawford eta Naditch, 1970; Groffman eta Muller, 1973; Sears eta McConahay, 1970), beste hainbatek ez du hipotesia babestu (Arnove, 1971; Barnes eta Kaase, 1979; Geschewnder eta Geschwender, 1973; Muller, 1972; Portes, 1971).

Emaitza kontrajarri horiek beste erkaketa batzuk egon litezkeela adierazten dute, esate baterako, besteekiko erkaketak, protesta soziala azaltzeko egokiagoak direnak. Austin, McGinn eta Susmilch-ek (1980) arazo honi ekin diote eta pertsona barneko eta pertsona arteko erkaketen garrantzi erlatiboa alderatu egin dute injustizia eta ezinegon-sentimenduen mugatzaile gisa. Emaitzen arabera, bestearekin eginiko erkaketek, oro har, eragin handiagoa dute eta pertsona arteko GEren garrantzia iradokitzen digute.

6.3.2. Pertsona arteko gabezia erlatiboa: psikologia indibidualista

Pertsona arteko GE norberaren egoeraren eta beste pertsona baten egoeraren artean —eskuarki antzekoa— eginiko erkaketa desabantailatsuaren ondoren sentitzen den ezinegon edo injustizia-sentimenduari dagokio (Martin eta Murray, 1983). Definizio horrek erkaketa sozialaren garrantzia azpimarratzen du ezinegon edo injustizia-sentimenduaren sorreran. Hala ere, garatutako gabezia-ereduek (Crosby, 1976, 1982; Cook, Crosby eta Hennigan, 1977; Davis, 1959; Gurr, 1970; Runciman, 1966; Williams, 1975) ez dituzte azaltzen sentimendu horren sorrerarako beharrezkoak diren faktore guztiak. Ondoren, eredu berriagoa eta sakonagoa aurkeztuko dugu, Crosby-k sortutakoa (Crosby, 1976, 1982; Cook, Crosby eta Hennigan, 1977). Eredu honen abantaila, aurreko ereduak integratzeaz gain, gabezia erlatiboa sortzeko beharrezkoak eta nahikoak diren beste baldintza batzuk ere iradokitzea da.

a. Crosby-ren pertsona arteko GEren eredua

Crosby-ren (1976) ereduak proposatzen ditu gabezia erlatiboaren aldez aurrekoak diren ondoko bost baldintzak: 1) X nahi izatea; 2) X duen norbaitekin erkatzea; 3) X-arekiko eskubidea izatea; 4) X lortzerik badagoela sinestea, eta azkenik, 5) X ez izateaz erantzule ez sentitzea. Crosby eta bere kolaboratzaileek hainbat ikerketa burutu dituzte proposaturiko eredua baieztatzeko asmoz (Bernstein eta Crosby, 1980; Crosby, 1982; Crosby, Golding eta Resnick, 1983; Prentice eta Crosby, 1987). Hala ere, ikasketa horien emaitzek (Crosby, Golding eta Resnick 1983) ez dute bermatzen eredua bere osotasunean. Alain-en (1989) arabera, emaitza horiek arazo metodologikoei egotz dakizkieke, eta, horregatik, beste ikerketa

berri bati ekin izan zaio, orain arte proposaturiko gabezia-ereduen egokitasuna ebaluatzeko asmoz. Ikerketa hori langileen lan-ongizatearen ingurukoa da, hau da, gizonezkoak eta emakumezkoak taldekatzen dituzten enpleguetan ari diren gizonezkoen eta emakumezkoen lan-ongizatea landu da: eskola-irakasleak, saltzaileak eta zerbitzariak. Emaitzetan ez da genero edo enpleguetan desberdintasunik egon. Bestalde, gabezia erlatiboaren ereduen arteko erkaketa sistematikoek adierazi dutenez, Crosby-ren (1976) ereduaren aurresate-boterea beste ereduena baino handiagoa da pertsona arteko gabezia erlatiboan. Hain zuzen ere, emaitzek ez dituzte beste ereduak gaitzesten; baina Crosby-ren (1976) ereduak azaldu du lan-ongizatearen bariantzaren proportziorik handiena, % 59, hain zuzen. Azkenik, gogora dezagun Sweeney, McFarlin eta Inderriden-ek (1990) buruturiko ikerketa-sail batek ere baieztatu duela Crosby-ren ereduaren egokitasuna.

Crosby-k (1976) aurkezturiko ereduak, pertsona arteko GEren aurreko baldintzez gain, ondorioak ere hartzen ditu bere barnean. Crosby-ren arabera, pertsona arteko GEk portaera kolektiboak edo indibidualak sorraraz ditzake. Portaera horiek garatzeko ondoko bitarteko aldagaiak kontuan izan behar dira: barne- edo kanpo-punizioarekiko gizabanakoaren joera, pertsonaren kontrol-maila eta gizabanakoa injustuki tratatua deneko egoeretan aldaketek ekartzen dituzten ondorioak. Adibidez, aldaketarako aukerak garrantzitsuak direnean, aldaketara zuzenduriko jarduerek igoera indibiduala izango dute helburu, egoera kontrolpean duten subjektu barne-punitiboen artean, eta aldaketa soziala dute helburu, egoera bere kontrolpean duten subjektu kanpo-punitiboen artean.

Pertsona arteko GEren eta ekintza kolektiboaren arteko erlazioak arreta nabaria sustatu du ikertzaileen artean. Askok, aurreko erlazio hori zalantzan jartzeaz gain, ekintza kolektiboaren beste mugatzaile batzuk proposatu dituzte. Ondoren, ekintza kolektiboa aurreikusteko erlazio honen egokitasuna aztertuko da AEBn eta Quebec-en, protesta-mugimenduen inguruko ikerlanen ildotik.

b. Pertsona arteko GE eta protesta soziala AEBn

Pertsona arteko GEk inolako eraginik ote du ekintza kolektiboarekiko? Aldaketa sozialak aldarrikatzeko talde sozial bateko kideak motibatzeko gai den faktorea ote da? Psikologo askok baietza iradoki egin du, eta Crosby-ren (1976) eredua tradizio horretan kokatzen da. Hain zuzen ere, AEBko mobilizazio erradikalak honela azaldu izan dira askotan (ikus Allen, 1970; Berkowitz, 1972; Ross eta McMillen, 1973). Hemen, portaera aztertzen da psikologia indibidualistaren ikuspegitik. Lehenengo eta behin, gizabanakoei mobilitate sozialerako desira egozten zaie, eta mobilitate hori maila indibidualean burutzerik ez dagoenean, jendea taldeprozesu baten arabera saiatzen da burutzen.

Horrela, Berkowitz-ek (1972) baieztatu zuenez, AEBko beltzak oso arduratzen ziren beste beltzekin erkatzen ziren moduaz, ondoren, pertsona arteko eta talde barneko gabezia horrek mobilizazioa sustatuko baitzuen. Beltzen protesta

euren egoera ekonomikoa hobetu zenean gertatu zen, euren iguripenen hazkuntza erraldoia suposatu zuen hobekuntza. Protestan aktiboenak ikasketa-maila altuagoko beltzak izatea ere bada tesi honen euskarria. Izan ere, autorearen hitzetan: «Hezkuntzak nabari lagundu dio gure gizartearen atseginak diren plazerrekiko irrika esnatzeari, eta atsegin horiek lortzeko itxaropena ere areagotu egin du. Itxaropen horiek asetzeko ezintasuna frustrazio bilakatu izan da» (Berkowitz, 1972:83). Ikerketa gutxik, hala ere, frogatu izan ditu hipotesi horiek (Billig, 1976; Dubé eta Guimond, 1986; Taylor eta Moghaddam, 1987). Antzera gertatzen da Quebec-eko mobilizazio sozialarekin.

c. Nazionalismoa eta protesta soziala Quebec-en: GE arazoa?

Quebec-eko eta AEBko gizarteak alderatzeko asmorik gabe, gogoratu behar da 60ko hamarraldian Quebec-ek ere protesta eta biolentzia politikoa izan duela. Koka dezagun, bada, testuinguru sozial hori jazo diren gertakizunetan GEren rola aztertzeko.

Jean Lesage, 1960an, Quebec-eko lehen ministro hautatzearekin batera hasiera eman zitzaion oso garrantzitsu izan zen erreforma bati, "iraultza lasaia" izendatua izan denari, hain zuzen. Etiketa horrek zerikusi handiagoa du bigarren hitzarekin —zenbait aldaketa lortzeko atzerapenarekin— aldaketa horien esanahi "iraultzailearekin" baino. Garai horretan, Quebec-eko nazionalismoa sortu zen bere eite modernoan, (Moniere, 1977). Berreste nazionalerako mugimendu aurrerakoia izan zen, bi helburutara zuzendua: alde batetik, Quebec-ek (Kanadatik) politikoki independentea izateko behar duen botere politikoak areagotzera, eta bestetik, hizkuntza frantsesaren biziraupena bermatzera eta Quebec-eko kulturaren garapenari eustera. Hirurogeiko hamarraldiko eslogan politikoek ("Gure etxeko jabe" (Rene Levesque), "Berdintasuna edo Independentzia" (Daniel Johnson) eta "Quebec-ek badaki egiten" (J.-J. Bertrand)) oso ondo adierazten zuten sortzen ari zen testuinguru berria. Izan ere, mugimendu independentistak sortu ziren, Partidu Quebecois esaterako, 1976an demokratikoki hautetsia izan zena, bai Quebec probintziako gobernurako, bai Quebec-eko subiranotasuna erdiesteko proiektu gisa.

Partidu Quebecois-ek proposatu zuen subiranotasuna ez onartzea, erreferendum baten bitartekotzaz ez bazen egiten. 1980ko maiatzean, Partidu Quebecois-en gobernuak hauteskunde-promesari eutsi egin zion, eta herritarrei eskatu zien, erreferendumaren bitartez, Quebec-eko etorkizun konstituzionalarekiko iritzia adieraz zezaten. Subiranotasunaren aldeko iritzia galtzaile atera zen, boto guztien % 40,5 lortuta (azken urteetako erreferendumean boto guztien % 49ra heldu baita). Hala ere, mugimendu nazionalistak eta subiranotasunaren aldekoak bere hartan jarraitu izan dute 1960tik gaurdaino, Quebec-eko indar politiko garrantzitsuenetariko gisa. Zerk motibatzen du konpromiso independentista? Quebec-eko zein populazio-kategoriak bermatzen du mugimendu nazionalista eta zergatik? Pertsona arteko GE garrantzitsua ote da aldagai adierazkor gisa?

GE kontzeptuarekin bat eginik, ikerketek frogatu izan dute Quebec-eko mugimendu nazionalistaren euskarririk garrantzitsuenak ez datozela langile-klasetik edo ekonomikoki gabetuak diren kategoria sozialetatik, segmentu eskolatuenetatik baizik (Hamilton eta Pinard, 1976; Pinard eta Hamilton, 1989). Guindon-en arabera (1977), Quebec-eko frantses-hiztunak eskala sozialean igo egin dira, baina kokapen altuagoetarako joera dute eta frustratuta sentitzen dira lortu ez dutelako. Azalpen horretatik eta pertsona arteko GEren kontzeptutik erator daitezkeenak, beraz, antzekoak dira.

Hipotesi hau frogatzeko asmoz, Guindon, Cuneo eta Curtis-ek (1974) frankofonoen ongizate pertsonala neurtu zuten, oraingo bizimoduari eta etorkizunean aurreikusten zutenari dagokienez. Ez zuten inolako erlazio esanguratsurik aurkitu galdera hauei emaniko erantzunen eta Quebec-eko subiranotasun politikoari buruzko jarreren artean. Ildo beretik, Gingras-ek (1979) aurkitu zuenez, gizabanakoek zituzten finantza-egoerek eta eskubidez izan zitzaketen finantza-egoerek ez zuten inolako harremanik mugimendu independentistaren jarduera-mailarekin. Gingras-ek (1979) ondokoa ondorioztatu zuen: «Datu hauek ez dute inola ere frogatzen independentziazaleen interes pertsonalak eraman zezakeenik interes orokorraren aldeko mobilizaziora» (200. or.). «Gizabanakoaren egoera pertsonalak, beraz, ez luke arinki baizik azalduko independentziaren aldeko kide bihurtzeko erabakia» (203. or.).

Dubé eta Guimond-en ikerketek ondorio erabakigarriagoak eman dituzte (Dubé-Simard eta Guimond, 1986; Guimond eta Dubé-Simard, 1979; 1983). Guimond eta Dubé-Simard-ek (1983) Quebec-eko klase ertaineko frankofono helduei eskatu zieten euren egoera pertsonalaren ongizate-maila azal zezaten, a) beste frankofonoekin alderatuz, eta, b) exotalde nabari batekin alderatuz: anglofonoekin. Beraz, pertsona arteko, talde barneko eta talde arteko neurriak erabili ziren. Gainera, aurreko ikerketei aurre eginez, talde arteko GE ere neurtu zen; hain zuzen, egoera ekonomikoari zegokionez, Quebec-eko frankofonoak anglofonoekin alderatuz noraino sentitzen ziren frustratuta edo egonezinik galdetu zieten subjektuei. Aurreko ikerketetan bezala, Guimond eta Dubé-Simard-enean (1983) pertsona arteko GEk ez zuen harremanik quebectarren jarrera sozio-politiko nazionalistekin. Aitzitik, talde arteko GEk rol adierazkorra zuen oraindik ere: subjektuek, talde bezala eta anglofonoen egoerarekin erkatuta, zenbat eta ezinegon handiagoa sentitu frankofonoen egoerarekiko, orduan eta atxikimendu handiagoa zuten ideologia nazionalistarekin.

Quebec-eko etorkizun politikoaren inguruko 1980ko erreferendumaren gainean eginiko ikerketek aurreko analisia berretsi egin zuten. Adibidez, Pinard eta Hamilton-en ikerketan (1986) Quebec-eko subiranotasun politikoaren aldeko botoa estu lotuta zegoen ondoko talde arteko hautemateari: “frankofonoak anglofonoek menderatzen dituzte ekonomikoki”. Subiranotasunaren aurkako botoa ematen zutenak, oro har, ez zetozen bat aurreko esaldiarekin; ondorioz, pentsa zitekeen aurkako boto-emaile horiek egoera horrekiko ezinegona sentitzea gertagaitza zela.

Bestalde, Quebec-ek 60ko hamarraldian biolentzia politikoa ezagutu zuen. Quebec-eko Liberazio Fronteari (FLQ) gagozkio, 1963tik 1979raino hainbat atentaturen erantzulea izan zena. Laurendeau-k (1990) egoera hauen azterketa zehatza aurkeztu du, non GEren teoriaren bertsio desberdinen egokitasuna frogatzen baitzuen. Autore horren arabera, «Kanadako parte izateak zenbait kontraesanen aurrean jarri du Quebec, 1962-1972 urteen bitartean frustrazio-maila nabaria besterik sortu ez duena Quebec-en» (208. or.). Frustrazio horietariko oso garrantzitsu batek, Laurendearu-ren arabera, "errenta-hierarkiarekin" du zerikusirik; «talde frankofonoa —herrialdea, horren arbasoek fundatu egin bazuten ere— beste etorkintalde guztien atzetik —italiar taldea salbu— jarriko luke» (208. or.). Laurendeau (1990), esan gabe, talde barneko GE aipatzen ari zen.

6.3.3. Talde arteko gabezia erlatiboa: psikologia kolektiboa

Talde arteko gabezia erlatiboa, gabezia erlatibo kolektiboa ere deitua (Tougas, Dubé eta Veilleux, 1987), norberaren taldearen eta abantailatsuagotzat jotzen den exotaldearen arteko aldea hautemateak sustaturiko ezinegonari dagokio (Runciman, 1966; Walker eta Pettigrew, 1984). Talde arteko GEren eta pertsona arteko GEren arteko desberdintasuna ondokoan datza: batetik, erkatua den objektuan eta, bestetik, objektu hori erkatzeko erreferentzia-objektuan. Lehenago esan bezala, pertsona arteko GE gizabanako batek bere buruaren eta beste gizabanako baten (edo gizabanako batzuen) artean eginiko erkaketaren emaitza da; talde arteko GE, aldiz, norberaren taldearen eta beste talde baten arteko erkaketatik ondorioztatzen dena da. GE agertuko da, beraz, erkaketan objektua erreferentearekiko desabantailan badago.

Runciman (1966) lehen ikertzailea izan zen GEtik eratortzen diren portaeren arteko bereizkuntza egiten. Autore horren arabera, pertsona arteko GEk gizabanakoa bere egoera indibiduala hobetzera kitzikatzen du, mobilitate sozialaren alorrean hobetuko delakoan. Hipotesi horren arabera, pertsona batek bere finantza-egoerarekiko GE jasango balu, esate baterako, unibertsitateko arratsaldeko eskoletara joango litzateke, bigarren enplegua bilatu edo soldata-igoera eskatu egingo luke. GE pertsonalak, beraz, gizabanakoaren bere ongizatearekiko ardura islatzen du. Gabezia-iturria desagertuko balitz, gizabanakoak aterako lituzke etekinak. Aitzitik, talde arteko GEk talde sozial oso batekiko ardura islatzen du, talde sozial horrekin subjektua erabat identifikatuz. Gabezia-iturri hau desagertzeaz talde osoa baliatzen da, eta ez gizabanako indibiduala soilik (Martin, 1981).

Talde arteko GEk, horrela, lagun diezaioke talde-egoeraren aldaketara zuzenduriko portaera edota jarrerak sortzeari eta, ondorioz, aldaketa soziala sustatu.

Protesta-mugimenduak, definizioz, egitura sozialen aldaketa sustatzera edo eragoztera zuzenduriko esfortzu kolektiboa adierazten du (Tajfel, 1978a; Vanneman eta Pettigrew, 1972). Egituren aldaketek gizartean taldeen kokapenen aldake-

tak suposatzen dituzte, sistema sozialaren barneko gizabanako bakan batzuen mobilitatea baino zerbait gehiago. Ondorioz, taldeek gizartean dituzten kokapenei buruz gizabanakoek egiten dituzten ebaluazioak dira mugimendu sozialak azaltzeko garrantzitsuak, eta ez gizabanakoen jarduera edo mobilitate indibiduala blokeatuta izateari buruzko ebaluazioak. Oro har, esan daiteke, talde arteko GE azaltzen duen taldeak aurreiritziak, estereotipoak eta portaera diskriminatzaileak erabil ditzakeela, exotaldea legitimitaterik gabeko abantailan hautemana izan dadin.

a. Kontzeptuen analisia: mugimendu sozialen psikologia soziala

Runciman-ek (1966) proposaturikoaren antzeko kontzeptu-zedarritzea egin da zenbait ikertzaileren lanetan (Blumer, 1978; Boulding, 1962; Kelman, 1970; Lupsha, 1971). Ikuspegi horien azterketa zorrotzak iradokitzen du talde arteko GE kontzeptuak mugimendu sozialen benetako psikologia sozialaren zatia dela. Interakzionismo sinbolikoaren ikuspegitik, Blumer-ek (1978) protesta sozialaren teoria aurkeztu zuen, teoria psikologikoa eta teoria estrukturalak elkarren aurka jartzen baitzituen. Autore horrek honakoa kritikatzen zuen: frustrazioa edo GE (pertsonala) kontzeptuetan oinarrituriko azalpenak, funtsean, ez baitzuten kontuan hartzen kolektiboa den mugimendu sozialen izaera. Gainera, autoreak azpimarratu zuen ondasunen banaketan dauden desberdintasun estruktural objektiboek denbora luzean iraun dezaketela, matxinada-mugimendurik sortu gabe. Beraz, Blumer-en (1978) arabera, garrantzitsuena ez zen desberdintasun objektiboak agertzea, baizik eta nola interpretatzen diren. Baieztatu zuen badagoela protesta sozialarekiko funtsezko rola jokatzen duen nolabaiteko ezinegona, baina ezinegon hori ezinegon sozial orokorra da, indarrean dauden egitura-baldintzak injustuak edo ez-legitimoak direlakoan. Blumer-en (1978) hitzetan, «protesta sozialari estu lotuta dagoen ezinegonak barnean hartzen ditu (...) sentimendu orokor eta zehaztugabeak, eskakizun zehatzak baino harantzago ari direnak, eta akordio sozialen egiturarekin erlazioa dutenak» (10. or.).

Era berean, Kelman-ek (1970) zioenez, legitimitaterik eza edo injustizia soziala kontzeptua oso garrantzitsua da protesta-mugimenduen analisirako. Horren arabera, adibidez, 60ko hamarraldiko unibertsitate amerikarretako ikasleen protesta ez zen izan esklusioaren edo enplegu-aukera urrien ondorioa, baizik eta euren ongizate materiala zela eta, orokorragoak ziren justizia sozialerako gaien inguruan kontzientzia hartzeak eman zien aukeraren ondorioa. Ekintzaileek zapaldutzat har zezaketen euren burua, eta euren sentimenduak ez ziren funtsik gabeak. Zapalduta sentitzen ziren sistema soziala zapaltzailea zelako, eta ez eurei nolabaiteko diskriminazio edo esklusio problemak eragiten zizkielako (Kelman, 1970). Keniston-ek (1967) ikasleen aktibismoaren antzeko analisia proposatu zuen, honako hau adieraziz: «Zapalduekiko identifikazioa motibaziorako faktore garrantzitsuagoa da zapalkuntza pertsonala sentitzea baino» (111. or.).

Dena den, izenak gorabehera, argi dago zenbait autorek (Keniston, 1967; Kelman, 1979; Lupsha, 1971; Boulding, 1962; Blumer, 1978) eman dutela Runciman-ek (1966) proposaturiko protesta sozialaren antzeko azalpena. Izan ere, nolabaiteko ebaluazio sozial edo morala edo jarrera orokorra badago, zeinak protestaren azalpen-modu hori bai frustrazio edo ezinegon pertsonalaren kontzeptu psikologikotik bai egitura-esklusio edo desberdintasun objektiboaren kontzeptu soziologikotik bereizten duen. Autore hauen ekarpena funtsean psikosoziala den ikuspuntu baten oinarrian jar daiteke. Talde arteko GE kontzeptuak gizabanakoaren eta gizartearen arteko erlazioa ezartzen du; izan ere, harremanetan jartzen dira aktore sozialen ezaugarri psikologikoak —hau da, gizabanakoen jarrerak— eta sistema sozialaren ezaugarriak —hau da, talde sozialek gizartean duten kokapena—.

Gizabanako bakar batek gizartean duen kokapena nahiko lukeena ez bada, zaila dirudi sistema sozial osoa inplikatzeak. Aitzitik, talde oso baten egoera injustutzat definitzen bada, hau da, opresio-, mendekotasun- edo zapalketa-egoera gisa hartzen bada, sistema sozialaren legitimitatea jarriko da zalantzan (Tajfel, 1978a). Talde arteko GE kontzeptua honelako egoeraren definizioa da. Kontzeptu-mailan, aipatu izan dira talde arteko GEk errebindikazio-portaerarekiko duen garrantziaren aldeko argudioak. Ikus ditzagun, bada, era zehatzago batean maila enpirikoan azken ideia horrek izan dituen ekarpenak.

b. Talde arteko GE talde arteko portaeren mugatzaile gisa

Beste GE motekin gertatzen zenaren kontra, oso berria da psikologia sozialak talde arteko GEz duen interesa. Alor horretan urriak izan dira 1980 baino lehenagoko ikerketak. Geroztik, Crosby-ren (1976) artikuluaren eraginari esker, horrelako ikerketak biderkatu egin dira, Europan batik bat (Amerio, 1991; Monteil, 1992; Petta eta Walker, 1992; Smith eta Gaskell, 1990), Amerikan ere gertatu arren (Hafer eta Olson, 1993; Kawakami eta Dion, 1993; Moghaddam eta Perreault, 1992; Tougas eta Beaton, 1992).

Hasierako ikerketa zuzen batean, Orbell-ek (1967) frogatu zuen AEBko ikasle beltzen partaidetza-maila herritarren eskubideen mugimendu bateko ezinegonarekin uztartzen zela, beltzek talde gisa zuten kokapen sozialarekiko ezinegonarekin, hain zuzen ere. Ondorengo ikerketek aukera eman dute emaitza horiek beltza amerikarrak ez zirenekin frogatzeko (Useem, 1980; Vanneman eta Pettigrew, 1972). Abeles-ek (1976), esate baterako, Cantril-en (1965) eskala erabili zuen GE neurtzeko. Eskala horretan mailarik gorena “gizarte amerikarreko kokapen sozialik gorenari” dagokio eta mailarik baxuena maila sozial “baxuenari”. GE pertsonalaren puntuazioak lortzeko, eskala horretan erkatzen dira “norbera” kokatzen duen puntua eta beste gizabanakoak edo taldeak jartzen dituen puntua. Era berean, talde arteko GEren puntuazioak lor daitezke subjektuari eskatuz, eskala horretan, bere taldea koka dezala eta exotaldea ere bai; puntu biren arteko aldea GEren neurria izango baita. Aurreko neurri horietatik abiatuta, Abeles-ek (1976) honako hau

adierazi zuen: «Badirudi GE fraternoa (talde artekoa) GE pertsonala baino ezinegon eta militantismoaren iturri indartsuagoa dela» (135. or.). Autore horrek ondorioztatu zuenez, beltz amerikarren kokapen ekonomikoa 1947tik 1969raino zentzu gordinean hobetu egin bazen ere, aldi berean, zurien eta beltzen arteko alde ekonomikoa ere *areagotu* egin zen (ikus Martin eta Murray, 1984). Talde arteko GE kontzeptuak talde sozialen arteko desberdintasunen arazoari baino ez dio ekiten. Abeles-ek (1976) lorturiko emaitzek iradokitzen dute badaudela militantismoaren portaera eta jarrera azaltzeko egokiena den ezinegonaren oinarrian talde arteko erkaketak.

Adieraz dezagun, bada, aurrekoak dakarren ikuspegi-aldaketa: psikologia indibidualistatik psikologia kolektibora iragaten gara. Ikuspegi-aldaketa horretatik GEren honelako azalpena eratortzen da: klase ertaineko beltzek ez zuten protesta egiten eurak baino kokapen abantailatsuagoa zuten (beltzak ala zuriak) pertsonekin erkatzen zirelako, hau da, ez zuten ezinegon edo frustrazio pertsonalik jasaten kokapen hori lortu ez zutelako; aldiz, beltz eskolatuagoek ezinegon handiagoa jasaten zuten, ez handinahi pertsonal handiagoa zutelako, baizik eta talde arteko desberdintasunez eta injustizia sozialez *jabetuagoak* zirelako.

Analisi hori AEBko talde arteko harremanetan ez ezik, beste testuinguru batzuetan ere erabilgarria da. Horrela, Quebec-eko mugimendu nazionalistarekiko inplikazioa, lehenago esan bezala, talde arteko GEk hobeto azaltzen du gainerako GE motek baino (Dubé eta Guimond, 1986). Kanadako zenbait ikerketa-talderen emaitzek frogatu egin dute, bakoitzak bere erara, psikologia sozial kolektiboa garatzeko beharraren garrantzia.

Talde arteko GEren egokitasuna dela eta, Tougas-en taldeak buruturiko ikerketa-sail batek frogatu du baliagarria dela, enplegu-berdintasunerako sarrera-programetan, langile gizonek eta emakumeek zuten errepresentazio ekitatiboa bermatzeko zuzentzen diren neurrien aurreko erantzunak ulertu ahal izateko (Tougas eta Veilleux, 1989, 1991a, 1991b).

Era berean, Dion-en taldeak talde arteko hautemateen garrantzia frogatu du zenbait testuingurutan (Birt eta Dion, 1987; Dion 1986, 1992; Kawakami eta Dion, 1993). Adibidez, talde arteko GE pertsona arteko GE baino aurresale egokiagoa izan zen Torontoko komunitate txinatarreko kideen militantismorako (Dion, 1992). Taylor eta Moghaddam-en taldeko emaitzak norabide berean ari ziren (ikus Moghaddam eta Perreault, 1992; Taylor, Moghaddam eta Bellerose, 1989). Horrela, Taylor eta kolaboratzaileek (1989) talde arteko GEren bidez azaldu zuten Montreal-eko gutxiengo anglofonoaren erreakzioa gehiengo frankofonoaren aurrean. Frankofonoek, kontinente iparramerikarrean gutxiengoa direnez, gero eta indartsuagoak diren kanpo-presioei aurre eginez, lege bat atera behar izan dute, 101 legea, euren lurraldean hizkuntz frantziarraren erabilera bermatzeko (Bourhis, 1984). Quebec-eko frankofonoen berreste nazionalerako saio horri Quebec-eko anglofonoek emandako erantzuna oso negatiboa izan da (Bourhis, 1994; Taylor eta

Dubé-Simard, 1981). Taylor eta kolaboratzaileek (1989) frogatu dutenez, erantzun hori talde arteko GEz azaltzen da. Anglofonoak, 101 legearen ondorioekiko, euren taldekideak baino faboratuagoak ziren taldeekin erkatzen zirenean egoerarekiko ezinegonago sentitzen ziren eta euren taldekideak baino egoera okerragoan zeuden taldeekin erkatzen zirenean hobeto sentitzen ziren. Gainera, desberdintasun horiek ere, portaera-intentzioetan islatzen ziren: lehenengoek Quebec-etik alde egin nahiko zutela eta frantsesa ikasteari uko egingo ziotela esateko joera argiagoa zuten eta lege horren kontra protestatzeko intentzio argiagoa zuten, bigarrenek baino.

Walker eta Mann-en (1987) eta Hafer eta Olson-en (1993) ikerketetan, batetik, portaera kolektiboa azaltzeko talde arteko GEren garrantzia azpimarratzen zen eta, bestetik, portaera indibidualak azaltzeko pertsona arteko GEren garrantzia. Walker eta Mann-ek (1987) Australiako gazte langabetuen artean GE motak ikertu zituzten; hain zuzen ere, GE mota horietatik zeintzuk ziren baliagarriak langabeziaren ondorio indibidualak aurreikusteko (estres-sintomak) eta zeintzuk ziren baliagarriak ondorio sozio-politikoak aurreikusteko (protesta-intentzioa). Hipotesiari zegokionez, GE pertsonala estresarekin elkartuago agertzen zen protestaren aldeko orientabidearekin baino, eta alderantziz gertatzen zen talde arteko GErekin.

Hafer eta Olson-ek (1993) emaitza interesgarriagoak lortu zituzten. Autore hauek emakumeak galdekatu zituzten lan-merkatuaren inguruko ongizateari buruz, haiek zuten egoera beste emakume edo gizonezko batzuen (pertsona arteko GE) egoerarekin erkatuz. Ongizate horren motiboari buruz ere galdetzen zen, emakume-talde gisa, gizonezkoen egoerarekin erkatuz (talde arteko GE). Lau asteren buruan, erantzuleek galde-sorta bat bete zuten, non bai banako portaerak (hots, "beste lan bat bilatu", "nire heziketa profesionala hobetu", eta abar) bai portaera kolektiboak (emakumeen lan-baldintzen kontrako protesta-manifestaldietan partaidetza) neurtzen ziren. Emaitzek adierazi zutenez, pertsona arteko GE banako igoerari baino ez zegoen lotuta; talde arteko GE, aldiz, berreste kolektiboko portaeren aurresale nagusia zen. Izan ere, erregresio anizkoitzetan, talde arteko GE kontrolatuz gero, pertsona arteko GE ez zen ekintza kolektiboen aurresale adierazkorra (ikus Hafer eta Olson, 1993). Ikerketa hau bereziki garrantzitsua da kausa/ondorio sekuentzian denboraren baldintza kontuan hartu baitzen. Aurreko ikerketetatik bereiziz, portaerak eta GE ez ziren une berean neurtu. Beraz, kausa/ondorio sekuentziari dagokionez, ikerketa horrek GE kausa/faktorea eta portaera/ondorioa dela bermatzen du.

Opp-en (1988) luzerako ikerketak beste elementu garrantzitsu batzuk nabaritu zituen. Alemaniako energia nuklearraren aurkariak bi unetan elkarrizketatuak izan ziren, 1982an eta 1987an, hau da, Chernobyl-eko 1986ko gertakizun ospetsuaren aurretik eta ostean. Emaitzen arabera, aldez aurreko ezinegonak nuklearren aurkako mugimenduan, ondorengo partaidetza aurreikusi zuen, baina mugimenduan inplikatzeak ez zuen ezinegona areagotu.

Tamalez, Opp-en (1988) eta beste soziologo batzuen (Dobry, 1986; Finkel eta Rule, 1986; Gurney eta Tierney, 1982) ikerketek ez dute zerikusirik talde arteko GEren teoriarekin. Ondorioz, zaila da Opp-ek (1988) aztertutako ezinegona talde arteko GEri egokitzea.

Ez dago talde arteko GEren eta portaera errealen arteko korrespondentzia ikertu duen ikerketa asko. Aztertu ditugun ikerketarik gehienek jarrerak eta portaera-intentzioak besterik ez dute neurtu. Dubé eta Guimond-ek (1986) arazo honi ekitera zuzenduriko ikerketa burutu zuten. Montreal-eko ikasleen protestaldi batek GEren eta ekintza kolektiboaren arteko erlazioa aztertzeko aukera eman zien. Une hori nahikoa gatazkatsua izan zen, ikasleen grebak, administrazio-egoitzen okupazioak eta ikasleen zenbait liderren aurkako salaketak egon ziren, autoritateen aldetik ere erantzun gogorrez lagunduta. Giro horretan, unibertsitarioen ikasle-lagina hartu zen, bertan, gatazka horretan aktiboak izan zirenen proportzio nabaria zegoelarik. Subjektuek galde-sorta bat osatu zuten, non ezinegona edo asetasungabezia neurtzen baitziren, bai "euren egoera pertsonalarekiko" bai "Quebec-eko ikasleen egoera kolektiboarekiko", gabezia pertsonalaren nahiz kolektiboaren sentimenduak ebaluatzeko asmoz. Ikasleen protesta-partaidetza aztertzeko, gatazka garaian presio egiteko hamar bide desberdin ("administrazioarekin elkarrizketatu", "panfletoak banatu", "eskolak boikotatu", "egoitzak okupatu" eta abar) erabiltzeko maiztasunaz galdetu zitzaien. Emaitzen arabera, talde-ezinegona, era esanguratsuan, presio-bide kolektibo horien erabilerari baino ez zegoen lotuta.

GE mota guztien artean, aldaketa sozialak errefusatzen edo bermatzen dituzten mugimendu sozialak ulertzeko, talde arteko GEren garrantzia azpimarratzeko arrazoi indartsuak dira. Hala ere, hainbat ikerketak ez du lortu baieztatzea talde arteko GEk portaerarako dituen inplikazioak (ikus Kawakami eta Dion, 1993; Martin, 1986). Holako ikerketek sustatzen duten hipotesiaren arabera, GEk portaerekin nolabaiteko lotura garrantzitsua du, baina oraindik zehaztu gabe dauden baldintza batzuen pean bakarrik. Baldintza horietariko bat portaeraren izaera litzateke. Hain zuzen ere, Martin, Brickman eta Murray-k (1983) adierazi zuten talde arteko GE partaidetza-modu legitimoei lotuta zegoela, esate baterako, manifestaldi baketsuetan partaidetzari, baina loturarik ez zuela erasoaren bidezko partaidetza politiko ez-legitimoekin, esate baterako, matxinada eta manifestaldi bortitzetan parte hartzearekin. Gainera, talde arteko GE ez zegoen errebindikaziozko portaera politikoaren modu legitimo guztiei lotuta. Mitin batera joatea edo komite bateko kidea izatea bezalako jarduera politiko legitimo tipikoak ager daitezke, talde arteko GE bultzatzaile izan gabe. Hortik, beraz, ondoko hipotesia eratorri da: talde arteko GEk erradikalagoak diren errebindikazio-portaera legitimoetan du eragina.

Veilleux, Tougas eta Ringret-ek (1992) ingurune naturalean buruturiko ikerketa batek aurreko hipotesiari eman zion babesa. Herri txiki bateko biztanleekin egin zen ikerketa, hiri handi batekiko anexioaren aurkakoak izan zirelako urte

askotan. Herri txiki horrek anexioaren aurka burututako ekintzak Martin, Brickman eta Murray-k (1983) proposaturiko kategorietan banatu ziren: 1) "portaera legitimo erradikalak", non herria zeharkatzen duen errepide nagusiko zirkulazioa blokeatzeko bost manifestalditan parte-hartzea zegoen, eta 2) "portaera legitimo estandarrak" non, besteak beste, txostena idaztea, bilera publikoetan parte hartzea eta eskakizunak izenpetzea zeuden. Martin eta bere kideek planteaturiko hipotesia frogatuz, 58 biztanlek parte hartuta, talde arteko GE portaera legitimo erradikalei lotuta zegoen; portaera legitimo estandarrei ez, ordea.

Garrantzitsua da azpimarratzea ikusi berri ditugun talde arteko GEri buruzko ikerketak psikologia sozialeko beste teoria batzuekin bateragarriak direla. Kinder eta Sears-en (1981) arrazakeria sinbolikoaren ikuspegi teorikotik eginiko ikerketek adierazi dutenez, interes pertsonala, era objektibo edo subjektiboan definiturik —GE pertsonalaren antzeko faktorea—, pentsatzen den baino askoz garrantzi *gutxiagokoa* da jarrera eta portaera sozio-politikoak azaltzeko (ikus Kinder eta Kiewiet, 1979; 1981; Sears eta Funk 1991; Sears, Hensler eta Speer, 1979; Sears, Lau, Tyler eta Allen, 1980). Arazo sozial eta politiko askorekiko ezinegon sinboliko orokorrak —talde arteko GEren antzekoa— hautespen politikoen mugatzaile gisa duen rola nabaritu dute ikertzaile horiek. Talde arteko GErekin erlazionatuta dauden ikerketek identitate sozialaren teoriaren oinarrian dauden zenbait printzipio ere egiaztatu dute (Tajfel, 1978a; Tajfel eta Turner, 1979). Hain zuzen ere, Tajfel eta kolaboratzaileek garaturiko talde arteko harremanetarako psikologiaren fokapena funtsean, pertsona arteko eta talde arteko portaeren arteko bereizkuntzan oinarritzen da (Brown, 1988; Brown eta Turner, 1981; Tajfel, 1978a). Portaera sozialen honelako *continuum*aren izaerarekin, Tajfel-ek (1978b) kritikatu egin ditu talde arteko harremanekiko azalpen indibidualistak. Autorearen arabera, horrelako azalpenak arazotsuak dira, zeren pertsona arteko harremanei buruzko ikerkuntzaren ondorioak talde arteko harremanetara orokortzean oinarritzen baitira. Gainera, pertsona arteko eta talde arteko portaeren artean desberdintasunak badira, orokortze horrek akatsa izateko arriskua du. Lehenago landutako talde arteko GEren ikerketek argudio horri berme enpirikoa ematen diote. Izan ere, ikerketa horien bidez frogatu dute pertsona arteko GE pertsona arteko portaerei dagoela lotuta eta ez talde arteko portaerei; talde arteko GEri dagokionez, alderantzizkoa gertatzen baita.

Talde arteko GEren teoriak osagarri garrantzitsua dakar identitate sozialaren teoriara, zeren talde arteko harremanen legitimotasunik ezaren hautematea aztertzeko modu bat iradokitzen baitu eta hautemate horren ondorio posibleak argitzen baititu (Bourhis eta Gagnon, 1994). Zenbait autoreren aburuz, identitate sozialaren teorian legitimotasunik eza hautemateak duen rola nahikoa zalantzagarri gertatzen da (Billig, 1966; Taylor eta Moghaddam, 1987). Esate baterako, Billig-ek (1976) zioenez, teoria horretan proposatzen diren aldaketa-estrategiak endotaldearen ezaugarriak berriz ebaluatzeari dagozkio, edo talde arteko erkaketaren dimentsio berrien sorkuntzari. Estrategia horiek aldaketa kulturalak suposatzen dituzte, eta

ez, berez, gizarteko taldeen kokapen errealetan aldaketak. Identitate sozial positiboa lortzeko desirari lotuta daudenez, estrategia horiek ukigabe uzten dituzte talde sozialak izan ditzakeen menderatzea eta zapalkuntza. Billig-en (1976) arabera, talde arteko desberdintasunak ezin dira desagerrarazi identitate sozial positiboaz soilik; aitzitik, taldeko kideen oposaketa kristaltzen eta islatzen duen *ezinegona artikulatzea* izango da haien zortea hobetzeko bide bakarra. Talde arteko GE kontzeptua, beraz, erabilgarria da testuinguru horretarako. Tajfel-ek (1978a), bestalde, gai honi buruzko hausnarketa sustatu du hau baieztatzean: identitate soziala eta horren azpian dauden prozesu psikosoziologikoak GE sortzearen eta piztearen erantzuleak dira.

c. Talde arteko GEren bultzatzaileak

Talde arteko GEk talde arteko portaerak aurreikusten ahalbidetzen duenez gero, interesgarria litzateke galdetzea zeintzuk diren talde arteko GEren kausak. Horrela, ondoko hiru funtsezko faktoreei helduko diegu: 1) identitate soziala; 2) talde arteko erkaketak; eta 3) kausa-egozpenak.

Identitate soziala. Taldearekiko identifikazioa elementu garrantzitsua da, talde arteko GEren eta GE pertsonalaren arteko bereizketa egiten du eta. Esate baterako, gizabanako batek, bere taldeak gizartean duen kokapena dela medio, nolabaiteko ezinegona adierazten badu, mundu soziala taldetan segmentatzeaz gain, gizabanakoaren endotaldearekiko identifikazioa dagoela ere esan nahi du (Dubé-Simard, 1983; Guimond eta Dubé-Simard, 1983; Tajfel, 1978a). Tougas eta bere kolaboratzaileek argudio horri ekin diote ondoko hipotesiaren bidez, hots, norberaren taldearekiko identifikazioak eragina du subjektuak sentitzen duen talde arteko GEn eta GEk, bere aldetik, mugatzen du subjektuak errebindikazio-portaerarik izango duen ala ez (Tougas eta Veilleux, 1988; 1989; 1990; Veilleux, Tougas eta Rinfret, 1992).

Alor honetako lehen ikerketetako emaitzek ez dituzte hipotesi horiek baieztatzen. Frogatu da identitate soziala errebindikazio-portaeren aurresale zuzena dela. Abrams-en (1990) arabera, halere, emaitza horiek ezin har daitezke, bere osotasunean, frogarik gabekotzat. Izan ere, identitate soziala neurtzeko erabilitako bidea mugatua da, item batzuk bakarrik hartzen zituelako, eta gainera, Tajfel-ek (1978a) proposaturiko identitate sozialaren osagarrien sorta guztia hartzen ez zuelako. Ikerketa berriek (Abrams, 1990; Petta eta Walker, 1992), egokiagoak diren identitate-neurriak erabilirik, frogatu izan dute talde arteko GEren eta taldekide izatearekiko atxikimenduaren arteko loturaren hipotesia. Pentsa daiteke identifikazio soziala dela talde arteko GE sortzea sustatzen duen prozesua. Hala ere, ikerketa gehiago behar dira identitate sozialaren eta talde arteko GEren arteko harremanen izaera argitzeko.

Talde arteko erkaketak. Talde arteko GE sentitzeko, gizabanakoak, bere taldearekin identifikatzeaz gain, beste talde batekin erkatzearen ondorioz, bere

taldea desfaboratua dela hauteman behar du. Talde arteko erkaketa, hortaz, talde arteko GE sortzen laguntzen duen bigarren faktorea da. Ikerketek hipotesi hau baieztatu egin dute. Jo dezagun, lehenengo, talde arteko GEren sentimenduan, talde arteko desberdintasunen hautemateak duen efektua aztertu duten ikerketetara. Gabezia erlatiboak, Runciman-ek (1968) definitu zuen moduan, ondoko bi osagaiak ditu: osagai kognitiboa, endotaldearen eta exotaldearen arteko desberdintasunak hautemateari dagokiona, eta afektuzko osagaia, desabantaila hautemateak sustaturiko asetasun-gabezia edo ezinegon-sentimenduari dagokiona. Frogatu izan denez, osagai horietariko bakoitzak efektu berezia du. Osagai kognitiboaren efektuak ezinegona sorrarazten du, baina afektuzko osagaia baino ez da lotzen errebindikazioaren izenean buruturiko jarduerekin (Dubé eta Guimond, 1986; Guimond eta Dubé-Simard 1979; 1983). Osagarri bakoitzak aurresateko duen berezitasuna ere frogatu da Tougas, Dubé eta Veilleux-ek (1987) buruturiko ikerketa batean. Horren emaitzen arabera, ezinegona edo asetasun-gabezia erlatiboa bitartekotzaaldagaia da, justuak ez diren talde arteko desberdintasunen hautematearen eta errebindikazio-portaerak gauzatzeko joeraren artean, hain zuzen ere. Talde biren arteko desberdintasuna hautematea eta gizabanakoak talde arteko erkaketa egiten duela esatea gauza bera da. Beraz, ikerkuntzak azaltzen duenez, talde arteko erkaketa, talde arteko GE sentimenduaren zergatia da.

Ikuspegi hau hainbat ikerketa esperimentalek (Kawakawi eta Dion, 1993; Martin, 1982, 1986) frogatu dute. Hain zuzen ere, ikerketa hauetan gizabanakoak talde arteko desberdintasun-baldintza ahul edo indartsuan banatu ziren ausaz. Emaitzetan, talde arteko ezinegona handiagoa zen talde arteko desberdintasun indartsuaren kasuan, taldeen arteko benetako desberdintasunaren mailaz aparte.

Kausa-egozpenak. Talde arteko GE sortzeko azken faktore garrantzitsua talde arteko desberdintasuna interpretatzeko modua da. Hainbat ikerketak aztertu du jendeak nola azaltzen dituen desberdintasun sozio-ekonomikoak (Beugré, 1989; Guimond, Beguin eta Palmer, 1989; Guimond eta Palmer, 1990, 1993; Kluegel, 1990; Payne eta Furnham, 1990). Azalpenetan aldakortasun nabaria dago. Oro har, bi azalpen-modu garrantzitsuren artean bereizi da: *disposizio*zko azalpena —txirotasun ekonomikoaren kausa, talde desfaboratuetako kideen ezaugarri tipikoak diren motibaziorik ezari eta esfortzurik ezari dagokiena— eta *egiturazko* azalpena —txirotasun ekonomikoaren kausa, talde menderatzaileei eta egitura sozialeko izaerari dagokiena— (Zucker eta Weiner, 1993).

Desberdintasun sozialetarako disposiziozko azalpena desberdintasunen legitimazio-prozesuaren zatia da. Talde desfaboratuko kideek honelako ideologiari atxikiz gero, ez da espero talde arteko GE senti dezaten, ezta euren taldeko egoera ez-justutzat har dezaten ere (Deschamps eta Clemence, 1990). Aitzitik, talde menderatuko kideen artean militantismoa eta talde arteko GEren mailarik gorena gertatzen da, errua talde menderatzaileari eta egitura sozialei egotziz gero (Giles, Bourhis eta Taylor, 1977; Guimond eta Dubé, 1989; Taylor eta McKirman, 1984).

Kausa-egozpenak bereziki garrantzitsuak dira gizabanakoak era desfaboragarrian erkatzera zerk bultzatzen dituen ulertzeko. Motibazio-mota horiek, identitate sozialaren teoriatik, zenbait arazo planteatzen dituzte. Hain zuzen ere, Tajfel eta Turner-en arabera (1979:40), «gizabanakoak identitate sozial positiboa lortzen eta iraunarazten saiatzen dira» eta identitate positibo hori egokiak diren endotaldeen eta exotaldeen arteko «erkaketa *faboragarriak* egiteko probabilitatean datza, hein zabal batean». Hala ere, identitate sozialaren teoriaren bi funtsezko printzipio horietan oinarrituta, gizabanakoak talde arteko erkaketa sozialak *ekiditeko* motibatuak egon beharko lirateke. Horrela, Asher eta Allen-ek (1969) iradokitzen zutenez, adibidez, beltza amerikarrak zuriekin erkatzen badira, «horrelako erkaketen ondorioa gutxiagotasun-sentimendu handiagoa litzateke, zuriak, oraindik, abantailatsuagoak direlako» (158. or.). Estrategiarik egokiena edo soluziobiderik errazena era abantailatsuan erkatzea litzateke, eta abantailarik gabeko talde arteko erkaketak ekiditea.

Proposizio hori, hala ere, teorikoki onartezina da. Izan ere, jendeak talde arteko erkaketa desfaboragarriak ekiditen dituela baieztatzen bada, nola gerta liteke talde arteko GE? Tajfel-ek (1978a) arazo hori gainditu egin du, ikusiko dugunez. Dilema honekiko lehen konponbidea Parchen-ek (1968) aurkiturikoa da.

Festinger-en (1954) teoriari eta talde arteko alorrarekiko luzapenari aurre eginez, Patchen-ek (1968) proposatu zuen gizabanakoek batzuetan erkaketa *desfaboragarriak* bilatu egiten dituztela eta, ondorioz, erkaketa horiekiko gutxiagotasun-sentimenduen ordez, ezinegon-sentimenduak izaten dituztela. Egozpenei esker uler zitezkeen horrelako egoerak. Hain zuzen ere, Patchen-en (1968) arabera, egoera desfaboragarriaren erantzule sentitzen ez den pertsona «erkaketa disonanteez balia daiteke, bere statusarekiko protesta justifikatzeko» (137. or.). Enpresa kanadar baten enplegatuen arteko soldaten alderaketak ikertuz, Patchen-ek (1968) aurreko hipotesi horiek frogatu ahal izan zituen. Erantzuleak sentitzen ez ziren gizabanakoek soldata handiagoko pertsonekin erkatzea aukeratzen zuten, egoera horrekiko ezinegona sentitzen baitzuten. Politeknikoko irakasleen eta irakasle unibertsitarioen artean, Bourhis eta Hill-ek (1982) exotalde abantailatsuarekiko erkaketa desfaboragarriak bilatze estrategiko hori frogatu dute talde arteko mailan. Autore horien arabera, estrategia horrek soldata-igoerak lortzeko joerak sustatzen ditu, talde desabantailatsuaren identitate sozial positiboa mehatxatu gabe (ikus Taylor, Moghaddam eta Bellerose, 1989).

Zenbait autorek kausa-egozpenak eta GE harremanetan jarri dituzte zuzenzuzenean (Abeles, 1976; Muller, 1979; Portes, 1971). Abeles-en arabera (1976), adibidez, talde arteko GEk borrokara darama, desberdintasun sozialetarako egitura-azalpenen laguntzaz. Muller-ek (1979) antzeko arrazoinamendua egin zuen, gizabanakoak bere buruari egozten badio errua, aldaketaren alde borrokatzeko bere motibazioa nahikoa arina dela esanez. Muller-en (1979) arabera, ondorio soziopolitikoak sustatzeko GEren modurik eraginkorrena hauxe litzateke: gizabanakoak

ustez merezi duena ez lortzea *kanpoko faktore*ei egoztea suposatzen duen GE modua. Horrela hobeto uler daiteke Tajfel-en (1978a) helburua; horren arabera, talde arteko erkaketak «maiz, talde arteko portaeraren eta ekintza sozialaren mugatzaile indartsu bihurtzen dira» (75. or.), erkaketa sozialerako "jopuntuak" aukeratzean, antzekotasun-irizpidearen ordez, talde arteko harremanen legitimitaterik ezaren hautematea erabiltzen denean. Legitimitaterik eza hautematen denean, talde arteko erkaketa desfaboragarriak, norberaren estima edo identitate soziala kaltetu baino gehiago ekintza sozialerako motor bihurtzen dira zuzenean.

6.4. ONDORIOAK

Gabezia erlatiboak, Stouffer eta kolaboratzaileen (1949) lehen ikerlanen ondoren, ikerketa-multzo handia sustatu du. Oso gai garrantzitsua da eta aurkezturiko ikerketek kontzeptu horren egokitasuna frogatu dute, aldaketa sozialak sustatzea helburu duten portaerak gizabanakoek zergatik dituzten azalduz. Ikerketa horiei esker, gabezia erlatibo mota guztiak ekintza sozialari zuzenean lotuta ez daudela frogatu da. Agerikoa da pertsona barneko eta pertsona arteko GE gizabanakoaren egoera –eta ez taldearena— hobetzera zuzenduta daudela. Hala ere, Taylor eta McKirman-en (1984) ikerketan oinarritzen bagara, pertsona arteko GEk zeharkako rola beteko luke ekintza kolektiboarekiko. Nolabait, aldaketarako lehen urratsa izango litzateke. Gizabanakoak egoera bere kabuz hobetzea lortuko ez balu, endotaldearen egoera arreta handiagoz aztertzera bultzatuta legoke. Endotaldeko kideek beren zoritxarra partekatzen dutela konturatzeak talde arteko GEra bultzatuko luke, horrela, errebindikazio kolektiboaren portaerak sustatuz. Dena den, egungo ikerketak ez datoz bat ikuspuntu horrekin (Moghaddam eta Perreault, 1992).

Lehenago ikusi dugunez, ikerketa-multzo nabariak talde arteko GEren eta errebindikazio-portaeren arteko erlazioa berretsi egin du, pertsona arteko GE kontuan izan gabe. Gizabanakoa zenbat eta asegabeago egon endotaldeari egokituriko baldintzekiko, orduan eta motibatuago dago aldaketa soziala sustatzeko. Ikerketabide berriak ere iradoki badira ere, oraindik zenbait arazo mugatzeke dago egungo jakintza-alorrean. Arazo horietariko adibidetzat har daiteke egoera desberdinetan talde arteko GEren sentimenduak sustatzeko beharrezkoa den desberdintasun-maila zehaztea, edo talde arteko GErekin elkarturik dauden errebindikazio-portaera motak zeintzuk diren zehaztea, besteak beste.

Talde arteko GEren inguruko ikerketek beste muga batzuk ere azpimarratu dituzte. Talde arteko GE errebindikazio-portaerak aurresateko kontuan har daitezkeen aldagaietariko bat bestetik ez da. Izan ere, beste hainbat faktore garrantzitsu nabari da. Pentsa dezagun, esate baterako, endotaldearekiko identifikaziomailan edo baliabide-banaketetan desberdintasunen zergatien interpretazioan. Talde arteko GEren luzapena hobeto ulertzeko, integratu egin beharko litzateke errebindikazio-portaerak aurresateko eredu sakon eta zabal batean. Ingurune

ekonomiko zailean talde faboratuek eskubide garrantzitsuak galtzen dituztenean eta talde desfaboratuekiko laguntza-programak urritasunean daudenean, protesta soziala sustatzen duena ulertzea gero eta garrantzitsuagoa da.

Horrelako giro sozialean, non beharra duten pertsonentzako laguntza gero eta gehiagotan dagoen abantailatsuen borondate onaren esku, beharrezkoa da jakitea desfaboratuen alde jotzera zerk bultzatzen duen. GEren teoria ere erabilgarria litzateke horrelako giro sozialean. Hain zuzen ere, ikertzaileek ekin berri diote orain arte zeharo ahaztuta egon den GE mota berri bati, hots, *besteen GE*ri. Besteen GE da norbera taldetik bereizten duen beste talde baten egoerarekiko ezinegon-sentimendua. Beraz, besteen GEz hitz egiten da gizabanakoak exotalde baten egoera beste exotalde baten egoerarekin erkatzen duenean, erkaketa horren ondorioz ezinegona gertatzen baita. Esate baterako, besteen GE, Frantziako herritar zuri batek sentitzen duen gabezia erlatiboa litzateke, Hego Afrikako beltzei egokituriko zortearekin asegabe dagoenean, azken herrialde horren gutxiengo zuriarekin alderatzean. Edo euskaldun batek sentitzen duen gabezia erlatiboa Magreb-eko etorkin bati egokituriko zortearekin asegabe dagoenean, Mendebaldeko indar zapaltzaileekin alderatzean.

Besteen gabezia erlatiboa beste GE motetatik bereizten da bai erkaketa-objektuari dagokionez, bai ondorioz sortzen diren portaera-motei dagokienez. Walker eta Pettigrew-ren (1984) arabera, besteen GEk portaera altruista edo liberalak sustatzen ditu. Arestian aipaturiko adibideari helduz, Hego Afrikako beltzekiko gabezia erlatiboa sentitzen duen pertsonak, hipotesien arabera, herrialde horrekiko presioa egiten duten neurriak bermatuko ditu eta arraza-diskriminazioa geldiarazteko jokatuko du. Edo Magreb-eko etorkinekiko gabezia erlatiboa sentitzen duen pertsonak musulmanekiko egiten den presio militarraren kontrako mobilizazioak berretsiko ditu eta diskriminazioaren aurka ari izango da.

Besteen gabezia erlatiboaren eta portaera altruistaren arteko erlazioa, orain arte, emakumeen egoera hobetzeko alorrean landu izan da (Tougas, Dubé eta Veilleux, 1987; Tougas eta Veilleiux, 1989; 1990, 1991a; Veilleux, 1989; Veilleux eta Tougas, 1989). Ikerketa horietan frogatu izan da, Walker eta Pettigrew-ren (1984) hipotesien arabera, lan-merkatuan emakumeekiko gabezia erlatiboa sentitzen duten gizonezkoak enplegu-berdintasunerako programen aldekoak direla. Gizonezkoek zenbat eta sexu-desberdintasun gehiago aurkitu eta asegabeago egon, orduan eta positiboago ebaluatzen dituzte egoera hori gainditzera zuzendutako neurriak. Emaitza horien arabera, besteen gabezia erlatiboa exotaldearekiko portaera altruista edo liberalen aurresale egonkorra da. Hala ere, ikerketa gehiago behar da, beste alor sozial batzuetan, hipotesi horren balio aurresalea baieztatzeko.

Etorkizunean iker daitekeen beste GErik badago. Hain zuzen ere, *GE bikoitza*z ari gara, hau da, norberaren zorte pertsonalarekin batera endotaldeari egokituriko baldintzekiko ere ezinegona sentitzeaz ari gara (Runciman, 1966). GE bikoitza,

erradikalismoaren edo erreforma sozialaren aldeko edo aurkako jarrerak azaldu beharrean, sistema sozialaren eraldaketa osoa azaltzeko erabilgarria da. Davies-en (1971) Iraultzen Teoria arretaz aztertzen bada, zaila dirudi frustrazio soil batetik, horren izaera edo zabalera kontuan izan gabe, iraultza politiko bat azal daitekeenik. Fenomeno sozial eta politiko konplexuaz ari gara, dimentsio psikologikora mugatzerik ezin dena, gure ustez. GEren teoriaren mugatze psikologiko horrekiko kritikak garrantzitsuak eta nabariak izan dira. Hala ere, lehenago esan bezala, GEk zeresana izan dezake iraultzetan. Interesgarria da ohartzea GEren teoria iraultzaileen teoria gisa hartzea probetxugarriagoa dela, iraultzen teoria gisa hartzea baino. Beste era batera esanda, GE mota batzuk, GE bikoitza esaterako, iraultzaren kausatzat jo ezin badira ere, iraultza egiteko *desira*ren edo "kontzientzia iraultzailearen" jatorrian egon litezke. Jendeak iraultza nahi izatea ez da iraultza azaltzea, bai baina arazo horren alderdi garrantzitsua.

Laburbilduz, gabezia erlatiboaren inguruan buruturiko ikerketetan oinarrituz, protesta soziala hobeto ulertzeko faktore garrantzitsua da, agian faktore-multzo bat. GEk, berez, jendea portaera bat izateko motibatzen duen arrazoietariko bat besterik ez du azaltzen. Aurkitutako faktoreak batuko lituzkeen eredu zabala har daiteke etorkizunerako fokatze itxaropentsutzat, gizabanako batzuen, eta ez besteen, altxamendua ulertu ahal izateko.

7. Iritzi publikoaren dinamikak

7.1. SARRERA

Iritzi publikoa Zientzia Sozialetan bizitasun eta eztabaida gehien sorrarazi duen kontzeptua dela esan daiteke. Kontzeptua, XVIII. mendeko filosofia sozialean aurkitu bazen ere, erroak Errenazimentuan aurki daitezke, baita Platon eta Aristotelesen idazkietan ere. Iritzi publikoari buruzko idazkiek gizarteari buruzko pentsamendua zeharkatzen dute: gizarte-teoria demokratiko eta kritikoan hasirik (Rousseau, Bentham) Soziologia eta psikologia sozialetik pasatuz (Tarde, McDougall, Allport) mass-medien eraginaren ikasketa enpirikoraino (Lazarsfeld, Hovland).

Iritzi publikoaren kontzeptua gaurkotasun eta erabilera nabarikoa bada ere, ez da gezurra, oso eztabaida handikoa dela gaur egun ere. Hala, ikertzaileak banatuta egon dira harekiko fokatze teorikoan: batzuen ustez, definizioa, ikuspegi indibidualeko agregatu hutsean oinarritzen da (Childs, 1939); besteen ustez, aldiz, eztabaida agregatu kolektiboko ikuspegian oinarritzen da, gizabanakoaren mailara mugatu ezin dena (Cooley, 1902; Blumer, 1948). Iritzi publikoaren definizio-arazoaren zailtasunak ikusirik, autoreren batek, ondoko hau adierazi izan du «Espiritu Santuari heltzea bezain zaila da Iritzi Publikoaz zehaztasunez hitz egitea» (Key, 1961:8).

7.2. IRITZI PUBLIKOAREN ARAZOAK

Iritzi publikoak zehazki zer esan nahi duen ez da gauza garbia. Jadanik 60ko hamarkadan 50 definizio inguru aurkitu ziren eta fokatze askotako filosofoak, juristak, historialariak, politikoak, psikologo sozialak eta abar, saiatu izan dira kontzeptua definitzen, akordio handiegirik lortu gabe.

Hemen, eta iritzi publikoa ulertzea helburu dugunez, definizio soila ematen saiatuko gara, haren erabilera desberdinak ulertuz; hau da, bere jatorri historikoetatik eratortzen diren arazoei ekinez.

7.2.1. Ideiaren jatorriak

Iritzi publikoaren kontzeptua, oro har, Ilustrazioaren ekoizpena dela esan daiteke, XVII. eta XVIII. mendeko filosofo liberalen (Locke, Rousseau) eta, bereziki, XIX. mendeko Teoria Demokratikoaren (Bentham) ekoizpena, hain zuzen ere.

Hala ere, iritzi publikoari buruzko teorizazioak baditu jatorri zaharragoak: Grezia zaharreko filosofoak, alegia. Azken horiek elkarren aurka jarri zuten *askoren gobernua* (Demo-krazia) eta *gutxiren gobernua* (Aristo-krazia). Horrela, Platonek zalantzan jarri zuen askoren konpetentzia arazo filosofikoak erabakitzeko: giza arazoen zuzendaria filosofoa da. Aristotelesek, bere aldetik, pentsatzen zuen, demo-en sentimendu kolektiboek ekar ziezaieketela zentzumena arazo politikoei. Dena den, esan beharra dago, iritzi publikoaren inguruan egun ari diren antzeko eztabaidak, hala nola gizartea versus estatua eta publiko orokorra versus politikarien arteko eztabaidak, ez zirela Grezia zaharrekoen interesekoak. Aldiz, *iritzi*aren eta *publiko*aren arteko lotura politikoak jatorri modernoagokoak dira, XVIII. mendeko Zientzia Sozialen sorreran agertu baitziren.

Iritziaren kontzeptu goiztiarrak. Habermas-en (1962) arabera, *iritzi* hitzak bi esanahi aurkitzen ditu latineko *opinio* hitzan, Ilustrazio aurrekoak biak eta oraindik dirautenak: judizioa eta erreputazioa. Lehenengo esanahia funtsean *epistemologikoa* da eta hitzaren erabileratik eratortzen da. Lehenengo esanahi horren erabilerak bi elementu bereizten ditu: judizio-gaia versus iritzia egiatasun-gaia edo, beste era batera esanik, zalantzagarria den zerbait versus egia den zerbait bereizten ditu (egiatasun-irizpidea iritziari oposatzen zaio, demostrazioz edo sinesmenez). Ideia hori *opinio* hitzatik dator, egun erabilia dena eta gizarte orokorrari lotuta dago: zerbait negatiboa, *vulgo*tik eratorria, zabarra, arrunta. Egoera kognitibo bati lotzen zaio, jakintza-maila baxuari, alegia.

Bigarren esanahia *ohitura*ri eta *moral*ari dagokie eta presio ez-formalaren eta kontrol sozialaren rola adierazten du. Berez, erreputazioari eta estimari lotuta dago eta Locke-ren (1690) hiru legeekin islatzen da, hirugarrenarekin hain zuzen ere: 1) Jainkoaren legea, 1) lege zibila eta 3) iritzi-, erreputazio-legea (moda- edo zentsura-lege ere deitua). Beraz, bigarren adiera horretan, jakintza-modua bainoago, onartze edo zentsura zentzuan hartua izango da. Horren arabera, iritzia aurreiritziz betea eta ez-arrazionala izango da: sentimendu gisa, arrazoiari oposatzen baitzaio.

Publikoaren kontzepzio goiztiarrak. Hitz honek ere bi adiera ditu, *populus*-etik eratorriak: sarrera eta ongi publikoa. Lehenengo adierak adierazten du, etimologikoki, sarrera publikoko tokia edo *Res Publica* (Habermas-en (1962) arabera, populazioari irekia zegoen tokia zen; esate baterako, garai feudaletan: iturria eta merkatua). Hemen funtsezko adiera da *irekitasuna* edo *eskuragarritasuna.* Gaur egun, *publikatu* hitzak honelako adiera du: publikoari zerbait eskuragarri zaiona.

Bigarren adiera, ondasun publikoari edo estatuari eta gobernuari dagokie: *ondasun* edo *interes orokorra*. (Era honetan, jabego pribatu hitzak edo frantsesezko *particulier* edo *indibiduel* hitzek aurre egiten diote "publiko" hitzari (Ozouf, 1988)). Estatu modernoen sorrera baino lehenago jauntxoen jarduerak publikotzat hartzen ziren (Habermas: *publicare*). Absolutismo garaian erregea zen pertsona publiko bakarra, eta «gizarte partikularista baten unitate-printzipioa eta iturria» (Baker, 1990). Antzinako erregimena erori ostean, esanahi hori estatuari egokituko zaio gobernarien gainetik, eta objektiboki existentzia duen entitate gisa erabiliko da (Habermas, 1962).

Laburbilduz, iritzi publikoaren kontzeptua Ilustraziora arte ez bada sortzen ere, iritziaren eta publikoaren erabilera askotarikoak izan dira. *Iritzia* erabili izan zen, alde batetik, zerbait arrazional eta kognitiboa adierazteko eta, beste aldetik, prozesu irrazional eta soziala adierazteko ere bai. *Publikoa*k ere erabilera bikoitza zuen. Lincoln-ek zioenez, *publiko* hitzak bi adiera zituen jatorriz: jendea*rena* (sarrera publiko zentzuan) eta jendea*rentzat* (ondasun orokorra, komuna). Jende*az* (jende komunak egiten duena, egun bezala) geroago etorri zen.

7.2.2. Iritzi publikoaren jaiotza

Aurreko hitz biren konbinaketak, hau da, *iritzia*ren *eta publikoa*ren artekoak, Europan jazo ziren aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoetan izan zuen bere jatorria. Gobernuaren esparrutik kanpoko judizio kolektiboak dira, erabaki politikoetan eragina dituztenak (Lazarsfeld, 1957).

Kontzeptuaren jatorri hurbila, halere, zenbait pentsalari frantziarrengan jar daiteke (Rousseau, 1744 —*L'Opinion Publique*—, arestiko iritziaren bigarren zentzuan) eta jadanik 1780 inguruan hitza erabili zen fenomeno sozialak baino gehiago fenomeno politikoak adierazteko: ondasun, borondate, espiritu, kontzientzia eta abar publikoarekin batera.

Kontzeptuaren garapenerako indar historikoak, hala ere, lehenago hasi ziren, XV. mende inguruan alegia. Garapen historiko horiek ondoko hauek dira laburbilduta: 1) Inprentaren sorrera (Childs, 1965) eta teknologia horren garapena. 2) Literaturaren hedapena, XVI. mendeko hazkuntza ekonomikoaren klase berrietan, horien alfabetizazioarekin batera. 3) Aurreko joera areagotu egin zen Erreforma protestantearekin, zeinak elizarekiko lotura gabeko literatura erlijiosoaren herri-hizkuntzetako irakurleria zabala sortu zuen. 4) Gainera, arteen profesionalizazioa —literaturan— nagusien patronazgotik kanpo agertuko da. 1700ean agertzen dira irakurle-elkarteak eta bigarren eskuko liburutegiak. 5) Lutero-ren erronkak zalantzan jarri zuen Aita Santuaren autoritatean eta jurisdikzioan oinarrituriko orden soziopolitikoa. Gainera, indar historiko horiek, gizarte teozentrikotik, gizabanako berri baten gizartea ekoitzi egin zuten, "euren patuaren jabeak" ziren gizabanakoena, alegia (Held, 1987). Aldaketa horien ondorioz, gizabanakoaren

askatasuna aldarrikatzen zuen filosofia liberala (Locke, 1690) sortu zen. Filosofia berri horren arabera, gizabanakoak askeak izan behar ziren, euren lehentasunei jarraitzeko bizitzako alor orotan: alor politikoan, ekonomikoan, erlijiosoan, eta abarretan. 6) Era berean, Weber-ek azpimarratu zituen merkatuko aldaketa sozio-ekonomikoen jatorri erlijioso-kulturalak (Weber, 198?).

7.2.2.1. Esfera publikoaren sorrera

Habermas-en (1962) arabera aldaketa sozio-ekonomikoek ahalbidetuko dute burgesiaren sorrera, eta arrazoinamendu kritikoko "esfera edo barruti publikoa" (kafetegiak, saloiak, eta abar) ere, non "tituluaren autoritatea ordezkatuko baitu eztabaida eta arrazoinamenduaren autoritateak".

Barruti publikoa, edo beste era batera esanik, informazio aske eta kritikoaren trukatze hori, denbora pasa ahala, ekintza politikoaren lanabes bihurtuko da. Publiko irakurriak indar politikoa hartuko du burgesia gauzatu ahala, eta estatu absolutistari kritika liberala trenkatzen hasiko da, literatura politikoaren zirkulazioaren eta saloiko eztabaiden bitartez.

Beraz, politikoki aktiboa den barruti publikoaren hazkuntzarekin batera, iritzi publikoa sortuko da autoritate politikoaren forma berri gisa.

Habermas-ek (1962) azpimarratuko ditu Ilustrazioaren garaiko iritzi publikoaren ezaugarriak, funtsean arrazionala eta berdinzalea izango baita: 1) Diskurtso arrazoitutik eratortzen da, elkarrizketa eta eztabaida aktibotik, alegia. Gainera, eztabaida edo debatea *publikoa* da zeren zuzenduta baitago borondate edo ongizate publikora (eta ez interes indibidualetara). 2) Debatea, era berean, publikoa da zeren partaidetza irekikoa baita (horrela desiratua, gutxienez). 3) Debatea ere *subiranoa eta berdinzalea* da, status ekonomikotik berezitua (ideien merituan oinarritzen da eta ez botere politikoan). 4) Azkenik, debatea, arazo politikoen eta beren ondorioen eztabaidaren publizitateaz ezaugarritua izango da, haren helburua errealitateari buruzko judizio egokiak ematea den neurrian.

Laburbilduz, hasiera batean, iritzi publikoaren ikuspegi horrek hobetsiko du kolektibitate sozialaren izaerako fokatze soziologikoa, geroztik "klasiko" bihurtu dena (Berelson, 1950; Lazarsfeld, 1957).

7.2.2.2. Iritzi publikoaren esanahian ari diren zalantzak

Habermas-ek (1962) egindako interpretazioari hainbat kritika leporatu izan zaizkio. Kritiken barnean honoko hauek lirateke: 1) Bere esfera publikoaren interpretazio marxistari: jatorri burges-marxista soila hartzen du kontuan (Nathans, 1990). 2) Iritzi publikoaren ezaugarri berdinzale, kritiko eta arrazionala (Darnton-ek (1982) sentsazionalista eta politiko-pornografikoa dela leporatuko dio). 3) Ilustratuak ez ziren berdinzaleak baizik eta indibidualistak (Baker, 1990). 4) Ingelesen

inbidiagatik eztabaida amaigabean ari zirela (Baker, 1990). 5) Ez zuten argitu ondasun kolektiboaren eta interes pertsonalen arteko gatazka. Iritzi publikoa arrazoian oinarritzea filosofia politiko liberalaren dilemari buruzko ateraldi bat besterik ez zen.

Gainera, iritzi publikoaren lehen idazleak ez ziren jabetzem zein jende-talderi zegokion kontzeptua. Esate baterako, Ozouf-en (1988) arabera, iritzi publikoa, 1) askotan, "letra-gizonek" osatzen zuten. Besteen arabera, aldiz, iritzi publikoaren jende-taldea 2) parlamentuak ziren, "soziologikoki kualifikatua den iritzi-emaileen taldea", alegia. Askotan monarkia kritikatzeko bainoago, monarkiaren gabezian asmaturiko legitimazio-printzipioa (monarkiaren alde eta aurka zirenen artean) besterik ez baitzen iritzi publikoa.

Zentzu horretan esan daiteke *publikoa*, askotan, eraikuntza politiko-ideologikoa izan zela, erreferente soziologiko garbirik gabea (Baker, 1990). Publikoa, beraz, autoritate-sistema berria zen: gobernuek eta gobernuen kritikoek beren helburuak bermatzeko aipatzen zuten iritzi publikoa. Horrela, Necker, terminoaren popularizatzailea, monarkiaren finantza-ministroa izan zen eta *Compte Rendu* idatzi zuen 1781ean, inbertsoreek, Ondasun Publikoan, konfiantza berma zezaten. Berak zioenez, «bakarrik eroek, teoriko puruek edo ikasleek porrot egiten dute iritzi publikoa kontuan hartzerakoan».

7.2.2.3. Iritzi publikoa eta gehiengoaren gobernua

Ilustratuei aurre eginez, XVIII. mendeko gainerako autoreek demokrazia ordezkagarria hartu zuten oinarri, utilitarismoaren teorikoek (Bentham, 1838; Mill, 1837) batik bat. Iritzi publikoa portaera sozialari dagokio, baina, bere eragin politikoari dagokionez, mekanismoak ez ziren argiak. Rousseau-ri aurre eginez, jendea jatorriz portatzen da bere desirak asetzeko eta mina ekiditeko. Filosofia hedonista horretatik Bentham eta Mill filosofoek aldaketa utilitarioa emango dute; horren arabera, gizartea, interes eta utilitate indibidualen maximizaziotik eratorriko baita.

Interes kontrajarri horiek harmonizatzeko mekanismo bat sorraraziko dute, "gehiengoaren gobernua, hauteskunde erregularrak eta plebizitua erabilirik". Hemen hasi zen iritzi publikoa *gehiengoa*ren ikuspegi gisa, "komunitate bateko gizonen interesen aglomeratutzat" hartzen zelako (Minar, 1960). Ondorioz, estatua izango da gizabanakoen eta taldeen gain dagoen epailea, eta haien interesak lehia ekonomikoaren eta elkartruke askearen bitartez maximizatu egingo dira: boto askea eta merkatu askea *sine qua non* baldintzak izango dira.

Utilitarismo demokratikoaren eredua iritzi publiko modernoaren aurretikoa da, denbora pasatu ahala gauzatuko den iritzi-inkesten ikuspegiaren antzekoa. Gainera, utilitarismo demokratikoaren ikuspegia bereizten da aurreko Ilustrazioaren ikuspegitik: ilustratuentzat iritzi publikoa zen ondasun komuna (edo borondate komuna —Rousseau-rentzat, esate baterako—) burutzeko lanabesa, zeinak inplikazio

herrikoi iraunkorrarekin, eztabaida arrazonatu eta berdinzalearen forma hartuko baitu. Utilitaristentzat, aldiz, iritzi publikoa eratorriko da elkarren artean bereizi diren banakoen borondateen maximizazio-funtziotik.

Era horretan, Bentham-ek esate baterako, prentsaren askatasuna, "iritzi publikoaren tribunal" gisa ikusi izan zuen, jendea boterearen gehiegikerietatik babestu ahal izateko: publikoaren zakur zaindaritzat edo laugarren estatutzat hartua izango baita.

Aurreko ikuspegian publikoa zehaztugabekotzat hartzen bazen ere, hemen zehaztutzat hartuko da: *hautesleria gisa*, hain zuzen ere. Bentham-ek sufragio unibertsala eta urteko hauteskundeak ere aldarrikatu baitzituen.

7.2.3. Iritzi publikoa ikasketa-objektu gisa

XIX. mendera arte iritzi publikoari buruzko ikasketa normatiboa eta filosofikoa izan zen eta, funtsean, politika-izaerakoa. Hala ere, inork ez zuen idazten iritzi publikoaren konpetentziaren ebaluazioaz. Nolabait esateko, liberalentzat iritzi publikoa klase ertainen ahotsa zen, aurrerapen-agentea alegia. Kontserbatzaileentzat, aldiz, zerbait arriskutsua eta aldakorra zen, gaizki informatua eta politikaindar gisa mugak behar zituena.

XIX. mende bukaeran iritzi publikoaren ikasketan aldaketa nabaria gertatu zen: Zientzia Sozialen ezaugarriak hartu zituen, ikerketa enpirikoaren ezaugarriak, hain zuzen ere (Lazarsfeld, 1957). Iritzi publikoaren "indar berria" klase guztietara barreiatu zen hezkuntzaren eta komunikabideen areagotzearekin batera (Bryce, 1988; Cooley, 1902; Tarde, 1890). Aldaketa hori, funtsean, bikoitza izan zen eta ikuspegi teorikoarekin eta metodoarekin ere zerikusia izan zuen. Batetik, eta ikuspegi teorikoan jazo ziren aldaketei dagokienez, hasiera batean iritzi publikoaren oinarri ziren hausnarketa filosofikoak eta politikoak, gero, ikerketa soziologiko eta psikologiko bihurtu ziren. Gainera, garai batean hausnarketa teorikoak, estatuan, borondate indibidualak nola elkartzen ziren gaiaren inguruan ari baziren ere, ikuspegi berri honetan hausnarketa teorikoak oinarritu ziren iritzi publikoaren alderdi sozialen eta portaerazkoen ikerketetan. Beraz, iritzi publikoaren ikasketa-interesak joera berriak hartu zituen, hain zuzen ere, «gizartean, iritzi publikoak betetzen dituen funtzio eta botereen azterketa azpimarratuko da, iritzi publikoa aldarazteko edo kontrolatzeko bitartekoen azterketa, eta bere formulazioan, alderdi emozionalen eta intelektualen azterketa ere azpimarratuko da» (Binkley, 1928:393). Bestetik, eta metodoaren aldaketari dagokionez, gizarte-zientzia berrietan sortzen ari ziren fokatze berriak onartu ziren (masa-portaerarenak eta gizarte-psikologiarenak, batik bat), eta fokatze berri horiek lantzen zihardute fenomeno berriak ere bai: jarrera, iritzi, propaganda, portaera politikoa eta masa-komunikazioa.

7.2.4. Iritzi publikoan dirauten arazoak

Arestian ikusi ditugun iritzi publikoari buruzko bi ikuspegiek, Ilustrazioarenak eta teoria demokratikoarenak, ondorengo ikerkuntza eta hausnarketa teoriko guztia gurutzatu zuten. Hemen ikusiko ditugun arazoek ikuspegi haiekin zerikusirik izango dute, ondorengo ikerkuntzaren ondorioak badituzte ere. Funtsean 5 arazo aipatuko ditugu, bik iritzi publikoaren balizko "azalaldetasunarekin" (gaitasun-gabeziak eta baliabide-gabeziak) dute zerikusirik eta hiruk haren balizko susceptibilitatearekin (gehiengoaren tiraniak, propagandak eta eliteen menderatzeak).

1. *Herritarraren gaitasun-gabezia.* Herritarren arazo politikoaren gabezia, Platonen lanean eta Ilustrazioan agertu bazen ere, Bryce (1888) eta Lippman, batik bat, izan ziren arazo hau azpimarratu zutenak. Lehenengoak adierazi zuen arazo publikoak bizitzaren interesetan hiru edo laugarren mailan kokatzen zirela, eta bigarren autoreak, teoria demokratikoak gehiegi eskatzen zuela eguneroko herritarrengandik. Lippmann-en idazlanetan oinarrituz esan daiteke (Public Opinion, 1922; The Phantom Public, 1925) iritziak direla «pictures in our heads ... Which are out of reach, out of sight, out of mind». Estereotipoen bitartez banakoak iragaziko du jasotzen duen informazioa. Horrela, prentsa, herritarra hezteko baino herritarra nahasteko bideratuta dago. Beraz, arazo hauek gainditzeko zientzialari politikoen elkarte independentea aldarrikatuko du; hots, "ikusgaiak ez diren egitateak ulergarriak egiteko".

2. *Baliabide-gabezia.* Ondorengo kritikek, Lippmann-en herritarraren gaitasun-gabeziarekin desados ez baziren ere, beste arazo bat azpimarratu zuten. Horrela, Dewey-en (1927) arabera, arazoa ez zen publikoaren gaitasun-gabezia, baizik eta komunikazio publikoaren metodo nahikoen falta. Lippmann-en arabera, benetako demokrazia nazionalerako, *Gizarte Handia* —hau da, estatua— inoiz ezin izango da bihurtu *Komunitate Handia* —hau da, komunitatea—. Lippmann-engandik bereiziz, Dewey-k pentsatzen zuen posible zela lotura hori, nahiz eta ezin izango zituen komunitate lokalaren ezaugarriak inoiz izan . Bere erantzuna hezkuntzan jarri zuen, eta eztabaidarako eta herri-pertsuasiorako herri-mailan oinarrituriko zientzia soziala aldarrikatu zuen, herri-mailako prentsaren bitartez. Autorearen arabera, «funtsezko beharra da debatearen, eztabaidaren eta pertsuasioaren baldintza eta metodoak sustatzea. Hau da publikoaren benetako *arazoa*» (208. or.). Antzeko planteamendua egin zuen Lasswell-ek (1941) honakoa adieraztean, «demokraziak hizketa-era berriak behar ditu» (ikus ere, Commission, 1947).

3. *Gehiengoaren tirania.* Hirugarren arazoa iritzitako mediokritatearen arriskuari dagokio, gehiengoaren presioak sustatutakoa dena. Horren arabera, multiplo komunetan txikiena dela eta, iritzi publikoan gutxiengoen

ikuspegiak ez dira agertzen —nahiz eta baliotsuak izan— gehiengoaren presioagatik. Jadanik Tocqueville-ek (1835) beldur hori aipatu egin zuen: berdinen gizartean gutxiengo-egoeran ziren banakoak "isolatu eta babesgabe" geldi litezkeela gehiengoaren aurrean. Ideia hori XX. mendean zehar egonkorra izan da, Noelle-Neumann-en (1984) "Isilunearen biribila" adierazlea baita. Gainera, arazo hau gero eta larriagoa dela adierazi dutenak ere badira, esate baterako, Bryce-ren (1888) adierazpena: «Iritzi publikoak zenbat eta gehiago gobernatu, orduan eta gehiengoaren autoritate absolutuagoa agertzeko probabilitate gehiago, gutxiengo indartsuak agertzeko probabilitate gutxiago, eta politikariek besteak obediarazten arduratzeko probabilitate gehiago ere bai». Lowell-ek (1913) ere iradokitzen du demokraziak babestu behar dituela gutxiengoak, sozializazioaren eta hezkuntzaren areagotzearen bitartez.

4. *Propagandarekiko suszeptibilitatea*. Laugarren arazoak azpimarratuko du propaganda eta pertsuasiorako publikoaren aldetik dagoen suszeptibilitatea; bereziki, irrazionalak eta emozionalak diren deialdiekiko suszeptibilitatea. Jadanik Lippman-ek adierazi zuen (1925) borondate orokorra burutzea ez zela "misterio hegelianoa" aztertzea, baizik eta politikariek dakiten "artea". "Arte" hori oinarritzen da emozioak biltzen dituen sinboloen erabileran, aldez aurreko emozioen ideietatik bereizi direnak. Orson Wells-en *Munduen Gerra* horren adierazle klasikoa da (Cantril *et al.,* 1940), eta Lasswell-en lanak ere bai (1927, 1957)

5. *Eliteen menderatzea*. Bostgarren arazoa Ginsberg-ek (1986) "masa-usteen domestikazioa" izendatu duen fenomenoari dagokio. Hemengo funtsezko ideia publikoaren pasibitatea areagotzean datza, ondorioz gobernu eta eliteen menderatzera baitarama. Horren adibide bat Mills-en lana (1956) da. Autore horren arabera AEBko gizarteak ondoko hiru hierarkia-geruzak ditu: lehenengo geruzan, eliteen geruza murritza dago; bigarrenean, elkarren aurka ari diren indar politikoen multzo desberdinak daude; hirugarrenean, herritarren botere gabeko masa handia dago. Autorearen arabera, mass-medien eraginez, populazioa eraldatu egin da ideia eta iritziak ekoizten dituen *publikoa* izatetik *kontsumitzaile-merkatua* izatera.

Beste menderatze-estrategia batzuk ere planteatu izan dira egungo kritikarien arabera (Hereman & Chomsky, 1988). Horien artean aipagarria da Ginsberg-en lana (1986). Autore horren arabera, gobernuaren eta populazioaren arteko erlazioa, tradizionalki aurkari-estilokoa zena, egun dependentziako estilokoa da. Egun, herritarrak estatua babesten du, haren zerbitzuen mendeko bihurtu izan den heinean. Bere hitzetan, «hauteskunde-instituzioen garapenarekin masa-iritzien adierazpena indarge bihurtu izan da. Herritarrak gobernua etekin-iturritzat ikusten hasi zirenetik, iritziak autoritate zentralarekiko etsaitasun-maila apaldu zuen. Laburbilduz, Mendebaldeko sistemetan masa-iritzia, borroka-egile, aurreikustezina eta, askotan,

indar-apurtzailea izatetik bihurtu izan da arrisku gutxiagoko eta menderagarria den fenomeno» (58. or.). Gainera, iritzi publikoaren industria domestikaziorako oinarrizko lanabesa izan da, eta benetako esfera publikoaren ezaugarria den argumentazio arrazionala desagerrarazi egin du (ikus ere Habermas, 1962).

7.3. PUBLIKOAREN KONTZEPTUA

Iritzi publikoaren kontzeptuan nolabaiteko polarizazioa dago gaur egun: iritzi indibidualen agregatua —edo iritzi-inkestek neurtzen dutena— (Converse, 1987; Childs, 1939) vs "elkarren arteko eragin eta komunikazioaren ekoizpen kooperatiboa" (Cooley, 1909).

Hala ere, polarizazio hori XX. mendean gertatu izan da. Mende hasieran, maila supraindibidualeko ikuspegia zuen iritzi publikoak. Masa-psikologiaren garaian, publikoa hartu izan zen talde desegituratu eta aldakor gisa (Park, 1904; Blumer, 1946) eta bere funtzioa zen gizarte egonkorrek zuten egoera aldakorretara moldatzeko mekanismoarena, eztabaida eta debatearen bitartez. Beraz, esanahiak zerikusi handiago zuen *publiko baten iritzia*rekin, iritzi publiko desberdinen taldekatzearekin baino.

Ondoren, iritzi-inkesten industriaren sorrerarekin, eta Converse-rena bezalako lanen bitartez, kontzeptua indibidualizatu eta *iritzi publikoa* sortu zen.

Garrantzizkoa ere da *gai publikoa*ren esanahia, eztabaida berehalakoa eta oposizio kolektiboaren bitartez eratuko baita. Horren adierazle teorikoa *eredu diskurtsiboa* izango da.

7.3.1. Jendetza, publikoa eta masa

Moscovici-ren arabera, egungo gizarte-psikologia guztia oinarritzen da "gizartearen masifikazioaren" garaian (Moscovici, 1985:347). XX. mende hasieran izan ziren portaera kolektibo berriek honoko galdera hau sustatu egin zuten: nola bihur litezke norbanako zibilizatuak manifestari haserretuak? Andanaren ikasketaren ezaugarriak islatuko dira garaikide diren beste kontzeptu hauetan: masa eta publikoan.

7.3.1.1. Jendetza

Le Bon-ek XX. mende hasierako portaera kolektibo berriak aztertzerakoan, hau adierazi zuen: «Masen jainkozko eskubidea, erregearen jainkozko eskubidea ordezkatzear dago» (Le Bon, 1895:10). Era horretan, Parisko komunaren masa sozialisten edo herri-klaseen hazkuntza aztertu zuen autore horrek.

Le Bon-ek, hipnosi eta sugestio ez-kontzientean oinarrituz, masen fenomenoak azaltzeko asmoz "andanen gogamen-unitateko legea" sortu zuen, ondoko hiru

mekanismoen bitartez: 1) Jendetzan egotearen *anonimatuak* oinarrizko instintuen mugapen kulturalak askatuko ditu. 2) Emozioa eta ekintzak barreiatuko dira kide guztien artean *kutsapen* edo imitazioaren bitartez (Tarde, 1890). 3) Jendetzaren eraginez, gizabanakoaren *kontzientzia galtzea* gertatzen da, sugestibilitate ez-kontzienterako eta pertsuasiorako gai bihurtzen delarik. Hau da, gizabanakoa jendetzaren borondate kolektiboak hipnotizatuko du. Beraz, "andanen garaiak" sorraraziko duen kontzeptua, *andana* alegia, publikoaren kontrakontzeptua (portaera kolektiboa) izango da.

Ondoren eginiko azterketetan, hipnosi-mekanismoa desagertu zen baina antzeko fenomenoen funtzioak aztertu ziren: modak, mobilizazio kolektiboak, eta abar.

7.3.1.2. Publikoa

Publikoaren eta andanaren artean dauden berdintasunak eta desberdintasunak aztertzea izan zen Park-en (1904) ekarpen nagusietariko bat. *Berdintasun*ei dagokienez, biak dira: 1) Aldatzeko eta egokitzeko mekanismoak: taldeek hartzen dituzten antolakuntza-forma laburrak, elkarte berriak sortzeko. 2) Gainera, entitate berriak sortzeko hasiera-lanabesak dira. 3) Borondate orokorrak gobernatzen ditu. 4) Ez dira talde formalak, "aurreko urrats enpirikoak" baizik, taldeen eraketetan. Azkenik, biak ez dira "gizartea", hau da, ez dira normatiboak. Bestalde, eta publikoaren eta andanaren arteko *desberdintasun*ei dagokienez: 1) Jendetzak esperientzia emozionalaren bateratasunez ezaugarritzen diren bitartean, publikoak diskurtso arrazionalean eta oposizioan ezaugarritzen dira. 2) Jendetzak emozio partekatuen erantzunez eratzen dira eta publikoak gai arazotsu batekiko erantzunez antolatzen dira. 3) Jendetzako partaidea izateko behar dena, sentitzeko eta identifikatzeko gaitasuna da; publikoko kidea izateko, aldiz, besteekin arrazoitzeko eta pentsatzeko gaitasuna. Azken finean, Park-ek zioenez, portaera publikoa, hein batean, bulkada emozionalez gida daiteke, partzialki, «baina publikoak kritiko izateari uzten dionean, desagertu edo jendetza bihurtzen da» (80. or.).

Baliteke Blumer (1946) izatea, publiko kontzeptuari, sakontasun gehien eman ziona, oinarrizko entitate kolektibo gisa: «Publiko hitza erabiltzen da jende-talde bat adierazteko —entitate kolektibo elementala, alegia—, baldin eta kolektiboko kideak 1) elkarren aurka badaude gai arazotsu bat dela eta, 2) gai arazotsu horri ekiteko moduarekin ados ez badaude, eta 3) gai arazotsu horretaz eztabaidan jarduten badira» (189. or.). Beraz, gai batekiko desakordioa eta eztabaida dira publikoari existentzia ematen diotenak.

Gainera, Blumer-en ustez, jendetzak bezala, publikoak ere ez ditu gizarte baten ezaugarriak eta bere kideek ez dute rol-status finkorik (189. or.). Talde-mota amorfoa da eta tamaina, arazo edo gaien arabera aldatzen da. Beraz, jendetza eta publikoa, jarduera preskribatzaileak izan baino areago egintza bati heltzeko ahaleginetan jarduten dira, horregatik beren ekintza *sortzeko* behartuta daude.

Beraz, Blumer-en aburuz, iritzi publikoa eratzen da, funtsean, argudio eta kontra-argudioekin. Horretarako beharrezkoa izango da hizkera komun bat, "diskurtsoaren unibertsoa" alegia. Gainera, Blumer konturatu zen, debate publikoa jardun daitekeela, aurreiritzitako izaera emozional batetik, izaera inteligente eta erreflexibo bateraino. Era berean, Lippmann-i jarraituz (1925), elkarren artean bereiz daitezke bi eratako aktoreak publikoaren barnean: interes-taldeak, batetik; eta behatzaile antzeko aktoreak, bestetik. Beraz, iritzi publikoa arrazionala da baina ez du zertan zentzuduna izanik.

7.3.1.3. Masa

Park-ek bezala, Blumer-ek ere adierazi zuen, publikoa andana bihur litekeela; horrela "sentimendu publikoa" ekoitziko da eta ez iritzi publikoa.

Era berean, Blumer-en arabera (1946), masa bereizten da andana eta iritzitik. Masaren ezaugarriak, beraz, ondokoak lirateke: 1) Gizabanako anonimoak, interakzio-komunikazio urriaz. 2) Oso heterogeneoa da, estratu desberdinetako banakoek osaturik. 3) Gainera, geografikoki barreiatuta daude subjektuak, gutxi antolatuta. Masa, beraz, ez da emozio partekatua (andana bezala), ez eta desakordio eta eztabaida (iritzia bezala); aldiz, "aditasun partekatua" da, gizabanakoak bere eguneroko esperientziatik ateratzen duena.

Masaren interesaren helburua da jendearen aditasuna erakartzea eguneroko kultura eta bizitzatik, unibertso zabalago baterantz; hau da, arauez, erregulazioez edo iguripenez babestuak ez diren alorretarantz (186. or.). Horrela, masa «elkarren artean bereizi eta anonimoak diren banakoen agregatu bat besterik ez da, euren behar propioen erantzunez portatzen direnena» (186-7. or.). Gainera, Blumer arduratu zen masa-portaeraren areagotzeaz, zeren industria- eta hiri-aldaketek mobilitatea, mass-mediak eta hezkuntza sustatzen zituzten heinean, gero eta gehiago ateratzen ari baitziren gizabanakoak beren egunerokotasunetik.

Blumer-ek iradokituriko ideiak, Mills-ek (1956) garatu zituen. Ilustrazioaren garaiko publiko-eratzearen subiranotasunaren kontzeptuan oinarrituz, hau planteatu zuen, alegia, baldintza modernoek masa-fenomenoa areago sustatu dute, iritzi publikoa baino. Beste hitzetan, masa, publikoa ordezkatzen ari da bizitza politikoan ondoko lau arrazoiengatik: masan, a) iritzi gutxiago adierazten dira jasotzen direnak baino; 2) egungo komunikazioan ezin da berehala erantzun; c) iritzia ekintza bihurtzeko prozesua kontrolatzen dute ekintza hori bideratzen eta antolatzen duten autoritateek; d) masek ez dute instituzioen aldeko autoritaterik, baizik eta instituzioek baimendutako agenteak dira masetan barneratzen direnak eta haien autonomia murrizten dutenak (304. or.).

Dena den, arazo horri buruzko ikuspegi baikorragoak badira ere (Katz eta Lazarsfeld, 1955), masaren eta publikoaren arteko bereizketak bere hartan dirau.

7.3.2. Gai arazotsuak eta publikoak

Arestian esan dugun legez, ikuspegi soziologikoaren arabera, publikoa eztabaidatik sortzen da eta gutxi antolatuta dagoen kolektibitatea da. Halere, publikoa argumentazio eta kontra-argumentaziotik eratortzen bada ere, kontuan izan behar dugu, batetik "publiko diskurtsiboek" errepresentatzen dutela hautesleria modernoaren zati txiki bat (Almond 1950; Berelson *et al.,* 1954; Neumann 1986), eta bestetik, publikoa ez dela entitate finkoa, zeren bere tamainan eta eraketan aldatzen baita, eztabaida aldatzen den arabera.

7.3.2.1. Publikoaren garapenaren faseak

Publikoaren ikuspegi soziologikoak azpimarratu izan du haren izaera dinamikoa. Era horretan, Foote eta Hart-ek (1953) ondoko 5 faseak aurkitu dituzte prozesu dinamiko horretan. 1) *Arazoaren fasea*. Egoera bat (pertsonak edo taldeak) arazotsu definitzen denean eta horrela ulertzera heltzen denean: publikoa eta arazoa sortzen dira elkarrekin interakzioan. 2) *Proposamenaren fasea*. Ekintza-proposamen desberdinak planteatzen dira: mugimenduak, emozioak, zurrumurruak, hainbat proposamen agertzen dira fase honetan. 3) *Politiken fasea*. Proposaturiko alternatiben merituak eta ahuleziak eztabaidatzen direnean (diskurtso publikoa: publiko, media eta elite artean ematen da). 4) *Programaren fasea*. Aurreko eztabaida bukatzen da ekintza-plan batekin, eta erabakia orain hartu beharra dago. 5) *Ebaluazioaren fasea*. Harturiko politikaren birrebaluazioak egiten dira, bereziki, debate publikoan konbentzituta ez zeuden gutxiengoen partetik, eta polemika amaitu edo berregituratu egiten da.

7.3.2.2. Aktoreak eta behatzaileak

Aurreko faseetan zehar publikoa aldatzen da tamainaz —hasieran arazoa definitzen duten gutxiengoetatik, eztabaida publikoan parte hartzen duten herritarren-ganaino— eta konposizioaz ere bai —gehiago edo gutxiago inplikatzen direnen artean—.

Bestalde, Blumer (1946) eta Lippmann–ek (1925) publikoaren izaeran maila bikoitza aurkitzen dute: aktoreak (aktiboak direnak) eta behatzaileak (pasiboak direnak). *Aktoreak* dira zuzenean saiatzen direnak (publikoak edo herritarrak) eragina izaten arazo publikoen ibilbidean: arazoak identifikatzen, soluziobideak proposatzen eta besteak pertsuaditzen saiatzen dira. *Behatzaileak* dira aktoreen audientziak; horien egintzei interes edo jarduera gehiago edo gutxiagorekin jarraitzen dietenak. Bereizkuntza hau, hala ere ez da garbia, zeren askotan portaera-mota biren nahastea ematen baita, eta arazoz arazo aldatu egiten dira: «Arazo batean aktoreak direnak, behatzaileak dira beste batean, eta horrela aldatzen dira banakoak, batetik bestera» (Lippmann, 1925:110).

Hala ere, mugen arazoa funtsezkoa izango da iritzi publikoaren sorrerarako, zeren gai publikoak, hein zabal batean, elementu bi hauen arteko interakziotik sortzen baitira. Gai edo arazo publikoez ari garenean, aktoreen arteko (banako, talde, gobernu barneko edo kanpoko gaiez) gatazkaz ari gara.

Debate publikoan audientzia sortzea garrantzitsua da beraz. Dena den, argitu gabe dago medien aldetik gaiak jartzeak eta kentzeak iritzi publikoaren sorreran duen eragina: «politikan gertatzen dena eratortzen da jendea banatzetik fakzio, alderdi, talde, klase eta abarretan» (Schattschneider, 1960). Baina, zergatik gai batek hartzen du horrelako audientzia eta beste batek ez? Zenbait gako badago fenomeno hori ulertzeko: gaiaren konplexutasunak, esanahi sozialak, hartze luzeko inplikazioak, eta abarrek eragin diezaiokete audientziari, arestian aipaturiko zikloan sar dadin edo berrekin diezaion. Oro har, esan daiteke, iritzi publikoaren sorrerako hasierako faseek (arazoaren eta proposamenaren faseak) mugatuko dutela, audientzian, nolabaiteko gakoen aktibazioa, eta norainoko banaketa sustatuko duten ondorengo faseetan (politikaren fasean, alegia) ere bai.

7.3.3. Publikoen inguruan

Publikoa, beraz, zaila da definitzeko duen izate aldakorragatik eta eztabaidagarriagatik: komunikazioaren bitartez eratzen da, estratu aktibo eta pasiboak ditu, kopuruz eta formaz aldatzen da, eta agertu eta desagertu egiten da gaiarekin batera (Key, 1961).

Eredu diskurtsiboaren oinarrizko ezaugarriak 30eko hamarraldiaren inguruan (Allport, 1937) aldatu ziren (iritzi publikoaren instituzioen sorrerarekin, enpirikoki zaila zelako neurtzeko (Converse, 1987)) delako “pertsona bat, boto bat” agregatuaren sorrerarekin.

Eredu soziologikotik, beraz, eredu psikosozialerako aldaketa gertatu zen. Bogart-ek (1972) zioenez «egungo iritzi publikoaren mundua hasi zen Gallupekin 30eko hamarkadaren erdiaren inguruan, Jefferson, Tocquevile, Bryce edo Lippmann-en esanahitik oso berezitua». Hala ere, teknologiak eraikitako iritzi publikoa beste era batera ere neur daiteke: haren agerikotasuna, inplikazioa, partaidetza, edo eduki-analisiaren bitartez.

Oro har, beraz, publikoa ikusteko hiru era direla esan daiteke: i) debate publikoan aktiboki parte hartzen dutenak; ii) arazo publikoez informatuak direnak edo aditasuna jartzen dutenak; iii) hautesleria edo populazio osoa. Ikus ditzagun, bada, publiko desberdinen ezaugarriak era sakonago batean.

1) *Publiko orokorra*. Publikoaren definizio honek bere barnean hartzen du gizarteko populazio osoa. Allport-ek (1937), *Public Opinion Quarterly* aldizkariko lehen zenbakian, publikoaren barnean hartzen ditu populazio bateko kide guztiak, bai arazo pragmatikoengatik bai eta demokratikoengatik (Converse, 1987). Autorearen iritziz, banako *bakoitza* hartzen ez duen publikoaren kontzeptua oso zalantzagarria da.

Hala ere, publiko orokorra, populazio orokorrarekin bat datorrenean, esanahi tradizionaletik aldendu egiten da, zeren horrelako publiko orokorra interes gabea eta informazio gabekoa baita arazo publikoekiko (Key-k (1961), esate baterako, aurkitu zuen kanpaina presidentzialetan % 10ek ez zuela interesik, eta Noelle-Neuman-ek (1986) amerikarren % 66k ez zuela interesik politikan). Era horretako iritzi publikoa, beraz, ez dago batere interesatuta politikan (esate baterako, Kinder & Sears, 1985) eta hurbilago dago "masa-iritzia" kontzeptutik (Crespi, 1989).

2) *Botoa ematen duen publikoa. Hautesleria* da publikoarekin tradizionalki erlazionatu izan den beste kolektibitatea. Entitate hori, hala ere, masa-entitatea da eta erlatiboki bereizgabea, AEBko populazioaren % 60 ingurura heltzen baita.

3) *Aditasuneko publikoa*. Egun populazioaren % 60k bakarrik noizean behin ematen du botoa eta % 40 interesatuta dago gai publikoez (Devine, 1970). Arazo horiek direla eta, Almond-ek (1950) azpimarratu egin du herritar-kopuru murritzagora jo behar dugula iritzi publikoa aztertzerakoan: aditasuneko publikora edo publiko arretatsura. Almond-ek publiko hori definitzen du informatu eta kanpoko politikaz arduratu gisa, eta gainera, kanpoko politiketako eliteekiko audientzia izango da. Devine-ren ustez (1970), publiko arretatsutzat hartzen da politika-sistemarako garrantzitsua dena (Lippmann-en behatzaileen antzekoak). Aurreko autoreak 5 neurri erabiltzen ditu publiko hori identifikatzeko: 1) Politika orokorrean interesa duena, 2) hauteskunde-kanpainetan interesa duena, 3) politikaz hitz egiten duena, 4) egunkarietan, politika-informazioaz jabetzen dena, eta azkenik 5) aldizkarietan politikaz irakurtzen duena. Oro har, esan daiteke publiko hori herritarren % 30 dela. Heterogeneoa bada ere, hainbat aldagai sozioekonomikok aurreikusten dute publiko-mota hori; gainera, beste publiko-mota batzuk baino aktiboagoak dira: manifestaldietan ari izaten dira, sinboloak erantsi eta politikariei idatzi, eta antzeko jokabide politikoak izaten dituzte.

4) *Publiko aktiboa*. Interes eta jarduera publikoko beste publiko-mota bat da. Noelle-Neuman-en (1986) arabera populazioaren % 15 da, eta hemen har daitezke Lippmann-en (1925) araberako aktoreak. Publiko orokorraren eta publiko arretatsuaren arteko bereizkuntzarekin gertatzen zen bezala, ekintzaile politikoen eta behatzaile gisako publikoaren arteko mugak oso zaluak dira (Key, 1961). Talde horrekiko partaidetzak bere barnean hartzen ditu, bai esku-hartze politiko formalak —diru-ekarpenak eta antolakuntza-partaidetzak—, bai eta esku-hartze ez-formalak —besteekin ari eztabaida publikoetan eta debateetan—.

Bestalde, askotan, elite gisa definitu izan dira populazioaren kide aktiboenak diren horiek (Campbell *et al.,* 1960). Adibidez, Key-k (1961) elite horretaz ulertzen du «lider politiko, funtzionario, alderdietako ekintzaileak, iritzi-egile eta horrelako gizarte-estratuko besteak, zeinek politikaz hitz egiten eta rol politikoak betetzen baitituzte. Elite horiek —hiztunak, pertsuatzaileak, jarraitzaileak eta aurkariak— uztartzen dituzte jazoera politiko urrun eta konplexuak eta publikoaren masa. Era

berean, Almond-ek (1950) ondoko elite-motak aurkitu zituen: i) elite politikoak, ii) elite burokratikoak; iii) interes-eliteak eta iv) komunikazio-eliteak. Gainera, elite horiek guztiak lehiatzen dira *iritzi-merkatua*n, jarraitzaile eta zaletuak lortzeko asmoz.

— Masa-publikoaren continuum-a

Publiko orokorra	Hautesleria	Publiko arretatsua	Publiko aktiboa	Elitea
Masa				Publikoa

Azkenik, eta elite-mota horiei dagokienez, Almond-en (1950) ondoko esaldian laburbiltzen da eliteen funtzioa era egoki batean: «eliteak mobilizatzen dituena, publikoa mobilizatzen baitu».

7.4. IRITZI KONTZEPTUA

XX. mendeko 30eko hamarkadan, aldatu egin zen iritzi publikoaren kontzeptua: ordura arte, ekinaldi kolektibo eta gizabanakoen gainekoa zen (Cooley, 1909); handik aurrera, berriz, populazio bateko iritzi-agregatu bilakatu zen (Allport, 1927; Childs, 1939). Aldaketa horien arrazoiak, laburbilduz, ondokoak izan ziren: 1) Zientzia Sozialetako amerikanizazioa eta indibidualizazioa. 2) Jarrera neurtzeko tresnen garapena (Thurstone-ren, Likert-en, Guilford-en eta Guttman-en eskalak). 3) Laginketa zientifikoaren teorien garapena (Gallup, Crossley eta Roper-en 1936ko hauteskundeen emaitzen aurreikuspena).

Hurrengo hamarraldian ikerkuntza-guneak ezarri ziren eta bere hartan iraun zuten unibertsitateetan, gobernuan, eta industrietan.

7.4.1. Iritziak eta jarrerak

Era orokor batean esan daiteke iritzi publikoaren historia eta jarreren historia ezin direla bereizi; gainera, hitzak, askotan, trukagarriak izan dira (McGuire, 1985). Horrela, Doob-ek jarrera eta iritziak berdindu egin zituen iritzi publikoaren honako definizio honen bitartez: «Iritziak dira, talde sozial bateko kide gisa, jendeak dituen gai arazotsu batekiko jarrerak» (Doob, 1948). Antzeko gertatzen zen Childs-en lanarekin, iritzia, honela definitzen zuenean: «Jarrera-adierazpena da, hitzekin» (Childs, 1965)

Aurrekoa gezurra ez bada ere, jarrera eta iritzia, kontzeptualki, gune desberdinetan daude. Hain zuzen ere, hiru eratan bereizi egin dira elkarren artean: 1) Batetik, iritziak, eskuarki, erantzun behagarritzat hartu izan dira; jarrerak, aldiz,

barneko joera edo aurrejoera gisa. 2) Bestetik, nahiz eta biek onarpena edo errefusa eskatzen duten, jarrera afektuari lotuagoa izan da (gustuko izan, eta abar) eta iritzia kognizio kontzienteari (politika, politikari edo talde politiko baten alde egiteko edo aurre egiteko erabaki kontzientea). 3) Azkenik, jarrera, estimulu-sail orokor batekiko joera egonkorra da, eta, iritzia, egoerazkoagotzat hartu izan da, gai eta ingurune jakin batekikoa.

Iritziak adierazpen gisa. Thurstone (1928) lehen autorea izan da jarrera eta iritzia elkarren artean bereizten. Jarrerak ez dira zuzen-zuzenean eskuragarriak ikertzailearentzat, hitzez adierazitako "iritzi" edo beste portaera irekietatik inferituak baizik. Beraz, autore horrentzat, egoera bati era jakin batean erantzuteko aurredisposizio ezkutua da jarrera, eta iritzia, aldiz, erantzuna bera da, jarrera ezbehagarrien ageriko adierazlea.

Thurstone-ren bereizkuntza izaera metodologikokoa izan bazen ere, bereizkuntza bera mantendu zuten beste hainbat autorek ere: «Iritziek berbalizatuak izan behar dute, edo beste era batera esanda, ekintza baten aurreko aldekotasun- edo aurkakotasun-adierazpenak dira» (Allport, 1937; Childs, 1939).

Denbora pasatu ahala, jarreraren eta iritziaren arteko bereizkuntza desagertu bazen ere, zenbait autorek agerrarazi zuten iritzi publikoak ez dituela ahaztu behar jendeak adierazi gabe gordetako iritziak. Gauzak horrela, iritziak izan daitezke adieraziak —portaera irekia— eta gordeak edo ez-adieraziak —gogamen-judizio gordeak—, eta denak kontuan izan beharko ditu gobernuak bere jardueretarako (Allport, 1937; Key, 1961)

Iritziak gogoeta gisa. Fleming–ek (1967) jarreren eta iritzien arteko bereizkuntzari beste alor batetik helduko dio. Autore honentzat iritziak judizio kontzienteak dira, "arrazoimenezkoak" alegia, eta, halaber, jarrerak baino afektibitate gutxiagokoak. Nolabait esateko, norberak iritzia *erabaki* edo *hartu* egiten du; jarrera, aldiz, ez da horren kontzienteki irudikatzen, baizik eta *sentitu* egiten da afektuzko bulkada gisa, zerbaiti positiboki edo negatiboki erantzuteko joera baita.

Iritziak gai konkretuekiko jarreren egokitzapen gisa. Zenbait iritzi-inkesten sortzailek, Gallup eta Roper-ek besteak beste, Thurstone baino harantzago joan dira. Horien ustez, gai politiko baten alde edo aurka adierazitako kokapena da iritzia, eta, jarrera, aldiz, portaera horrekiko motibazio sakona edo gordea.

Era berean, Wiebe-k (1953) jarreraren eta iritziaren arteko bere bereizkuntza plazaratu zuen, jarrera, egiturazko aurredisposiziotzat harturik, alegia, zerbaiten aurrean alde edo aurka erantzuteko joera egonkortzat. Iritzia, bestalde, egoera jakin bateko galdera jakinaren erantzunez kontzienteki landutakoa da. Autore horren arabera, beraz, iritzia «deliberamendu bat da, zeinak gizabanakoak dituen gai batekiko jarrerak lotzen baititu bere errealitatearen hautematearekin, bertan, portaera emango delarik» (333. or.). Beraz, jarrera berehalakoa da, joera intuitiboa,

alegia, eta iritzia, aldiz, testuinguru sozial batean egindako alternatiba jakinen arteko aukeraketa gogoetatsua.

7.4.2. Iritzien oinarri psikologikoak

Iritzi kontzeptua, ikusi dugunez, aldakorra da. Batzuetan, portaerari dagokio eta, beste batzuetan, fenomeno psikologikoari. Gainera, iritzi publikoaren teorialariek iritzi *agerikoak* eta *gordeak* onartzen dituzte (Price, 1992). *Iritzi agerikoak* dira ekintza edo ekintza kolektiboarekiko proposamenei buruzko judizioak, eta portaera-testuinguru jakinetan gertatzen direnak. Iritzi-inkestetan jasotzen diren datuak dira. *Iritzi gordeak* dira ekintza edo ekintza kolektiboarekiko proposamenei buruzko judizioak, gogamenean eraturikoak. Hor biltzen dira, eztabaida ez-formalak, politikariei igorritako gutunak, egunkarietako editorialak, manifestaldiak, grebak, eta abar.

Beraz, iritzi adieraziak, judizio gordeak eta jarrerak elkarri lotuta egon daitezke, baina bereizita ere bai. Horrela, iritzi adieraziak eta pribatuak elkarren artean bereiz daitezke, presio sozialagatik (Asch, 1951); adibidez, inkestagilearen ezaugarriengatik, isiltasunaren espiralarengatik (Noelle-Neumann, 1984), eta abarrengatik.

Iritzi adieraziaren eta ikuspegi gordearen arteko ezegokitasunez gain, badago beste arazo bat. Hain zuzen ere, pertsonek ez dute zertan inolako iritzi-mota edo lehentasun gorderik garatu, iritzi bat adierazteko gai izateko. Jendeak, beraz, bere iritziak eman ditzake inolako judizio gordea edo jarrera eratu gabe.

Zentzu horretan Converse (1964, 1970) ohartzen da iritziak ezegonkorrak direla, zeren: a) pertsonek berek iritziz aldatzen baitute; b) gaien arabera aldatzen baitute; gai batzuetan erantzun liberalak ematen dituzte eta, beste batzuetan, kontserbatzaileak.

Zergatik gertatzen da aldakortasun hori? Converse-ren arabera (1964) aldaketak gertatu ziren, jendeak eratu gabeko iritziak zituelako, kristaldu gabeak alegia. Beste autoreen arabera –Achen (1975) adibidez—, iritzien aldakortasuna ez zen gertatzen jendearen iritzien eratze-gabeziagatik, neurtze-errorearengatik baizik. Nie eta besteen (1976) arabera, 60ko hamarraldiko iritzien aldakortasuna azaldu zen, garai horretan eman izan zen pentsamendu ideologikoaren areagotzeagatik, hau da, kultura politikoaren aldaketagatik.

Egungo teorialariek, hala ere, iritzi adieraziak uztartu dituzte zenbait kontzeptu psikologikorekin, hala nola eskema, balio edo talde-identifikazioarekin, zeinek, jarrerak bezala, honako ezaugarri hauek baitituzte, guztiak ere: 1) inferituak dira, ez zuzenean behagarriak; 2) iritziak baino oinarrizkoagoak dira; eta 3) iritziaren adierazpen agerikoen azalpen gisa erabili izaten dira.

Eskemak. Converse-k (1964) jadanik azpimarratu zuen, publikoak ez zuela oso jarrera-sistema antolatua —sistema politiko amerikarrean gutxienez— (Kinder & Sears, 1985). Beraz, ideologiak ez bazituen jarrera-sistemak antolatzen, zerk antolatzen zituen? Zeren arabera antolatzen ziren? Galdera horri erantzuteko, eskema kontzeptua erabili izan da. Eskema «egitura kognitiboa da, kontzeptu edo estimulu-alor jakin batekiko norberaren jakintza orokorra adierazten duena. Bere barnean biltzen ditu bai kontzeptuaren ezaugarriak bai eta ezaugarri horien arteko erlazioak ere» (Fiske & Taylor, 1984:13). Bi eratako eskema-antolakuntza proposatu izan dira. Batetik, autore batzuek elkarri lotutako proposizioen sistema hierarkikoa proposatu dute; beste autore batzuek, berriz, gertaera-sekuentziaren antzeko egitura asoziatiboa: *gidoia*, alegia (ikus Abelson, 1981). Ikerketa psikosozialak frogatu egin du eskema bat behin aktibatuz gero, ondorengo informazioaren lanketa norabidetuko duela, bai hautemate- bai eta pentsamendu-lanketan ere. Teorikoki, eskemak, iritzien eraketan era desberdinetan eragiten du. Batetik, 1) eskema nolabaiteko iragazkia da, hautemaniko informazioa bertatik iragaten baita. Bestetik, 2) eskemak inferentzietako oinarriak dira, arazo publikoko informazioei erantzunez eratzen baitira (Adibidez, Gillovich (1981) Vietnam eta II. Mundu Gerrako eskemak eta amerikarren interbentzioan; edo Iyengar (1990) pobrezia estrukturala vs indibidualaren artean).

Balioak. Desiratua den xede-egoera da: jarrerak baino orokorragoak, helburu edo xede bati lotuak (Rokeach, 1973).

Talde-identifikazioa. Tajfel eta Turner-en arabera, *norbera* kontzeptuak bat egiten du *identitate pertsonala* eta *identitate sozial*arekin. Identitate sozialaren eta talde arteko harremanen teoriak frogatu egin du iritzi publikoaren dinamikak bat datozela talde-identifikazioarekin.

Iritzi-eraketa. Gai bat agertzen denean, hautaturiko eskema, balio edo talde-pertenentzia aktibatu egiten da, eta ondoren agertzen den informazioa haien arabera lantzen da. Era horretan, Abelson-en arabera, *iritzi-molekulak* hiru atomo zituen: ustea (adibidez, "proposamen honek eskatzen ditu tasa berriak"), jarrera (adibidez, "nik gorroto ditut tasak") eta babes sozialeko hautematea (adibidez, "denek gorrotatzen dituzte tasak"). Horrela, iritzi adierazia, teorikoki, gogamen-kalkulu batetik eratortzen da. Hala ere, kalkulu hori ez da izan behar oso konplexua (heuristikoak erabiliko dira), jendeak denbora behar du barne-egitura kognitiboak eratzeko, eta ondoren eztabaida publikoak lagunduko du judizioaren eraketan. Judizioak eratzeko, jendeak, lehenengo, hainbat iritzi adierazi beharko du eta ondoren kristaldu egingo da (egoeraren definizioaren antzekoa gertatuko baita).

Iritzi publikoa eta debate publikoa. Publikoa arazo partekatuez eraikitzen den heinean, debate publikoa saiatzen da deskribatzen jende-masa publiko gisa antolatzearen prozesua. Moscovici-ren arabera (1985) eragin soziala «gatazkan ainguratua dago eta adostasunaren bila ari da» (353. or.). Beraz, taldekideen arteko gatazkak

eztabaida sustatzen du, eta horren bitartez, talde barnean iritzia aldatu edo eratu egiten da. Beraz, desakordioak gainditzeko saioak dira esploratorioak eta pertsuakorrak ere bai, jendeak arazoa frogapean jartzen duen heinean; jendeak erreflexionatu egiten du arazoari buruzko bere ideia propioetan; eta kontuan izaten ditu besteen ideia, iritzi eta motiboak ere bai. Moscovici-ren arabera (1976) komunikazioaren eta iritzi-aldaketaren prozesuak beharrezkoak dira taldeek bizirauteko eta kolektibitateak baldintza sozial berrietara egokitzeko ere. Horrela, dinamika hauek ulertzeko taldeko erabakitze-prozesuak funtsezkoak izango dira.

7.4.3. Arazo metodologikoak

Laginketa. Arestian esan dugunez, Gallup eta abarren 30eko hamarraldiko iritzi-zundaldien lanek frogatu zuten ordura arte egiten ziren pasaketa masiboak ez zirela horren beharrezkoak eta ondorioz laginketa-teoria eratu zuten. Ondoren, 40ko hamarraldiko ikerketek ideia hori berretsi egin zuten, horietariko lanik agerikoena Lazarsfeld eta kolaboratzaileen ikerlana (1946) izanik.

Laginketa-teoriak (Ikus, Schwarz *et al.,* 1998) bereizi egin ditu probabilitatezko laginketa eta probabilitate gabeko laginketa. Probabilitatezko laginketari dagokionez, bi elementu dira azpimarratzekoak; batetik, populazio bateko kide bakoitzak ehuneko berdina izan behar duela laginketan, eta, bestetik, laginketa-errorea edo oinarrizko errorearen marjina badagoela. Eman dezagun, bada, lagin batean, % 70ek hautagai bati botoa ematen diola. N=500 lagin batekin eta % 95 konfiantza-tartearekin, laginketa-errorea, gutxi gorabehera % 4 izango da. Beraz, honelako laginarekin ondoriozta dezakegu populazioaren % 74 eta % 66 artean hautagaiari botoa emango diotela. Gainera, laginketa-errorea urritu egiten da kopurua areagotzen dugun heinean, baina urripen hori ez da lineala. Horrela, aurreko adibidean laginketa-errorea urritu egiten da 100 kideko laginaren % 9tik, 500 kideko laginaren % 4ra. Baina lagina bikoiztu egiten badugu, hau da N=500 kidetik N=1000 kideraino, laginketa-errorea urritzen da bakarrik % 3, eta N=10.500 kideraino hartzen badugu, laginketa-errorea % 1ekoa izango da bakarrik. Gainera, laginketak ere kontuan izan beharko ditu azpian dituen azpitaldeak, zeinak iritzi-zundaldi egokietarako garrantzi handikoak izango baitira.

Bestalde, probabilitate gabeko laginketak ere badira. Bertan kontuan izan beharra dago, *kuota-laginketa*, non laginketa hautatzen baita populazioaren ezaugarrien arabera (sexu, adina, eta abar). Dena den, ez da ahaztu behar probabilitatezko laginketa garestia dela eta zenbaitetan komenientziazko laginketa erabiltzen dela, hau da, hautaketa inkestagileari egiten uzten zaionean, zenbaitetan bolondresen laginketekin gertatzen den moduan.

Erantzunik eza. Laginketekin batera erantzunik ezaren arazoa ere funtsezkoa da. Fenomeno hau askotan agertzen da horrelako lanetan. Batzuetan agertzen da kontaktatu gabeko inkestatuak agertzen direlako (bizitza estiloagatik, eta abar),

beste batzuetan galderen errefusagatik. Arazo horiek konpontzeko, ez-erantzunaren *osteko doitzea* erabiltzen da: 1) *postestratifikazioa* erabilirik, populazioaren banaketa jakinaren gainean dugunean eta erantzunik eza laginaren banaketara egokitzen denean; 2) gainera, *galduen inputazioa* ere erabili egin izan da, eta 3) *egitura-ekuazioen ereduak* ere bai: hautespenaren soslaia kokatzeko.

Luzetarako laginak. Unean uneko laginak baino, zenbaitetan luzerako laginak ere erabili izan dira eta horien artean panel-ikasketak garrantzitsuak dira: denboran zeharreko diseinu errepikakorreko ikasketak, alegia.

Erantzuleen betebeharra ere funtsezko arazo bihurtu izan da. Oro har, bi eratako galderak aztertu izan dira, jarrerari buruzkoak eta portaerari buruzkoak. Galdera, jarrerari buruzkoa baldin bada bi prozesu landu izan dira: a) jarrera oroitzapenetik eskuratu edo b) unean-uneko iritzia eratu. Galdera portaerari buruzkoa denean gogoratu edo birreraiki egiten da; beraz, iraganaldia, orainaldia eta geroaldia kontuan hartu beharko dira. Ohiko portaera vs salbuespenekoa diren ere kontuan izan beharko dira.

Jarrerei buruzko galderei dagokienez, landu izan den arazo bat *galderen ulermena* izan da, eta bertan esanahi literalak (hitz zalantzagarriak ekidin) eta inferentzia pragmatikoak ("gaur zer egin duzu" bezalakoak kontuan izan; hemen Grize-ren irizpideak kontuan izan beharko ditugu: kalitatea, erlazioa, kantitatea eta forma). Beste arazo bat, *erantzunaren aukera*ri dagokio eta bertan aztertu egin dira galdera irekiak vs itxiak eta zenbakien balio desberdinek suposatzen dituzten berezitasunak. Schwarz eta kideek (1991) ondoko adibidea aurkitu zuten:

– Noraino izan zara arrakastatsua bizitzan?

– 0 10 (% 34 erditik behera)

– -5 0 5 (% 13 erditik behera)

Azkenik, *galderen testuingurua* ere kontuan izan beharrekoa da. Horren adibideak lirateke Prospektiba Teoriaren ondorioak (Tversky & Kahneman, 1982) edo Balidezia Autosortuaren efektua. Esate baterako Morwitz eta kolaboratzaileek (1993) noren alde eman behar zuten botoa galdetuta, aurkitu zuten boto-portaera bera areagotu egiten zela.

Portaerari buruzko *galderen ulermena*k ere bere arazoak sortu ditu. Alde batetik, jendeak ondoko bi prozesu egin behar dituela suposatzen da, gogoratu eta kontatu, alegia (Sudman *et al.,* 1996). Horrela, jendeak maiztasun urriko gertaerak gainestimatzeko joera du eta maiztasun altuko portaerak azpiestimatzeko joera (adibidez, jate-portaera). Iraganeko gertaerekin ere zenbait fenomeno gertatzen dira (Ross, 1989): jendeak norberari buruzko teoria inplizitoak erabiltzeko joera du, euren aldez aurreko portaerak oraingo portaerarekin edo iritziekin erkatzen baitira

(tabakoa erre, diru-sarrerak, eta abar orainaldearen pean daude; saloiko dantzara joaten den jendeak, aldiz, iraganean kontatzen du).

Lexikoaren arazoak ere agerikoak dira. Galderetan egindako aldaketa xumeek, askotan, erantzunetan aldaketa handietara daramate (ikusi, esate baterako, a) eta b) galderak: a) Ez badu poliziaren edo armada-autoritateen baimenik, armak edukitzea debeka dezan lege bati dagokionez, alde ala aurka zaude? b) Arma kontrolaren alde ala aurka zaude?). Gainera, Mueller-ek (1973) frogatu zuenez, debekatu eta baimendu aukerak, zenbait baldintzaren pean daude (adibidez, komunista hitza induzitu izan denean, jendea amerikar armadaren erasoen aldekoagoa da). Era horretan, Rugg-ek (1941) frogatu zuenez, aukera biak ez dira berdinak: gertagarritasun gehiago dago "debekatua ez dela izan behar" esatera, baimendua esatera baino; eta gertagarritasun gehiago "baimendua ez dela izan behar" esatera, debekatua esatera baino (Rugg-ek (1941) "demokrazia inguruko diskurtsoan" ondokoa aurkitu zuen: % 25 baimendu vs % 46 ez debekatu).

7.5. IRITZI PUBLIKOA ALA IRUDIKAPEN SOZIALAK?

Iritzi publikoaren azterketan, hasieratik (Habermas, 1962:13) gaur eguneraino (Moscovici, 1991:229) eztabaida larria egon da iritzi publiko kontzeptuaren inguruan. Irudikapen sozialen ikuspegitik iritzi publiko kontzeptua soberan dagoela adierazten da, batetik, gehiengo-gutxiengo dinamikek *isilunearen espirala* bezalako fenomenoak hobeto azaltzen dituztelako, eta, bestetik, iritzi publikoaren jatorrizko bertsiotik hurbilago dagoelako, Allport-en gizabanakoen batuketaren psikologizazioaren ikuspegitik aldentzen delarik (Farr, 1990). Hain zuzen ere, jadanik Cooley-k (1909) iritzi publikoaren inguruan hauxe adierazi zuen: «Ez da iritzi indibidual berezituen agregatu hutsa, baizik eta antolakuntza bat, aktoreen komunikazio eta elkarreraginen ekoizpena, alegia». Horrela, bada, uler daiteke Moscovici-ren irudikapen sozialen definizioa, zeinak «norberaren gogamenean sartu eta eragiten baitute, baina ez dira pentsatuak, baizik eta bir-pentsatuak, bir-zitatuak, bir-irudikatuak,... elaborazio edo aldaketa osoko ekoizpena baitira». Beraz, irudikapen sozialak erreakzio indibidualak bainoago ekoizpen kolektiboak dira, Brunswik-en "betaurrekoen" hurbil baitira.

Irudikapen sozialek, beraz, iritzi publikoaren dinamikak azalduko dituzte eta azken horiek ondoko ezaugarriak dituzte (Himmelweit, 1990): 1) Pribatuki adierazten den iritzitik bereizi egiten da. 2) Publikoki adierazten den iritzi guztia ez da berez interesgarria: inplikazio sozialak izan beharko ditu. 3) Esfera publikoaren eta pribatuaren arteko mugak zaluak dira. 4) Aldakorrak eta dinamikoak dira. Adibidez. Eduardo VIII.aren ezkontzak eragiten du Ingalaterran ezkontza bat (esfera pribatukoa) arazo publiko bihur dadila. 5) Esfera pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketak zerikusi gutxiago du, objektu sozial batek, gizarte batean, duen adostasun-mailarekin, eta, gehiago, herritarren egunerokotasuneko portaeran

desoreka sorrarazten duten kanpoko edo barneko indarrekin (Himmelweit, 1995:6). Beraz, irudikapen sozialak eta prozesu politikoari buruko iritzi pribatuak desberdinak dira. Aldiz, egunerokotasuneko kokapenek (erosketa edo inbertsioarekiko ikuspegiek, esate baterako) zerikusirik izango dute prozesu politikoan.

Gogoratu, Moscovici-ren (1988) arabera, irudikapen kolektiboek egonkortasuna eta homogeneotasuna azpimarratzen dute eta irudikapen sozialek desberdintzapena eta dinamikotasuna. Gainera, autorearen arabera. 3 irudikapen-mota ager daitezke: 1) *Hegemonikoak (gehiengoaren irudikapenak):* talde sozial egituratu osoak partekatzen dituenak, haiek ekoitzi gabeak. Indibidualtasuna, honen adibidea izango litzateke. 2) *Emantzipatuak (irudikapen askeak):* elkarrekintzaren bitartez ekoitzirikoak dira eta talde jakin batekiko (adituen taldea, adibidez) ukipena galdu dutelako, eguneroko jakintza bihurtu direnak. Hiesaren diskurtsoa honen adibidea litzateke. 3) *Polemikoak, (irudikapen eztabaidagarriak)*: gatazka politiko-sozialen testuinguruetan azaltzen dira. Langabezia femeninoari buruzko diskurtsoa litzakete honen adibidea. Gainera, iritzi publikoaren dinamikei dagokienez, hiru komunikazio-erlazio aurkitzen ditu Moscovici-k: 1) *Difusioa* (iritziak lirateke), non komunikazioaren eta hartzaileen arteko desberdintzapen-gabezia gertatzen baita, eta erlazio horren helburua eguneroko jakintza sortzea eta publikoaren interesetara modatzea bailitzateke. 2) *Propagazioa* (jarrerak lirateke): talde bateko uste antolatua da, non propagatzeko beharra baitago, eta horren helburua litzateke beste jakintzak honetara moldatzea. 3) *Propaganda* (estereotipoak lirateke) zeina antagonismo handiko erlazioetan dagoen komunikazio-modua baita: egiazkoa ala faltsua bakarrik izan daitekeena, eta proposatzen den ikuspegiaren eta bere aurkakoaren arteko elkartezintasuna adierazten duena.

IKERKETA PSIKOLOGIA POLITIKOAN

Atal honen helburua ez da psikologia politikoan ari den ikerkuntzari buruzko garapenaren azterketa sakona egitea, ez eta teorizazio metodologikoarena ere; aldiz, psikologia politikoak duen zabaltasuna dela eta, Psikologiaren eta Politikaren arteko erlazioa lantzen duten lau testuinguruak islatzea da helburua.

Lehen ikerketan, *Nazio-identitate gatazkatsuak eta hizkuntz estrategiak kokapen-erreminta gisa haur eta nerabeengan* izenekoan, gatazkan dauden identitateetan hizkuntzak betetzen dituen funtzioak aztertuko dira.

Bigarren ikerketan, *Polemika publikoa eta gertaera politikoen oroimen-kolektiboa*ri ekiten zaio; bertan, Espainiako Gerraren oroitzapenean belaunaldi desberdinek eta partekatze sozialak betetzen dituzten funtzioak aztertuko dira.

Hirugarren ikerketan, *Prozedurazko justizia eta hizkuntzaren erabilera: akusatu eta defentsaren rola epai-testuinguruan* izenekoan, alegia, prozedurazko justizian akusatu eta defentsaren hizkuntza-erabilerak betetzen dituen funtzioak landuko dira.

Azkenik, laugarren ikerketan, *Ezagutza politikoaren transmisioa: oinarri sozial eta linguistikoen azterketa* izenburupean, komunikabideek gatazka politikoaren testuinguruan erabiliriko hizkuntzaren funtzioak landuko dira.

8. Nazio-identitate gatazkatsuak eta hizkuntz estrategiak kokapen-erreminta gisa haur eta nerabeengan

J. Valencia, F. Elejabarrieta, L. Reizabal, L. Gil de Montes, G. Ortiz eta M. Larrañaga

8.1. SARRERA: NAZIO-IDENTITATEA ETA HIZKUNTZA

Nazio-identitate gatazkatsuak

Nazio-estatu subiranoaren sorkuntza, historikoki, lorpen politiko berria dela esan daiteke. Durkheim-ek (1925), esate baterako, azpimarratu zituen nazio-estatu batek bere barnean bizi diren komunitate eta herrialdeen leialtasunak erakartzeko bete behar dituen ezaugarriak. Izan ere, estatuaren eta bere barnean bizi diren talde etnikoen arteko harremanaren ikuspegi estereotipatua "estatu bat, kultura bat" estilokoa baita.

XIX. mendetik datorren nazio-estatua da, gaur egun, normaltzat eta "naturaltzat" hartzen den "betiereko" egoera politikoaren eraikuntza soziala. Beraz, egoera "naturalaren" ideologia den aldetik, estatua eraikuntza modernoa da, zeren eta, industria-aro modernoaren sorrera arte, autoritate zentralizatuak arazo handiak baitzituen bere boterea eta autoritatea distantzia luzeetan jartzeko, eta muga politikoak zaluak baitziren. Azken garaiotan eratu diren muga politikoen definizio zurrunarekin eta gobernu zentralizatuen etorrerarekin, gutxiengo-egoeran dauden herriak "arazo" politiko bihurtu dira toki askotan (Valencia *et al.,* 2000).

Gainera, gutxiengo-egoeran dauden herriak nazio-estatuen barnean arazotsu bihurtzeaz gain, erabakigaitzak diruditen arazo bihurtu dira. Ondorioz, gutxiengoek beren nazio-estatuen aldeko borrokari ekin diote, XX. mendearen hasierako estatuekin erkatuta, gero eta txikiagoak izanik, era horretan bizi diren nazio-estatu zabalagoen aurrean beren giza eskubideak defendatzeko. Kurduek, palestinarrek, irlandarrek eta euskaldunek —adibide batzuk jartzearren— ilustratzen dute puntu hori.

XIX. mendearen bukaerako nazio-estatuen garapenak bultzatu zuen mende horretan, eta bereziki XX. mendearen hasieran, irizpide etniko eta hizkuntzazkoetan oinarrituriko "gutxiengo nazionalen" garapena. Ordura arte, ezaugarri etniko edota hizkuntzazkoak garrantzi txikikoak ziren estatuen barnean (Chaliand, 1989), gutxiengo gisa soil-soilik hartzen baitziren gutxiengo erlijiosoak.

Horrelako naziotasun modernoaren lehen agerraldiak Iraultza Amerikarra (1776an) eta Frantziako Iraultza (1789an) izan ziren. Bi gertakizun horiek agertu zireneko garaian, Ingalaterraz aparte, pertsona edo talde guztiak printze edo despoten borondatearen pean bizi ziren. Horregatik, Independentziaren Aldarrikapen Amerikarrak eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren dokumentuak berritasun zirraragarriak gertatu ziren.

Independentziaren Aldarrikapen Amerikarrak ondoko bi elementuak azpimarratu zituen: batetik, gizakien eskubide besterenezinak edo alienaezinak, eta bestetik, herri batek beste batekiko dituen lotura politikoak hausteko eskubidea.

Bestalde, herritarren Giza Eskubideen Aldarrikapenak giza eskubideen nozioa plazaratu zuen 1789an. Iraultzaile frantziarren ekimenean, giza eskubideen sistema herri-subiranotasunaren printzipioan oinarritu zen. Haren arabera, printzipio honetan oinarrituriko gobernuak bakarrik ahalbidetu dezake eskubide indibidualen eta subiranotasun nazionalaren garapena. Zentzu horretan, hala 1776ko Filadelfiako Aldarrikapenak nola 1793ko Frantziako Konstituzioak babestu egin zuten herriek altxatzeko eta matxinatzeko zuten eskubidea, "eskubiderik sakratuena eta betebeharren arteko nahitaezkoena" baitzen.

Hala ere, iraultza amerikarraren eta frantziarraren printzipioek islatu zuten munduaren ikuspegiaren aurka gauzatu zen nazio-estatuaren kontzeptua. Estatuaren eredu hau demokratikotzat hartu izan zen, zeren herri-subiranotasunaren printzipioan oinarritu baitzen. Baina, eredu horrek jatorrizko arazo bat zuen: naziotasun-ideologia erasokor bihurtzen zenean, besteen (ahulen, eskuarki) naziotasuna errefusatu, baztertu eta diabolizatu egiten zen.

Nazio-estatuaren eredu hori gradualki bermatu zen mundu zabalean, eta inperio espainiarrak eta portugaldarrak Ameriketan, otomandarrak edota austrohungariarrak Europan eta Bigarren Mundu Gerraren osteko kolonialismoek aukera eman zuten estatu askoren sorrerarako, nazioak balira bezala (esate baterako, munduan gaur egun diren 192 estatuetatik 33 beste estatu batzuetako parte ziren XX. mendearen hasieran, eta 112 estatu kolonialen menpean bizi ziren). Zentzu honetan, demokrazian eta adostasunean oinarriturik ere, gehien imitatu izan zen nazio-estatuaren ereduaren alorra, ez da izan herri-subiranotasunaren eredua, estatuaren eraikuntzarena baizik, askotan, estatu horiek heterogeneoak izanik ere, nazioa ahazturik.

I. Mundu Gerraren osteak herri europarren autodeterminazioa eta nazionalitateen arazoa agerraraztea ere ekarri zuen. Esate baterako, Habsburgotarren Inperioa desagertzearekin batera, Europako erdiguneko mapa osoa aldatu zen eta nazioestatu berriak agertu ziren. Hala ere, gutxiengo-egoeran zeuden herrien arazo askok bere hartan jarraitu zuten, eta horietariko batzuk II. Mundu Gerraren sorreraaitzakia eta beste batzuk gerra horren biktima izan ziren.

II. Mundu Gerraren ostean, Nazio Batuen Karta izenpetu zen 1945ean San Frantziskon eta bertan gizakien eta herrien eskubideak agertu eta onartu ziren. Hain zuzen ere, 55. artikuluak aldarrikatzen du batetik «eskubide berdinen eta herrien autodeterminazioaren errespetua» eta bestetik «giza eskubideak, funtsezko askatasuna eta denentzako errespetu unibertsala, inolako arraza, sexu, hizkuntza edo erlijiorengatiko bereizkuntzarik gabe».

Hain zuzen ere, Herrien Eskubideak bitan aipatzen dira Nazio Batuen Kartan: 1. artikuluan, antolakuntzaren helburuak proposatzean, eta 55. artikuluan.

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuen, eta gero 1966an ondoko bi proposamen hauek onartu ziren: *International Convenant on Economic, Social and Cultural Rights* eta I*nternational Convenant on Civil and Political Rights.*

Guilhaudis-ek dioenez (1976) baina, artikulu hauek lehen begiradan bakarrik errepikatzen dute Deklarazio Amerikarrak eta Frantziarrak diotena. Hain zuzen ere, kolonialismoaren aurkako borrokak eta ohiko nazioarteko praxiak nahasi egin dituzte elkarren arteko bi eskubide desberdin hauek: estaturik gabeko herrien autodeterminazio-eskubidea eta estatuetan daudenen autodeterminazio-eskubidea.

Berez, azken urteotan, bai NBEren jarduerak, bai nazioarteko praxiak azpimarratu izan dituztenak ez dira izan estatuak eraikitzeko herrien eskubideak, estatua eraiki izan dutenen autodeterminazio-eskubideak baizik. Azken finean, bi eskubideen arteko gatazka eman izan da: batetik, giza eskubideak, zeinek beren "jurisdikzio domestikoan" dagoen edozeren soberania erregulatzen duten. Ondorioz, gutxiengoek ez dituzte beren eskubide efektiboak babesturik ikusten nazioarteko legean. Berez, bere 50 urteko ibilbidean, Nazioarteko Justizia Gorteak ez du gutxiengoen arazo bat bera ere ikusi, eta Giza Eskubideen Gorte Europarrak, hau ere 1950eko urriaren 4an sortua, ez du gutxiengoei buruzko aurreikuspen-araudirik.

Mundu garaikide honetan, gutxiengoen azterketak ondoko arazoak planteatzen ditu: alde batetik, giza eskubideei dagokienez, talde horiekiko diskriminazioa eta opresioa, talde etniko bateko kide izateagatik. Bestetik, estatu-mailari dagokionez, eta bereziki integrazio nazionala lortu ez duten estatuei dagokienez, sezesioaren eta askatasunaren aldeko mobilizazioak.

Zer da, bada, gutxiengo-egoeran dagoen taldea? Erantzuna erraza ez bada ere, printzipioz nolabaiteko akordioa egon daiteke talde batek *biziberritzeko duen borondate kolektiboa* dela esatean: hau da, nolabaiteko esfortzu kolektiboa, aldez aurreko arbasoen eta etorkizuneko xedeen arteko jarraipena adierazten duena (Weinreich, 1986).

Berez, beren burua desberdin (hizkuntza, erlijio, etnia, eta abar tartean direla) ikusten duten taldeak soilik inplikatzen dira beren ezaugarri funtsezkoak babesten, estatu bateko herritar gisa integratuta egon edo ez.

Deschenez-i jarraituz (1989), hauxe da gutxiengo-egoeran dagoen taldea: «Estatu bateko herritar-taldea, estatuan kopuru aldetik gutxiengoa dena eta agintean ez dagoena, ezaugarri linguistiko, etniko edo erlijioso desberdina duen populazioaren gehiengotik bereizia, eta biziberritzeko borondate kolektiboarekin taldekideen elkarren artean loturik egonik, gehiengoarekin *de facto* eta *de jure* berdintasuna nahi duena». Gutxiengoa den taldea, beraz, ez da taldekide-kopuru urria soilik, status- eta botere-urritasuna dituena ere baizik.

Horrelako formulazioa herri askoren egoera deskribatzeko egokia da, nahiz eta bi arazo larri gainditu behar dituen: batetik, gutxiengoen ezaugarri bereziak errekonozituak eta bermatuak izan behar dira (hau da, identitatea eta kultura-eskubideak kontuan izan behar dira) eta bestetik, gehiengoaren gehiegikeria posiblearen aurrean talde horien babesa lortu behar da.

Beraz, aurreko horrek beharko luke nazioarteko nolabaiteko lege-babesa, lehenago edo beranduago etorriko dena. Baina estatuen praxia hori dela-eta, gutxiengoen aldeko borroka ezin da bereizi demokraziaren aldeko borrokatik, giza eskubideen aldeko borroka izanik.

Nazio-identitate gatazkatsuen eta estatuaren arteko erlazioak

Gizabanakoen eta beren estatuen arteko erlazioa nahikoa erraza litzatekeela esan daiteke, bere barnean, soilik, gizabanakoen eta estatuen beharrak balira. Hala ere, eta nazio-estatuaren ideologiaren eraikuntza historikoekin ikusi dugunez, askotan partaide garrantzitsu bat aurkitzen dugu, gizabanakoen eta taldeen identitate sozialean funtsezko kokapena lortzeko lehian. Partaide hori, estatu-ideologiarako "gonbiterik gabeko bazkaltiarra" izaten da askotan, gutxiengo-egoeran dagoen talde etnikoa, alegia, eta aktore sozialak sortu, eta historia, balioak, ohiturak, hizkuntza eta abar jasotzen ditu (Gudykunst, 1991; Levine & Campbell, 1972). Estatuek bezala, zenbaitetan, talde etniko indartsuak izan daitezke, eta baliabide baliotsuak kontrolatzeaz aparte, partaide diren gizabanakoei leialtasunak eska diezaizkiekete. Hala ere —estatuetatik bereiziz, horien mugak aldatu egiten baitira eta herritarrek utz baititzakete—, herriak kultura jakinetan jaiotzen dira eta kulturaren lokarriak uztea zailagoa izaten da.

Gutxiengo-egoeran dauden talde etnikoen eta estatuaren arteko erlazioa, mundu zabalean, lankidetza-erakoa izaten da zenbaitetan; baina leiatsua eta etsaigo-erakoa beste batzuetan. Gainera, Williams-i (1994) jarraikiz, gatazka gogorrenak ondasun kolektibo sinbolikoen aldeko lehietan sortzen direla esan daiteke, horien barnean, identitate-autoafirmazio politikoak daudelarik. Era berean, estatuak aktore nagusienak dira gutxiengoen identitatearen sortze-, areagotze- edota urritze-saioetan. Estatuak, beraz, mobilizazio edo kontramobilizazio sozialaren gune garrantzitsuak dira, identitatearen autoafirmaziorako gatazkaren eta lehiaren guneak ere. Gainera, mundu-mailan, eta era batera edo bestera kulturkidetzari lotuta dauden gatazkak, uste duguna baino maizagoak dira, eta askotan suntsikorrak (Brogan, 1990). Esate baterako, II. Mundu Gerratik hona gatazka etniko garrantzitsua jasan izan duten herriak, munduan daudenetarik erdia dira. Era berean, ordutik hona gertatu diren gerretan hildakoen % 80 estatuen barneko gatazketan gertatu da (Russell & Sturr, 1989). Beraz, gutxiengoen identitatearen eta identitate kolektiboen arteko erlazioa garrantzitsua da herritarren ongizaterako.

Bestalde, berriki, zenbait autorek (Worchel & Coutant, 1997) talde etnikoen eta estatuaren arteko harreman-mota posibleak planteatu izan ditu. Talde etnikoen eta estatuaren mugak bat datozenean, elkarren arteko gatazkak mailarik apalena hartzen du, nazioaren subiranotasun eta interdependentzian interes komuna dela eta. Estatua beste talde etniko batek menderatua dagoenean, edo talde etnikoa beste estatu batean gutxiengoa denean, gatazka-aukera altua izan daiteke.

Gainera, estatuek herritarren integraziorako politikei buruz gauzatzen dituzten "ideologia" desberdinez ere hitz egin izan du hainbat autorek, aurreko harreman-motekin interakzionatzen dutelarik: estatuak duen ideologiak definitzen du "bertako kidea" zein den edo zein ez den, hain zuzen ere (Bourhis *et al.,* 1997). Driedger-ek (ikus ere Bourhis *et al.,* 1997) bost ideologia prototipiko azaltzen ditu, *continuum* baten arabera banaturik. Buru batean delako "ideologia askotarikoa" eta beste buruan "ideologia etnizista" kokatuta, ideologia-erpin batetik bestera gatazka-aukera areagotzen da.

Integrazioranzko norabide ideologikoen *continuum*a (Bourhis *et al.,* 1994).

Ideologia askotarikoa	Ideologia herritarra	Ideologia beretzailea	Ideologia errepublikarra	Ideologia etnizista

Ideologia-gatazka continuum*a*

*Ideologia askotarikoa*k edo *pluralista*k estatu baten desberdintasun etnokulturalen balioa azpimarratzen du; honen adibide bat, Kanada izango litzateke. Ideologia honen aurkakoek baieztatuko dute lehertzeko gai dela estatuaren izaera

herrialde bateratu gisa justifikatzeko beharrezkoa den nazio-kultura oinarrizkoa eta egonkorra izatea. *Ideologia herritarra* gutxiengo etnokulturalen parte-hartzearen gabeziaz ezaugarritzen da. Bretainia Handia honen adibidea izango litzateke. *Beretze-ideologia* edo *ideologia asimilazionista* arestian ikusi izan dugun moduan, agerikoena izan zen nazio-estatuen sorreran XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran. Ideologia honen aldaera bat *ideologia errepublikarra* izango litzateke. Hemen gizabanako guztien berdintasunagatik halako politika publikoa onartzen da, zeinaren arabera gehiengo menderatzaileak dituen ezaugarriez bestelakoak diren desberdintasun etnokulturalak desagerrarazten baitira. Frantzia izango litzateke honelako ideologiaren adibide klasikoa (Hammer, 1985), eta Espainaren ohiko praxi politikoa ere hemen koka daiteke (bai frankismoaren garaian, bai eta XX. mendeko lehen hereneko monarkia eta errepublikena ere bai). Azkenik, *ideologia etnizista* agertuko litzateke, zeinak, beretze-ideologiaren printzipioak onartzeaz gain, jarrera hori herritarren odol-definizioarekin areagotuko lukeen. Honen adibidea Alemania izango litzateke. Hala ere, estatuek *continuum*ean zehar duten kokapena ez da finkoa, zeren denboraren poderioz, gutxiengoen banaketaren, taldeen arteko erlazioaren eta horrelakoen arabera aldatzen baita.

Hizkuntz estrategiak kokapen-erreminta gisa

Hizkuntza identitatearen funtsezko osagaitzat hartu izan da, nahiz eta etnizidadearen eta hizkuntza-erabileraren arteko lotura iluna izan (Liebkind, 1992). Gainera, zenbait talde etniko eta nazionalek hizkuntza hartzen dute euren identitate sozialaren osagai agerikotzat, bai alor kulturalean (Fishman, 1977) bai eta alor politikoan ere (ikus Ros *et al.,* 2000).

Tajfel-en arabera (Tajfel, 1982; Tajfel & Turner, 1986) Identitate Sozialaren Teoriaren oinarria ondokoa da: gure identitate sozialaren zatirik handiena gure partaidetza-taldeetan errotzen da. Gainera, identitate sozial positiboa desiratzeko joera dugulako, motibaturik aurkitzen gara talde positiboen kidetzak izateko. Era horretan, gutxiengo-egoeran dagoen talde baten identitatea bi eratakoa izan daiteke, gehiengo-egoeran dagoen taldearen identitatearen aurrean: identitate ziurra edo identitate ez-ziurra. Gutxiengo-egoeran dagoen taldea, legitimotasunik eta egonkortasunik ezaren prozesuen bitartez (ikus Valencia, 1991), gehiengo-egoeran dagoen taldearekiko identitate ziurra sortzen saiatuko da, gehiengoan dagoen taldeari abantaila ateratzeko, edozein gauza eginez (Moscovici & Paicheler, 1978). Tajfel-ek (1969) honakoa ere azpimarratu du: talde arteko erkaketak funtsezko zeregina betetzen du, talde arteko eta talde barneko erlazioek eragiten dituzten aldaketa sozial berehalakoen egoeretan (esaterako, talde- edo nazio-kategorizazioak). Zenbait testuingurutan, erkaketa, estatuaren alde egiten da, norberaren taldeidentitatea agerikoa ez denean. Beste batzuetan, aldiz, erkaketa norberaren taldearen alde zertzen da, estatuarekiko identifikazioan bereizketa eginez (Huici *et al.,* 1997).

Hizkuntza, talde arteko testuinguru gatazkatsuan, integrazio- edo desberdintze-sistema gisako ikasketa ez da oso landua izan gizarte-psikologian. Eskuarki, hizkuntzaren ikasketa "identitate etnikoaren" adierazpen-sistematzat hartu izan da (Fishman, 1972, 1977; Giles, 1979; Gudykunts *et al.,* 1990). Ikuspegi horrek, hala ere, hiru arazo ditu. Alde batetik, hizkuntza hartu izan da identitate finko eta *taken for granted* baten adierazpen zuzen gisa. Bestetik, hizkuntza hartu izan da identifikazio-prozesuaren ikuspegi soiltzat, non, talde arteko gatazka "etnikoak" ezaugarritzen dituzten alderdi psikosozialen konplexutasuna ez baita kontuan izan. Azkenik, hizkuntzaren eta hizkuntza zirkulatzen den baldintza sozialaren ikuspegi indibidualista batekin aztertu izan da, hiztunaren "agentzia soziala" kontuan izan gabe.

Lehen arazoak badu zerikusirik, talde arteko harremanetan, hizkuntzaren erabilerari aldagai gisa egotzi izan zaion status anbiguoarekin. Bizitasun etnolinguistikoaren kontzeptuak (Giles, Bourhis, & Taylor, 1977; Hamers & Blanc, 1983), alde batetik, iradokitzen du hizkuntzaren erabilera oinarritzen dela zenbait faktore estrukturaletan (demografikoak, instituzionalak, statusekoak) zeinek, beste aldetik, baimentzen baitute hizkuntza batzuen biziraupena besteen gainetik. Hemen hizkuntz erabilera aldagai makrosozialen pean bakarrik egongo litzateke. "Hiztunaren erlatibitate subjektiboa" agertzeak (Bourhis, Giles & Roshental, 1981) ez du kontzepzio hau erabat aldatuko: bizitasun "objektiboak" jarraituko du izaten funtsezkoa eta hizkuntz aldagaiaren statusa iluna izaten, zeren interpretazio indibidualean oinarrituko baita (Allard & Landry, 1986) eta ez taldeen hizkuntza-erabilera dinamikoan.

Bigarren arazoak badu zerikusirik, talde arteko gatazka-egoeran, identitate sozial soilaren eraldaketa mimetikoarekin, non hizkuntzaren erabilera gatazkaren objektifikazio gisa erabiltzen baita. Identitate etnolinguistikoaren ikuspegiak (Giles & Johnson, 1981), Identitate Sozialaren Teorian oinarriturik (Tajfel, 1978), hizkuntza-erabilera hartzen du talde arteko desberdintzearen lanabes gisa, non hiztunaren kokapena mugaturik baitago bere identifikazio "etnikoaz". Hemen, hizkuntz erabilera, talde arteko gatazketan kokapenerako lanabes objektifikatu baino areago, gatazkaren adierazpen gisa baita, gutxitan aztertua.

Hirugarren arazoa eratortzen da aurreko arazoek dakarten hiztun-eredutik: hiztuna egokitzen da talde arteko gatazka-egoera estruktural jakin batera. Egokitzapen horren ondorioa da etnizidadearen sentimendu subjektiboa, termino operatiboetan bakarrik definiturik: talde etnikoa definitzen da bakarrik taldearekiko kidetza adierazten duten subjektuen aldetik.

Aurreko arazoak direla eta, hizkuntza kontzeptualizatua izan da askotan, oso gutxi ezagutzen dugun identitate batekin lotura mimetikoan dagoen aldagai gisa, eta ez esanahi-sistema gisa, zeinak talde arteko gatazkak objektifikatzeaz aparte, egoera horiek birdefinitzen baititu era errekurtsibo batean. Bestalde, aurreko arazoek

uko egiten diote esanahi-multzoaren objektifikazio horien izaera praktikoari; horiek, aldiz, baimentzen dute norberaren negoziazio era anitzetan, eta ez egitura sozialean era sekuentzial batean.

Abertzaletasunak rol nabaria jokatzen duen testuinguru soziopolitikotan, bi hizkuntzen bizikidetza izateak adierazi nahi du ezin dela ahaztu gatazken izaera sinbolikoek sustatzen dituztela integrazio edo desberdintzapen sozialeko estrategia ez-unibokoak. Hau da, hemen ikertzen dugun bi herrialdeen egoeran, hizkuntzaren agerikotasunak eramaten baitu estatu-identifikaziotik desberdintze-prozesura. Gainera, horrelako egoerak konplexutasun handiagokoak dira, gatazka horiek migrazio-historiako taldeekin tartekatzen direnean. Hau da, ikertzen ari garen Espainiako Estatuaren bi komunitateen egoeran (Euskal Herria eta Katalunia) 60ko hamarkadako immigrazio handia lotzen baita egungo egoera elebidunarekin, eta hizkuntza gatazkarako da bai argudioa bai eta gatazkarako lanabesa.

Hain zuzen ere, ikerketa honen helburua honako puntu hau aztertzea da: gutxiengoen identifikazio-estrategiei dagokienez, etxeko hizkuntzaren erabilerak gurasoen jatorriarekin nola interaktuatzen duen aztertzea. Identifikazio-estrategia hauek hartzen dira kokapen taktiko gisa, eta aktoreek baimentzen dute euren kokapenak adieraztea, gatazka objektifikatu errealitate aurrean, eta "etniko" gisa sozialki definiturik daudela.

Berry eta bere kolaboratzaileek (Schmookler, 1984; 1986; Berry 1980; 1990; 1997) gutxiengo-egoeran dauden taldeen identitatearen eta estatuaren arteko erlazioak lotzeko eredu teorikoa garatu dute: Gizarte Anitzetan dauden Kultur Erlazioen Eredua. Eredu honen arabera, gizarte anitzetan —Espainiako Estatua bezalakoetan, adibidez— gizabanako baten kultur identitateari eustearen eta gizarte zabalagoarekiko (hau da, estatuarekiko) ukipen-nahiaren arteko erlazioek identitate-erlazioen lau eredu sortzen dituzte. Ereduak identitate-sailkapen laukoitza sortzen du, gizarte pluraletan taldeek norberaren taldearekiko identifikazioaren eta gizarte zabalagoarekiko ukipen-nahiaren arteko interakzioaren arabera jardun dezaketelako. Lau identitate-eredu horien ezaugarri bereizgarriak honako hauek dira. 1) *Asimilazioa,* nork bere identitatea galduz eta gizarte zabalagoaren identitatea onartuz. 2) *Integrazioa,* nork bere kultur taldeko identitateari eutsiz eta gizarte zabalagoaren partea izateko nahia azalduz. 3) *Bereizte, separazio* edo *independentzia,* nork bere kultur taldeko identitateari eutsiz gizarte zabalagoaren kide nahi izan gabe; hau da, gizarte zabalagotik bereiziz, izate independentea izateko nahia azalduz. 4) *Dekulturazioa* edo *estres akulturatiboa,* nork bere ohiko taldearekiko eta gizarte zabalagoarekiko ukipen kultural eta psikologikoaren galera onartuz.

Eredu osoa, beraz, honela laburbil daiteke:

Gizarte Anitzetan Kultur Erlazioen Eredua (Berry, 1997).

Gizarte zabalagoarekiko ukipen-nahia		Norberaren taldearekiko identifikazioa	
		Bai	Ez
	Bai	Integrazioa	Asimilazioa
	Ez	Independentzia	Dekulturazioa

Lau identifikazio-eredu horiek, hala ere, ez dira elkarren artean loturarik gabe agertzen. Adibidez, talde arteko mailan, talde bateko kide gehienek asimilazioa nahi badute, gizabanakoa bere taldekidetzarik gabe geldi daiteke, beste aukerak esanahi gabe gelditzen baitira; edota talde bateko kide batzuek bereizketa edo independentzia hautatzen badute, gizarte zabalagoaren ideologia menderatzailea (hau da, ideologia asimilazionista) zalantzan jarriko da. Azken testuinguru horretan sortuko da nazioen (Ipar Irlanda (Cairns, 1979) edo Euskal Herriaren (Valencia & Villarreal, 1992; 1993; Valencia, 1996; 1999)) eta estatuaren arteko gatazka. Gainera, testuinguru horretan garrantzi berezia hartzen dute lau identifikazio-eredu horiek, zeren norberaren taldearekiko leialtasunak gizarte zabalarekiko edo estatuarekiko leialtasuna bazter baitezake, azken leialtasun biak elkarren aurka baitaude.

Berry-ren ereduaren arabera, hizkuntzaren erabilera eta gurasoen jatorria kontuan izanik, gure ikerketarako antzeko identifikazio-estrategiak postula daitezke, ondoko laukian ikus daitekeenez:

Proposaturiko identifikazio-estrategiak etxean erabiliriko hizkuntzaren eta gurasoen jatorriaren arabera.

	Etxean erabiliriko hizkuntzaren kontestua		
	Estatuko hizkuntza	Elebiduna	Herrialdeko hizkuntza
Herrialdeko gurasoen jatorria	*Asimilazioaren identifikazio-estrategia*	*Integrazioaren identifikazio-estrategia*	*Bereiztearen identifikazio-estrategia*
Espainiako gurasoen jatorria	*Asimilazioaren identifikazio-estrategia*	*Integrazioaren identifikazio-estrategia*	*Bereiztearen identifikazio-estrategia*

Funtsean, ikertzen ari garen haur eta nerabeen gurasoek erabaki dute etxean zein hizkuntza erabiliko den eta hiru identifikazio-estrategia dira posible (Berry, 1990; 1997): *Asimilazio-, integrazio- eta bereizte*-estrategiak. Asimilazio-estrategia onartzearen (esate baterako, norbaitek bere jatorri kulturala errefusatzen duenean eta estatuko kultura onartzen duenean: gatazka egoerarekiko integraziorako ezkorrak) ezaugarria litzateke subjektuek etxe-testuinguruan estatuko hizkuntza bakarrik hitz egiten dutenean (gurasoen jatorriaz aparte). Bestalde, integrazio-estrategiari dagokionez (esate baterako, talde biren tradizio kulturalak kontuan

hartzen direnean: integrazioarekiko kokapena), subjektuek hizkuntza biak erabiltzen dituzte, gurasoen jatorriaz aparte. Azkenik bereizte-estrategiari dagokionez (esate baterako, norberaren jatorri kulturalari eusten zaionean eta bestea errefusatzen denean: norberaren jatorri kulturalaren alde), subjektuek beren herrialdehizkuntza erabiltzen dutenean (gurasoen jatorriaz aparte).

Ondorioz talde arteko testuinguruan desberdintzeko edo integratzeko identifikazio-estrategien ondorio garrantzitsuak hipotetiza daitezke: asimilatzea, baztertzea edo kasurik ez egitea.

Ikerketa honen helburua da integrazio- edo bereizte-prozesu hauen ikasketa Irudikapen Sozialaren Teoriaren ikuspegitik. Hain zuzen ere, Doise eta besteen (1993) hiru faseko ereduaren arabera, irudikapen sozialak gizabanakoen eta taldeen arteko harreman sinbolikoen printzipio-antolatzaileak dira. Horrela, lehenik aztertuko ditugu autokategorizazio eta identitateak norberaren taldearekiko (nazioa) eta beste taldearekiko (estatua) kontzepzio partekatuak. Irudikapen sozialen lehen fase honek aztertzen du esanahi partekatuen antolakuntza komuna, eta Moscovici-ren (1961) arabera, badu zerikusirik objektifikazio-prozesuarekin. Bigarrenik, gizabanakoen arteko desberdintasunak aztertuko ditugu. Hemen onartzen da gizabanakoen arteko kokapenetan desberdintasunak antolatuta daudela. Beraz, fase honetan, aztertzen dira autokategorizazio eta identitateetan desberdintasun indibidualen printzipio-antolatzaileak. Azkenik, erlazionaturiko irudikapen-sistemen desberdintasun indibidualen aingurapena aztertzen da. Fase honetan aztertzen dira nola desberdintasun indibidualak ainguratzen diren errealitate sinboliko kolektiboetan: norberaren eta beste taldeekiko estereotipoetan.

Oro har, beraz, ondoren agertuko ditugun bi ikerketa enpirikoekin bi prozesuak ilustratzen saiatuko gara. Alde batetik, aztertzen saiatuko gara nola gertakizun historikoek gutxiengo-egoeran dauden taldeak talde-identitatea sendotzeko estrategia desberdinetara eramaten dituzten: batzuk estatuarekin identifikazen dira eta beste batzuk estatutik bereizten dira, horrela, taldeen kokapen horiek beren talde-identitatearen autoestimarako funtsezko funtzioak betetzen dituzte. Bigarrenean, aldiz, Berry-ren identifikazio-estrategiak ikusten saiatuko gara, non berezko hizkuntza duten gutxiengo-egoeran dauden taldeek identitate-estrategiarako funtsezko tokia beteko baitute gatazka-egoeran, hain zuzen ere, norberaren eta beste taldeekiko identifikazio eta estereotipoetan.

8.2. LEHENENGO IKERKETA: ESTATUEN ETA GUTXIENGO-EGOERAN DAUDEN TALDEEN IDENTITATEAK

Arestian esan dugun moduan, prozesu historiko sozialek eraman dituzte gutxiengo-egoeran dauden talde batzuk estatuarekin identifikatzera –horrela asimilazio-estrategia erabilirik, beren talde-autoestima areagotzeko— eta beste batzuk, aldiz, estatuarekiko identifikazioaren aurrean beren taldearen identitatea areagotzera —horrela bereizte-estrategia erabilirik, beren talde-autoestima areagotzeko—.

Metodoa

Subjektuak eta diseinua. Europako herrialde batzuetako haur eta nerabeen identitate nazionalaren jabetzearen inguruko ikerketa zabalago batean oinarriturik, hemen aurkezten diren datuak Estatu Espainiarreko hiru testuinguru kulturalekoak dira: Andaluziakoak, Kataluniakoak eta Euskal Herrikoak.

Kataluniako 460 subjektu aukeratu ziren, 238 Andaluziakoak eta 210 Euskal Herrikoak. Generoari dagokionez, % 48 mutil eta % 52 neska; eta adinari dagokionez, % 19,5 sei urtekoak ziren, % 26,3 bederatzi urtekoak, % 28,1 hamabi urtekoak eta % 26,2 hamabost urtekoak.


Aldagaiak

Autokategorizazioa. Haurrei aukeratzeko eskatu zitzaien sexu, adin, eta taldekidetza desberdinak (beren taldekoa, estatukoa, europarra, eta abar) adierazten zituzten irudiak. Beren buruak ondoen deskribatzen zituzten irudiak ordenatzeko eskatu zitzaien, garrantzi handikoenekotik txikienekora. Horretarako erabili genuen aldagaia, lehen aukera izan zen, hau da, aukeratu zuten lehen irudia

Identifikazioa. Estatu- eta lurralde-identifikazioak, non haurrek aukeratu behar izan zuten nola deskribatzen duten euren burua, euskaldun, espainola (oso, zertxobait, ezer) eta lurralde-identifikazioa estatuarekiko erkatuz (5 puntutan).

Emaitzak

Subjektuen taldekidetza, autokategorizazioa eta identifikazioak nola erlazionatzen ziren ikusteko, lehenengo korrespondentzia-analisia egin genuen eta ondoko irudian agertzen den emaitza lortu.



Grafikoak adierazten duenez, lehen dimentsioak antolatzen ditu ezkerreko buruan estatu-identifikazio garaia (*very State*) eta batere ez lurraldearekikoa (*not at all regional*), eta eskuineko buruan lurralde-identifikazio garaia (*region*) eta batere ez estatuarekikoa (*not at all State*). Gainera, hiru testuinguru kulturalen kategoriak dimentsio horretan kokatzen dira toki desberdinetan: Katalunia eta Euskal Herria eskuinean —hau da, oso talde-identifikazio garaiaren eta estatu-identifikazio urriaren ondoan, eta Andaluzia ezkerraldean, oso talde-identifikazio urriaren eta estatu-identifikazio garaiaren ondoan.

Gainera, gutxiengoan taldearen eta estatuaren identitateek nolako erlazioa zuten ikusteko koerlazio-analisia egin genuen hiru herrialdeetan:

	Andaluzia	Katalunia	Euskal Herria
Gutxiengoan dagoen taldea eta estatu-identifikazioak	0.42**	-0.20**	-0.38**
** < 0.000 esanguratsua			

Ikus dezakegunez, gutxiengo-egoeran dauden taldeekiko identifikazioak eta estatuarekiko identifikazioak koerlazio positiboa dute elkarren artean Andaluzian, eta negatiboa Katalunian eta Euskal Herrian. Lehenengo kasuan identitate harmoniatsuak dira eta, nolabait esateko, "erkaketa-identitatea" baxua da; eta bigarren eta hirugarren kasuetan, aldiz, identitate gatazkatsuak gertatzen dira, "erkaketa-identitatea" altua izanik.

8.3. BIGARREN IKERKETA: NAZIO-IDENTITATE GATAZKATSUAK ETA HIZKUNTZA KOKAPEN-ESTRATEGIA GISA

Arestian esan dugun moduan, hizkuntza funtsezko elementua izan daiteke gutxiengoan dagoen taldearen definiziorako. Gainera gutxiengo-egoeran dauden talde batzuek beren identitate sozialeko dimentsio agerikoen gisa aukeratzen dute hizkuntza, bai kultur alorrean (Fishmann, 1977) baita alor politikoan ere (Ros *et al.,* 2000). Hain zuzen ere, hemen landuko dugu hizkuntzaren erabilera integratzeko vs desberdintzeko kokapen-estrategia gisa.

Metodoa

Subjektuak eta diseinua. Aurreko ikerketan bezala eta Europako herrialde batzuetako haur eta nerabeen identitate nazionalaren jabetzearen inguruko ikerketa zabalago batean oinarriturik, hemen aurkezten diren datuak Estatu Espainiarreko bi testuinguru kulturalekoak dira: Kataluniakoak eta Euskal Herrikoak.

Aldagaiak

– Autokategorizazioa eta identifikazioa: aurreko ikerketan bezala.

– Estereotipoak. Haurrek, egokien desbkribatzen zituzten sei dimentsioko adjektibo positibo eta negatiboen artean (zikina, garbia, lagunkoia, haserrekoia, argia, leloa, alferra, langilea, alaia, kopetiluna, onesta, desonesta) ezaugarritu behar zituzten beren lurraldeko eta Espainiako biztanleak. Horrez gain, biztanle horiek noraino zituzten gustuko eta noraino ez (5 puntutan) esan behar zuten.

– Informazioa. Subjektuei beren herrialdeari eta estatuari buruzko informazioa (bandera, hiriburua, hizkuntza eta abar) eskatu zitzaien.


– Azkenik subjektuek beren adinari, sexuari, etxean erabiliriko hizkuntzari eta gurasoen jatorriari buruzko galderei erantzun behar izan zieten.

Emaitzak

– Estatuaren eta herrialdearen autokategorizazioa eta identitateei buruzko uste partekatuak.

Estatuaren eta herrialdearen autokategorizazioaren eta identitateei buruzko uste partekatuen antolakuntza komuna ikusteko, lehenengoz, Korrespondentzia Analisi Faktorial Anizkoitza (CFA, SPADN) burutu genuen. Horretarako erabili genituen modalitate aktibo gisa lehen kategorizazioa, identitate etnikoa, estatu-identitatea, eta estatu-identitatea vs herrialde-identitate konparatiboari buruzko modalitateak, eta modalitate ilustratibo gisa etxeko hizkuntza-egoera eta gurasoen jatorriari buruzkoak.

Korrespondentzia Analisiaren lehen bi faktoreen gurutzaketaren Plota.



Korrespondentzia Analisi Faktorialaren emaitzak aurreko irudian aurkeztu dira. Lehen dimentsioak elkarren aurka jartzen ditu, alde batetik, estatuaren autokategorizazioa eta identitatea (estatua lehen aukera (*fsta*), herrialde-identitatea ez herrialdea (*nreg*), estatu-identitatea bakarrik (*sonl*) eta identitate konparatiboa herrialdearena baino gehiago (*smore*)), herrialdearen autokategorizazioa eta identitatea (herrialdea lehen aukera (*freg*), herrialde-identitatea herrialdea (*vreg*), estatu-identitatea ez estatua (*nesta*) eta identitate konparatiboa herrialdearena bakarrik (*ronl*)) bere polo positiboan. Bigarren dimentsioak, elkarren aurka jartzen ditu, alde batetik polo negatiboan estatu- eta herrialde-identitateak (*sonl, nreg, nesta*) eta bere polo positiboan estatu-identitate urria (*lsta*) eta identitate konparatiboan herrialdearena estatuarena baino gehiago (*rmore*). Gainera, dimentsio bien gurutzaketan, hiru esanahi partekatu agertzen dira: identitate esklusiboak, hau da, estatuaren eta herrialdearen autokategorizazioak eta identitateak irudiaren eskuinean eta ezkerrean, eta identitate inklusiboak irudiaren erdiko goi-partean. Horrekin batera, gurasoen jatorriaren eta etxeko hizkuntza-egoeraren kategoria ilustratiboak agertzen dira, aurrean adierazitako hiru esanahi multzo horien ondoan: etxeko hizkuntza-egoera gaztelania (*sitc*) eta gurasoen jatorri espainiarra (*orou*) lehenengoaren ondoan, etxeko hizkuntza-egoera euskara (*sitca*) eta gurasoen jatorri euskalduna (*oreg*) bigarrenaren ondoan eta, etxeko hizkuntza-egoera elebiduna (*sitb*) eta gurasoen jatorri espainiarra (*oreo*) hirugarrenaren ondoan.

Autokategorizazio eta identitateen kokapen indibidualak herrialdeari eta estatuari lotuta

Ondoren, etxeko hizkuntza eta gurasoen jatorria noraino erlazionatzen ziren subjektuen identifikazio-estrategiekin aztertzeko, Cluster analisi interaktiboa burutu egin zen autokategorizazioa eta identitateak erabilirik, subjetu-talde desberdinen kokapena atera ahal izateko

Cluster interaktiboen hiru taldeen batezbestekoak autokategorizazio eta identitate aldagaietan.

Final Cluster Centers

Cluster	Estatuaren identitatea	Herrialdearen identitatea	Herrialdearen id. konparat.	Estatuaren autokategori.	Herrialdearen autokategori.
Asimilazioa	2,6000	1,8700	4,2600	1,3300	1,1200
Bereiztea	1,6130	2,9164	1,4118	1,0124	1,6037
Integrazioa	2,4167	2,6225	2,7990	1,0931	1,3235

Cluster	unweighted Cases
Asimilazioa	100,0
Bereiztea	323,0
Integrazioa	204,0

Azterketak hiru talde garbi atera zituen. Lehen taldeak asimilazio/identifikazio estrategia islatzen zuen, puntuazio altuak estatu-identifikazioan eta autokategorizazioan, eta puntuazio baxuak herrialde-identifikazioan eta autokategorizazioan. Bigarren taldeak bereizte/identifikazio estrategia islatzen zuen, puntuazio altuak herrialde-identifikazioan eta autokategorizazioan, eta, baxuak, estatu-identifikazioan eta autokategorizazioan. Hirugarren taldeak, azkenik, integrazio/identifikazio estrategia islatzen zuen, puntuazio ertain altuak adierazirik bai herrialde-identifikazioan eta autokategorizazioan bai eta estatu-identifikazioan eta autokategorizazioan ere.

Ondoren analisi diskriminantea burutu egin zen, etxean erabiliriko hizkuntza eta gurasoen jatorria eta identifikazio-estrategien hiru taldeen arteko erlazioa ikusteko.

Etxeko hizkuntza eta gurasoen jatorriaren araberako hiru taldeen batezbestekoak eta funtzio diskriminanteak.

Pooled within-groups correlations between discriminating variables and canonical discriminant functions (Variables ordered by size of correlation within function)

	Func 1	Func 2
Etxeko hizkuntza-egoera	,97384*	,22722
Gurasoen jatorria	-,64159	,76704*

Canonical discriminant functions evaluated at group means (group centroids)

Group	Func 1	Func 2
Asimilazioa	-,9496	-,09785
Bereiztea	,54761	-,02947
Integrazioa	-,32513	,09686

Aurreko taulan ikus daitekeenez, analisiak bi funtzio sorrarazi zituen. Lehen funtzioak adierazi zuen bariantzaren % 98,9 (Wilkis lambda = 0.6948; p = 0.0000), bigarrenak joerazko esangura bakarrik adierazi zuen (p= 0.09), bariantzaren % 1,2. Lehen funtzioak baieztatu egin zuen etxeko hizkuntza: negatiboki erlazionatua asimilazio/identifikazio estrategiarekin eta oposaturik bereizte/identifikazio estrategiarekin. Bigarren funtzioak oposatu egin zituen asimilazio/estrategia eta integrazio/identifikazio estrategia. Horren arabera esan daiteke, etxean erabiliriko hizkuntza oso lotuta dagoela asimilazio- eta bereizte-estrategiekin, eta gurasoen jatorria ez dagoela lotuta bereizte/identifikazio estrategiarekin, asimilazio eta integrazioarekin baizik.


Identifikazio-estrategiak eta aingurapena estereotipoetan eta informazioan

Gainera, identifikazio-estrategiaren hiru kidetzekin estereotipoen antolakuntza nola egiten zen ikusteko hiru Cluster analisi egin ziren (Ward metodoarekin) ea berdin edo desberdin antolatzen zituzten norberaren taldearen eta estatuaren estereotipoak

Asimilazio-estrategiako taldearekin eginiko Cluster analisi hierarkikoa.

Dendrogram using Ward Method


Rescaled Distance Cluster Combine



Bereizte-estrategiako taldearekin eginiko Cluster analisi hierarkikoa.

Dendrogram using Ward Method


Rescaled Distance Cluster Combine



Integrazio-estrategiako taldearekin eginiko Cluster analisi hierarkikoa.

Dendrogram using Ward Method

Rescaled Distance Cluster Combine



Analisiak adierazi zuen herrialdearen eta estatuaren estereotipoen antolakuntza-printzipioak desberdinak zirela hiru identifikazio-estrategietako taldeentzat. Asimilazio-taldean klusterraren estereotipoak hiru dimentsiotan antolatu ziren: gaitasuna, gustuko izatea eta honestitatea. Bereizte-taldeak bi antolakuntza-printzipioak izan zituen: norberaren eta estatuaren estereotipoak. Integrazio-taldeak, aldiz, kluster kon-plexuagoa eman zuen: dimentsio batzuetan herrialdearen eta estatuaren estereotipoak elkartu ziren (1: argia eta garbia) eta besteak bereizten ziren elkarren artean (2: lagunkoia eta alaia estatuarena; 3: lagunkoia eta alaia herrialdearena; 4: onesta eta langilea herrialdearena; 5: onesta estatuarena).

Identifikazio-estrategiak eta kokapenak estereotipoetan eta informazioan

Lehenengo, zenbait Princals analisi egin ziren herrialde, estatu eta herrialde nahiz estatuaren informazioari dagokionez. Emaitzek bi faktore eman zituzten herrialdearen eta estatuaren estereotipoei dagokienez (lagunkoi eta zoriontsu faktore batean eta gainerakoak beste faktorean) eta faktore bakarra informazio-kategoriei dagokienez.

Hiru identifikazio-estrategiak eta taldeekiko identifikazio, estereotipo eta informazioari buruzko erlazioak ikusteko zenbait Anova analisi burutu ziren; hiru identifikazio-estrategia taldeak, aldagi aske gisa, eta, herrialde eta estatuari buruzko estereotipoen eta informazioaren gaitasun eta gustuko kategorizazioak menpeko aldagai gisa.

Hiru taldeen arteko batezbesteko desberdintasunak gustu- eta gaitasun-estereotipoen eta herrialde eta estatu nahiz informazioaren arabera.

	Asimilazio-taldea	**Bereizte-taldea**	**Integrazio-taldea**	S	1/2	1/3	2/3
Norberaren taldearen gaitasun-estereotipoak	10,06	12,85	12,27	0,00	*	*	
Norberaren taldearen afektu-estereotipoak	10,30	13,44	12,45	0,00	*	*	*
Beste taldearen gaitasun-estereotipoak	11,26	7,96	11,21	0,00	*		*
Beste taldearen afektu-estereotipoak	11,75	8,51	11,71	0,00	*		*
Herrialdeko informazioa	1,70	2,11	1,99	0,01	*		
Estatuko informazioa	5,03	5,86	5,63	0,06			

Analisiak frogatu zuen asimilazio- eta bereizte-estrategien arteko desberdintasunak adierazkorrak izan zirela estatu- eta herrialde-estereotipoetarako eta herrialdeko informaziorako. Asimilazio- eta integrazio-estrategien arteko desberdintasunak agertu ziren herrialde-estereotipoan, eta bereizte- eta integrazio-estrategien arteko desberdintasunak adierazkorrak izan ziren estatu-estereotiporako eta norberaren taldekoen gaitasun-estereotiporako.

Azkenik zenbait Anova analisi burutu ziren etxeko hizkuntza-egoera eta gurasoen jatorriaren baldintzak aldagai aske gisa eta aurreko aldagai guztiak mendeko aldagai gisa. Hala ere, analisiak egin baino lehenago menpeko aldagai guztiak estandarizatu egin ziren.

Identifikazioen eta autokategorizazio demografikoen ingroup, outgrouparen estereotipoen eta herrialdeari nahiz estatuari buruzko informazioen batezbestekoak.

	Herrialde-jatorriko gurasoak			**Estatu-jatorriko gurasoak**		
	Estatu-hizkuntza	*Herrialde-hizkuntza*	*Elebidun*	*Estatu-hizkuntza*	*Herrialde-hizkuntza*	*Elebidun*
Herrialde-identifikazioa	-.48	.42	.15	-.80	.01	.21
Estatu-identifikazioa	.44	-.38	-.28	.56	-.01	-.02
Autokategorizazio demografikoa	.80	-.19	.72	-.11	-.35	-.09
Norberaren taldearen autokategorizazioa	-.62	.29	-.65	-.07	.35	-.01
Beste taldearen autokategorizazioa	-.04	-.26	.18	.41	-.07	.13
Norberaren taldearen estereotipoak	-.37	.32	.09	-.22	.24	.09
Beste taldearen estereotipoak	.12	-.37	-.28	.51	.08	-.02
Herrialde-informazioa	-.60	.10	-.38	-.23	.18	.33
Estatu-informazioa	-.51	.04	-.34	.32	.11	.35

Identifikazioak: estatu- eta herrialde-identifikazioak

Analisiek adierazi zituzten *Etxeko hizkuntza-egoera*ren ($F_{2,362}$ = 42.484; P < .000) eta *Gurasoen jatorria*ren ($F_{2,362}$ = 4.775, P < .03) efektuak herrialde-indentifikazioan. Interakzio-efektuak ez ziren agertu. Herrialde-jatorriko gurasoen haurrek aiderazi zuten herrialde-identifikazio maila altuagoa (x = .25) estatu-jatorriko gurasoen haurrek baino (x = -.38). Herrialdeko hizkuntza-egoerako haurrek aurkeztu zuten herrialde-indentifikazio handiagoa (x = .38) eta estatuko hizkuntza-egoerakoek baxuena (x = -.70). Era berean, eta interesgarriki, etxeko hizkuntza-egoera elebiduneko haurrek ez zuten (x = .19) desberdintasunik aurkeztu gurasoen jatorriaren arabera, eta antzeko profila aurkeztu zuten herrialde- eta estatu-jatorriko gurasoen jatorriko haurrek.

Estatu-identifikazioaren arabera, desberdintasun adierazkorrak aurkitu ziren *Etxeko hizkuntza-egoera*ren ($F_{2,362}$ = 24,308; P < .000) eta *Gurasoen jatorria*ren

($F_{1,363}$ = 6.622, P < .01) arabera. Interakzio-efektuak ez ziren aurkitu. Herrialde-identifikazioarekin erkatuz, estatu-identifikazioak alderantzizko profila agerrarazi zuen. Estatu-jatorriko gurasoen haurrek adierazi zuten estatu-identifikazio altuena (x = .31) eta herrialde-jatorriko gurasoen haurrek baxuena (x = -.24). Etxeko hizkuntza-egoeraren arabera, estatuko hizkuntza-egoerako haurrek adierazi zuten estatu-identifikazio mailarik altuena (x = .52) eta etxeko hizkuntza-egoera elebiduna edo herrialdekoa zenean baxuena (x = -.34; x = -.13).

Autokategorizazioaren garrantzia: autokategorizazio demografikoa, norberaren taldearena eta beste taldekoarena

Autokategorizazio demografikoari dagokionez, *Etxeko hizkuntza-egoera*ren ($F_{2,362}$ = 18,994; P < .000) eta *Gurasoen jatorria*ren efektuak ($F_{1,363}$ = 47,204, P < .000) aurkitu ziren. Gainera, efektu horiei interakzio-efektuak lagundu zien, ($F_{3,361}$ = 6,533, P < .003). Herrialde-jatorriko gurasoen haurrek garrantzi handiagoa eman zioten autokategorizazio demografikoari (x = .09) estatu-jatorriko gurasoen haurrek baino (x = -.14). Gainera, herrialdeko hizkuntza-egoerako haurrek adierazi zioten garrantzi urriena (x = -.20) autokategorizazio demografikoari eta elebidunek edo estatuko hizkuntzakoek altuena (x = .18, x = .28). Gainera, interesgarriki, herrialde-jatorriko gurasoen haurrek ematen diote garrantzi handiena autokategorizazio demografikoari etxeko hizkuntza-egoera estatukoa eta elebiduna denean, eta urriena, herrialdeko hizkuntza-egoeran daudenean.

Norberaren taldearen autokategorizazioak ere desberdintasun adierazkorrak aurkeztean ditu *Etxeko hizkuntza-egoera*ren ($F_{2,362}$ = 22,571; P < .000) eta *Gurasoen jatorria*ren ($F_{1,363}$ = 20,175, P < .000) arabera. Gainera interakzio adierazkorra ere agertu zen ($F_{3,361}$ = 3,733, P < .03). Estatu-jatorriko gurasoen haurrek garrantzi handiagoa eman zioten norberaren taldearen autokategorizazioari (x = .-.32) herrialde-jatorriko gurasoen haurrek baino (x = -.00). Gainera, norberaren taldearen autokategorizazioaren garrantzia altuagoa izan zen etxeko hizkuntza-egoera herrialdekoa zenean (x = .29). Horrek esan nahi du, haurrek beren burua definitzen dutenean norberaren taldearen zentzuan, estatuko gurasoen jatorria garrantzitsuagoa dela eta herrialdeko hizkuntzaren erabilera etxean ere bai.

Beste taldearen autokategorizazioak ere efektu adierazkorra izan zuen *Etxeko hizkuntza-egoera*ren ($F_{2,362}$ = 5,954; P < .002) eta *Gurasoen jatorria*ren arabera ($F_{1,363}$ = 4,545, P < .04). Interakzio-efekturik ez zen aurkitu. Estatuko hizkuntza-egoerako haurrek adierazi zuten autokategorizazio honen garrantzi handiagoa (x=.26) elebidunek (x=.16) edo herrialdeko hizkuntzakoek baino (x=-.23). Era berean, beste taldearen ebaluazioa eta autokategorizazio demografikoak berdinak izan ziren etxean herrialdeko hizkuntzaren testuinguruko haurrengan. Hau da, herrialdeko hizkuntzaz mintzatzen diren eta herrialdeko gurasoak dituzten haurrak dira beste taldearen autokategorizazioari garrantzi txikiena ematen diotenak.

Estereotipoak: norberaren taldearen eta beste taldearen estereotipoak

Norberaren taldearen estereotipoei dagokienez, desberdintasun esanguratsuak agertu ziren. Etxeko hizkuntza-egoerari dagokionez ($F_{2,362} = 5,954$; $P < .002$), gurasoen jatorriaren eta interakzioaren efektuak ez ziren agertu. Estatuko hizkuntza-egoerako haurrek adierazten zuten norberaren taldearen estereotipo negatiboagoak (x = -29) elebidunek (x = 0,09) edo herrialdekoek baino (x = .29). Hizkuntza biak erabiltzen dituzten haurrak "neutralagoak" dira.

Beste taldearen estereotipoei dagokienez, desberdintasun esanguratsuak agertu ziren etxeko hizkuntza-egoeran ($F_{2,362} = 9,392$; $P < .000$) eta gurasoen jatorrian ($F_{1,363} = 12,492$; $P < .000$). Interakzio-efektuak ez ziren agertu. Herrialde-jatorriko gurasoen haurrek adierazi zituzten estereotipo negatiboagoak (x = -.17) estatu-jatorrikoek baino (x = 0,25). Etxean elebidunak zirenek ere beste taldearen estereotipo negatiboagoak adierazi zituzten.

Estatu- eta herrialde-informazioa

Herrialdeko informazioari dagokionez, etxeko hizkuntza-egoerak efektu esanguratsua agertu zuen ($F_{2,362} = 4,746$; $P < .000$) eta gurasoen jatorriak ere bai ($F_{1,363} = 36,011$, $P < .000$). Gainera, interakzio-efektu esanguratsuak agertu ziren ($F_{3,361} = 6,756$, $P < .002$). Estatu-jatorriko gurasoen haurrek adierazi zuten informazio handiagoa (x = -.25) herrialde-jatorrikoek baino (x = -.07). Gainera, estatuko eta etxeko hizkuntza-egoera elebiduneko haurrek antzeko informazio-maila adierazi zuten (x = -0,03 eta x = ,00; hurrunez hurren) herrialdeko etxeko hizkuntza-egoerakoek handiagoa zuten bitartean (x = .11). Interesgarriki, herrialde-jatorriko gurasoen eta estatu-jatorriko gurasoen haurrek informaziorik urriena adierazi zuten etxeko hizkuntza estatukoa zutenean (x = -.60 eta -.23).

Estatu-informazioari dagokionez, gurasoen jatorriak efektu esanguratsua agertu zuen ($F_{1,363} = 34,141$, $P < .000$). Etxeko hizkuntza-egoerak ez zuen efektu adierazkorrik agertu, bai aldiz, interakzio-efektua ($F_{3,361} = 6,584$, $P < .002$). Estatu-jatorriko gurasoen haurrek adierazi zuten informazio gehiago (x= 0,30) herrialde-jatorriko gurasoen haurrek baino (x = -.10). Hala ere, etxeko hizkuntza-egoeran herrialdeko hizkuntza erabiltzeak sustatzen zuen informazio-maila altuagoa herrialde-jatorriko gurasoen haurrengan (x = 0,04; versus x = -0,51 eta x = -0,34 estatu eta elebidunak) estatu-jatorriko gurasoen haurrengan desberdintasun esanguratsurik ez zegoen bitartean.

8.4. ONDORIOAK

Ikusi dugunez, gutxiengo-egoeran dagoen taldearen eskubideen historia hainbat elementuz gurutzatua izan da. Batetik, *estatu-ideologiaz*, nazioa, askotan "gonbiterik gabeko bazkaltiarra" delarik. Bestetik, gutxiengo-egoeran dagoen taldeari bu-

ruzko ikerketa funtsezkoa da, mundu-mailan sortu duen "demokrazia-gabeziaren" erakustaldiagatik. "Bazkaltiar ez-gonbidatu" hori, hala ere, estatuaren ideologia desberdinetan zehar ari da (Bourish *et al.,* 1997), eta bere identifikazioen eta estatuarekiko identifikazioen arteko erlazioetatik, lau identifikazio-estrategia erabil ditzake: asimilazioa, integrazioa, separazioa eta dekulturazioa (Berry, 1987).

Gainera, eta lehen ikerketan ikusi dugun moduan, prozesu historikoek eraman dute, gutxiengo-egoeran dauden taldeen eta estatuaren arteko identifikazioa estatuarekiko "integratiboa" edota "gatazkatsua" izatera.

Bigarren ikerketa Berry-ren ereduaren eraldaketan oinarritu da, non gurasoen jatorriaren eta etxeko hizkuntzen arteko erlazioan ainguratzen diren hiru identifikazio-estrategiak gerta daitezkeen gutxiengo-egoeran dagoen taldean: asimilazio, integrazio eta separaziorako estrategiak.

Gainera, irudikapen sozialak aztertzeko Hiru Faseko Eredua (Doise *et al.,* 1993) erabilgarri agertu da, hizkuntza-kokapenak batetik, eta identifikazio-estrategiak eta norberaren eta beste taldeari buruzko estereotipoak, bestetik, elkarren arteko harremanak aztertzerakoan.

Emaitzek adierazi dute, ikerturiko laginean, autodefinizioen hiru esanahi partekatuak agertu direla, zeinak elkartzen baitira etxeko hizkuntza-praktikekin eta gurasoen jatorriarekin ere. Gainera, hiru esanahi-multzo partekatu horiek erlazionatuta daude haur eta nerabeen kokapen indibidualarekin, bertan, printzipio-antolatzaileak asimilazio-, bereizte- eta integrazio-estrategiak direlarik.

Emaitzek baieztatu egiten dituzte identifikazio-estrategien rolak, gurasoen jatorriaren eta etxeko hizkuntza-erabileraren praxi sozialen arabera.

Asimilazio-estrategiaren onarpenak norbera darama gutxiengo-egoerako taldea errefusatzera, estatuaren estereotipoak eta identitatea areagotzera eta herrialdearen estereotipoak, identitatea eta informazio urria izatera. Gainera, estrategia hau onartzeak garrantzia ematen die autokategorizazio demografikoari eta beste taldearen autokategorizazioari, eta urriagoa norberaren taldearen kategorizazioari. Gainera, asimilazio-estrategia onartzeak darama norberaren taldearen estereotipo negatiboetara eta beste taldearen estereotipo positiboetara, herrialdeko informazio urriagora ere bai.

Alderantziz, separazio-estrategia onartzeak, bere aldetik, herrialde-identitatea areagotzera eta estatu-identitatea urritzera darama. Estrategia hau ezaugarritzen da autokategorizazio demografikoari garrantzi urria ematen, norberaren taldearen autokategorizazioari garrantzia ematen eta eta urriagoa beste taldearen autokategorizazioari. Gainera, bereizte-estrategia onartzeak darama norberaren taldearen estereotipo positiboagoetara, beste taldearen estereotipo negatiboagoetara eta herrialde-informazio handiagora.

Azkenik, integrazio-estrategia onartzeak darama norberaren taldearen eta beste taldearen autokategorizazioei garrantzia ematera eta norberaren taldearen eta beste taldearen estereotipo positiboetara ere bai.

Beraz, identifikazio-estrategia hauek kokapen taktikoaren lanabes gisa interesgarriak dirudite (Elejabarrieta, 1994). Hauen arabera, herritarrak, aktore sozial gazteak talde arteko gatazkan, beren taldekidetzak eta estatuarekiko identifikazioek eskatzen dituzten leialtasunen aurrean kokatzera daramatzate. Gainera, identifikazio-estrategia hauek baimentzen dituzte aktore sozial gazteak euren kokapenak adierazteko "nazio izatearen" kontzientzia altuko herrialdearen eta historikoki garaturiko "estatu-ideologia" altuko nazioaren arteko gatazkan. Horrela, asimilazio-estrategiak norberaren taldea errefutsatzera (estereotipo negatiboekin) edo ez ikusiarena egitera (herrialdeko informazio urria) daramatza aktoreak. Separaziorako estrategiak, aldiz, haur eta nerabeak baimentzen ditu norberaren taldearen identitatea bermatzera (norberaren taldearen esteretipo positiboak) eta euren taldearen kontzientzia altuagora (herrialde-informazio altuagoa). Azkenik, integrazio-estrategiak baimentzen ditu aktoreak bai norberaren taldea bai eta beste taldea onartzera, ebaluazio- eta informazio-dimentsioetan.

9. Polemika publikoa eta gertaera politikoen oroimen kolektiboa

J.F. Valencia, F. Elejabarrieta, M. Villarreal eta W. Wagner

9.1. SARRERA

Oroimen kolektiboa eta soziala

Oroimena luzaroan banako edo indibiduoaren gaia balitz bezala landu dute psikologoek, hots, oroitzapenak dituen banakoa, "banako" gisa hartu behar bailitzan. Halere, orain dela gutxi, oroimenaren alde kolektiboak eta sozialak azpimarratzeko interes handiagoa agertu da. Egungo hainbat autorek baieztatzen dute badaudela banakoaren gainetik dauden baina banakoengan azaltzen diren prozesu psikologikoak (Echebarria *et al.,* 1998; Valencia *et al.,* 1997). Prozesuok ekintza indibidualetan oinarritu eta azaldu egiten dira, beren autonomia eta eraginkortasuna duten arren, esaterako, oroimenaren prozesu kolektiboak (Wertsch, 1991). Psikologia sozialak heldu berri dio ikuspegi honi. Ikuspegi honen arabera, kognizioa, banakoaren barneko jarduera izateaz gain, kanpoko jarduera eta soziala ere bada. Oroitzea eta pentsatzea elkarrekintza soziala dira, eta haien azterketaren muina unitate soziala da (Levine eta kolaboratzaileak, 1993). Transakzio-oroitzapen hauek partekaturiko sistemak dira eta informazioa kodifikatu, gorde eta gogora ekartzea dute helburu. Informazio hori taldekideek oroitzen dituzten arloek edo eduki zehatzek —eta beraz, oroitzen ez dituztenek— osatzen dute. Oroimena gizabanakoen barne agertzen bada ere, oroitze-prozesuek funtzio eta ondorio sozialak betetzen dituzte, gizartean.

Oroimen sozialaren azterketak azpimarratzen du gizarte bakoitzak bere herentzia kulturala gorde eta belaunaldiz belaunaldi hedatu behar duela. "Oroimen kolektiboa" edo "oroimen soziala" termino berriak dira, eta Halbwachs soziologo frantziarraren (1924, 1952) eta Vygotski psikologo errusiarraren (1978) lanetan dute jatorria. Autore horiek Psikologian oraindik dabilen ondoko ideia hau jarri zuten zalantzan: oroimena banakoarengan dago. Halbwachs-en arabera, oroitzapenak testuinguru kolektiboan, interaktiboan, sortu eta antolatzen ziren. Halbwachs-en pentsaera eta Vygotski-ren ikusmira soziokulturala bat datoz "pentsamendurako

tresna sozialak" (adibidez, oroimenaren marko sozialak) eta prozesu sozialak azpimarratzean (adibidez, goi-mailako adimen-funtzioen oinarri publikoak eta pertsona artekoak, oroimena kasu —Páez eta Blanco, 1996; Echeberria *et al.,* 1998—).

Halbwachs-en arabera (1968), banakoaren oroimena soziala da. Izan ere, «gizabanakoak iragana gogora ekar dezan honako baldintza hauek bete behar dira: 1) beste gizabanakoen oroitzapenen mende egoten da; 2) gizarteak agintzen dituen erreferentzia-puntuetan oinarritzen da; 3) banakoaren oroimenik ez dago hitzak edo ideiak bezalako tresnarik gabe, eta tresna horiek ez ditu norbanakoak asmatu, testuingurutik hartu ditu, ordea» (36. or.); 4) «gainera, norbanakoaren oroimena oroimen kolektiboaren ikuspegi bat da» (33. or.); 5) oroimen soziala beti da taldearen oroimena.

Vygotski-ri (1978) dagokionez, oroimen-mota bi ezberdintzen ditu: 1) *oroimen naturala,* gertaeren berehalako *inpresioa* eratzen duena, esperientziak trazu *mnemiko*en bidez gordetzeari esker; eta 2) *oroimen soziala,* non zeinuek eta ez kanpoko estimulazioek baldintzatzen duten esperientzia gordetzea. Oroimen-mota hori oso "logikoa" da, oroitzea pentsatzea baita. Vygotski-ren ustez, hizkuntzari esker oraina eta iragana laburbiltzen dira, iraganeko gertaeren elementuak orainarekin batuz.

Halbwachs-ek (1968) hiru oroimen-mota bereizi zituen: *autobiografikoa, kolektiboa* eta *historikoa.* Oroimen biografikoak norberaren iragana irudikatzen du, era osoan, etengabekoan eta gordinean. Oroimen historikoak (banako askori gertatutako jazoerak) iragana era laburrago eta eskematikoagoan irudikatzen du. Oroimen autobiografikoaren eta historikoaren arteko ezberdintasuna oroimen episodikoaren eta semantikoaren artekoaren antzekoa da, eztabaidagarria eta oroimen kolektiboaren gairako garrantzi gutxiagokoa. Oroimen historikoaren eta kolektiboaren arteko ezberdintasuna azpimarragarriena da. «Oro har, historia ez da hasten tradizioa bukatzen den arte; orduan oroimen soziala desagertu edo desegin egiten da» (38. or.). Oroimen soziala desagertzen da eta oroitzapenak bizirik iraunarazteko modu bakarra oroimen historikoa da. Oroimen historikoa eta kolektiboa gutxienez bi ezaugarritan dira ezberdinak: a) kolektiboa etengabeko pentsamendujario naturala da eta, taldearen kontzientzian oinarrituta, ez ditu inoiz bere mugak gainditzen, eta b) historia bakarra dagoen arren, hainbat oroimen kolektibo daude batera (74. or.). Beraz, edukien aldetik, oroimen kolektiboa talde baten iraganerako garrantzitsuak diren gertaerei buruzko irudi-, uste- eta jarrera-multzoa da; sarritan, taldeko kide askok ez ditu gertaera horiek zuzenean bizi. Gertaera historiko berari buruz ikuspuntu ezberdinak, batzuetan aurkakoak, egon daitezke (Halbwachs, 1968).

Prozesuen aldetik, taldearentzat garrantzitsuak diren gertaerak belaunaldien artean ahoz transmititzea da oroimen kolektiboa (Vansina in Ross, 1991). Oroimen kolektiboa taldearen historia informal konbentzionalizatua da, parte hartzen duen

ikuspuntutik, lehenengo pertsonan (Páez *et al.,* 1996). Halbwachs-ek historiaren subjektu arteko izaera eta gatazka-gabezia idealizatzen bazituen ere, asmatu egin zuen historia ofizial eta formalak besteen gainetik ikuspegi jakin bat egia bakar gisa inposatzeko duen joera deskribatzean.

Komunikazioa eta partekatze soziala banakoaren prozesuen (oroitzea) eta prozesu kolektiboen (oroimen kolektiboa eta soziala) arteko loturak dira (Valencia *et al.,* 1997). Gai horiek oroimen kolektiboaren azterketa errepresentazio sozialen testuingurura ekarri dute. Horrela, Jodelet-ek (1992) oroimen kolektiboa eta errepresentazio sozialak gauza bera direla proposatu du. Beste alde batetik, lanak argitaratzen hasi dira identitate nazionalaren, errepresentazio sozialen eta oroimen sozialaren arteko erlazioari buruzkoak (De Rosa, 1997; Jodelet, 1998; Nascimento-Schulze, 1997; Valencia *et al.,* 1997) edo Ameriketako bosgarren urteurrenaren oroimen kolektiboaren arloan (Sa *et al.,* 1997a, 1997b; Valencia, 2001).

Oroitzapenaren prozesu sozialak eta belaunaldien arteko harremanak

Halbwachs eta Vygotski-k oroimen kolektiboaren inguruan egindako lanek oroitzearen izaera konstruktiboa azpimarratzen zuten. Oroitzearekin harremana duten prozesuetarik garrantzitsuenak pertsona arteko komunikazioa eta partekatze soziala dira (Echeberria, 1998; Markova, 1982; Pennebaker, 1986). Pennebaker-en arabera (1986), gertaerak edo irudiak hizkuntzaren bidez azaltzeak, horiek pentsatzeko eta oroitzeko eran eragiten du. Hizkuntza erabiltzea ekintza soziala da beraz. Horrela, gertaera bati buruz hitz egitean, solaskideek eragin dezakete gertaera horren hautematean eta ulermenean. Gainera, maila psikologikoagoan, gertaerari buruz hitz egitea hausnarketa-mota bat da; ondorioz, gertaeraren inguruan hizkuntzaren bidez pentsatzeak eragin dezake gertaera nola antolatzen den oroimenean eta nola gogoratzen den etorkizunean.

Jarduera sozialaren (Vygotski, 1978, Bakhurst, 1990) eta partekatze sozialaren (Halbwachs, 1968) garrantziari errepresentazio sozialen testuingurutik heldu berri izan zaio, delako *Sinbolic Coping* azterketatik, hain zuzen (Wagner *et al.,* 1995; Wagner *et al.,* 2001). Vygotski-ren ikuspegitik (1978), hizkuntza, harremanetarako eta kontrolerako tresna da, besteekiko eta kanpoko munduarekiko ez ezik, norberaren buruarekiko ere bai: hizkuntza, hasieran keinua bezala kanporakoa den arren, barneratuz joaten da, barneratze hau "kanpoko operazioa barneeratzea" izanik (56. or.). Halbwachs-en arabera (1968), oroimena kolektiboa edo subjektuen artekoa da hizkuntzan, beste pertsona adierazgarriekiko barneko edo kanpoko komunikazio linguistikoan oinarritzen delako. Horrela, oroimena funtzio sozial garrantzitsuak dituen narrazio edo partekatze publikoa da. Hainbat autorek azpimarratu dutenez, pertsona arteko eta pertsona barneko prozesu kognitiboek funtsezko zeresana dute iraganeko gertaera estresagarriak eratzean eta asimilatzean. Emozioa daramaten gertaerak pertsona barneko (hausnarketa eta berrebaluatzea) zein pertsona arteko (partekatze soziala) prozesu kognitiboak sortzen

dituzten esperientziak dira. *Partekatze soziala:* emoziozko gertaera bat sozialki partekaturiko hizkuntzaren bidez gogoratzea da, baita norberaren emoziozko gertaera hori besteekin partekatzen deneko solas eta komunikazioaren prozesua ere (Páez *et al.,* 1997). Zenbait ikerketak azaldu duenez, partekatze sozial errepikakorra erantzun modala omen da autobiografiako gertaera arruntetan. Partekatze sozialaren maiztasunean edo atzeratzean, ez da ezberdintasunik aurkitu emozioei dagokienez. Era berean, autobiografiako emoziozko gertaerei buruzko hausnarketa-pentsamenduak erantzun modala dira (Rime *et al.,* 1992). Beste alde batetik, *hausnarketa,* denbora-epe batez gertaera baten inguruan egiten den pentsamendu kontzientea da. Prozesu automatikoak (hausnarketa bera) nahiz kontrolatuak (berrebaluatzea) hartzen ditu barne (Martin eta Tesser, 1989). Horregatik, hausnartzea gertaera bati buruzko nahigabeko pentsamendu-prozesu gisa har daiteke (Norris, 1990), hala nola gertaera batean pentsatzeko borondatezko saiakera, ulertzeko eta azaltzeko esanahia bilatzeko saiakera. Gertaera negatiboa positiboagotzat jo daiteke, hausnartzeak gertaera ulertzera, azaltzera eta ebaluatzera baldin bagaramatza. Izan ere, II. Mundu Gerrako beterano adaptatuenek eta ez-deprimituek gerrako oroitzapen traumatikoei aurre egitean berrebaluatze positiboagoa erabiltzen zuten, *trauma osteko estresa* (*Posttraumatic Stress Disorder*) zuten beteranoek baino (Afrikako gerrako beteranoen kasurako, ikus Marques *et al.,* 1997). Identitate soziala babestea helburu duen oroimen kolektiboaren izaera normatiboak kontuan hartzeko prozesu berria agertzen du: inhibizioa eta ahaztea. Prozesu hauek komunak dira iraganeko gertaera traumatikoei aurre egitean. Taldeek ahazte informala antolatzen dute, iraganaren berreraikitze eta distortsio positiboa, taldeko balioak eta taldearen irudia bera babestearren. Gertaera soziopolitikoei dagokienez, tortura kasu, isiltasuna eta inhibizioa, errepresioari zaion beldurrarengatik edo erruaren zama ekiditeagatik, prozesu arruntak direla aurkitu da (Pennebaker, 1990; Valencia *et al.,* 1997). Torturaren eta errepresioaren historiak ere azaldu du ahaztea eta isiltasuna erantzun arruntak direla (Wieviorka, 1992). Hainbat ikerketak egiaztatu duenez, iraganeko gertaera negatiboak konpartitzea oroitze handiagoarekin eta iragan zein orainarekiko jarrera kritikoagoarekin lortzen da. Inhibizioa, aldiz, oroitze txikiagoarekin, iraganari buruzko ezagutza txikiagoarekin eta nazioaren orainarekiko jarrera positiboagoarekin lotzen da, trauma kolektiboak pairatu dituzten herrialdeetan (Páez *et al.,* 1998; Basabe eta Herranz, 1999; Pennebaker, 1993; Pennebaker *et al.,* 1998). Maila kolektiboagoan, Schuman, Akiyama eta Knauper-ek (1998) ospakizun kolektiboen eta oroimen kolektiboen arteko harremanaren garrantzia azpimarratu dute. Autore horiek II. Mundu Gerrako erregimen alemaniar eta japoniarraren erorialdiari buruzko oroitze kolektiboetan diferentziak ikertu dituzte. Horrela, Japonian populazioaren % 15ek errendizioa gogoratzen zuen eta "Porrotaren Urteurrena" ospatzen zen; Alemanian, berriz, ez zegoen ospakizunik eta populazioaren % 2k baino ez zuen gogoratzen erregimen naziaren porrota.

Belaunaldia, hurbiltasuna, klima soziala eta oroitze historiko informala

Oroitzearen prozesu sozial hauek belaunaldien artean duten zeresanari dagokionez, Pennebaker-ek ikerkuntzaren emaitza nagusi bi laburbildu berri ditu (Pennebaker eta Basanik, 1997). Batetik, jendeak gertaerei buruz hitz egin eta luze pentsatuz gero, errazagoa da oroitzapenak izatea; gertaerak maila sozialean partekatzeak gertaera horiei buruz jendeak duen hautematea moldeatzeari ere laguntzen dio, adostasun-narratiba sortzen delako. Bestetik, nazio-mailako gertaera nagusiek ezberdin eragiten diete adin desberdinetako gizabanakoei, oro har, eraginik handiena 12 eta 25 urte bitartekoek jasaten baitute; adin tarte horretan jazotzen diren nazio-mailako gertaerek norberaren irudiari eta kohorte hauen oroimen kolektiboari eragiten diete nabari. Halere, ideia hau ez da berria; jadanik Mannheim-ek (1952) aurreratu zuen belaunaldiek unitate sozialak osatzen zituztela. Autore horren arabera, oinarri biologiko edo kronologikoen ordez, belaunaldien "kokapen sozialak" identifikatzen ditu belaunaldiak. Kokapen soziala kideek dituzten konpartitutako esperientziek osatzen dute. Mannheim-ek zioenez (1952), gogamenaren datuek garrantzi soziologikoa dute, edukia beraz gain, banakoek taldea osatzearren partekatu dezaten bultzatzen dutelako, alegia, eragin sozializatzailea dute. Testuinguru sozio-historiko bera duten eta esperientziatik ezagutza antzekoa jasotzen duten gizabanakoek talde soziala osatzen dute: *belaunaldi-unitatea*. Horrela, Mannheim-en arabera, belaunaldi edo kohorteak esperientzia soziopolitiko komunen bidez unitate sozial bihurtzen ziren. Belaunaldi bakoitzak historiako esperientzietan oinarritutako kokapen sozial bakarra du, belaunaldia identifikatzen duena.

Arestiko ideiak lan honetan aurkezten dugun ikerketara ekarriz, gaztaroan Errepublika, Eusko Jaurlaritza edota Espainiako Gerra Zibilaren euforia bizi izan zutenek, aurreko belaunaldietatik ezberdintzen zituzten jarrerak, usteak eta emozioak garatu zituzten, ezagutza kultural oso bat partekatzen zutelarik, noski. Gauza bera pentsa liteke nerabezaroan edo gaztaroan Trantsizio Politikoaren garaia bizi izan zuten gizabanakoez. Horrela gertatzen da subjektuak zuzenean jasotzen duen informazioa, lehenengo eskutik eta era natural eta zabalean jasotzen duen informazioa delako benetan garrantzizkoa. Gizabanakoak bizi-zikloaren garaietatik nerabezaroan eta lehenbiziko gaztaroan bizi dira era zabalenean eta bizi-esperientziez blaituen (Mannheim, 1928).

Mannheim-en ideiak egungo ikerketek berretsi egin dituzte. Norbera eta mundua ezagutzeko, nerabezaroan eta lehen gaztaroak duten garrantziari dagokionez, oroimen *autobiografikoa*ri buruzko hainbat ikerketak egiaztatu du 10 eta 25 urte bitarteko gertaerak oroitzean, oroitze areagoa edo gain-oroitzea azaltzen dela (Conway, 1998). Emaitza berdina aurkitu da subjektuei gogoratzeko eskatu zaienean historiako gertaerak edo iraganean ezagutu dituzten aldaketa sozialik garrantzitsuenak: subjektuek 10 eta 25 urte bitarteko gertaerak gogoratzeko joera dute. Zenbait gertaera kohorte batekin lotzen da: identitatea eratzeko garai kritikoan bizi izan zutenek aurreko edo osteko belaunaldiek baino hobeto gogoratzen

dute (Woodstock, Tet-ek buruturiko erasoa eta My Lay-ko sarraskia, esaterako; Schuman, *et al.,* 1998).

Urte horietako oroitzapenak biziak edo afektuzko zama dutelako gogoratzen dira hobeto, berriak direlako, aldaketa- edo trantsizio-garaian gertatzen direlako eta, batez ere, heldutasuneko identitate soziala eratzeko garaian agertzen direlako (Pennebaker eta Banasik, 1998; Schuman, *et al.,* 1998). Gainera, emaitza horiek oroimen autobiografikoen gain-oroitzea azaltzeko identitatearen osatzeak duen garrantzia bermatzen dute (Conway, 1988). Conway-ren arabera (1998), Japonian gain-oroitzea, 10 eta 25 urte bitartean izan ordez, 20 eta 30 urte bitartean izaten da. Emaitza hori Japonian helduaroan sartzea berantiarragoa izateagatik eta kultura horretan nerabezaroari balio gutxi emateagatik azal daiteke .

Historiako gertaerak oroitzeari buruzko ikerketek, belaunaldi edo kohortearen efektuaz gain, lerro-efektua ere aurkitu dute: gertaeratik zenbat eta hurbiltasun historiko handiagoa, orduan eta gehiago ezagutzen da gertaera hori. Azkenik, ospakizunen edo estimulu semiotikoen bidez (artelanak, pelikulak, eleberriak, serieak, saiakerak, etab.) oroimenean gordetzen diren beste gertaera historiko batzuk, Holokaustoa eta II. Mundu Gerra, esaterako, populazioaren gehiengoak ezagutzen dituela egiaztatu da (Schuman, *et al.,* 1998).

Gure ikerketari dagokionez, lehenengo atalaren helburua Espainian berri samarrak diren gertaera politikoak oroitzean belaunaldi-efekturik dagoen aztertzea da.

Zer gertatzen ote da belaunaldiko esperientziak eta gertaeratik hurbiltasun historikoak belaunaldi horren heziketa-urteetan nagusi zen klima sozialaren aurka egiten dutenean? Maiz, diktadura ezarri eta gero, galtzaileek duten beldur eta tristeziaz beteriko testuinguruak isolamendu soziala, inhibizio-portaera, balio eta usteen krisialdia eta komunikazioa ekiditea edo inhibitzea inposatzen ditu iraganeko esperientzia negatiboen inguruan, hain zuzen (Páez, Asún eta González, 1994). Espainian, argi eta garbi bereiz daitezke errepublika garaiko umeen eta gazteen belaunaldia (1910 eta 1924 bitartean jaiotakoak); identitatea eratzeko urteak gerraoste, urritasun, fusilamendu ikaragarri eta masibo eta erabateko errepresio kolektiboko garaian bizi izan zituen belaunaldia (1925 eta 1930 bitartean jaiotakoak) eta hasierako frankismoaren garaiko belaunaldia (1931 eta 1941 bitartean jaiotakoak), miseria eta errepresio selektiboko garaia, makiak eta fusilamenduek jarraitu zuteneko epea, 1947. urtera arte. Lehenengo belaunaldia ez bezala, hurrengo biak jarduera politikotik aldenduak izan ziren; beldurra nagusi zeneko testuinguru emozionala pairatu zuten eta frankismoren kanpaina ideologikoak zein iraganari buruz hitz egiteari galtzaileek zioten beldurrak Gerra Zibilari buruzko informazioa igortzea oztopatu zuten. Saiogile klasikoek jada esana zuten diktadurak irabazteak, baita horrek dakarren beldur- eta depresio-giroak ere, apatia, indibidualismoa eta politizazio-gabezia bultzatuz, ekintza kolektiborako belaunaldi osoaren galera dakartela

(Trotsky, 1973). Garapen ekonomikoaren belaunaldiak (1942 eta 1953 bitartean jaiotakoak) urritasun gutxiago, errepresio selektibo mugatuagoa eta oposizio politikoaren hastapenak bizi izan zituen, apatia politikoa nagusi izan arren. Bukaerako frankismoko belaunaldiak (1954 eta 1963 bitartean jaiotakoak) garapen ekonomiko eta aldaketa politikoaren garaia, iraganaren berreskuratze kritikoaren garaia, bizi izan zuen. Azkenik, 64. urteaz geroztik jaiotako belaunaldiak trantsizioan edo demokrazian izan du sozializazioa. Erregimen frankistaren irudiaz inkestaren bidez egindako ikerketek azaldu dutenez, belaunaldirik berrienak, demokrazian sozializatua izan denak, hasierako frankismo eta gerraosteko belaunaldiek baino jarrera negatiboagoa dute erregimen frankistarekiko; azken belaunaldi horietan, diktaduraren aldeko eta aurkako jarrerak orekatuta baitaude. Halere, aldi berean egungo belaunaldiak Gerra Zibilaren inguruan dramatismo gutxiagoko ikuspegia du eta informazioa bide ez-zuzenetik jaso du (Igartua eta Páez, 1998).

Hainbat autoreren ikerketetan oinarrituz (adibidez, Conway, 1996; Schumann eta kolaboratzaileak, 1996), Espainiako Gerra Zibilean eta antzeko gertaeretan zuzeneko esperientzia handiagoa edo txikiagoa izatearen arabera, belaunaldiek oroitze-prozesu sozialak ezberdin erabiliko dituztela pentsa genezake.

Ikerketa honetan aurkezten dugun bigarren atalean, oroimen kolektiboaren prozesuak eta horietan iragana birgogoratzen duten gertaera kolektiboek duten eragina aztertu nahi dugu. Hain zuzen, bi laginetako emaitzak aurkezten dira, bata Euskal Herrikoa eta bestea Oñati eta Arrasate herrietakoa. Herriotan, 1994an gerra zibilari buruzko pelikula filmatu zen, Pierre Boutron-ek zuzendutakoa eta J.L. de Villalonga-ren eleberrian oinarritutakoa. *Fiesta* izenburuko pelikula horrek errepublikarrei sarraskiak leporatzen zizkien. Villalonga-ren eleberriak gerra zibileko irudi odoltsuak kontatzen ditu, errepublikarrek egindako fusilamenduak barne. Zuzendari frantziarrak esan zuen Villalonga-ren eleberrian faxismoaren aldekoa zen protagonista erabiltzen zela ideologia horrek sortzen duen alienazioa kritikatzeko. Argudio progresista horiek ez zuten tokiko populazioa konbentzitu eta populazioak aldarrikatu zuen eleberriak nahiz pelikulak errepublikarrak hiltzailetzat salatu eta frankismoko errepresioa justifikatu egiten zutela. Horrela, eleberriaren eta pelikularen kontrako mobilizazio tinkoa sortu zen, *El Mundo* egunkariko titularrak zioen bezala, "Ez dugu Historia manipulatzerik nahi" (1994). Kasu horren bidez egiazta dezakegu gertaera batzuk kontatzen dituen kanpoko ikuspegiak gatazkan sartu eta oroimen kolektiboaren prozesuak pizten dituela gertaera horietan inplikatutako taldean.

Landutako testuinguru teorikotik espero genuen, belaunaldi edo kohorteak eragina izango zuela iraganeko gertaeren inguruan bai oroimen askean bai komunikazio-prozesuetan. Bestetik, adinaren eta iraganeko oroitze-prozesuen arteko lerroerlazioa espero genuen, oroimena Gerra Zibila bezalako gertaera historikotik hurbilen dauden belaunaldietan handiagoa izango zelakoan. Gainera, espero genuen iraganeko gertaera gatazkatsua berpizteak indartuko zituela Gerra Zibila

eta gerraostearen garaiko oroitze-prozesuak —bai pertsona artekoak bai pertsona barnekoak—; iraganari ihes egiteko eta aurre egiteko mobilizazioa zein pentsatzea (berrebaluatzea eta hausnartzea) pelikula egin eta eztabaida sortu zeneko tokian altuagoak izanik. Azkenik, Gerra Zibileko kohorteak berpizterik handiena agertuko zuen eta demokrazian sozializatutako belaunaldiak txikiena; era berean, gerraosteko eta hasierako frankismoko belaunaldiek erantzun txikiagoa izango zuten, beldurgiroaren epe luzeko efektua azalduz.

9.2. LEHENENGO IKERKETA: BELAUNALDI-KOHORTEA ETA GERTAERA POLITIKOEI BURUZKO OROIMEN ASKEA: GERRA ZIBILA ETA TRANTSIZIOA

Metodologia

Lagina. Psikologiako kurtso ertaineko ikasleek zoriz aukeratutako 777 subjektuk hartu zuten parte. Subjektu horietatik, % 59 Euskal Herrikoa zen, % 10 Salamancakoa, % 8,5 Bartzelonakoa, % 11 Madrilekoa eta % 12 Sevillakoa. Sexuari dagokionez, % 40 gizonezkoa zen eta % 60 emakumezkoa. Adinaren batezbestekoa 35,6 urtekoa zen eta adin-tartea 18tik eta 92 urtetara zihoan.

Kohorteei dagokienez, subjektuak trantsizio-garaian zuten adinaren inguruan antolatutako hurrengo kategorien arabera sailkatu ziren: a) *Demokrazia*n sozializatuak, 1977an 25 urte edo gutxiago zituztenak (N=317), 1972. urteaz geroztik jaioak, trantsizio-garaian haur zirenak. b) *Trantsizio ostea*n sozializatuak (N=72), 1968 eta 1971 bitartean jaioak (N=58), 1997an 26-29 urte zituztenak eta trantsizioan 6-9 urte. c) *Trantsizioa*n sozializatuak (N=58), 1962 eta 1967 bitartean jaioak, 1997an 30-35 urte zituztenak eta trantsizioan (1977) 10-15 urte. d) *Bukaerako frankismoa*n sozializatuak (N=38), 1957 eta 1961 bitartean jaioak, 1997an 36-40 urte zituztenak eta trantsizioan 16-20 urte. e) *Erdiko frankismoa*n sozializatuak (N=50), 1952 eta 1956 bitartean jaioak, 1997an 41-45 urte zituztenak eta trantsizioan 21-25 urte. f) *Bukaerako ekonomia-garapen frankista*n sozializatuak (N=67), 1947 eta 1951 bitartean jaioak, 1997an 46-50 urte zituztenak eta trantsizioan 26-30 urte. g) *Hasierako ekonomia-garapen frankista*n sozializatuak (N=71), 1937 eta 1946 bitartean jaioak, 1997an 51-60 urte zituztenak eta trantsizioan 31-40 urte. h) *Gerraostea*n sozializatuak (N=77), 1936. urteaz aurretik jaioak, 1997an 60 urte baino gehiago zituztenak eta trantsizioan 40 urte baino gehiago.

Neurriak. Espainian eta Euskal Herrian aurreko mendean izandako *gertaera historikoei buruzko oroimen askea:* galdera ireki bati emandako erantzunetan oinarritu zen. Inkesta bete zuten subjektuek emandako erantzunetan gertaera historikoak aipatzen ziren ala ez kodifikatu zen. Hain zuzen, bi gertaera historiko hartu ziren kontutan: Espainiako Gerra Zibila eta demokraziarako trantsizioa. Galdera honako hau izan zen: *Zure ustez, zeintzuk dira mende honetako gertakaririk*

garrantzitsuenak bai Euskal Herrian bai Espainian? Erantzunak kodifikatzean epaileen arteko adostasuna % 90etik gorakoa izan zen.

Gerra Zibilari buruzko *partekatze soziala edo komunikazioa, berrebaluatzea* eta *inhibizioa* aldagaiei galdera bana zegokien. Partekatze soziala neurtzeko galdera honako hau izan zen: *Zenbatetan hartzen duzu parte Espainiako Gerra Zibilari eta gerraosteari buruzko elkarrizketa edo eztabaidetan iritzia emanez*? Berrebaluatzerako galdera ondokoa izan zen: *Zenbatetan pentsatzen duzu nahita hurrengo gaien inguruan: Espainiako Gerra Zibila eta gerraostea*? Ekiditerako honelako galdera egokitu zen: *Zenbatetan saihesten duzu Espainiako Gerra Zibila eta gerraostea bezalako gaiei buruz hitz egitea?* Hiru item horiek 5 erantzun-aukera zuten (1=Inoiz ez, 5=Askotan).

Emaitzak

Belaunaldi edo kohorteko maiztasun-analisiek trantsizioan belaunaldiaren efektua egiaztatu zuten. Izan ere, trantsizioan 10 eta 20 urte bitarteko adina zuten gizabanakoek (3. eta 4. kohorteak) (ikus ondoko taula) gazteagoek eta zaharragoek baino gehiago gogoratzen zuten gertaera historikoa (X^2 (1,7)=13,2; p< 0,07). Espainiako Gerra Zibila, aldiz, gertaera historiko gisa kohorte guztiek berdintsu gogoratzen zuten.

Hitz egitean, pentsatzean eta ekiditean oroimen askeko ehunekoak eta batezbestekoak

Gertaera

	Gerra Zibila	Trantsizioa	Hitz egin	Pentsatu	Ekidin
1. Kohortea	63	27	2,11	2,04	1,96
Demokrazia					
2. Kohortea	51	26	2,11	1,94	1,81
Trantsizio ostekoa					
3. Kohortea	52	35	2,01	1,94	2,00
Trantsizioa					
4. Kohortea	55	32	2,22	2,05	1,70
Bukaerako frankismoa					
5. Kohortea	56	16	2,29	1,70	1,69
Erdiko frankismoa					
6. Kohortea	54	25	2,37	2,13	1,97
Bukaerako garapen ekonomikoa					
7. Kohortea	56	13	2,48	1,98	2,00
Hasierako garapen ekonomikoa					
8. Kohortea	65	25	2,60	2,39	2,55
Gerraostea					

Sozializazio-garaia

	Oroimen askeko %	Batezbestekoak oroitze-prozesu sozialetan

Komunikazio edo partekatze sozialean, berrebaluatzean eta hitz egitea ekiditean kohorteen arteko ezberdintasun esanguratsuak agertu ziren. Batez bestekorik altuenak kohorterik zaharrenei zegozkien eta baxuenak kohorte gazteenei. Lerrojoera zegoen: Gerra Zibiletik zenbat eta gertuago egon, orduan eta gehiago hitz egiten da ($F_{(7,704)}$= 3,44; p < 0,001), gehiago pentsatzen da ($F_{(7,704)}$= 2,50; p < 0,01) eta gehiago ekiditen da hitz egitea hari buruz ($F_{(7,704)}$= 4,23 ; p < 0,000). Oroimen askean, berriz, ez dago kohorteen arteko ezberdintasun esanguratsurik. Halere, oroimen askearen eta oroitze-prozesu sozialei emandako erantzunen artean erlazioak aurkitu ziren. Hain zuzen, Gerra Zibila gertaera historiko garrantzitsu gisa aipatzeak lotura positiboa zuen gertaerari buruz hitz egin edo konpartitzearekin (r=0,48, p<0,001) eta lotura negatiboa zuen hitz egitea ekiditearekin (r=-0,08, p<0,01). Horrela, komunikazioak oroimenerako eta inhibizioak ahazteko duen garrantzia egiaztatzen zen.

9.3. BIGARREN IKERKETA: BELAUNALDI-KOHORTEA, EZTABAIDA PUBLIKOA ETA GERRA ZIBILARI BURUZKO OROITZE-PROZESUAK

Metodologia

Lagina. Psikologiako kurtso ertaineko ikasleek zoriz aukeratutako 416 subjektuk hartu zuten parte. Subjektu hauetatik, 186 Oñati eta Arrasatekoak ziren eta 208 Euskal Herriko gainerako herrietakoak. % 62 gizonezkoak ziren eta % 38 emakumezkoak. Adinaren batezbestekoa 35,6 urtekoa zen eta adin-tartea 18tik eta 92 urtetara zihoan.

Kohorteei dagokienez, subjektuak Gerra Zibila eta Frankoren diktadurako epeen inguruan antolatutako hurrengo kategorien arabera sailkatu ziren: a) *Demokrazia*n sozializatuak (N=144), ikerketa burutu zenean 30 urte edo gutxiago zituztenak, 1964. urteaz geroztik jaioak, 1979an gutxienez 15 urte zituztenak. b) *Trantsizioa*n sozializatuak (N=32), 1994an 31-40 urte zituztenak. c) *Garapen ekonomikoa*n sozializatuak (N=37), 1994an 41-52 urte zituztenak. d) *Hasierako frankismoa*n sozializatuak (N=51), 1994an 53-63 urte zituztenak. e) *Gerraostean* sozializatuak (N=33), 1994an 64-69 urte zituztenak. f) *Gerra Zibil*ean sozializatuak (N=47): 1994an 69 urte baino gehiago zituztenak.

Neurriak. Partekatze soziala. Hurrengo 3 itemek osatua: "*Ohiz, gerran eta gerraostean gertatutakoaren inguruan, hitz egiten duzu a) tortura, gerrako zauriei buruz, b) erailketa, biolentzia-ekintza, lapurretei buruz, c) ekonomia, elikadura edo osasun-arazoei buruz"*. Bost erantzun-aukera ematen ziren: 1=Ezer ez, 5=Asko. Hausnartzea. Honako 3 item hauek osatzen zuten: *"Nahi gabe ere gerran eta gerraostean gertatutako holako gertaera batean pentsatu duzu: a) tortura, gerrako zauriak, b) erailketak, biolentzia-ekintzak, lapurretak, c) ekonomia, elikadura edo osasun-arazoak"*. Bost erantzun-aukera ematen ziren: 1=Ezer ez, 5=Asko.

Berrebaluatzea. Ondorengo 3 itemek osatzen zuten: *"Nahita gerran eta gerraostean gertatutako holako gertaera batean pentsatu duzu, ulertu, zureganatu eta azaltzeko: a) tortura, gerrako zauriak, b) erailketak, biolentzia-ekintzak, lapurretak, c) ekonomia, elikadura edo osasun-arazoak"*. Bost erantzun-aukera ematen ziren: 1=Ezer ez, 5=Asko.

Ekiditea. Hurrengo 3 itemen bidez neurtua: *"Gerran eta gerraostean gertatutakoaren inguruan holako gaia plazaratuz gero, hari heltzea edo hitz egitea ekiditen da, arreta galtzea nahiago izaten da: a) tortura, gerrako zauriak, b) erailketak, biolentzia-ekintzak, lapurretak, c) ekonomia, elikadura edo osasun-arazoak"*. Bost erantzun-aukera ematen ziren: 1=Ezer ez, 5=Asko.

Aurreko neurri horiekin lau indize sortu ziren, 3 itemen batuketa zati 3 eragiketaren bidez lortutakoak; horrela, indize berriak 1etik 5erako tartea zuten.

Emaitzak

Hipotesi nagusia testatu nahian, aldagai anitzeko bariantza-analisia (MANOVA) burutu genuen, aldagai askeak jatorria (Oñati-Arrasate edo Gerra Zibila gogorazi zenekoa vs gainerako EH) eta kohortea (6 kategoriak) izanik eta partekatze soziala, ekiditea, hausnartzea eta berrebaluatzea hartuz errepikapen-neurrietako menpeko aldagai gisa. Emaitzetan subjektu arteko/barneko ereduaren interakzio-efektua azaldu zen ($F_{(15,402)}$= 2,04; $p < 0,01$). Hau da, oroitze-prozesu sozialetan ezberdintasunak aurkitu ziren jatorriaren eta belaunaldi-kohortearen arabera.

Aldagai aske bakoitzaren (gogoraraztea zuen zonaldea vs gogorarazterik gabekoa eta kohortea) eta lau menpeko aldagaien arteko interakzioak (artekoak zein barnekoak) ere aurkitu ziren. Jatorriari dagokionez, (arteko/barneko) efektu esanguratsua aurkitu zen ($F_{(3,402)}$= 5,17; $p < 0,001$). Emaitzak ondoko taulan ikus daitezke.

Oroitze-prozesu sozialetan batezbestekoak zonaldearen arabera.

	Gertaera kolektiboa izan zuen zonaldea	*Gertaera kolektiborik gabeko zonaldea*
Partekatze soziala	*2,10*	*1,93**
Ekiditea	*2,21*	*1,91***
Hausnartzea	*2,04*	*1,6****
Berrebaluatzea	*2,24*	*2,63****

Gertaera kolektiboa izan zuen zonaldea: pelikula dela eta, EGZri buruzko eztabaida publikoa; gertaerarik gabekoa: eztabaida publikorik ez
** p = 0.08;** p < 0.01; *** p < 0.001*

Aurreko taulan ikus daitekeenez, pelikula filmatu eta iragana gogorarazi zen zonaldean Gerra Zibileko eta gerraosteko gertaera negatiboen partekatze sozial handiagoa, ekidite handiagoa eta hausnartze handiagoa aurkitu ziren. Halere, gertaera kolektiborik gabeko zonaldean baino berrebaluatze txikiagoa zegoen.

Belaunaldi-kohorteei dagokienez, (arteko/barneko) efektu esanguratsua ere agertu zen ($F_{(15,402)}$= 1,87; p <0,01). Emaitzak ondoko taulan erakusten dira.

Oroitze-prozesu sozialetan batezbestekoak kohortearen arabera.

	< 30	*31-40*	*41-52*	*53-63*	*64-69*	*+ 69*
Partekatze soziala	*1,76*	*1,93*	*2,10*	*2,10*	*2,05*	*2,35**
Ekiditea	*1,78*	*1,60*	*2,22*	*2,46*	*2,15*	*2,50**
Hausnartzea	*1,53*	*1,33*	*1,82*	*1,88*	*2,01*	*2,50**
Berrebaluatzea	*2,19*	*2,37*	*2,60*	*2,23*	*2,03*	*2,66*

** p < 0.01*

Bonferroni-ren proba erabiliz, *partekatze soziala* aldagaian (ikus aurreko taula) demokrazian sozializatutako belaunaldiaren eta Gerra Zibilean sozializatutakoaren artean ezberdintasun esanguratsuak agertu ziren. Lehenengo kohorteko subjektuek puntuaziorik baxuenak zituzten eta bigarren kohorteko subjektuek puntuaziorik altuenak. *Ekiditea*n ezberdintasunak demokrazian eta trantsizioan sozializatutako belaunaldien eta garapen ekonomikoan, hasierako frankismoan, gerraostean eta Gerra Zibilean sozializatutako belaunaldien artean eman ziren. Lehenengo kohorteetan ekiditerik txikiena eta azken kohorteetan ekiditerik handiena zegoen. *Hausnartzea*ri dagokionez, funtsean, demokrazian, trantsizioan, bukaerako frankismoan, garapen ekonomikoan eta hasierako frankismoan sozializatutako kohorteen eta gerraostean eta Gerra Zibilean sozializatutakoen artean agertu ziren diferentziak. Lehenengoetan hausnartzea txikiagoa eta azkenetan handiagoa zen.

Partekatze sozialean eta hausnartzean lortutako emaitzak laburtuz, Gerra Zibiletik urrunago dauden belaunaldien eta hurbilago daudenen artean daude diferentziak; urrunago dauden horiek pertsona arteko nahiz pertsona barneko prozesamendu gutxiago egiten dute, hurbilago daudenek kontrakoa egiten dutelako. Ekiditean, aldiz, ezberdintasunak diktadura bizi izan zuten belaunaldien eta diktaduraren krisialdian eta frankismo ostean sozializatutakoen artean ematen dira, lehengoek ekidite handiagoa eta bigarrenek txikiagoa izanik. Diktadurak sortzen duen beldurgiroaren luzerako eraginaren adierazle ona dugu arestiko emaitza.

Atal honen hasieran aipatutako interakzio-efektuari dagokionez, emaitzak ondoko taulan daude ikusgai.

Oroitze-prozesu sozialetan batezbestekoak kohortearen arabera.

	< 30		*31-40*		*41-52*		*53-63*		*64-69*		*+ 69*	
	Ez	*Bai*	*Ez*	*Bai*	*Ez*	*Bai*	*Ez*	*Bai*	*Ez*	*Bai*	*Ez*	*Bai*
Partekatzea	*1,71*	*1,80*	*1,91*	*2,00*	*2,11*	*2,14*	*2,24*	*1,95*	*2,5*	*1,52*	*2,07*	*2,6*
Ekiditea	*1,90*	*1,64*	*1,45*	*1,75*	*2,08*	*2,36*	*2,31*	*2,51*	*2,64*	*2,04*	*2,68*	*2,35*
Hausnartzea	*1,62*	*1,46*	*1,49*	*1,37*	*1,89*	*1,76*	*2,13*	*1,62*	*2,78*	*1,22*	*2,40*	*2,68*
Berrebaluatzea	*1,69*	*2,70*	*2,04*	*2,74*	*2,27*	*2,94*	*2,32*	*2,22*	*2,76*	*1,29*	*2,26*	*3,06*

Bai: gertaera kolektiboa, eztabaida publikoa; Ez: gertaerarik gabe, eztabaida publikorik ez.
Aldagai anitzeko interakzio-efektua; Zonaldea x kohortea F(15,402)=2,04; p<0,01

Oro har, zonalde bietako subjektuek *partekatze sozial*ean handitze lineala azaltzen zuten kohortearen adina handitzearekin batera, alegia, Gerra Zibiletik hurbilago egotearekin batera. Halere, gerran sozializatutako kohorteak gertaera kolektiborik gabeko zonaldean apurtu egiten zuen lerro-handitzea. Pelikula egin eta Gerra Zibila gogorarazi zeneko zonaldean, aldiz, lerro-handitzean jaitsiera zegoen hasierako frankismoan eta gerraostean sozializatutako kohorteen aldetik, gerran sozializatutakoak linealtasuna berriz hartzen zuelarik (ikus aurreko taulan). Gainera, kohorte guztietan, hasierako frankismoan eta gerraostean sozializatutakoetan izan ezik, partekatze soziala handiagoa zen eztabaida publikorik ez zegoen zonaldean pelikula egin zeneko zonaldean baino (64-69 adin-taldean X=2,5 eta X=1,52, hurrenez hurren; 53-63 adin-taldean X=2,24 eta X=1,92, hurrenez hurren). Hasierako frankismoan eta gerraostean sozializatutako kohorteetan alderantzizko harremana zegoen, ordea. Bonferroni-ren probaren arabera, demokrazian sozializatutako kohortearen eta Gerra Zibilean sozializatutakoaren arteko ezberdintasun esanguratsuak zeuden gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean; era berean, gertaera kolektiborik gabeko zonaldean ezberdintasun esanguratsuak azaldu ziren demokrazian eta trantsizioan sozializatutako kohorteen eta Gerra Zibilean sozializatutako kohortearen artean.

*Ekiditea*n ere handitze lineala agertu zen kohortearen arabera gertaera kolektiborik gabeko taldean, trantsizioan sozializatutako kohortean izan ezik (2. kohortea, 1994an 31-40 urte zituztenen taldea). Gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean, aldiz, ekiditearen lerro-handitzea azaltzen zen kohorte guztietan, gerraostean eta Gerra Zibilean sozializatutako kohorteetan izan ezik; halere, azken kohorteak linealtasuna berreskuratzen zuen. Ildo beretik, gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean bestean baino ekidite handiagoa azaltzen zen kohorte guztien aldetik, demokrazian, gerraostean eta Gerra Zibilean sozializatutako kohorteak salbuespen izanik, non alderantzizko patroia zegoen. Bonferroni-ren proba erabiliz, gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean demokrazian sozializatutako kohortearen eta gerraostean eta Gerra Zibilean sozializatutakoen artean ezberdintasunak aurkitu ziren; gertaera kolektiborik gabeko zonaldean demokrazian sozializatutako kohortearen eta Gerra Zibilean sozializatutakoaren artean agertu ziren ezberdintasunak.

*Hausnartzea*n ere kohortearen adinarekin batera lerro-handitzea agertu zen eta hausnartzea gertaera kolektiborik gabeko zonaldean beti handiagoa zen, Gerra Zibilean sozializatutako kohortean izan ezik. Azken kohorte horretan hausnartzea handiagoa zen gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean. Bonferroni-ren probaren arabera, gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean, demokrazian sozializatutako kohortearen eta gerraostean eta Gerra Zibilean sozializatutakoen artean ezberdintasunak zeuden; gertaera kolektiborik gabeko zonaldean, berriz, demokrazian, trantsizioan, hasierako frankismoan eta garapen ekonomikoan sozializatutako kohorteen eta Gerra Zibilean sozializatutakoaren artean eman ziren ezberdintasunak.

Berrebaluatzea aurrekoetatik ezberdintxoa zen. Gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean berrebaluatzean lerro-handitzea behatzen zen, garapen ekonomikoan eta hasierako frankismoan sozializatutako kohorteak salbuespen. Gertaera kolektiborik gabeko zonaldean, kohorteek egiten zuten berrebaluatzea ezberdina zen, kohortea zenbat eta zaharragoa izan, berrebaluatzea orduan eta handiagoa baitzen, Gerran sozializatutako kohortean izan ezik. Bonferroni-ren proba erabiliz, gertaera kolektiboa izan zuen zonaldean, demokrazian sozializatutako kohortearen eta Gerra Zibilean sozializatutakoaren arteko ezberdintasunak aurkitu ziren; eta gertaera kolektiborik gabeko zonaldean, demokrazian sozializatutako kohortearen eta garapen ekonomikoan, hasierako frankismoan, gerra aurreko eta Gerra Zibilean sozializatutako kohorteen arteko ezberdintasunak aurkitu ziren.

Laburbilduz, oinarrizko patroia ondoan datza: eztabaidak partekatzea eta berrebaluatzea indartu egiten ditu Gerra Zibila bizi izan zuen kohortean eta leundu/ahuldu egiten ditu gerraosteko kohortean.

9.4. ONDORIOAK

Ikerketa bietako emaitzek adinaren eta oroitze-prozesuen —pertsona arteko (partekatze eta ekiditea) eta pertsona barneko (berrebaluatzea) prozesuen— arteko lerro-harremana egiaztatzen dute. Heziketa-garaia Gerra Zibilean eduki zuen belaunaldiak edo Gerra Zibilaren gertuko belaunaldiek, beraiek esanaren arabera, iraganari buruz gehien hitz egin, batzuetan hitz egitea ekidin eta Gerra Zibila gertaera historikoan gehien pentsatzen zuten (hausnartu edo berrebaluatu).

Halere, ez zen egiaztatu adinaren lerro-efekturik ezta belaunaldi edo kohortearen efekturik Espainiako Gerra Zibila oroitzean: kohorteen % 50ek baino gehiagok gogoratzen zuen Gerra Zibila Euskal Herrian eta Espainian iragan mendeko gertaera historiko gisa. Esan daiteke Gerra Zibila ospakizun, artelan, eleberrien eta abarren bidez oroimenean gorderik dauden gertaera historikoetariko bat dela eta populazioaren gehiengoak ezagutzen duela. Halere, komunikazio- eta ekidite-prozesuen eta oroimen askearen arteko harremana egiaztatu zen: gerrari buruz hitz egitea ekiditeak lotura negatiboa zuen gerra gertaera historiko bezala aipatzearekin, hari buruz hitz egitea edo partekatzea oroimenarekin lotzen zela.

Era berean, belaunaldi edo kohorteak oroimen askean eragina zuela egiaztatu zen. Identitatearen eratze-garaia trantsizioan izan zutenek gertaera politiko hori garrantzitsutzat jotzeko edo gogoratzeko joera handiagoa azaldu zuten.

Bigarren ikerketan, Gerra Zibilari buruz komunikatzea eta hausnartzea handiagoak izan ziren pelikula egiteak gertatukoari buruzko eztabaida piztu zueneko zonaldean. Emaitza horrek egiaztatzen duenez, eztabaida publikoek (ospakizunek edo artelanak bezalako elementu erritualek) iragan kolektiboari buruzko oroitze-prozesuak —pertsona arteko nahiz pertsona barnekoak— indartu egiten dituzte.

Ikerketa honek belaunaldi bat sozializatu zeneko klima sozialaren efektua ere azaldu zuen. Adinaren eta gertaera historikoarekiko (Gerra Zibila eta gerraostea) hurbiltasunaren arteko lerro-harremana iraganari buruzko eztabaida publikoak aldatu izana da emaitzarik nabarmenena. Gerraosteko (64-69 urte) eta hasierako frankismoko (53-63 urte) belaunaldiek, —lehenengoak batez ere— pelikula egin zeneko zonaldean partekatze sozial, berrebaluatze, hausnartze eta ekidite txikiagoak azaltzen zituzten. Alegia, iragana pizten denean, horrekiko pertsona arteko eta pertsona barneko mobilizazio txikiagoa agertzen zuten. Berriro esan beharra dago emaitza hori zonalde jakinean gertatzen dela, non eztabaida publikoak beste belaunaldiek beren identitatearen eratze-garaian gertatutakoa gehiago gogora dezaten bultzatzen duen. Antza denez, eztabaida publikoak inhibizio-efektua eta gertatutakotik aldentzea indartzen ditu. Beste hitz batzuetan esanda, identitatearen eratze-garaian bizi izandako gai politikoetatik eta Gerra Zibiletik aldentzeko joera nagusia indartzen du. Gaur egun ere belaunaldi horiek ekintza politikorako galduak dira, Trotsky-k esan zuen bezala (1973). Demokraziako belaunaldiak (30 urte baino gazteagoak) eztabaida publikoko zonaldean eztabaidarik gabeko zonaldean baino ekidite eta hausnartze txikiagoa eta, batez ere, berrebaluatze handiagoa edo esanahia bilatze kontzientea azaltzen zituen. Gerraosteko belaunaldiak (64-69 urte) eztabaida publikoa zegoen zonaldean gutxiago hitz egin, pentsatu eta ekiditen zuen, aldentzea borondatezkoa zein ez-borondatezkoa dela iradokitzen duena.

Laburbilduz, gure ikerketek honako erlazio hauek aurkitu dituzte: oroimen askean, belaunaldiak duen efektua, hurbiltasunak informazioa prozesatzeko pertsona arteko eta pertsona barneko prozesuetan dituen lerro-efektuak, baita gizabanakoen identitatearen eratze-garaian dagoen giro sozial nagusiaren efektuak ere, urte asko iraganda ere eragina izaten jarraitzen duen inhibizio- eta beldur-giroa.

10. Prozedurazko justizia eta hizkuntzaren erabilera: akusatuaren eta defentsaren rola epai-testuinguruan

J.F. Valencia; L. Gil de Montes eta G. Ortiz

10.1. SARRERA

Hemen justizia prozeduralaren funtsezko elementua landu nahi da, hain zuzen ere, epai-testuinguruan hizkuntzaren erabileraren funtzioa eta horretarako, lesio-epaike-tako delako Ahozko Epaiketako Akten protokoloak aztertuko dira.

Esan daiteke gure lege-sistema, nolabait, bi prozeduren konbinazioan oinarritzen dela: prozedura *inkisitoriala,* non epaiketaren egintzak legez araututa baitaude (Prozedura Kriminaleko Legea) eta prozedura *adbertsariala,* non epaiketako partaideak hainbat mekanismok zuzenduta baitaude, eta bertan, hizkuntza naturalaren erabilera oinarrizkoa baita. Gainera, delituaren larritasunaren arabera, lege-sistemak 4 prozedura erabiltzen ditu. 1) Falta-epaiketa, non zigorraren eskakizuna hilabete bateraino hel baitaiteke eta Instrukzioko Epailea baita aurreko diligentzia egin eta epaia ematen duena. 2) Prozedura laburtua, non kartzela-zigorraren eskakizuna 5 urte baino gutxiagokoa izan baitaiteke eta Instrukzioko Epailea baita aurreko diligentzia egiten duena eta epaia prozedura kriminalez gauzatzen duena. 3) Delitu-prozedura, non kartzela-zigorraren eskakizuna 5 urte baino gehiagokoa izaten baita, instrukzio-fasea instrukzioko epaileak bideratzen baitu eta epaia probintzia-auzitegian gauzatzen baita. 4) Herri-epaia, non delitu larria baitago —hilketa, eta abar— eta herri-epaia baita instrukzioa egiten duena eta epaia zuzendu ere bai.

Lege-sistemaren alderdi inkisitorialak azaltzen dira epailearen aurrean akusatua agertzen denean, eta era garrantzitsuago batean, aurreko diligentzietan. Horrela, epaiketa aurretik, akusatuak eta lekukoek adierazpenak egin dituzte polizia edo epailearen aurrean eta adierazpenak grabatu egiten dira akusatuaren "dosierrean". Ondoren, epaitegian, dosier hori informazio-iturri handia izango da epailearentzat, epaian egiten diren akusatuaren eta lekukoen adierazpenekin batera (Ahozko Epaiketako Akta). Epai-prozeduraren fase garrantzitsuenak ondokoak dira: 1) Salaketa-fasea. 2) Instrukzio-fasea: non epailea edo instrukzio-epaia baita diligentziak

bideratzen dituena. 3) Kalifikazio-fasea, non fiskaltzak egiteak kalifikatu eta alderdiei komunikatu egiten dizkien; bertan, akusazioaren eta defentsaren alegazioak egiten dira. 4) Epaiketa, non epailearen aurrean, besteak beste, ebidentziak aurkezten baitira saio publikoan (Ahozko Epaiketa), eta kalifikazio berria fiskaltza eta defentsaren aldetik ere bai. 5) Epailearen epaia.

Gure lanak hau izango du aztergai: laburturiko prozedurazko lesio-epaiketetan, akusazioak eta defentsak egiten dituzten deskripzioetan, hizkuntza-erabileraren ulermena.

Epaietako hizkuntza

Azken hamarraldiotan epaietan erabiliriko hizkuntza aztertzeko eginiko ahaleginak agerikoak badira ere (Danet, 1990), ez dago ikasketa enpiriko handirik akusatu eta biktimek mintzaturiko hizkuntza naturalaren erabileraren inguruan. Alde batetik, lege-hizkuntzari buruzko ikerlan gehienak hizkuntza ulerkorraren ikasketara zuzendu dira (*The plain language movement*; Redish, 1985). Bestalde, hasi berri dira ere zenbait alorretako ikerketak agertzen, alegia, lekukoen oroimenaren galderei buruzkoak (Loftus, 1975; Ross *et al.,* 1994), gezur forenseen detekzioa (Szucko *et al.,* 1981; Zuckerman *et al.,* 1981), herri-epaien erabaki hartzeak (Arce, 1989; Saks, & Hastie, 1986), eta analisi konbertsazionalak ere bai (Komter, 1994; Atkinson & Drew, 1979), non epai-gertakariak erritual interaktibo gisa erabiltzen diren.

Hizkuntzalaritzaren ("perpausa baino haragokoaren" bilakuntza) eta gizarte-psikologiaren ("testuinguru sozialaren" bilakuntza) arteko harreman berriek "ikuspegi" pribilegiatuan jarri dute gizarte-psikologia pentsamenduaren eta hizkuntza-erabileraren arteko erlazioaren analisi pragmatikorako; hau da, hizkuntza, lanabes estrategiko pragmatikotzat hartuko da helburuen lorpenera zuzentzeko (Krauss & Chiu, 1998; Chiu, Krauss & Lau, 1998). Era horretan, Semin-ek (1998), Mead, Vygotsky eta Berger, eta Luckmann-en ikuspegietan oinarrituz, proposatu izan du hizkuntza hartzea era pragmatiko batean: *lanabes gisa* —bere propietate mugatu eta finitoekin— eta *lanabes-erabilera gisa* —ekoizpen mugagabeekin—. Lanabesen ezaugarriak testuinguru pragmatikoetan bakarrik adieraz daitezke; hau da, lanabes-erabiltzaile den aditu edo gaituen "eskuetan". Era horretan, hiztunek erabiltzen duten hizkuntza testuinguru desberdinetan baliagarria zaigu, kognizioaren eta hizkuntzaren arteko erlazioaren prozesu desberdinetan.

Hizkuntza-erabileraren analisi pragmatiko honen aplikazio berrienetariko bat izan da Hizkuntza Kategorien Ereduaren ikasketa (Semin *et al.,* 1991; Maass, 1999). Hemen, aditzak erabiltzen dira lanabes gisa, hizkuntza-egintza baten eraikuntzaren zerbitzuan, testuinguru komunikatibo batean. Mezu-eraikuntzaren prozesu honetan, aditzak, beste hizkuntza-tramankuluekin batera, lanabes gisa erabiltzen dira, komunikazio-xede jakinak lortu ahal izateko. Horrela, gizabanakoek eta taldeek dituzten

xedeak erabiliko dira adierazpen jakinetan komunikazio sinbolikoan. Komunikazio sinbolikoa gauzatuko da perpaus bakoitzaren konposizio estrategikoan, eta, lanabesen emaitzak, hizkuntza-tramankulu desberdinen arabera azpimarratuko dira.

Hizkuntzaren azterketa pragmatiko honek, funtsean, bi aplikazio-alor landu ditu epai-testuinguruan: Galdera/Erantzunaren Paradigma (Semin & Marsman, 1994; Semin *et al.,* 1995; Semin & De Poot, 1997; De Poot & Semin, 1995) alde batetik, eta Talde arteko Hizkuntza Soslaia (Semin *et al.,* 1988; Maas, 1999) bestetik. Lehenengoari dagokionez, Cattelani eta kolaboratzaileek (1995) frogatu dute abokatu defendatzaileek eta fiskalek hizkuntza-estrategia berdinak erabiltzen dituztela lekukoak, biktimak eta akusatuak itauntzen dituztenean. Bigarrenari dagokionez, aurkitu izan da (Schmid & Fiedler, 1996; Schmid *et al.,* 1996, 1998) abokatu defendatzaileek termino positibo gehiago erabiltzen dituztela, fiskalek baino, akusatuari buruz hitz egiten dutenean, baina, era sotil eta eraginkorrago batean, bere adierazpen positiboak egiten dira hizkuntza-abstraktutasunaren maila altuagoan.

Aplikazio bi horiek, halere, aztertu egin dute, funtsean, defendatzaileek eta fiskalek erabiliriko hizkuntza, hau da, legearen "profesionalek" erabilirikoa, eta espero da horiek hizkuntza formalagoa erabiltzea. Hemen aurkezten den ikasketa hau, aldiz, hizkuntzaren erabilera aztertzera zuzenduta dago, eguneroko pertsonek erabilitako hizkuntza aztertzera, hain zuzen ere, akusatuek, biktimek eta lekukoek, eta espero da horiek hizkuntza naturalagoa eta formaltasun gutxiagokoa erabiltzea, delitu-gertakizunak deskribatzean.

Akusatuaren alde ala aurka parte hartzerakoan, hizkuntzaren erabilera pragmatikoaren xede estrategikoak direla eta, akusazioak eta defentsak (hau da, deklaratzera deitu izan diren lekukoek, akusatuek eta biktimek) hizkuntza-abstraktutasunaren maila desberdinak erabiltzen dituzte lesio-delituko gertakizuna deskribatzean delako Ahozko Epaiketako Aktan. Talde arteko Hizkuntza Soslaiaren arabera (Schmid & Fiedler, 1996, 1995) hipotesi honetara heldu zen: akusazioak eta defentsak hizkuntza-abstraktutasunaren maila desberdinak erabiliko zituztela delitu-gertakizun bera deskribatzeko. Hain zuzen ere, deklaratzailearen pertenentziaren eta esaldien subjektuaren arteko interakzioa espero zen, gertakizunaren hizkuntza-abstraktutasunaren mailan.

10.2. METODOA

Ikasketa honetarako erabili izan ziren laburturiko prozedurazko lesio-epaiketako 5 protokolo. Semin & Fiedler-ek (1988) garaturiko eduki-analisiko kategorizazio-estrategia ez-obstrusiboaren bitartez, akusazioaren eta defentsaren ikuspegietako deskripzioak kodifikatu izan ziren perpaus-mailan, ondoko hiru alderdiak kontuan izanik: perpausaren subjektua (akusatua vs biktima), deklaratzailearen ikuspegia (akusazioaren aldekoa vs biktimaren aldekoa) eta predikatuaren abstrakzio-maila (aditz konkretua vs abstraktua).

10.3. EMAITZAK

Lehenengo Log-Lineal analisia burutu egin zen 2 (perpausaren subjektua: akusatua vs biktima) x 2 (deklaratzailearen ikuspegia: akusazioaren aldekoa vs biktimaren aldekoa) x 2 (predikatuaren abstrakzio-maila: aditz konkretua vs abstraktua) diseinua erabilirik. Emaitzek aurkitu zuten hipotetizaturiko interakzioa (X^2 (3) = 335,55, $p < .00$) (Ikus ondoko taula).

Hizkuntza Kategoria Abstraktu vs Konkretuen Ehunekoa, deklaratzailearen ikuspegiaren eta perpausaren subjektuaren arabera.

		Abstrakzio-maila	
Deklaratzailea	Noren deskripzioa	Konkretuen %	Abstraktuen %
Akusatuaren ikuspegia	Akusatua	%89	%11
	Biktima	%82	%18
Biktimaren ikuspegia	Akusatua	%83	%17
	Biktima	%94	%6

Alde batetik, aurreko taulan ikus daitekeenez, akusatuaren ikuspegitik, bere buruari buruz eginiko deskripzioak konkretuagoak ziren biktimari buruz eginikoak baino. Gainera, biktimaren ikuspegitik, akusatuari buruz eginiko deskripzioak abstraktuagoak ziren.

Bestalde, bi Log-Lineal analisi egin ziren, larritasun-maila altuagoa edo baxuagoa elkarren artean bereiziz eta emaitzek desberdintasun esanguratsuak ekoitzi zituzten larritasun-maila altuko sententzietan eta larritasun-maila baxuko sententzietan desberdintasun esanguratsurik ez zen agertu.

Abokatu defendatzailearen eta fiskalaren galderei emandako erantzunen analisiak ere estatistikoki esanguratsuak ziren patroiak ekoitzi zituen (X^2 (3) = 221,43, $p < .00$) (Ikus ondoko taula).

Hizkuntza Kategoria Abstraktu vs Konkretuen Ehunekoa, deklaratzailearen ikuspegiaren eta fiskalaren nahiz defentsaren galderei emaniko erantzunen arabera.

		Abstrakzio-maila	
Deklaratzailea	Nori emaniko erantzuna	Konkretuen %	Abstraktuen %
Akusatua	Fiskalari	%75	%25
	Defentsari	%90	%10
Biktima	Fiskalari	%91	%9
	Defentsari	%86	%14

Akusatuak erabiliriko hizkuntzari dagokionez, fiskalaren galderek deskripzio abstraktuagoak sustatu zituzten eta defendatzailearenak deskripzio konkretuagoak. Biktimak erabiliriko hizkuntzari dagokionez, aldiz, fiskalaren galderek deskripzio konkretuagoak sustatu zituzten eta defendatzailearen galderen erantzun konkretuagoak.

Gainera, larritasun-maila altuko eta baxuko sententzien analisi bereziek, biek aurkitu zituzten desberdintasun esanguratsuak.

10.4. ONDORIOAK

Ikerketa honen emaitzak interesgarriak dira epaiketetan erabiliriko hizkuntza naturalari dagokionez.

Alde batetik, hizkuntzaren abstraktutasun-mailaren erabilera pragmatikoa ez da bakarrik erabili abokatu profesionalen aldetik —aurreko ikerkuntzak aurkitu zuen moduan—; aldiz, jende arruntak ere horrela erabiltzen du, akusatuaren alde edo aurka parte hartzen duenean.

Gainera, emaitzen arabera, jendeak bere mezuak egokitu egiten ditu nolabaiteko "audientziaren diseinura" (Chiu, Krauss & Lau, 1998), horrela, euren rola jokatu ahal izateko eta helburuak lortzeko. Deklaratzaileek areagotu edo urritu egiten dute akusatuaren erantzukizuna, Hizkuntza Kategorien abstrakzio-mailaren erabilera dela medio, gertakizuneko protagonistaren ezaugarri egonkor eta iraunkorrak egotziz. Horrela, egoera desberdinetan, protagonistaren portaera "bere barnetik" gidaturiko ezaugarrietatik eratortzen dela ematen da aditzera, eta ondorioz, portaera negatibo hori denbora eta egoeran zehar orokortzen da. Era berean, deklaratzaileek, hizkuntza-kategoria konkretuak erabiltzen dituzte protagonistaren portaera zehazteko eta horrela, egoera desberdinetan portaera hori ez da orokortuko.

Bestalde, fiskalek eta abokatu defendatzaileek, hau da, abokatu profesionalek, hizkuntza-estrategia antzekoak erabiltzen dituztela ondorioztatzen da gure ikerketatik, horrela bere alderdien aldeko defentsa-rola ondo bete dezaten.

Azkenik, ikerketa honek jarraipen eta sakonketa gehiago behar duela pentsatzen dugu, hain zuzen ere zigorraren larritasun-mailak betetzen duen funtzioa hobeto uler ahal izateko. Zigor-larritasun altuko sententzien hizkuntza naturalaren erabileran desberdintasun esanguratsuak agertzeak, rol-identitatea babesteko autozerbitzuaren funtzioaren alde egiten du epai-testuinguruan egiten diren delitu-gertakizunen deskripziotan, zeina Talde arteko Hizkuntza Soslaiaren ikerketetan (Maass 1999; Maass *et al.,* 1996) eta talde arteko ikerketen tesuinguru zabalagoetan ere (Van Dijk 1998) aurkitu izan baita.

11. Ezagutza politikoaren transmisioa: oinarri sozial eta linguistikoen azterketa

I. Andonegi; E. Esparza; L. Otazua; L. Gil de Montes eta J.F. Valencia

11.1. SARRERA

Ezagutza politikoari buruzko hiru galdera

Lan hau ezagutza politikoari buruzko hiru galderari erantzuten saiatuko da. Lehenengoa honako hau da: Zer ezagutzen du jendeak politikari buruz? Argi dago, politikari buruzko jakintza guztia ezin dela ezagutu. Munduan politikari buruz dagoen informazio guztia gizakiak ezin du barneratu, ezta ezagutu ere. Gizakiaren prozesamendu-sistema mugatua da, eta mundu politikoari buruzko informazioa hautatu beharrean dago. Adibidez, pertsona batek ezin izango luke munduko herrialde guztietako historia eta egoera politikoa ezagutu. Batzuetan herrialde bakarreko egoera politikoa sakontasunez ezagutzea ere zaila izaten da. Ezagutza politikoaren prozesamendu selektiboak edo soslaituak oinarri kognitiboa du.

Horrek bigarren galdera egitera garamatza: Baliabide murritzak baditu, zergatik saiatzen da jendea politikari buruzko informazioa jasotzen? edo beste modu batean esanda, zein arrazoi edo motibazio du jendeak ezagutza politikoa lortzeko? Herrialde baten egoera politikoa ezagutu nahi denean mota bateko edo besteko motibazioa egoten da azpian. Batzuetan, bertako pertsona bat ezagutzeak herrialdearen egoera politikoa ulertzeko jakin-mina sortzen du; beste batzuetan, jendeak bere lurraldeko historia politikoa ezagutu nahi du, eta abar. Beraz, jendea informazio politikoa hautatzeko bere motibazioetan oinarritzen da. Hau dela eta, Euskal Herriko pertsona ez-abertzaleek informazio politikoa zenbait iturritatik (zenbait komunikabidetatik) lortzen dute eta pertsona abertzaleek, berriz, beste iturri batzuetatik.

Beraz, informazio politikoa hautatzea derrigorrezkoa da jendearentzat, muga kognitibo handiak baititugu. Hala ere, selekzio-prozesuan, jendeak nahita aukeratzen du informazio-mota bat, ez edozein alegia. Informazio politikoaren hautatze-prozesuan parte hartzeaz gain, jendeak beste "oztopo" batzuk ere topatzen ditu.

"Oztopo" hitza erabiltzen dugu, oro har, informazio politikoa zuzenki ez baitugu jasotzen. Lehenago informazio politikoa lortzeko "oztopo" kognitibo eta psikologikoak aipatzen bagenituen ere, orain "oztopo" materialei buruz ari gara. Horrek hirugarren galdera egitera garamatza: Zeren bitartez lortzen du jendeak politikari buruzko ezagutza? Hirugarren galdera hau, izatez, aurrekoena baino praktikoagoa edo pragmatikoagoa da; izan ere, jendeak ezagutza politikoa lortzeko dituen baliabideei buruz ari baita. Batzuetan, informazio politikoa bide zuzenetatik lortzen da. Adibidez, jendeak alderdi politikoetan modu aktiboan parte hartzen duenean, edo jendeak ekintza politikoei buruz "lehen eskuko" informazioa duenean. Dena dela, ezagutza politikoaren sormenaren berezitasunik nagusiena da bitarteko ez-zuzenetatik lortua izatea. Alferrikakoa da esatea ezagutza politikoa lortzeko bitarteko ez-zuzen nagusia masa-komunikabideak direla, hain zuzen. Informazio politikoaren bereganatzea gehienetan bitarteko ez-zuzenetatik lortzen denez, iturri horien azterketa sakonari ekitea funtsezkoa da.

Adibidez, jakina denez, gehiengo eta gutxiengo diren taldeek dauzkaten espresio-guneak ez dira berdinak. Horren adibidea gaztelaniadunek eta euskaldunek dituzten informazio-iturri kopuru ez-orekatua da. Bestalde, nazioarteko gatazketan, adibidez, bertsio unilaterala edo aldebakarrekoa jasotzen da, oro har. Nekez lortzen da ordezko bertsioren bat. Hori dela eta, "oztopo-mota" hau materiala dela diogu, hau da, iturri horietatik lortzen den informazio politikoaren hautatzea gure eskuetatik kanpo dago gehienetan.

"Oztopo" horietaz gain, gaur egun jendeak beste eragozpen bat topatzen du: komunikabideen homogeneizazioa edo berdintasun-prozesua, hain zuzen. Enpresa mediatikoen monopolioak handituz doaz, eta ondorioz, jasotzen den informazioa berdintasun handiagokoa da. Beste hitzetan esanda, komunikabide-talde handiak informazio-iturri berberetan oinarritzen dira berriak igortzeko orduan. Ondorioz, gero eta informazioaren dibertsifikazio txikiagoa dago. Informazio politikoaren aldebakartasun horrek pentsamendu eta ezagutza politikoaren unibertsaltasunera edo globalizaziora garamatza, bertsio ofizialen ordezkoak lortzetik aldentzen baikaitu.

Atal honetan hiru galdera horietara hurbilduko gara. Bi ikerlan aurkezten dira, eta bertan komunikabideek pentsamendu-lerroak transmititzeko edo helarazteko eta mantentzeko darabiltzaten zenbait estrategia linguistiko azalduko dira. Zehazki, ezagutza politikoaren zein alderdi prozesatzen diren deskribatuko dugu. Azalduko dugun espektatiba- edo igurikapen-teoriaren arabera (Maurer, Park & Rothbart, 1995; Rothbart & Park, 1986), informazio politikoa hautatzeko orduan, jendeak espero duenarekin bat datorren informazioa nahiago izaten du bere usteen aurkako informazioa baino. Adibidez, jendeak gehienetan bere iritziekin bat datorren egunkaria hautatzen du irakurtzeko, ez kontrako ideologiak dituztenak ordea. Jendeak ezagutza politikoa bereganatzeko dituen zergatiei eta motibazioei buruz, honako hau azalduko dugu: jendeak bere taldeko kideen jokabideak goraipatzen ditu eta aurkako taldeko kideen jokabideak deuseztatu egiten ditu, horrela bere buruarekin

hobeto sentitzeko. Hori nork bere estima areagotzeko estrategiatzat hartzen da. Azkenik, hirugarren galderari dagokionez, hau da, ezagutza politikoa lortzen den moduari buruz, masa-komunikabideen funtzio garrantzitsua aztertuko dugu. Aurkezten diren bi lanetan erabiltzen den testuinguru politikoa Euskal Herrikoa da eta bertan egunkariek zeinu politiko ezberdinetako gertaerak deskribatzeko modua aztertzen da. Beste hitzetan, egunkariek ezagutza politikoa transmititzeko erabiltzen dituzten estrategia linguistikoak aztertuko dira.

Ezagutza politikoa transmititzen duen estrategia linguistiko bat

Ezagutza politikoa soziala da (Catellani, 1996). Autore askok ezagutza soziala sozializazio-prozesuaren alderditzat jotzen dute. Ezagutza soziala beste pertsonekiko interakzio edo elkarrekintza sozialean sortu eta mantendu edo eraldatu egiten da. Haurra sozializazio-prozesuan barne dagoela, batez ere gurasoengandik jasotzen du gizarteari buruzko informazioa baita informazio politikoa ere. Beranduago, eskola testuinguru eraginkorra da, eta ondoren, lagunek ere eragiten diote. Elkarrekintza sozialaren bitartez, bada, gizartean dauden indar politikoei buruzko informazioa jasotzen da, eta aldi berean, munduari buruzko ikuspegi politikoa eratzen da.

Halaber, testuinguru sozialek eta kulturalek ezagutza politikoa oso sakonki eragiten dute. Testuinguru horiek komunikabideetan, telebistan edo lidergo politikoetan islatzen dira. Masa-komunikabideen bitartez ezagutza soziala eratzen da maila makrosoziologikoan, eta jendea kulturari dagozkion balio politikoen jabe egiten da. Beraz, ezagutza soziala, batetik, beste pertsonekiko elkarrekintza sozialetik lortzen da, eta testuinguru sozialetik eta kulturaletik, bestetik. Baina, zeren bitartez jasotzen da informazio politikoa? Galdera horrek erantzun zuzena du, informazio politikoa batez ere hizkuntzaren bitartez jasotzen baita.

Hizkuntza modu ezberdinetan erabil daiteke informazio politikoa transmititzeko. Batzuetan, jendeak edota komunikabideek politikaren arloko pertsonei, ekintzei edo iritziei buruz informazioa ematean hizkuntza esplizitua erabiltzen dute. Hizkuntza esplizitua erabiltzen dutenean, entzulerian eragiten du, baina entzuleria komunikatzailearen asmoez jabetzen da. Beste batzuetan, jendeak, lider politikoek edota komunikabideek hizkuntza inplizituki erabiltzen dute, eta ondorioz, entzuleria ez da hizkuntza erabilera horretaz jabetzen. Bigarren kasu hau, bereziki garrantzitsua da masa-komunikabideetan, informazio politikoaren transmisioa, oro har, aldebakarrekoa baita.

Atal honetan aurkezten ditugun bi lanetan, komunikabideetan erabiltzen den hizkuntza-estrategia inplizitua aztertzen da (Franco & Maass, 1996, 1999), hizkuntzak duen abstrakzio-maila, alegia. Edozein aditz, esaldi, deskribapen edo istorio hizkuntzaren abstrakzio-mailaren arabera sailka daiteke. Hizkuntza bere abstrakzio-mailaren arabera sailkatu ahal izateko, hizkuntza-kategorien eredua erabiltzen da

(Semin & Fiedler, 1988, 1991; Semin, 2000). Eredu horrek bere bigarren bertsio batean (Maass, Salvi, Arcuri & Semin, 1989), aditzak eta izenondoak lau kategoriatan oinarrituz sailkatzen ditu. Konkretuena den hizkuntza-kategoriari *ekintza-aditz deskribatzaileak* deritzote (adibidez, musu eman, jo, eskua luzatu...). Aditz-mota horiek portaera bakarrari dagozkio eta egoera zehatza deskribatu egiten dute. Ez dago interpretazio posiblerik. Hain deskriptiboak direnez, ez dute esanahi positiborik ala negatiborik, horrelako inferentzia egiteko testuinguruari buruzko informazio gehiago izan behar delako. Bigarren aditz-mota, *ekintza-aditz interpretatzaileak,* aurrekoak baino abstraktuagoak dira (adibidez, engainatu, agurtu, ondo pasatu, laztandu). Aditz horiek portaerei daude lotuta, aurrekoak bezala. Baina kasu honetan, ez dagozkio portaera bakarrari, baizik eta portaera-multzo bati. Adibidez, norbait engaina daiteke edo agur daiteke modu ezberdinetan. Testuinguruari hain lotuta ez daudenez eta interpretazio handiagokoak direnez, aditz-mota hauek positibo ala negatibo kontsidera daitezke. Hirugarren aditz-mota aurrekoa baino abstraktuagoa da eta *egoera-aditzak* deitzen dira (adibidez, maite, gorroto izan...). Egoera-aditzak ekintza-aditzak baino testuingurutik askeago daude, barneko egoerak islatzen baitituzte. Kasu honetan, adierazten dituzten barneko egoerak iraunkorragoak dira. Ekintzek gutxi diraute; egoerak, berriz, denboraren zehar egonkorragoak dira. Norbaitek ez dio norbaiti gorroto une batean eta minutu bat barru maitatzen du. Gainera, egoera-aditzak positibo ala negatibo moduan sailka daitezke. Kategoria abstraktuena *izenondo*ena da (adibidez, borrokazalea, lotsatia...). Izenondoak egoeratik erabat aske daude, nortasunezko ezaugarriak baitira. Erabat inferentzialak dira, egoera baino, deskribatzailearen iritzia adierazten dutelako. Izenondoek ere balentzia positiboa ala negatiboa dute. Beraz, edozein testutan aurki daitekeen aditz edo izenondoa lau kategoria hauen arabera sailka daiteke. Modu honetan, testuak, deskribapenak edota iritziak abstrakzio-mailaren arabera konpara edo aldera daitezke.

Baina ildo honetatik jarraituz, nola eragiten du gurasoek, irakasleek, lider politikoek edota masa-komunikabideek erabiltzen duten abstrakzio-mailak, entzuleriak duen ezagutza politikoan? Semin eta Fiedler-en arabera (1988; eta ikus Wigboldus, Semin & Spears, 2000), hizkuntza-kategoria bakoitzak entzulerian inferentzia kognitibo ezberdinak sortzeko gaitasuna du. Zehazki, komunikatzaileak jokabide bat deskribatzeko kategoria abstraktuak erabiltzen dituenean (adibidez, X agresiboa da, norbaitek X gorroto du), entzuleriak jokabidea egilearen nortasunezko ezaugarri egonkorrei dagokiela pentsatzeko joera izango du (horrela jokatu du, bera horrelakoa delako). Egileari buruz informazio handia emateaz gain, portaera behin eta berriro errepikatuko dela pentsarazten du (agresiboa da, mota honetako portaera negatiboak edo desiragaitzak askotan egiten dituelako). Gainera, horrelako deskribapenak hain abstraktuak direnez, entzuleriak egilearen jokabide neutroak ere bere nortasunezko ezaugarri egonkorren arabera interpretatuko ditu.

Gizabanakoen jokabideen deskribapen abstraktuak estereotipo indibidualak eta taldekoak sortu eta mantendu egiten ditu. Kasu indibidualean, X-ren ekintza negatiboa "agresibo" hitzarekin deskribatzen da, izenondoa edozein portaera baino informatiboagoa baita. Taldearen kasuan, taldekide bat "agresibo" deitzean, etiketa hori taldekide guztietara orokortzeko probabilitate handia da.

Hizkuntzaren erabilera talde arteko testuinguruetan

Atal honetan hizkuntzaren abstrakzio-maila talde arteko testuinguruetan aztertuko da. Behin hizkuntzaren abstrakzio-mailaren esanahia ezagututa, talde arteko egoeretan agertzen den hizkuntza-fenomenoa azalduko dugu, eta ondoren, hizkuntza-fenomeno horiek azaltzeko erabili diren teoriak deskribatuko ditugu. Beraz, atal honetan aurkeztutako hiru galderen mamia azalduko da.

Anne Maass-ek eta bere laguntzaileek 1989an argitaratutako artikulu batean, lehenengo aldiz aztertu zuten hizkuntzaren erabilera talde arteko egoeran (Maass, Salvi, Arcuri & Semin, 1989). Ikerketa Sienako Palio zaldi-lasterketen testuinguruan burutu zen. Palioak oso zaldi-lasterketa tradizionalak dira eta jarraitzaile asko dituzte. Bertan zenbait herritako jokalariek parte hartzen dute eta lehiaketa-maila handia dute. Ikertzaileek bi aurkako taldetako zaleak bildu zituzten ikerketan parte hartzeko. Zaletu bakoitzari bi marrazki aurkeztu zitzaizkion estimulu gisa. Marrazki bakoitzean bere taldeko edo beste taldeko kide bat agertzen zen jokabide positiboan edo negatiboan. Zaleek, jokabidea hobekien deskribatzen zuen esaldia hautatu behar zuten lau esaldi posibleren artean. Marrazkiari zegokion deskribapen bakoitzean hizkuntza-kategorien ereduko kategoria bat agertzen zen. Modu horretan, parte-hartzaileek marrazkia deskribatzeko edozein kategoria-mota hauta zezaketen. Emaitzen arabera, parte-hartzaileek beren taldekoen jokabide positiboak beste taldekoen jokabide berdinak baino modu abstraktuagoan deskribatu zituzten. Aitzitik, norberaren taldekoen jokabide negatiboak beste taldekoenak baino modu konkretuagoan deskribatu zituzten. Bigarren lan batean, emaitza-patroi berdina lortu zen, baina kasu honetan parte-hartzaileek marrazkiei buruzko deskribapen askeak egin behar izan zituzten. Harrezkero, emaitza-patroi horri *talde arteko hizkuntza-soslaia* deitu zaio (Maass eta kolaboratzaileak, 1989; Maass, 1999). Hizkuntza-fenomeno hau testuinguru ezberdinetan lortu izan da (Rubini & Semin, 1994; Valencia, Gil de Montes, Arruti & Carbonell, 1997), talde-mota ezberdinekin (Maass, Milesi, Zabbini & Stahlberg, 1995; Von Hippel, Sekaquaptewa & Vargas, 1997) eta hizkuntza ezberdinetan (Valencia, Gil de Montes, Sansinenea, Erdozia, Usabiaga & Ripalda, 1998; Wigboldus, Semin & Spears, 2000).

Autoreek talde arteko hizkuntza-soslaia emaitzetan islatu eta bi interpretazio-motaren artean hautatu behar izan zuten, interpretazio kognitiboaren eta interpretazio motibazionalaren artean, hain zuzen ere. Talde arteko hizkuntza-soslaiaren interpretazio kognitiboa espektatiben edo igurikapenen teorian oinarritzen da (Rothbart & Park, 1986). Interpretazio honen arabera, talde arteko hizkuntza-sos-

laia honako modu honetan azalduko litzateke: komunikatzaileak bere usteekin bat datorren informazioa modu abstraktuan deskribatzeko joera du, informazio-mota hau orokorra baita eta nolabait bere horretan jarraitzeko transmititu nahi duelako. Oro har, informazio estereotipikoa izaten da usteekin bat datorren informazioa. Beraz, usteekin bat datorren informazioa, norberaren taldeko kideen jokabide positiboak eta beste taldeko kideen jokabide negatiboak izango lirateke. Aitzitik, komunikatzaileen usteekin bat ez datorren informazioa, arauaren kontrakoa da eta salbuespen moduan errepresentatzen da. Informazio ez-estereotipikoa —arrotza dena, alegia— beraz, modu konkretuan deskribatzeko joera dago, erabat puntuala eta egoerari lotuta egongo balitz bezala. Gure kasuan, usteen kontrako informazioa norberaren taldeko kideen jokabide negatiboak eta beste taldeko kideen jokabide positiboak dira, hain zuzen.

Interpretazio kognitiboa, beraz, gizakiok informazioa prozesatzeko dauzkagun mugei dagokie. Jendeak ez du ahaleginik jartzen informazio estereotipikoa mantentzen —modu abstraktuan deskribatuz— eta informazio ez-estereotipikoa deseustatzen —modu konkretuan deskribatuz—. Interpretazio kognitiboak, orduan, prozesatzen duguna mugatzen du, eta zer ezagutzen dugun galdera azaltzen du.

Talde arteko hizkuntza-soslaia interpretazio motibazionalaren arabera ere azal daiteke. Kasu honetan, identitate sozialaren teoria erabiltzen da (Tajfel & Turner, 1979, 1986). Teoria horren arabera, talde arteko egoeretan daudela, taldeko kideek konparaketa edo erkatze soziala erabiltzen dute nork bere estima areagotzeko. Esan beharrik ez dago, taldeko kideen norberaren estima areagotzen dela beste taldeekiko konparaketa sozialean irabazten ateratzen direnean bakarrik. Beraz, teoria honi jarraituz, talde arteko hizkuntza-soslaia ondoren agertzen diren terminoetan azalduko litzateke: talde arteko egoeretan, jendeak norberaren taldeko kideen jokabide positiboak beste taldekoen jokabide berdinak baino modu abstraktuagoan deskribatzen ditu. Bestalde, norberaren taldeko kideen jokabide negatiboak beste taldekoenak baino modu konkretuagoan deskribatzeko joera dago. Hizkuntza modu horretan erabiliz, komunikatzaileek beren taldea goraipatzea eta beste taldea deuseztatzea lortzen dute. Horrelako erkaketa sozialean irabazten ateratzen direnez, komunikatzaileen estima areagotzen da.

Talde arteko hizkuntza-soslaiaren azalpen motibazionalak aurkeztutako bigarren galdera azaltzen du: Zein motibazio du jendeak informazio politikoa lortzeko? Deskribatutako azalpenaren arabera, jendeak informazioa lortzen du eta transmititzen du talde arteko egoeretan konparaketa sozialean irabazten ateratzeko.

1989tik aurrera, talde arteko hizkuntza-soslaiaren helburua estereotipoen transmisioa dela esan da. Baina, zein da talde arteko hizkuntza-soslaiaren helburua testuinguru sozio-politikoetan? Testuinguru sozio-politikoetan, talde arteko hizkuntza-soslaiak garrantzi politikoa duten estereotipoak transmititzen ditu. Eta esanahi politikoa duten estereotipo horiek transmitituz, taldeei buruzko ezagutza

politikoa transmititzen da. Arestian esan bezala, ezagutza sozialaren transmisioa, oro har, ez-zuzena da, batez ere masa-komunikabideen bitartez gertatzen baita. Ondoren aurkeztuko ditugun bi ikerlanetan ezagutza politikoaren transmisioa lantzen da, talde arteko hizkuntza-soslaia talde arteko testuinguru sozio-politikoetan aztertuz. Lehenengo lanean ideologia ezberdinetako masa-komunikabideek —egunkariak, hain zuzen ere— bi gertaera deskribatzeko erabilitako hizkuntza aztertzen da. Bi gertaera horiek bi pertsonaia politikoen hilketak dira, Mujikarena eta Muguruzarena, hain zuzen. Bigarren lanean su-etenaren garaian hainbat ideologiatako egunkariek ETA, abertzaleak, ez-abertzaleak eta su-etena nola deskribatzen dituzten aztertzen da.

11.2. LEHENENGO IKERKETA: KOMUNIKABIDEEK ERABILITAKO ESTRATEGIA LINGUISTIKOAK TALDE ARTEKO TESTUINGURU GATAZKATSUAN

Talde arteko hizkuntza-soslaiari buruzko lan gehienak testuinguru esperimentaletan egin izan dira. Horietako askok, hizkuntzaren erabilera erantzun itxiko galderetan aztertu izan dute. Hala ere, aurrerapauso nabarmena da hizkuntzaren erabilera deskribapen askeetan aztertzea, komunikabideen diskurtsoetan, kasu. Badaude zenbait ikerlan talde arteko hizkuntza-soslaia komunikabideetan landu dutenak (Chan, 1996; Maass, Corvino & Arcuri, 1994; Valencia, Gil de Montes, Sansinenea, Erdozia, Usabiaga & Ripalda, 1998). Masa-komunikabideen aldebakartasuna dela eta, hizkuntzaren azterketa bereziki garrantzitsua da.

Lan honetan, Euskal Herriko mundu politikoko bi pertsonaia ezagunen hilketei buruzko deskribapenak aztertzen dira. Gertaerok bai masa-komunikabideetan baita iritzi publikoan ere eragin handia izan zuten. Aztertutako deskribapenak Euskal Herriko lau egunkari abertzaleen eta ez-abertzaleen editorialetan agertu ziren. Sortutako hipotesien arabera, portaera negatiboetan talde arteko hizkuntza-soslaia agertzea espero genuen. Beraz, biktima kazetariaren ideologia berdinekoa denean, portaera negatiboa egilearen nortasun bereizgarriei egokituko zaie. Aitzitik, biktima kazetariaren ideologiarekin bat ez datorrenean, portaera negatiboa gutxiago egokituko zaio egilearen nortasunari. Ondorioz, zeinu ideologiko ezberdinetako egunkariek norberaren taldeko biktimaren hilketa beste taldeko biktimaren hilketa baino modu abstraktuagoan deskribatzea espero zen. Beste hitzetan esanda, norberaren taldeko biktimaren hilketaren egileak beste taldeko biktimaren hilketaren egileak baino modu estereotipikoagoan deskribatzea espero zen.

Diseinua, 2 (egunkariaren talde-pertenentzia: abertzalea versus ez-abertzalea) X 2 (esaldiaren subjektua: agresorea versus biktima) X 2 (hizkuntza-mota: konkretua versus abstraktua) izan zen. Euskal Herriko bi politikarien aurkako bortxazko gertaerei buruzko deskribapenak aztertu ziren. Lehenengo deskribapena Muguruzaren hilketari dagokio. Muguruza Herri Batasuna taldeko mahaikidea zen,

eta 1989an GALek hil zuen. GAL ETAko errefuxiatuak eta, oro har, ideologia hurbileko pertsonen aurkako ekintzak burutzen zituen talde armatua zen. Bigarren deskribapena Mugikaren hilketa da. Bera Espainiako talde sozialistako kide ezaguna zen, eta 1996an ETAk hil zuen. ETA Euskal Herriko independentzia lortzeko borrokatzen duen talde armatua da. Bi gertaera hauek eragin handia izan zuten Espainiako parlamentuan eta masa-komunikabideek ere arreta handia jarri zieten. Lan honetan aztertutako deskribapenak bi egunkari abertzaleen editorialetatik (*Egin* eta *Deia*) eta bi egunkari ez-abertzaleen editorialetatik (*El Diario Vasco* eta *ABC*) jaso ziren.

Deskribapenak aztertzeko, agresorea edota biktima esaldiaren subjektuan agertzen zireneko esaldiak hautatu ziren. Hizkuntzaren abstrakzio-maila lortu zen deskribapen horietan agertzen ziren aditzak eta izenondoak hizkuntza-kategorien ereduaren arabera sailkatuz. Orduan, ekintza-aditz deskribatzaileak eta interpretatzaileak bildu ziren kategoria bakar batean, "kategoria konkretuak" izenpean. Egoera-aditzak eta izenondoak ere bildu ziren beste kategoria batean, "kategoria abstraktuak" izenpean. Birsailkapen berri hau burutzeko, Anne Maassen (1994, lehenengo lana eta bigarrena) ikerlan batean oinarritu ginen. Bi epaile ezberdinek burutu zuten kategorien kodifikapena (epaile arteko fidagarritasuna Kappa = .81 izanik). Epaileen arteko desadostasunak eztabaidan konpondu ziren.

Hipotesiak frogatzeko asmoz, egunkariaren talde-pertenentzia (abertzalea vs ez-abertzalea), kasu-mota (Mujika vs Muguruza), subjektua (agresorea vs biktima) eta hizkuntza-kategorien proportzioak (konkretuak vs abstraktuak) sartu ziren Log-Lineal analisi batean. Egunkariaren talde-pertenentzia eta kasu-mota aldagai bakarra bihurtu ziren, biktimaren talde-pertenentzia, alegia. Beraz, Mugika zen norberaren taldeko biktima egunkari ez-abertzaleen kasuan, eta egunkari abertzaleentzako, berriz, beste taldeko biktima. Muguruza bestalde, norberaren taldeko biktima zen egunkari abertzaleentzako, eta beste taldeko biktima egunkari ez-abertzaleentzako. Emaitzek hiru mailako elkarrekintza sortu zuten (X^2 (1) = 26,55, $p < .001$).

Norberaren taldeko biktima edota beste taldeko biktimaren agresorea deskribatzeko erabili diren hitz konkretuen eta hitz abstraktuen proportzioak.

Agresorea deskribatzeko erabili den abstrakzio-maila	Abstrakzio-maila	
	Konkretuen %	Abstraktuen %
Gertaera-mota		
Norberaren taldeko biktima	%47	%53
Beste taldeko biktima	%77.5	%22.5

Agresoreei buruzko deskribapenei dagokienez (ikus aurreko taula), egunkariek kategoria konkretuen proportzio altuagoa erabili zuten beste taldeko biktimen gertaerak deskribatzeko, norberaren taldeko biktimen gertaerak deskribatzeko baino. Hizkuntza-kategoria abstraktuen kasuan aurkako patroia lortu zen. Hitz abstraktu gehiago erabili ziren norberaren taldeko biktimen gertaerak deskribatzeko beste taldeko biktimen gertaerak deskribatzeko baino. Gainera, kategoria konkretuen eta abstraktuen arteko diferentzia areagotzen zen beste taldeko biktimaren kasuan, norberaren taldeko biktimaren kasuarekin alderatuz.

Norberaren taldeko biktima edota beste taldeko biktima deskribatzeko erabili diren hitz konkretuen eta hitz abstraktuen proportzioak

Biktima deskribatzeko erabili den abstrakzio-maila	Abstrakzio-maila	
	Konkretuen %	Abstraktuen %
Gertaera-mota		
Norberaren taldeko biktima	%65.5	%34.5
Beste taldeko biktima	%63.3	%36.7

Biktimen kasuan (ikusi aurreko taula), hizkuntza-kategorien proportzioak ez ziren aldatu egunkariaren arabera. Biktimei buruzko esaldiek hizkuntza-kategoria konkretuen proportzio handiagoa zuten.

Lan honen emaitzek erakusten dute masa-komunikabideen talde arteko gertaeren deskribapenetan talde arteko hizkuntza-soslaia gertatzen dela. Bortxazko gertaeren deskribapenetan, egunkari abertzaleek eta egunkari ez-abertzaleek hitz abstraktu gehiago erabili zuten norberaren taldeko biktimen aurkako gertaerak deskribatzeko beste taldeko biktimen kontrako gertaerak deskribatzeko baino. Modu horretan, norberaren taldeko biktimaren aurkako gertaera agresorearen nortasun-ezaugarriari egokitzen zitzaion probabilitate handiarekin. Beraz, deskribapen horietan agresorearen intentzioa edo nahia azpimarratzen zen.

Bestalde, hitz konkretu gehiago erabili ziren beste taldeko biktimari buruzko gertaera deskribatzeko, beste taldeko biktimari buruzko gertaera testuinguruak sortu izan balu bezala. Modu horretan, agresoreari egokitutako intentzionalitatea arintzen da.

Lan honek testuinguru gatazkatsuetan talde arteko hizkuntza-soslaia gertatzen dela erakusten du. Baina, zergatik gertatzen da? Zein da horrelako soslaiaren atzean dagoen prozesua? Alde batetik, kazetarien hizkuntza-soslaia prozesu kognitiboen emaitza izan liteke. Hala balitz, kazetariak bere hizkuntza soslaituko luke errealitatean dagoen informazio gehiena prozesatu ahal izateko. Ezingo luke egoera zehatz-mehatz deskribatu, beraz, berak dituen usteen arabera deskribatuko luke. Hori dela eta, bere usteekin bat datorren informazioa modu abstraktuan deskribatuko luke eta bere usteen aurkako informazioa modu konkretuan. Orduan, norberaren

taldeko biktimaren kontrako ekintza gertatzeko probabilitate handia dagoela jakinda, ekintza hori modu abstraktuan deskribatuko luke. Aitzitik, beste taldeko biktimaren kontrako ekintza gertatzeko probabilitatea txikiagoa denez, orduan modu konkretuan deskribatuko luke.

Bestalde, kazetarien hizkuntza-soslaia prozesu motibazionalek sorturikoa izan liteke. Kasu honetan, kazetariak norberaren taldeko biktimaren kontrako ekintza azpimarratuko luke nahita, eta horrek bere taldearenganako estima areagotzeko balioko luke. Hori egiteko, norberaren taldeko biktimaren kontrako ekintza modu abstraktuan deskribatzen du, ekintza egileen nortasunari egotziz. Beste taldeko biktimaren aurkako ekintza deskribatzeko, ordea, hizkuntza konkretua erabiliko du, egoerak sortua izango balitz bezala.

Norbaitek pentsa lezake talde arteko hizkuntza-soslaia prozesu motibazionalek eraginda gertatu dela, Euskal Herriko egoera politikoa oso gatazkatsua baita. Horrelako egoera batean, batek pentsa lezake edozein estrategia erabiliko dela norberaren taldeko estima areagotzeko. Azalpen zilegi hau baztertu gabe, interesgarri gerta dakioke hizkuntza-fenomeno berdina ikastea hain gatazkatsua ez den testuinguru batean. Guk hori egin genuen eta talde arteko hizkuntza-soslaia egoera "baketsu" batean aztertzea erabaki genuen. Hori egin ahal izateko, ETAk 1998. urtean emandako su-etenaren garaian hainbat egunkarik emandako azalpenak aztertu genituen. Ondorengo atalak ikerketa hau deskribatzen du.

11.3. BIGARREN IKERKETA: KOMUNIKABIDEEK ERABILITAKO ESTRATEGIA LINGUISTIKOAK TALDE ARTEKO TESTUINGURU "BAKETSUAN"

Talde arteko hizkuntza-soslaia egoera inplizituki gatazkatsuan aztertzeko asmoz, ETAk 1998an emandako su-etena hartu genuen ikerketa-testuinguru gisa. Hau izan zen ETAren bigarren su-eten historikoa 60ko hamarkadan borroka armatuan hasi zenetik. Su-eten garaian, alderdi politiko abertzale guztiek eta Euskal Herriko hainbat gizarte-mugimenduk lehenengo pausoak eman zituzten Euskal Herriko autodeterminaziorantz. Nahiz eta negoziazio sakonen garaia izan, alderdi politiko abertzaleak eta ez-abertzaleak zeharo aldendu ziren elkarren artetik eta tirabira ugari sortu ziren. Beraz, su-etenak iraun zuen bitartean nolabaiteko garai "baketsua" bizi zen. Hala ere, alderdi abertzaleen eta ez-abertzaleen artean egundoko eztabaida sortu zen eta moibilizazio politikoa ere bai, alderdi abertzaleak Euskal Herriko autodeterminazioari begira baitzeuden eta, aldi berean, alderdi ez-abertzaleek estatuaren batasunaren aurkako mehatxua ikusten baitzuten. Garai hartako egoera politikoan sakondu gabe, gure ikerlanaren helburua aurkeztuko da. Beraz, ikerlan honetako helburua talde arteko hizkuntza-soslaia ideologia ezberdinetako egunkarietan identifikatzea izan zen. Horretarako, lau gaiei zegozkien kategoriak aztertu ziren, "ETA", "abertzaleak", "ez-abertzaleak" eta "su-etena", hain zuzen. Espero

genuen egunkari abertzaleek "ez-abertzale" kategoriari buruzko informazio positiboa konkretu bihurtzea eta kategoria horri buruzko informazio negatiboa abstraktu bihurtzea, horrela informazio negatiboa azpimarratuz eta iraunaraziz. Bestetik, espero genuen egunkari ez-abertzaleek patroi bera azaltzea "abertzale" kategoriarekin. Aitzitik, egunkari abertzaleek "abertzale" kategoriari buruzko informazio positiboa modu abstraktuan deskribatzea eta informazio negatiboa modu konkretuagoan deskribatzea espero genuen, horrela informazio positiboa azpimarratuz. Patroi bera espero genuen egunkari ez-abertzaleek "ez-abertzale" kategoria deskribatzean. "ETA" eta "su-etena" kategoriei buruz ez geneukan aurreikuspen zehatzik. Dena den, posible izango zen beste taldearen soslaia areagotzea egunkari ez-abertzaleetan "ETA" kategoria deskribatzerakoan.

Helburu hori lortzeko ideologia ezberdinetako bost egunkarietako editorialek su-etenaren inguruan egindako iradokizunak aztertu ziren. Bost egunkari horietatik bi egunkari abertzale gisa sailka daitezke (*Deia* eta *Euskadi Información*) eta beste hiru egunkari ez-abertzale moduan (*ABC*, *El País* eta *El Mundo*). *Euskadi Información* egunkariak (1998-1999) euskal mugimendu abertzalearen defentsa sendoa egiten zuen. *Deia* egunkaria euskal autonomia-mailaren garapenaren alde azaltzen den zentro-eskuineko egunkaria da. *ABC* Espainiaren batasunaren aldeko egunkari eskuindarra da. Azkenik, *El País* eta *El Mundo*, Estatu Espainolaren batasunaren aldeko egunkariak dira.

Egunkari bakoitzetik su-etenari buruzko editorial bana bildu zen. Editorial bakoitzean, esaldiaren subjektuak lau kategoriatan sailkatu ziren, "ETA", "abertzaleak", "ez-abertzaleak" eta "su-etena", hain zuzen. Gainera, esaldietan agertutako aditz eta izenondoak hizkuntza-kategorien ereduaren (Semin & Fiedler, 1988) arabera sailkatu ziren, modu horretan, hizkuntzaren abstrakzio-maila neurtu baitzen. Maass-ek, Corvino-k eta Arcuri-k 1994an egin bezala, geuk ere ekintza-aditz deskribatzaileak eta ekintza-aditz interpretatzaileak kategoria bakarrean bildu genituen (kategoria konkretuak); egoera-aditzak eta izenondoak beste kategoria batean (kategoria abstraktuak). Horretaz gain, hizkuntza-kategoria bakoitza balentziaren arabera sailkatu zen, hau da, kategoria positiboak, neutroak ala negatiboak ziren zehaztu zen. Talde arteko hizkuntza-soslaia aztertzeko kategoria neutroak esanguratsuak ez direnez, aipatzen dugun diseinutik baztertu genituen, eta ondorioz kategorien balentzia positiboak eta negatiboak soilik barneratu ziren diseinuan. Beraz, ikerlan honetan erabilitako diseinua honakoa da: 4 esaldiaren subjektua ("ETA", "abertzaleak", "ez-abertzaleak", "su-etena") x 2 egunkariaren talde-pertenentzia (abertzalea, ez-abertzalea) x 2 kategorien abstrakzio-maila (konkretua, abstraktua) x 2 kategorien balentzia (positiboa, negatiboa).

Egunkari abertzaleek eta ez-abertzaleek gai ezberdinak deskribatzeko erabilitako hitz positiboen eta negatiboen abstrakzio-maila aztertzeko asmoz, Log-Lineal analisi bat burutu zen. Analisi horretan, egunkari-mota, deskribatutako gaia eta kategorien balentzia, kategoria konkretuekin eta abstraktuekin gurutzatu zen.

Emaitzak deskribatzen hasi baino lehen, analisiaren zenbait ezaugarri orokor ohartaraziko dira. Alde batetik, hizkuntza-kategorien maiztasunak nabarmentzen dira. Egunkari guztiek maiztasun handiagorekin deskribatzen dituzte "ETA" eta "ez-abertzale" gaiak, "abertzale" eta "su-etena" baino. Maiztasun-banaketa ez-simetriko horren ondorioz, aurreneko bi kategorietan lortutako emaitzak azkeneko bietakoak baino fidagarriagoak direla esan daiteke. Bestalde, ehunekoei begirada orokorra emanez gero, kategoria guztietan hitz positiboak sistematikoki maila konkretuagoan deskribatzen direla ikus daiteke. Joera sistematiko hau pertsonei buruzko inpresio-eraketan askotan agertzen den negatibotasun-soslaiari (Skowronski & Carlston, 1987, 1989) egotzi dakioke. Negatibotasun-soslaiaren arabera, pertsonei buruzko inpresio-eraketan ezaugarri negatiboak pertsonaren nortasunari buruzko informazio handia eskaintzen du. Hori dela eta, ezaugarri negatiboak maila abstraktuan deskribatu ohi dira.

Ondoko taulan Log-Lineal analisiaren emaitzak ikus daitezke. Emaitza horien irakurketa gaika egingo da. Lehenengo gaia "ETA" erakunde armatua da. Emaitzen arabera, bai egunkari abertzaleek eta bai egunkari ez-abertzaleek kategoria positibo konkretu gehiago erabiltzen dituzte kategoria negatibo konkretu baino. Hala ere, kategoria positiboen eta negatiboen ezberdintasuna handiagoa da egunkari ez-abertzaleen kasuan. Kategoria abstraktuen erabileraren kasuan, bi egunkari-motek kategoria negatibo abstraktu gehiago erabiltzen dituzte. Berriro ere, ezberdintasun hau nabarmenagoa da egunkari ez-abertzaleen kasuan. Beraz, alde batetik, bi egunkari-motek deuseztatzen dute ETAri buruzko informazio positiboa, era konkretu batean deskribatuz. Hala ere, joera hori handiagoa da egunkari ez-abertzaleen kasuan. Bestalde, bi egunkari-motek azpimarratzen dute ETAri buruzko informazio negatiboa, deskribapenak abstraktu bihurtuz. Berriro ere, hizkuntza-patroi hori, batez ere, egunkari ez-abertzaleen kasuan agertzen da.

Aztertutako bigarren gaia "ez-abertzale" kategoria da. Kasu honetan, egunkari abertzaleek kategoria positibo konkretu gehiago erabiltzen dituzte. Aldi berean, egunkari abertzaleek kategoria negatibo abstraktu gehiago erabiltzen dituzte. Emaitzen patroi hau egunkari abertzaleen kasuan bakarrik gertatzen da, hizkuntza-soslaia, batez ere, beraiek egiten dutela adieraziz. Egunkari abertzaleek "ez-abertzaleei" buruzko informazio positiboa konkretu bihurtzen dute, horien botere inferentziala gutxietsiz. Aitzitik, "ez-abertzaleei" buruzko informazio negatiboa modu abstraktuan deskribatzen dute, ez-abertzaleen nortasun-bereizgarri parekoak izango direlakoan.

"Abertzaleak" gaiaren inguruan, egunkari abertzaleek informazio positiboa abstraktu bihurtzen dute eta informazio negatiboa konkretu. Hori egitean, norberaren taldea babesten dute. Emaitzen patroi hori, egunkari abertzaleek "ez-abertzale" gaiarekiko zuten diskurtsoaren kontrakoa da. Kasu honetan, informazio positiboa goraipatzen da. Egunkari ez-abertzaleen kasuan, "abertzaleak" deskribatzean informazio positiboa deskribatzeko hitz konkretu gehiago, eta informazio negatiboa

azaltzeko hitz abstraktu gehiago erabiltzen dituztela ikus daiteke. Hizkuntza-soslai horrek "abertzaleak" deuseztatzea lortzen du. Beraz, "abertzaleak" deskribatzean, bi egunkari-motek kontrako patroiak erakusten dituzte, abertzaleek "abertzaleen" taldea babestuz, eta ez-abertzaleek deuseztatuz.

Azkenik, "su-etena" gaiaren inguruan ez da alderantzizko patroirik topatzen. Bi egunkariek kategoria positibo konkretu gehiago erabiltzen dituzte, baita kategoria negatibo abstraktu gehiago ere. Beraz, egunkarien arabera su-etenaren inguruko ezaugarri positiboak ez dira egonkorrak, testuinguruaren eraginez gertatu dira eta etorkizunean iraungo ez duelako inferentzia sorrarazten du. Bestetik, su-etenaren inguruko alderdi negatiboak hitz abstraktuen bitartez azpimarratzen dira, luzaroan iraungo duelako pentsamendua bultzatuz.

Emaitzen taula gaika azaldu bada ere, ez da ahaztu behar esaldiaren subjektua edo gaia aldagaia elkarrekintzan parte hartzen duen faktore bat dela. Horrela ikusita, esan dezakegu talde arteko hizkuntza-soslaia "ETA", "ez-abertzaleak" eta "abertzaleak" gaietan batez ere gertatzen dela. "ETA" gaiaren inguruko hizkuntza-soslaia egunkari ez-abertzaleen kasuan gertatzen da batez ere; "ez-abertzaleak" gaiaren inguruko hizkuntza-soslaia egunkari abertzaleen kasuan gertatzen da; eta "abertzaleak" gaiari buruzko hizkuntza-soslaia egunkari abertzaleen eta ez-abertzaleen kasuan agertzen da aurkako patroietan.

Egunkari abertzaleek eta ez-abertzaleek kategoriak deskribatzeko erabili dituzten balentzia ezberdinetako hizkuntza-kategoria konkretuen eta abstraktuen ehunekoa

		Deskribatutako gaiak							
		ETA		Ez-abertzaleak		Abertzaleak		Su-etena	
		Hizkuntza-kategorien abstrakzio-maila							
Egunkari-mota	*Kategorien balentzia*	Konk.	Abs.	Konk.	Abs.	Konk.	Abs.	Konk.	Abs.
Egunkari abertzaleak	Kategoria negatiboak	50 n=2	50 n=2	48 n=11	52 n=12	75 n=3	25 n=1	25 n=2	75 n=6
	Kategoria positiboak	59 n=29	41 n=20	75 n=3	25 n=1	53 n=9	47 n=8	55 n=12	45 n=10
Egunkari ez-abertzaleak	Kategoria negatiboak	45 n=31	55 n=38	59 n=10	41 n=7	54 n=7	46 n=6	21 n=5	79 n=19
	Kategoria positiboak	90 n=19	10 n=2	60 n=33	40 n=22	82 n=9	18 n=2	61 n=14	39 n=9

Bigarren lan honen emaitzek masa-komunikabideek talde arteko hizkuntza-soslaia betetzen dutela erakusten dute berriro ere. Lehenengo lanarekin alderatuta, hizkuntza-soslaia egoera "baketsuetan" ere gerta daitekeela erakusten dugu. Emaitzetan aipatu bezala, egunkari ez-abertzaleek talde arteko soslaia burutzen dute "ETA" eta "abertzaleak" patroi berdinaren arabera deskribatuz. Hau da, "ETA" eta "abertzaleei" buruzko informazio positiboa konkretu bihurtzen dute eta informazio negatiboa abstraktuago deskribatzen dute. Modu horretan, talde horiek gutxiesten dira. Bestetik, "ez-abertzaleei" buruzko informazio negatiboa deskribatzeko ez dute patroi finkorik erakusten.

Egunkari abertzaleen kasuan, talde arteko hizkuntza-soslaia ere gertatzen da. "ETAri" buruzko informazioa deskribatzean egunkari ez-abertzaleek erakutsitako patroi antzekoa aurkezten dute, baina kasu honetan soslaia askoz ere malguagoa da. "Ez-abertzaleak" deskribatzean hizkuntza soslaitua erakusten dute, horiek gutxietsiz. Bestalde, kontrako soslaia aurkezten dute "abertzaleen" gaian, horiek goraipatuz.

11.4. ONDORIOAK

Atal honetan aurkeztutako lanek erakusten dute masa-komunikabideetan talde arteko hizkuntza-soslaia gertatzen dela. Komunikabideek talde arteko hizkuntza-soslaia burutzen dute bai testuinguru "gatazkatsuetan", hau da, bi talderen arteko oposaketa esplizitua denean, bai testuinguru "baketsuetan", hau da, bi talderen arteko oposaketa su-etenaren garaian gertatzen denean. Beraz, bi talderen arteko oposaketa esplizitua ala inplizitua izanda ere, hizkuntzan islatzen da. Baina ez, ordea, hizkuntzaren edozein ezaugarritan, baizik eta oso sentikorra den hizkuntzaren abstrakzio-mailan. Hizkuntzaren abstrakzio-mailan norberaren taldearen soslaia islatzen da, baita beste taldearen soslaia ere. Alegia, norberaren taldea goraipatzen denean, taldeko kideei buruzko informazio positiboa abstraktu bihurtzen da; norberaren taldeko kideei buruzko informazio negatiboa, aldiz, konkretu deskribatzen da. Aitzitik, beste taldea edo kontrako taldea gutxiesteko, hango kideei buruzko informazio positiboa konkretu bihurtzen da eta hango kideei buruzko informazio negatiboa modu abstraktuan deskribatzen da. Horrelako patroiak azaldu dira lehenengo lanean, zeinu politiko ezberdinetako egunkariek ETAk eta GALek burututako hilketak deskribatzean. Egunkari abertzaleek gehiago gutxiesten zuten GALek burututako ekintza, eta egunkari ez-abertzaleek, bestetik, gehiago gutxiesten zuten ETAk burututakoa. Bigarren lanean, ETAren su-etenaren garaian egunkariek Euskal Herriko hainbat eragileri buruz egindako deskribapenak landu dira. Kasu horretan, patroi esanguratsuak topatu ditugu, batez ere, beste taldeari buruzko deskribapenetan; hau da, egunkari abertzaleek ez-abertzaleei buruz egindako deskribapenetan, alde batetik, eta egunkari ez-abertzaleek abertzaleei buruz egindako deskribapenetan bestetik.

Masa-komunikabideek burututako talde arteko hizkuntza-soslaia beste ikerlanetan ere topa daiteke. Ezagunenetariko bat Maass-ek, Arcuri-k eta Corvino-k 1994an egindakoa da. Bertan hiru lan aurkeztu zituzten, lehenengoa, futbol-albistetan; bigarrena, dendari judutarraren aurkako eraso neonaziaren albistean, eta, hirugarrena, Iraken aurkako gudaren albistean, hain zuzen. Emaitzen arabera, egunkari judutarrek eta ez-judutarrek saltzaile judutarraren kontrako ekintza hitz negatiboekin deskribatzen zuten. Hala ere, egunkari ez-judutarrek hizkuntza abstraktuagoa erabiltzen zuten ekintza deskribatzeko, eta, hala, egilearen nortasun-ezaugarriei egozten zieten gertakaria. Beste lanean, ikertzaileek Golkoko gudari buruzko albisteak aztertu zituzten, hasi zen lehenengo astean eta behin amaitu zenean. Autoreen arabera, guda hasi eta lehenengo astean sortutako albisteetan, Iraken kontrako informazioa zenbat eta negatiboagoa izan, orduan eta abstraktuago deskribatzen zen. Hala ere, behin guda amaituta, Iraki buruzko informazioek ez zuten horrelako soslaia aurkezten. Lan horietaz gain, guk lortutako emaitzen patroi orokorra hau da: talde arteko hizkuntza-soslaia beste zenbait testuingurutan ere lortu izana. Adibidez, Chanek (1996) Hong Kongeko zenbait egunkari aztertu zituen, eta Schmid eta Fiedler-ek (1996) Nurenbergeko auzitegietan parte hartu zuten fiskalen eta defendatzaileen hitzaldiak aztertu zituzten.

Guztira, lan-mota honek ondorio zuzena du: komunikatzaileek, eta kasu honetan kazetariek, dituzten motibazioak eta kognizioak darabilten hizkuntzan islatzen dira; eta hizkuntzaren abstrakzio-mailak entzulerian eragiten du. Hau da, hizkuntza abstraktua erabiltzen denean, entzuleriak, egilearen nortasunari buruzko inferentziak egiten ditu, egileari buruzko estereotipoak mantenduz. Ondorioz, patroi komunikatibo honek paper garrantzitsua du ezagutza politikoaren transmisioan edo helarazpenean. Eragin garrantzitsua du komunikabideen helerazpenak, entzuleria esplizituki jabetu gabe, komunikatzaileek burututako soslaia eragiten dietelako.

